

Jean Pierre Arbelbide

ERLISIONEA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.
Iturria: *Erlisioea: Euskal-Herriari dohazkon egiarik
beharrenak*. J.-P. Arbelbide. Desclée de Brouwer,
1890.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=730>

ERLISIONEA

**Eskual-Herriari dohazkon
egiarik beharrenak**

Heren-Ordreko xehetasunekin
eta Meza-Bezperen olholtzekln.

J.P. ARBELBIDE aphezak egina.

San Agustinen Elgertasuneko
JAUN DESCLÉE, DE BROUWER,
Eta hekien lagunak moldetegian.
LILLE, du Metz karrikan, 41. - 1890.

Mariak lehertuko du suge gezurtiaren burua.

(GEN. 3, 15.)

Oi Maria, Ama guzietarik handiena eta hoberena, othoi onets zazu eta har osoki zuretzat ene liburu xume hau.

Berenaz ahal gutikoa izanagatik, zuk lagunduz egin dezake bere ongi poxia.

Emokozu beraz argi detzan ene herritar Eskualdu-nak. Agian phiztuko du hekien bihotzetan amodio handi bat Erlisionearentzat, Eliza katolikoarentzat, Aita-Sainduarentzat!

Eta hori egiten duen ber, baduket nik ene lanaren-tzat saririk aski.

J.-P. A.

JAUN INXAUSPE BIKARIO-JENERALAREN BAIMENA

Irakurri dugu Jaun Arbelbide Misionesten aintzindariak egin duen liburu bat: *Erlisioea, Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak* deritzana, eta gogotik onesten dugu argitarat eman dadien.

Izigarri da gure denboran ifernuak Erlisioe sainduari egiten dion gerla; ela Erlisioea baita Jainkoak gizonari eman dion tresorik baliosena, premiatsu da ezin gehiago tresor hori gal ez dezagun, eta hortakotz ezagut dezagun bat baxharrik dela Jainkoak eman daukuna, nolakoa den, zer irakasten deraukun eta zoin ontasun handiak dakharzkun mundu huntako eta bertzeko.

Gauza horiek khausituren ditu Eskualdun irakurzaileak Jaun Arbelbideren liburuan. Eta zer atsegina holako eskuara garbiaren irakurtzea! hoin trebeki eta nasaiki Erlisioeko egiarik gorenez mintzo den eskuara!

Gutiziatzeko da beraz liburu hau Eskual-Herriko familia guzietan khausi dadien eta artharekin irakur.

Baionan emana, urtharrilaren seian, 1890.

Intxauspe, Bikario-Jenerala

JAUN BELZAGY DONIANE-GARAZIKO APHEZ-NAUSIAREN BAIMENA

Dontane-Garazin, martxoaren 25an, 1890an.
Ene adiskide maite eta ohoragarria.

Lehen ere banakien zure ahale berri, baina bereziki hainitz agradatu zitzaitan, duela hurbil hirur urthe, argitarazi zinduen liburua: *Bokazionea edo Jainkoaren deya*. Nola beraz ez nintzen lehiarekin lothuko zuk berriki egin eta irakurtzerat eman derautazun liburu huni?

Burutik-buru irakurri dut, eta berehala erraiteko, alegatzen naiz eta bozten liburu berri hori Eskual-Herrian nahi baituzu barrayatu, delakotz gai, ene ustez segurik, ongi hainitzen egiteko helduko den herri eta familia guzietan.

Gu, Eskualdunak, bai sineste egiazkoari atxikiak gare eta maite dugu gure Erlisioea, baina behar dugu ere aithor egin Erlisioe saindu eta eder hori ez

dugula aski ezagutzen, etabereziki gutiz gehienek ez gindakikela erraiten zer arrazoin ezin bentzutuzkoen gainean dagoen bermaturik eta finkaturik.

Bada jakitate horren eskasa eskas handia dela deraukat girisxtino bizian. Erlisioea, haren irakaspenak, non nahi eta nola nahi gezurtatuak eta laidostatuak diren denbora gaitz autabm baitezpadako gauza da girixtinoak izan dezan jakitate behar dena, bai bere sinestean traba eta gudu guzien bortxara hazkar irauteko, bai eta ere beharorduan goraki eta ausarki ihardesteko hari jazartzen diotenen ahopaldi herrebes eta izurritsuari.

Orai arte agertu diren Eskuara-liburuetan, zoinek du erakusten gure Erlisioe sainduaren zimenduak nola diren arrazoinik hazkar eta hoberenez finkatuak? zoinek ditu Jainkoaganik delako frogak xeheki emaiten?

Zuri, zure liburuari esker, Eskualdun irakurtzaileak izanen dire argituak frogatuta eta arrazoin premiatsu horien gainean. Bai, jakinen dute eta frogatuko errexki Erlisioea ezin beharragoa dela, ala Jainkoari zor zaion ohorearen bihurtzeko, ala gizonak elgertasunean bai-eta behextasunean osoki laguntzeko, eta ez dela Erlisioe egiazko bat baizen, Jesu-Kristok irakha-

tsi duena.- Jakinen dute eta frogatuko, alde batetik Jesu-Kristo Jainko dela, bertze aldetik, harek zerutik lurrerat ekharri duen Erlisioea, landatu eta moldatu duen Eliza eta Apostoluek munduaren eskualde guzietarat hedatu dutena, dela Eliza Katoliko-Erromanoa, eta beraz Eliza hori dela baxharrik egiazko Eliza, halako gisan non nihor ezin salba baititake baizen ere haren irakaspen guziak sinetziz eta atxikiz haren manamendu guziak.- Jakinen dute eta frogatuko Aita-Saindua dela, Jesu-Kristoren ordain bezala, Eliza guziaren Aintzindari eta Artzain-nausia, girixtino guzien irakasteko eta manatzeko eskua eta indarra daukana sinesteari eta kontzientziari dagozkoten gauzetan, eta hori den gutieneko enganioaren irriskurik gabe. Hortakots ere Aita-Sainduak behar duela, haren alkhia ezarria den hirian, erran nahi baita Erroman, nausi izan eta errege, ez dadientzat, bere karguko eginbidetan, bera baino nausiago batez izan trabatua.- Zure liburuak irakatsiko dioskate oraino bertze egia frango: halanola fedearen premia guziz-gainekoa; nola guganat heldu izan diren Jainkoak eman egiak eta maniak; nondik heldu den sineste-eskasa eta zer ondorio ikharagarriak dakharzken bizi huntako eta bertzeko; zombat artharekin behar dugun Erlisio-

nea ikhasi eta funtsez jakin, gai izan gaitezen gure sinestea arrazoin zuzen eta hazkarres argitzeko eta finkatzeko.

Horiek guziak erranak dire zure liburuan arthoski, nasaiki, guziek konprinitzeko gisan; dire ere lagun-duak hanhemenka etsenplu eta ixtorio eder irakasmenik zuzenenak eta garbienak argitzen dituztenez.

Es ditut ahantzi behar hemen liburuaren akhabantzan San Frantsesen Heren-Ordreaz eta haren Erregelaz emaiten ditutzun xehetasun ezin gehiago baliosak Heren-Ordreko anaia arrebek probetxu handirekin irakurriko dituste, eta, hobeki ezagutzearekin elgertasun saildu horri darraizkon eginbide eta fagore beresiak, artha eta khar gehiagorekin bermatuko dire hekien arabera moldatzerat beren bizia.

Bertzalde, uste izaiteko da bertzek ere konprenituko dutela Heren-Ordre horren premia, zonbat arrazoinekin gure Aita-Saindu Leone hamahirugarrenak irakatsi duen hainitz gai dela ongirik handienen egiteko: eta ordutik nola ez dire lehiaturen hartan sartzerat, munduaren artean salbatzeko duketen bide hobere-netarik batean bezala?

Hortik, Heren-Ordrea diozkatzunek ere maitaraziko dute, gehiago eta hobeki atxikaraziko gure Erlisio-

ne saindua, jadanik zure liburua hain ongi ederresten duena, erakutsiz hura dela Jainkoaren obrarik espartagarriena, bai eta ongirik handienen eta nasaienenthurria.

Badakit hortan dela zure xede bakharra. Eta hortarakotz diot nik ere: Jainko onak benedikata dezala zure liburu ederra. Hel bedi Eskual-Herriaren bazter guzietarat. Bedi ongi ethorria etxe guzietan; familia guzietan gogotik irakurria, bai eta ere Heren-Ordrearen biltzarretan.

Bai, errepikatzen dut: Zure liburua izan bedi maiz eta maiz goraki irakurra Heren-Ordreko biltzarretan. Hola dute Eskualdunek ikhasiko zer den Erlisioea, zer den Eliza Katolikoa, zer den Aita-Saindua; eta egungo egunean ez da jakitate horiek baino beharragorik.

Belzagi, Apez-nausia

APPROBATION DE MONSIEUR L'ABBÉ DIHARCE, VICAIRE GÉNÉRAL

Cher et vénéré ami,

Au milieu des soucis et des occupations qui vous accablent, vous savez trouver assez de temps pour composer, à l'honneur de notre belle langue et au grand profit de nos compatriotes, des ouvrages religieux où la solidité du fond le dispute à la perfection de la forme.

Il y a trois ans à peine, vous nous avez donné un livre qui est un traité magistral sur la vocation et qui a obtenu les suffrages de tous. Aujourd'hui vous ne vous adressez plus à un public restreint, à des âmes qui peuvent être appelées à une vie plus parfaite; vous parlez au grand public de notre pays, et vous lui faites entendre sur la nécessité de la religion, tant pour la société que pour les individus; sur l'Église catholique qui seule, en vertu de sa divine institution, enseigne et professe la véritable Religion; sur le Pape, chef visible de l'Église,... etc., des vérités fins que jamais indispensables.

En effet, ces vérités étant particulièrement battues en brèche par l'impiété contemporaine, il était opportun de prémunir contre ces attaques l'esprit de nos bonnes populations basques, que l'erreur poursuit jusque dans leurs villages les plus reculés.

Aussi fais je les voeux les plus ardents pour que chaque foyer basque possède un exemplaire de votre bel ouvrage, et que tous, grands et petits, se nourrissent de la doctrine qu'il contient.

Veillez agréer, cher et vénéré ami, avec mes félicitations, - l'expression de mes sentiments affectueux et dévoués.

Bayonne, 13 juillet 1890,

DIHARCE, vicaire général

I - ZATHIA

Erlisioea, baitezpadako beharra

I - KAPITULUA

Erlisioea Jainkoari baitezpada zor diogula

*Erlisioea zer den. - Eginbiderik beharre-
na: Sinestea.- Sinestegabea, zor zayon
bezala gaztigatua.- Obrak ere osoki
beharrak.- Erlisioea Jainkoari baitezpa-
da zor diogu.- Bi Garaztarren eginkari
ederra.*

Zer da Erlisioea?- Hitz hori, *Erlisioea*, erdara latinetik hartua da eta erran nahi du: *bata bertzeari estekatzea, elgarri lotzea, batasunean emaita.*

Erlisioea da beraz esteka berezi bat, gizona bere Jainkoari lothurik deraukana.

Eta bi moldetara gertha daiteke hori. Ezen lehenik Jainkoari esteka gaitezke sinetsi behar ditugun egien eta atxiki behar ditugun legeen bidez. Eta bestalde, Jainkoarekin batasunean eman gaitezke gu-baithako ohidura on eta ekharritasun goraitiar batez, Izaite

Soberano hari zor zaizkon goresteak ekhartzen dioz-kagularik.

Beraz, nola ere hartzen baituzu eta hala, Erlisio-nea daiteke: Edo sinetsi eta atxiki behar diren egia eta legeen bilkhura; edo bihotzeko jarritasun bat, ekhar-tzen gaituena ala Jainkoaren maitatzera, ala haren beldur izaitera, ala gogo onez eta nahikunde handiz besarkatzera harek irakatsi eta manatu gauza guziak.

Erran behar dut oraino Erlisio-ean badirela bi eginkari suerte. Batzu dire Erlisio-ek berak mana-tzen dituenak, hala-nola adorazio-nea, sakrifizioa, othoitza, hitz batez Jainkoaren goresteari hurbildanik behatzen direnak. Besteak aldiz ez dire manatuak, baina halarik ere Erlisio-ek Jainko-ari buruz ibilka-tzen ditu, ez izanagatik berenaz Erlisio-eko urratse-tarik; aria hortaz zion Jaundone Paulok: Beraz, ala jan dezazuen, ala edan dezazuen, ala bertze zerbait egin dezazuen, oro Jainkoaren ospatzekotan egin zaitzue.

Erlisio-eko eginbide horietan beharrena, bertze eginbide guzien erroa eta zimendua, hau da: Fedea, sinestea, Jainkoak bere Elizaren bidez irakatsi egia guzien osoki atxikitzea.

Hortakotz dio teologo handi batek: Sineste zuzene-
nek egiten dute saindutasuna: *Recta dogmata faciunt*

sanctitatem. (B. Alb. magn.) Halako moldez non, ez bazinu egiazko sineste garbi eta hazkarra, debaldetan bailitezke gainerateko zure entsegu eta eginkari hoberenak.

Egia da bai sinestegabeak ere obra onak egin dezazkela, baina ez daiteke salba, ez daiteke saindutasunerat hel. San Hormisdas Erromako Aita Sainduaren errana da hori: *Prima salus est rectae fidei regulam custodire et a constitutis patrum nullatenus deviare*. San Damiano Elizako Dotorrak ere hola-hola dio. Eta berdin oraino bertze Dotor batek, San Bonabenturak.

Jainko maiteari esker, bethi osorik eta hazkarrik dago Eskualdunen sinestea. Baina gure sineste zahar horri etsai frango jazartzen ari zaizko; geroaz beldurtzeko dugu.

Gaxtaginen ausartzia emendatzearekin, agian Eskualdunen zuhurtzia ere emendatuko da; eta beldurtzetik urrun, sineste katolikoaren etsayeri behar den kopetarekin ihardokiko diotegu. Bertzela ere ez da gaitz sinestegabeari buru egitea. Nihonek ikhusi gerthakari huntarik ikhusiko duzu.

Huna beraz zer gerthatu den berriki gure eskualde hotan; bitxi bezain eder eta aiphagarri da.

Mauleko merkhatutik etxerat heldu ziren bi Etxeko-Jaun; bat arras gaztea, bertzea berrogoi eta harnar urthetako gizon erne biphil bat, eta biak Bithirindar eskualdun garbiak.

Maulen hartu zuten burdinbidea. Ez ziren bakharrik; hekiekin heldu ziren bospasei emazte.

Handik hirugarren trikaldian jiten zayote gizon lodi phizu bat, sua bezain gorri eta heinbat arnotua. Sarthu deneko abiatzen da erasian, bainan nola? ahopaldi tzarrenak aurthikiz.

Lehenik zer-nahi erraiten du Aita-Sainduaren kontra, Eliza Katolikoaren kontra, bai-eta Jainkoa beraren kontra.

Eta nola Erlisioneari jazartzen zayona bertze putzu batetarat erortzen baita laster, gure gizon hori abiatzen da lohikeriazko elhe lizun ikharagarri batzuen erraiten.

Ixilarazi nahi dute; ez da borthizten beizik. Zikhinkeria goitika eta aho-traka dario.

Bainan han zen Bithirindar Etxeko-Jaun erne biphila. Arbutiko trikaldira jo duteneko, jausten da eta oihuz abiatzen; Hel! hel! Azienda beltz handi bat barnerat sarthu zauku? Athera zazue laster hemendik! Oro zikhintzen ari ditu!

Jende multzo bat biltzen da; ikhusten dute gizon gorri lodia solas ikharagarrienak dabiltzala irri karkailaz.

Berehala nor den ezagutzen dute, eta guziek balsan: To! hori dea? Leheneko bera orai ere: *xazko astoak aurthen ere orro!*

Kanporat khentzen dute, gibel aldetik ostiko zonbait emaiten, eta oihu kalapitan dagoela bere gisa uzten.

Holaxet gaztigatu behar litezke horrelako guziak. Erran-zahar batek dio: *Berho eta sasi zailari aihotz zorrotza*. Jo beraz hazkarki holako solasetan ausart eta trebe direnak. Hekien ixilaraztea, izurritearen eta ustelduraren khentzea da.

Garbitasun sailduari bihotzez atxikia den arima, demendren gogoeta lohiak harritzen du; are gehiago izutu behar gaitu Fedearen kontrako demendren gogoeta, elhe edo eginkariak. Orhoit bethi egia handi huntaz: Salbatu nahi denak behar du, oroz gaisetik, osorik atxiki sineste katolikoa.

Bainan ez dago sinestean baxharrik egiazko Erlisioneak. Sinestearekin behar dire egintzak, obrak. Horrela dio San Bonabenturak: *Fides debet esse solida in credendo vera fideliter, et magna in operando*

ardua viriliter. Eta berdin Hugo kardinalaek ere: Erlisioea bi gauzetan datza, sineste zuzenean eta bizitze onean: *Christiana religio in duobus consistit: in sanctitate fidei et in bonis moribus*.

Nola beheraxago ausarki mintzatuko bainaiz egia hunen gainean, ez dut hemen gehiagokorik aipatu nahi.

Bakharrik diot orai, bi hitzez: Erlisioe hori baitezpadako eginbidea dela Jainkoari buruz. Bai; eta hori manatzen deraukute: 1^o ikhusten ditugun gauza edo kreaturek,- 2^o gure jite eta jaidura onek,- 3^o Jainkoari zor diogun ezagutzak,- 4^o Jainkoaren osogune edo perfetasun soberanoak,- 5^o Jainko horrek, gu egitearekin, izan duen xedeak.

Gizonek bethi begien aintzinean ukhanen dituzte zerua, lurra, itsasoa, hetan diren hanbat gauza eder eta iragaten diren hanbat gerthakari handi. Eta horietan orotan kausituko dituzte, baldin beren adimenduaz den gutiena baliatu nahi badire, Jainkoaren handitasuna, haren botherea, haren zuhurtzia, haren ontasuna.

Jainkoak leihorrari dio: ekhar dezan bihia,

*Eta berehala egiten du haren nahia.
Hark berak estaltzen dito zelhayak elhur xuriz,
Hala nola ardi bildots maltsoak ile guriz.
Hark berak oraino lanhoak altxarazten,
Eta lurraren gainean hauts bezala hedatzen.
Hark igortzen ditu horma kristal iduriak,
Hark neguan haize eta horma ikharagarriak.
Hego beroa du gero bere mugan bidaltzen,
Eta elhur eta hormak uharretan igortzen.*

Horrela da Dabid erregea bere Psalmoetan mintzo Jainkoaren handitasunez eta gure alderat agertzen dituen emaitza eta ontasun ederrets garriez. Bai, bai, errepikatzen ahal diogu Jainkoari, Dabid beraren hitza: Ongi suerte guziak egiten diozkotzu gizonari.

Eta horiek begietsi-eta, nor dogoke zeru-lurren egile eta nausi soberanoa ederrets gabe? Nor dogoke hari bihurtu gabe ahal dagizkion agur, othoitz, ospe eta maitatze khartsuenak?

Isaias proletak dio: Jainkoari bihotzez daudenek emendatzen ari dute bethi arimako indarra, eta arranoak iduri, hek bezala hegalak zabaldurik, zalhu eta hazkar altxatzen dire zeruetan gora.

Jainkoak berak du holaxet gure arima arranoaren iduritan ezartzen. Eta guziek badakigu arranoa dela hegastinetan hazkarrena, zalhuena, gorenik airetan altxatzen dena, iguzkiari bekhoz-bekho eta durduzarik gabe so egiten diona, eta haren argiari barna sarthurik, iguzki hortan igerika bozkarioz dabilana.

Berdin zayo gerthatzen gure arimari. Baldin ez bada bere nahitara makhurtzen, baldin ez baditu berak izpirituko eta bihotzeko hegalak hausten, ai orduan Jainkoarenganat altxatzen da, orduan bere baithako jite on eta goraitiarrek Erlisionekeo sinesterik ederrenetan finkatzen dute.

Erranen duzu menturaz Jainkoak ez duela gure ohoreen beharrik. Hala da; eta nork egundaino bertzerik eman dio gogoari?

Bainan Jainkoa zuzentasuna bera da, eta baitezpada nahi du bakhotxak bere eginbidea arthoski bethe dezan. Eta ez othe da meneko baten, eta bereziki bere izaitea bera bertzerenganik deraukan baten eginbidea, bere nausiari eta egileari ohore eta jauspenerik ekhar dezon?

Beraz zuzentasunak galdatzen du Jainkoa gorets dezagun eta gauza guzietan haren nahiari eroriak izan gaitzen.

Norbaitenganik ongi handiak izan dituenaren egin-bidea ez othe da bere ongi egileari eskerrak ematea eta harenganik derauzkan ongien arabera maitatzea?

Bai, zuzentasunak galdatzen du Jainkoari eskerrik handienak bihur diotzogun. Ezin erran bezenbat ongi egin derauku, eta bethi egiten ari zerauku; diotzogun ordainez eman gure bihotzetako ahal guziak.

Eskual-Herrian nork ez daki Jainkoa dela gauza guzien gaineko izaite soberano bat? Mugarik ez du Jainkoak bere osogune edo perfekzionetan; izaririk gabe handia da, zuzena, ederra, ona; deusetan ez du demendren eskasik.

Eta hortakotz, maitagune eta amodio guziak, goreste eta ohore guziak zor zaizko. Eta baldin, norbait ederrik, onik eta aberatsik ikhusten dugunean, hari agur eta ospe emaiterat ekharriak bagare, zonbaitz hobeki ez ditugu agur eta ospe berak irakatsi behar Jainkoari, edertasun, ontasun eta osogune guzien ithurri nasaya den Jainkoari?

Hori bera bilhatu ere du Jainkoak; eta zer diot? baitezpada hori behar zuen bilhatu noiz-ere munduarekin batean gizona egin baitzuen. Ezen ohart huni:

Jainkoa da izaite bat mugarik gabe handia eta zuhurra; beraz, egin dituen gauza guzietan xede bat ukhan du bere handitasunari eta zuhurtziari zagokon bezalako, erran nahi baita izarigabea; eta ez daiteke izan Jainko bati dagokon bezalako xederik, xede izarigaberik, Jainkoa bera baizen.

Hortakotz, Jainkoak egin dituen guziak beretzat egin ditu, bere ospearentzat, bere gorespenarentzat. Eta nola baita gauza eta izaite guzien lehenbiziko ethorburua, hala-hala behar da izan hekien azken helburua. Baitezpadako legea edo zuzena da hori. Hala dio gure adimendu xoilak berak, eta Izpiritu-Sainduak irakatsi ez balauku ere, ezagut ginezake Jainkoak egin dituen guziak beretzat egin dituela: *Universa propter semetipsum operatus est Dominus*. (Prov. 16, 4.)

Beraz, gure izaitetik ezin berex daiteken eginbidea da Jainkoari ahal dakion ohore edo Erlisioe guziaren bihurtzea.

Erran dut gure gorphutza baliaraz behar dugula Jainkoaren goresteko. Eta hala da. Ezen, arima bezain ongi, gurphutza ere Jainkoarenganik dugu. Eta beraz kanporat agertzen ditugun Erlisioezko urratsak: zeinatze, belhaunikatze, elizarat biltze, eta bertze asko eginkari, gure gorphutzen egile eta jabe soberanoari

eskeini behar ditugu. Aingeruek izpirituz bakharrik Jainkoa ohora dezaten, hori aditzen da, ezen berak izpiritu huts batzu dire, ez dute gorphutzik. Gizona ordean arimaz eta gorphutzez egina da; bata bezala bertzea ere Jainkoak emanik ditu; eta beraz bata eta bertzea Jainkoaren goresteko eta ospatzeko baliarazi behar ditu, eta nola barnez, kanpo ere berdin ohore zor dio.

Eta hemen erran behar dut, kanpo Jainkoari zor diogun goreste hoberenatarik bat dela eginkunde ona, karitatea, beharreri emaiten den laguntza: *Eleemosyna est Deo odor suavissimus et hostia gratissima.* (Dionysius Carthus).

San Frantses Asisekoak noiz-nahi errepikatzen zioten Italiako bere herritareri: Eman ausarki beharreri jatekoa, edatekoa, beztitzekoa, ezen beharreri egin laguntza, Jainkoari egina da eta ez diozute eskeintzen ahal ohore eta ospe baliosagorik: *O homo, eleemosynam pauperi elargire, per quem illam tribuis Creatori.*

Eta lehenago San Augustinek erraiten zuen, beharreri egin emaitzak iduri duela, aphezak aldarean Jainkoari egiten dion emaitza, egiazko sakrifizioa, gure Jainkoari eskein dezakegun govesterik handiena;

Sacrificium christiani est, eleemosyna in pauperem.
(Homil. 29.)

Nahi dut hemen, egia horren irakasmenetan agertu, gure Eskual-Herrian berriki gerthatu den eginkari eder bat.

Bi gizon gazte, biak garaztarrak, bazoazin Doniaine-Garazitik Urruñara, pilota partida baten ikhusteko ariaz.

Horrek baduke orai hogoibat urthe.

Denbora hetan, Hazparnen gaindi zohan Garazitik Laphurdirateko karrusa. Bayonarat orduko bazituen bethi arratseko hamar orenak bederen.

Gure bi Garaztarrak Bayonan sartzen dire beraz ilhunarekin, hamarretako irian; eta karrusatik jautsi direneko, ostaturat kuxian abiatzen dire.

Karrika bethean dabiltzalarik, horra non hama-bortz urthetako neska bat hurbiltzen zayoten erranez:

Othoi, Jaunak, karitate zerbait egidazue Jainkoaren izenean!

Eta bi gizon gaztek berehala:

Tenore huntan, haurra, nolaz zabilta eske?

Eta harek: Ai Jaunak, ez dakit!... enetzat bethi gaua da eta gau beltza!... Aita ohean dut eri, eta ez diot deusik emaiten ahal, ezen deusik ez dut! Ai harek

ez daut ez galdatzen, bainan badakit goseak hiltzen ari duela. Atzo argi bat karitatez izan ginuen, eta gelan phizturik atxiki dugu; bederen atsegin zerbait baginuen, harek niri beha, eta nik hari! Bainan erre da argia, ez da ilhunberik baizen gure etxean; eta orai, Aitak ikhusi gabe, hunat atheratu naiz zerbaiten eska-tzera Jainkoaren izenean!...

Eta hori erranik, nigarrari eman zen haur gaixoa.

Bi gizon gaztek orduan elgar behatu zuten; niga-rrrez zauden hek ere! Eta erran zioten haurrari:

Horra zombait sos, zoazi lehenbisiko saltzailera, eros behar duzun argia, eta gero zure Aitarenganat eremanen gaitutzu.

Argiak erosi-eta, haurrak bere etxera bidatzen ditu bi gizon gazteak. Eskaler txar bati gora igaiten dire, ganbaran sartzen, eta ikhusten dute eri bat, ohe bulu-zi baten gainean hedaturik.

Bere alaba ikhusi dueneko, Aitak botz erdi-hil dar-dara batekin erraiten dio:

Maria, non othe zinen?

Eta orduan bi gizon gaztek:

Gure bilha zabilan; eta zu, adiskidea, nola zare?

Ai ni, guziek hemen ahantzia, dio eri dohakabeak.

- Nondik duzu min?

- Ezindua naiz eta goseak hiltzen ari! Bi gizon gazteak berehala jausten dire karrikara, ostatura dohasi, jendeak ernarazten dituzte eta eriarri igortzen salda, arnoa eta ahal diren onkhailu guziak.

Karitate eder horren ondotik egin zuten arratseko othoitza. Hekien loa, gau hartan, zeruko aingeruek zaindu zuten; eta biharamunean, atzarri zireneko, huna Jainkoak zer eman zioten gogora.

Geihenak erran zion bere lagun gazteari:

Utz detzagun hor pilota-partidak eta bestak. Huna zer egin behar dugun hik eta nik Jainko maitearen ohoretan. Libertitzeko xahutu behar ginituen diruak, atzoko gizon eriarri eman detzagun, eta Urruñako beztarat joiteko orde, itzul gaitezen egun berean gure herrirat, Garazirat.

Erran bezala egin zuten: Eriari beren sosak eman, eta ixil-ixila, biak etxerat itzuli.

Eta orai nola behar dut erran eriazen eta haren alaba gaixoaren bozkarioa? Oi! gelditu ziren bai hekien nigarrak. Bi gizon gaztek eman diruarekin bazuten ausarki eritasunaren ongi arthatzeko ahala. Eta handik zombait egunen buruan, igande goiz batez, Maria eta haren Aita bazoazin biak elgarrekin Mezaren entzutera; eria sendotu eta hazkartu zen.

Aita-Jainko Semearekin
Higual dugu adoratzen,
Izpiritu-Sainduarekin
Hirurak berdin othoizten;
Jainko bat hirur Presunetan
Goraki dugu kantatzen,
Menderen mende guzietan
Duela erreginatzen.

II - KAPITULUA

Elgarrekilako gure bizitzeak galdatzen duela Erlisioea

Nihori ez egin, hek guri egitea nahi ez dugunik, eta egin bertzeri hek guri egitea nahi ginituzken guziak.- Horren eskasean, hainitzek ez dutela itxurazko Erlisioe bat beizik.- Erlisioeak nola manatzen duen jauspena buruzagien alderat.- Berdin buruzagieri amodioa menekoen eta erromesen alderat.- Eskualdun eta Girixtino.- Erlisioe gabea, aberea.- Arrazoina eta legeak, Erlisioea gabe, gauza alferrak.- Zer denbora hitsean garen.

Gizonz egina da, baltsan eta lagunekin bizitzeko, eta ez bere gisa, bertzetarik behex.

Elgarrekin bizitza gaxharzketen, bai gure baitarik dugun pendura eta jite sortzeko batek, bai asko gauzetan ikhusten dugun elgarren laguntza beharrak.

Bainan elgarrekilako bizitze hortan deus onik izaitekotz edo arrimu on batean ibilkatzekotz, premia da bat-bederak bertzeren alderateko eginbideak betha detzan: buruzagiek lege on eta zuzenak ekhar detzaten, bai eta atxikaraz behar den zintasanarekin, agertu gabe batzuekiko ikhustate sobraniorik eta bertze-erendako aiherkunderik; premia da menekoek buruzagieri jauspena ekhar diozoten eta hekien nahiak art-hoski begira detzaten; premia da gauza sakratu batzueri bezala beha dezagun batak bertzearen zuzeneri, eta ez dezagun elgarri den gutieneko bidegaberi egin; premia da, hitz batez, gure lagun guzien alderat atxik dezagun, adimendu xoilak berak paganoeri irakatsi deraien egin-molde hau: Nihori ez egin hek guri egitea nahi ez dugunik, eta egin bertzeri hek guri egitea nahi ginituzken guziak.

Horra bada zertara behartzen gaituen Erlisioneak. Eta nola? Hari beizik emana ez zaion indar gozo eta guziz hazkarrarekin.

Handizki nork bere buruaren itsutzea eta gauzak arras gaizki aditzea laiteke, uste izaitea Erlisioneak

datzala bakharrik Jainkoari berenaz dohazin eginbideen bethetzean; eta hori, lagunen, buruzagien, menekoen alderakoez konturik iduki gabe.

Horrelako ustea lukeenaz dio Apostolu batek: Ez du harek Erlisoneko itxura hutsik baizen: *Hujus vana est religio.* (Jac. I, 26).

Erlisoneak gizona Jainkoari iratxikitzen du, lehenbiziko eta guzien gaineko izaiteari bezala; eta Jainkoari ohore emaita bilhatzen duen phondutik, gizona ezartzen du Jainkoaren manu eta nahi guzien bethetzeko xedetan, zeren bertzela ez bailiteke Jainkoaren egiazki ohoratzerik. Eta diot, behin xede hortan den gizona, ordu beretik ekharria dela, hala-nola Jainkoaren alderako eginbideen ongi bethetzerat, berdin lagun alderako atxikitzerat ere.

Ezen, lagun alderako eginbideak Jainkoaganik heldu dire, beren lehenbiziko ithurburutik bezala. Jainkoaren nahi hertsia dire, elgarrekin bizitzeko egin gaituenaz geroz.

Hortik Jaundone Paulok lehenbiziko giristinoeri egiten zeraien Jainkozko irakasmena: Nor-nahi, buruzagien eskupean ethorkor egon bedi: *Omnis anima protestatibus sublimioribus subdita sit.* (ad Roman. 13, 1.)

Eta hori ez xoilki gizonagatik eta gaztiguen beldurrez, bainan Jainkoagatik eta arimako eginbidez: *Prosper conscientiam.*– Ezen buruzagitasunik ez da Jainkoarengatik baizen; eta Jainko handi horren nahia da buruzagien manu guziri agur eta jauspen ekhar dakioten.

Beraz, nausieri jazartzen denak, Jainkoaren nahia hausten du eta bethiereko zorigaitza bere gainerat eror-arazten: *ipsi sibi damnationem acquirunt.*

Hori da Apostolu handiaren irakaspena, Jesu-Kristo berak ere lehenago hitz hotaz irakatsi zuena: Bihurrozue Zesari Zesarena, eta Jainkoari Jainkoarena.

Hola-hola buruzagieri ere Erlisioneak manatzen diote beren menekoen alderat eztitasuna, artha, amodioa; berdin aberatseri beharren eta erromesen alderat. Huna zer dion Izpiritu-Sainduak:

Zure ogitik hautsozu gose denari; beharrak, eta norat bil ez dutenak sarraraz zaitzu zure etxean; norbait ikhusiko duzunean biluzik, estal zazu, eta ez arbuia zurekin haragi berekoa den laguna.

Gose denaren gainera ixuriko duzunean zure bihotza, eta eskasetan denari nasaiki emanen diozunean, oi! zuretzat ilhunbeak ere argitarat itzuliko dire, eta gauak iduriko du eguerdi bethea; eta Jaunak emanen

darotzu phausua bethi, eta bere dirdirez betheko du zure arima, eta zure hezurak egun batez phiztuko ditu, eta izanen zare baratze urstatu bat iduri, ezin agortuzko ithurri aberats batez oro asea eta gizendua.

Ezin ukhatuzko egia da beraz, ez daitekela Jainkoa ohora berak nahi duen moldean, non ez ditugun bethetzen elgarren alderako eginbideak. Eta baitezpada-ko egia da Erlisioneak, ongi aditua den ber, besarkatu behar dituela, Jainkoaren alderako eginbideak bezala, lagunen alderakoak ere.

Emazu gizon bat, Errelisionea duena, Errelisione-ko egiez hunkitua dena, hek begiratzen dituen bere bizi-moldean, eta erranen derauzut gizon hori dela alde guziz zuhur eta prestua, ximena, buruzagien alderat ethorkor, menekoentzat zuzen eta ezti, burhasoentzat on eta arthatsu, adiskideentzat zin eta iraunkor, etsaientzat jasankor eta maltso, beharrentzat emaile eta jeinutsu; hitz batez, Eskualdun eta Girixtino.

Nola eta zertako horiek guziak? A! hola baita Jainkoaren nahia, eta Erlisione duena, Jainkoa zinez ohoratu nahi duen phundutik, horietarat guzietarat ekharrria izanen baita.

Oi! zoin dohatsu laiteken lurraren gaineko bizitzea, guziak Erlisoneko muin eta bihotz hortaz betheak bagine, eta hartaz bidatzen bagine!

Nork ez luke egiteko ukhan nahi holako gizon batekin? Nork ez du goretsiko eta maitatuko? Gaxtaginek berek, bai eta Erlisoneaz ukhatu dutenek eta hartaz burlatzen direnek, hobeki baliatuko dute beren egitekoetan, gizon hori, ezenez Jainkoa eta Erlisonea bazterrerat utziak dituen bat.

Bai hola da. Jainkoak gizonaren bihotzean hain barna ezarri ditu Erlisoneko erroak, non haren argieri begiak hesten dituztenek ere, lekhukotasun eman behar baitiote, bortxaz bederen. Erlisone horren indarrari eta edertasunari, horrelako girixtino onak ikhusiz geroz.

Bainan Erlisonea khen bedi gizonen artetik, ai laster suntsituko dire gutarteko arrimu on, zuzentasun eta gozo guziak. Nolaz daiteke bertzela? Alabainan, Jainkorik ez dela bere buruari emaiten dion bat, edo Jainkoak ez duela axolarik ongiaz ala gaizkiaz, edo lurrean zernahi izanen bada ere bertze bizitzerik ez dela, edo prestuak ez duela ukhanen saririk ez-eta gaxtoak zigorradarik; bai, holako gizon bat zerik atxiki-ko du bere eginbidean?

Ai! deusek, deusek! Abere basak bezain borthitz eta muthiri, holako gizona ez da bere jaidura tzarrerri beizik jarraikiko. Harentzat ez da gehiago izanen legerik ez eginbiderik. Oro hautsiko eta ostikatuko ditu.

Eta hemen ez othoi erran, horrelakoa bere arrazoinak eta berenaz duken zuzentasun batek begiratuko duela.

Nork ez daki gure arrazoina, bereziki bekhatuaz goibeldua denetik hunat, zoin laburra den bere ezagutzetan, zoin errexki hartzen dituen ilhunbeak argiarentzat? Nork ez daki gure jaidurek zoin laster makhurtzen duten bururik hoberena, eta gauza baten hirritz handia duenak zonbat estakuru asmatzen dituen sinesteko gutizia hura on dela eta zilegi? Nork ez daki, arrazoina garbiki mintzo denean ere, zoin herbail eta labur den?

Huna zer irakurtu dutan berriki eskualdun egunkari edo kaseta batean.

Mila zortzi ehun eta berrogoi eta zortzian mintzo ziren hanitz, eta asko buru makurrek sinhetsi zuten, bertze itxura gabeko gauza zonbait bezala, ontasun eta lur guziak izan behar zirela oren artean bardin zathituak.

Gizontto bat, zoinak ez baitzuen deus galtzekorik zathitze hortan, oihuz galdatzen zuen gauza hori. Arras untsa ezagatzen zuen bertze gizon batek kaustitzen du Bordelen, eta erraiten dio: «Gizona, zer ari zare hemen? ez dakizu bada zer pasatzen den zure herrian? Lurren zathitzen ari dire eta ontasunen, eta bakotxari emaiten diote gutiziatzen duen zathia.»

Gure gizonak entzun dia bai hori, horra non berehala partitzen den Bordeletik eta ahal bezain laster, izerdi uharretan, jiten den herriko Jaun Merarengana.

«Jaun Mera, dio erraiten, biba Errepublika! Aspal-dian egun hunen beha nindagon. Ontasunen zathitzen ari omen zaitezte. Plazer zinueka niri eman ene baratzearen eskuneko aldean den lurra?»

Jaun Merak berehala ikusten du norekin duen aferak. Serioski hartzen du errexistro bat eta alegia xerkatu eta bulta baten buruan erraiten dio: «Ene gizona, berantxe heldu zare, untsa pena dut; baina lur hura emana dut bertze bati.»

«E bien! hura ez badezaket izan, eman ezadazu beraz baratzearen ezkerreko pentze edo sorho handiaren erdia.»

«Hauxe da bada! dio Jaun Merak, ez duzu xantzarik; pentze hura ere emana dut. Eta gehiago dena,

pentze hura izan duenak *izan du ere zure baratzea eta etxea!*»

«Zer! ene etxea eta baratzea ere harendako direla? Den bezalako frikuna, ez dut bada uste!»

Eta hortan gure gizona atheratzen da furiarik handiengan, badoha etxera, hartzen du harma, eta gau eta egun egiten du guardia bere ontasunaren beiratzeko nagusi berriaren astaparretarik.

Bixtan da galdu zuela bolbora ela denbora. Nihor ez zen jin.

Eta nik diot gizontto haren iduri frango balitekeela bazterretan Erlisionerik ez balitz.

Eta gu baithako zuzentasunak? ai indar guti du gizona bere eginbidean atxikitzeko! Gertha dadiela zerbait hersturetan: edo adiskidetasunak, edo beharrak, edo gora nahiak, edo norbaiten kontrako sumindurak, edo bertze horrelako zerbait hirritsek bihurdi-katuko dute zuzentasun hori, bere eginbidetik aldara-ziko dute.

Legeek atxikiren othe dute gizona bere eginbidean?

Bainan legeek berek indar guti dute, baldin ez bada nausi goragoko bat ezagutzen, lege hekien begi-

ratzea manatzen duena, eta ez bagaitu Erlisioneak ekhartzen lurreko nausi hekien nahiari jarraituz.

Hori gabe, bortxaz eta gogo gaxtoz ekharriko du gizonak lege hekien uztarri phizua. Ahal dakion guzian urrunduko da hetarik. Bai eta, zoriak emaiten badio eta ahala balin badu, altxatuko da goraki legeen eta lege egileen kontra.

Horrengatik lege-egile zuhurrek bethidanik Erlisio-nea iduki izan dute gobernu on guziaren zimendutzat; eta aldiz haren eskasa gobernoaren zorigaitzik handienarentzat.

Huna zer dion pagano batek: Erlisio-eari jazartzen denak, gure elgar-arteko bizitze guziaren zimenduak ditu errotik inharrosten: *Omnis humanae societatis fundamentum convellit, qui Religionem convellit.*

Bertzela ere legeak ez dire heldze gaizki handien-entar beizik. Eta hek ere ez ditu gaztigatzen non ez diren ageriak eta lekhukoz irakatsiak.

Horra beraz non zuzentasuna, leialtasuna, ones-gunea, elgarren baithako fidantzia, hitz batez gizonak elgarrekin bizitzean kausi detzaketen on eta gozo guzia suntsitzen diren lurraren gainetik, Erlisio-nea bazterrerat utziz geroz.

Oi Frantzia! oi mundua! oi mende guziak! sekulan ez ahal zaitzue ahantziko hemeretzigarren mende hunek irakatsi derautzuen! Argituak direlako zoro batzuek jazarri diote Elizari, irakasten dituen egieri, manatzen dituen eginbideri. Eta jende arruntak, haize guzietarat hain errexki itzultzen denak, sinetsi ditu nausi zoratu hek. Eta gero zer gerthatu da? Gerthatu behar zena, eta gerthatuko zela zuhurrek aitzinetik asmatzen eta gora erraiten zutena.

Ez, egundaino asmularien errana ez da hain egia agertu.

Duela hogoi bat urthe iraganik, Frantziak Aita-Sainduaren buluzterat utzi du Italia. Hori izan da gizonak Elizari, Erlisioneari, sekulan egin dioten kalte handienetarik bat. Eta geroztik Jainkoaren zigorrak badabiltza Europako eskualde gehienetan, eta guziz gure Frantzia maite auhendagarrian.

Elizari egin dion kalte handi horrengatik, Frantziak jasan ditu, bertze asko gaztiguen artean, bi zafraldi guziz borthitzak. Lehenik, etsaiak bentzutu diozka bere harmada ederrak eta bi probintzia ebatsi. Eta bestalde, ber-berak Pariseko hiri nausian asaldura eta desmasia gaitzak ibili izan ditu. Erran daiteke heriotzea jabetu zela Pariseko hiriaz; eta zer heriotze? nor

bere buruaren kontra, burasoak umeen eta umeak burasoen kontra, haurrideak haurrideen eta adiskideak adiskideen kontra harmatuak, eta Parise guzia egiazko hilerri handi bat egina!

Irakaspen ederra, mundu guziari irakasteko Erlisionerik ez duen gizona, eta guziz haren kontra jazarzterat atrebitzen dena, dela elgarrekilako bizitzearen etsairik eta zigorrik izigarriena.

- Eta xehetasunetan sartzeko:

Irakaspen ederra zuentzat, sehi beharretan zaretenak, sentiarazi behar derautzuetena, guzien gaineetik Erlisioea bilhatu behar duzuela sehitzat hartu nahi ditutzuenetan.

Irakaspen ederra zuentzat bertzeren menean bizitzeko zaretenak, ahalaz ihes egin dezazuen Erlisioe gabeko nausietarik.

Irakaspen ederra zuentzat, burasoak, baitezpada ekharri behar zaituztena zuen umeak girixtinoki altxazterat, nahi baduzue Jainkoaren bideri jarraik ditezen, zuentzat ere ager ditezen ume onak eta jendeen artean zuzen, prestu eta ongi ikhusiak.

Irakaspen ederra zuentzat, jende gazteak, premia osoki handiagotan iduki behar duzuela Erlisioea, ezezez sortzea eta ontasuna, hartu gogo duzuen espos

laguna baithan, nahi baduzue lurrean ikhusi egun gozorik.

Hitz batez, sekulan ahantzi behar ez den irakaspe-na, Erlisioez axolarik ez duenaren gainean, nihor gutik sinets dezakeela.

Eginbide guzietako premiatsuenaz, erran nahi da bere Jainkoari zor dion ohoreaz, ez badu axolarik, nolaz izan dezake gizonaren alderako eginbidez?

Ai! ez beha holakoari. Baldin zerbait ohore-guti-ziak, zerbait ontasun-gutiziak, zerbait atsegin-guti-ziak, edo zerbait gaitzen beldurrak hala galdatzen badio, salduko du adiskiderik minena, ahiderik hurbi-lena.

Ez dugula beraz zeren fidatu Erlisioez eta haren eginbidez konturik ez deraukanaren gainean!

Erlisioez axolarik ez duenak, ez dezake deus bertzerik, baizik ere bazterrak oro nahas eta fundi. Eta zertako? Zeren-eta azpiz gora itzulikatzen baititu gauza guziak. Halako moldez non, Jainkoa behar den tokian nahi baitu harek eman gizona bere urguluare-kin; buruzagia behar den tokian menekoa bere bihurrikeriekin: aitaren orde haurra, nausiaren orde sehia!... Ez, ez othoi, ez detzagun itsuak har argien gidari! Huna zer dion Neurthitzlariak:

Zorigaitz beraz segurki
Jende edo populuari,
Buruaren plazan buztana gidari
Nihoiz hartzen duenari!
Falta ez dakioke hari
Trunbilka itzuliz-itzuli,
Ondikoz-ondiko bethi,
Goatea airoski beheiti,
Duken artio azken lezea arras hunki:
Itsua eman baitu argien gidari.

Eta hau da guretzat auhendagarri, Erlisioeak orai arte ez baitzuen Eskual-Herrian demendren khordokarik jasan; - bainan ja ikhusten baitugu bihotzmin kharatsekin, Frantzia guzia khutsatu duen izurri galgarria Eskual-Herrirat ere hedatzen ari.

Gure artean ere badire buru itzulikatuak, Elizari zor zaion jauspena ukhatzen baitute; asko egia premiatsu dudan ezartzen, bai-eta goraki gudukatzen baitituzte. Eta hori, egiazko girixtinoen eskandala handitan eta Eskualdun izenaren laidotan. Ezen, Eskualdunen ospe berezia da, behin fedez argituak izan direnetik hunat bethi hartan zin egon baitire.

Bizkitartean ez da zeren dudatu, izurri gaxto hori hainitz eta hainitz emendatu dela azken urthe hotan. Zoazi Eskual-Herriko ostatuetara, merkhatuetara, bertze asko bilkhuretara, ikharatzeko elheak entzunen ditutzu. Frangotan ahopaldi hetarik iduri luke ez garelaz ez lur girixtinoan, bainan zerbait herri pagano galduetan.

Halarik ere, Frantzian gerthatu nahaskerien ondolik eta ikhusiak ikhusi, Eskual-Herriak oraino ez du zeren lotsatu.

Egia da Jainkoak zehatu duela gure erresuma maittea, Frantzia, eta hori gu guzien gaxtakerien gatik; bainan nola Jainkoari askotan lakhet baitzaio gaxtagineri ere ongi egitea arima prestuakgatik, entzun ditu Eskual-Herrian hanbat eliza-gizon khartsuen, hanbat komentuetako Jesusen espos garbien, eta munduan berean sainduki bizi diren hanbat Kristau onen othoitz eta errekerimendu minak; entzun ditu, Eskual-Herriak zeruari eman diotzan hanbat Saindu handiren, Santa Riktruda Garazikoaren, San Iñazio Loiolakoaren, San Frantses Zabierekoaren, eta bertze askoren othoitz beroak; guzien gainetik Jesus behatu zaio Eskualdunen Ama berezi-bereziari, Andredena Mariari; - horien guzien ariaz eta bere urrikalmendu neurri gabeaz,

athera gaitu sobranioko kalterik gabe, bertze asko herri arras galdu dituen uholde gaitz hortarik.

Dela beraz Jaunaren izena menderen mendetan benedikatua: *Sit nomen Domini benedictum, ex hoc nunc et usque in saeculum.* (Psalm. 112)

Diot Jainkoak uholde hortarik athera gaituela *sobranioko* kalterik gabe, bainan ez da gutiago egia, Frantziak eta Elizak jasan dituzten asaldu borthitzetarik zerbait ondorio jasaiten dugula guk ere. Hala-nola haize-xirimola baratu ondoan, aphur bat oraino itsa-soa nahasirik ikhusten ohi baita. Eta sukharra iraungia izanagatik ere, zonbat denbora ez da behar askotan osasunerat heltzeko?

III - KAPITULUA

Aiphatu egien agergailuak edo ikhusbideak

San Joanes Galberrek bere anaiaren hiltzaleari barkhatzen.- Azken kurutze zeinatzea.- Serora bat ethorki handikoa.- Ez dakite zer ari diren.

Aiphatzera nohan gerthakari hotarik ageriko da Erlisioneak zoin ederki arrimatzen duen gure elgarrekilako bizitzea.

1.- Joanes Galberrek bere anaiaren hiltzaleari barkhatzen dio.

Italiako hiri batean, Floranzen, aitoronseme aberats batek, jaun Galberrek, bazituen bi seme, Joanes eta Hugues. Azken hau, bere lagun batek hil izan zuen. Aitak orduan erraiten dio Joanesi: Hire anaiaren odola oihuz dagok: hiri duk orai mendekatzea; habil, hiltzaile hura hil behar duk!

Joanes abiatzen da; bazter guziak jaiten ditu, anaiaren hiltzailea kausitu nahiz eta barbitu beharrez. Azkenean ortziraile-saindu batez, buruz-buru egiten dute. Joanesek atheratzen du ezpata. Baina bertzea oinetarat erortzen zaio, eta nigarrez, besoak hedaturik, erraiten dio: Ortziraile-saindu da: Jesusen odolaz, oi galdegiten derauzut ez dezazun ixur ene odola!

Hitz horiek bihotza hausten diote Joanesi. Anaia-
ren hiltzaileari barkatzen dio eta besarkatzen du!

Ez da hortan gelditzen. Urrikaltzen da bere mendekiozko bekhatu handiaz eta badoha mundutik ihesi. Penitentzia egin nahi du, bainan garratza eta luzea. Xede horrekin heltzen da mendi-arte oihantsu batetar-
rat. Tokiaren izena da Vallombreuse. Eta hor kokatzen da gure gizon gaztea. Laster lagun andanak jiten zaiz-
ko; egiten dute komentu bat; hartzen dute San Benua-
ten erregela; eta hortik atheratzen da Valombreuzeko kongregazionea.

2.- Azken khurutze zeinatzea.

1870an Italiano-Piamontesak Erromako hiriaz jabetu ziren. Balentria ederra! Hiruretan hogoi mila baziren, mundu katoliko guzitik, beren nahitara jirik,

Aita Sainduaren alde eman ziren zorbait ehunen kontra.

Pio bederatzigarrenak, ikhusirik odol ixurtze handia izanen zela alferretan, bandera xuria hedarazi zuen, eta Batikaneko leiho batetik azken benedizio-ne bat eman zioten bere soldado fideler, eta hauk barreatu ziren.

Bada Aita Sainduaren zuabetan, baziren bi ofizier, adixkide handi; besarka lothu ziren, ziotelarik: «Othoitz eginen dugu elgarrentzat bethi, eta agian, bataila berean, elgarren besoetan hilen gare!»

Huntan behexi ziren? hau ikhustearekin Italianoek zioten: «Beha zazue zoin maite duten elgar.»

Ofizier horietarik bat Frantsesa zen, eta bertzea Prusianoa.

Edozoin jendakitarik izan ditzen, Elizaren zerbitzuan, giristino guziak anaiak dire. Eta nola beren eskualdetarat itzuli zirenean, Prusiaren eta Frantziaren artean gerla baitzen, bi adiskideak aurkhitu ziren elgarren kontra, zoin bere armadan.

Aita Sainduaren zerbitzuan ibili zuaba Frantsesak harmak hartu zituen leheneko bere buruzagi berekin.

Beraz egun batez, hemen aiphatzen dugun ofizier Frantsesak manua izan du Pataiko herrian, etsaiak dauden etxe batzuetarik, kanpo ezar ditzan.

Berehala, bere soldadoen aintzinean, lauhazkan badoha, eta Prusianoek, iziturik, gibelerat egiten dute;

Bainan beren ofizier batek biltzen ditu, eta horra non, bi ofizierak elgarretaratzen diren hain hurbil non ezpataz ari baitire zoin gehiagoka.

Frantses ofiziera, sabre-ukhaldi batez bulharrak urratuak, orortzen da, odola dariola zurrustan. Prusiano ofiziera aldiz, sorbalda xehatua, eta buruan kolpe bat izigarria; hura ere badoha lurrerat.

Ilhuna jin zen, eta elhurra lodi jautsi hilen eta hiltzera zohazinen gainerat.

Eta horra non Prusiano soldado krudel batzu han dabiltzan, harma-gider ukhaldika kolpatuen akabatzen.

Elgarri herio-kolpea eman zuten bi ofizierak othoitzean ari ziren.

- To, horxeko hori othoitzean ari duk, dio soldado hetarik batek, ixilaraz dezagun eta harma giderra altxatzen du Frantses ofizieraren gainera.

Orduan bertzeak dio Prusiano mintzaian: Zer ari haiz gaixtagina? eta osorik duen besoaz ukhaldia aldaratzen du;

Beso hau hautsia da, bainan ofizier Frantsesari aldi huntan begiratu dio bizia.

Basa-soldado hek beren ofizier bat ezagutzearekin, urrundu ziren handik.

Bizkitartean, Frantses ofizierari iduritzen zaio boz hura nonbait aditu duela; behatzen du eta ezagutzen bere Erromako gerlari laguna.

- Zer! Van L zu zare!

- Bai... eta zu?

- Ni... de B. naiz!

Prusianoak: «Naizen bezalako malurosa! Nik kolpatu zaitut, zu ene adixkiderik hoberena!»

Frantsesak: «Zuk, doidoia begiratu dautazu bizia.»

Prusianoak: «Elizaren soldadoa, barkha zozu zure adixkideari; eta nola ni hau ez baintake zeina, bi besoak hautsiak ditudalakotz, barkhamendu horren berme, zure odolean erhiak bustirik, zuk, othoi zeina nezazu.»

Frantsesak, galdatu bezala, zeinatu zuen. Gero Prusianoaren odolarekin egin zuen bere azken khurutzearen seinalea.

Biharamunean hatzeman zituzten hilak bata bertzearen besoetan; azken hatsa eman zuten, elgarrekin othoitzean ari zirelarik.

3.- Serora bat ethorki handikoa.

Joan den mendeko erreboluzioean, serora bat bazabilan Pariseko karriketan etxez etxe eri arhathzen.- Eguberri arrats batez igaiten da ganer batetara, eta han aurkhitzen du, zokho batean, lastoaren gainean, emazteki bat sabeltra batetaeo bi haur sorthu berriekin.

Nahi lituzke sokorritu, bainan mement hartan deusik gabe da. Hango zirritu batetarik behatzen du, eta ikhusten han berean etxe eder bat, dena argi; hura zen errepublikano kargudun baten jauregia. Gizon hau, Montmorenzy deithua zen aitoren seme familia-renganik asko gisaz lagundua izan ondoan, gorri errabiatuenetarik bilhakatua zen.

Serorak emazte gaixo hari erraiten dio:

- Igurika nezazu aphur bat, berehala heldu naiz. Jausten da, eta badoha xuxen xuxena kargudun hunengana. Hunek, serora-arropa ikhustearekin, furian erraiten dio:

- Zer nahi dun?

- Heldu nitzauzu amoina baten galdatzera.

- Amoina bat! Hirezat?

- Ez, ene nausientzat.

- Nor dira hire nausiak?

- Pobreak, heien neskatoa naiz.

- Esplika hadi.

- Bai. Jauna, horxeko etxe hortan, ganer zokho batean, emazte gaixo batek mundurat eman ditu bi haur, eta deusik ez dute, ez egur, ez linja, ez eta ogi ahamen bat ere. Zure auzoa da, Jauna, eta harentzat zerbait galdatzen dauzut.

- Erran dautan bi haur badirela?

- Bai, Jauna, eta ama, gosez eta hotzzez hiltzera dohana, eta bizkitartean Eguberri arratsean gare.

- Eguberri! Zer da hori?

- Haurren besta; pobre direnean, karitatea heltzen zaiote.

- Hola denaz geroz, no hogoi liberako bat, eta ontsa tratatuko ditun.

- Esker mila, Jauna, eta Jainkoak paga zitzala!

- Bainan oraino, nola dun deithura?

- Serora Theresa.

- Hori ez dun deithura bat!

- Ez dut bada bertzerik.

- Ba! konprenditzen nun; galdegiten daunat hire familiako deithura.

- Lehenago deitzen nintzan: Louixa de Montmorenzy.

4.- Ez dakite zer ari diren.

Ama batek bazituen bi seme; gehiena hogoi urthetan soldado-eskoletarik aintzindari ofizier atheratua. Afrikako gerletan kopeta gorarik ibili ondoan bildu zen etxerat.

Han kausitu zituen oro nigarretan; anaia ttipia, hura baino hamar urthe gazteagoa zena eri, arras xar, medikuez etsitua.

Amak agurra bihurtu zion doidoia; haren artha guziak hiltzera zohan haurrarentzat baitziren. «Gaixo haurra, zion, hi gabe zer egin beharko dut nik?»

Hitz hauk gogorak ziren iduriz ofizierrarentzat; baina ez zitzaizkon batere gaitzitu bere amaren ahoan; erran zion: «Ni banintz ohe hortan hiltzera johan, oro bat maite ninduke ene amak.»

Jaun Ertora ere han zen, bihotz-altxagarri solas zonbait emaiten ziola amari: haurrak uros direla adin hortan Jainkoarengat joaiteaz inozentzian.

Bainan amak ez du aditzen deusik, bere semearen hats penatua baizen.

Hainbertzenarekin, haurrak egiten du ikharazko moimendu bat. Jaun Ertorak dio: Othoitz egin dezagun. Eta emaiten dire belhauniko.

Orduan, huna ofizier gazteak ixilik egin zuen othoitzza:

«O Birjina Saindua, ametan den hoberena, khurutzearen oinetan nigarrez urthurik egon zinena, zu zare gure esperantza baxharra; adi zazu ene bihotzean egiten dudan botua: sendatzen baduzu ene anaia, hitz dauzut soldado kargua utzirik, naizen guzia haurren giristinoki altxatzeari emanen naizela; erakutsiko diet zure maitatzen eta zure seme Jaunaren leialki zerbitzatzen. Bai, ene bizi guzian eskerrak bihurtuko daukitzut, baldin bizirik begiratzen badiozu ene ama gaixoari hanbat maite duen haurra.»

Othoitz hau fagorezki entzuna izan zen; haurrak onerat eman zuen, laster sendo zen.

Eta egun batez ofizierak adioak egiten diozka amari, aiphatzen dioelarik bere botua.

«Horra ene ezpata, erraiten dio, emanen diozu ene anaiari; menturaz sarrixago nahiko du kharreatu nik bezala - ni banoha, Mariari agindu nioen bezala,

haurrer erakastera Jainkoaren eta Birjina sainduaren maitatzen.»

Ama besarka lothu zitzaion; hura zuen, segur, maiteena. Nahi izan zuen ere bere xede sainduaren bethetzetik gibelatu.

Bainan debaldetan; konprenditu zuen, Jainkoak galdatzen ziola bere seme gehiena eta Jaunaren nahira erori zen.

Ofiziera johan zen bere botuaren konplitzera.

Orai *frera* da hiri batean. Batzuetan, karrikan iragaiten denean, egiten diote: *houak kouak*.

Hau aditzearekin, ofizier ohiari odola zainetan phisten zaio, bainan berehala zaphatzen du, diolarik: Barkha Jauna, ez dakite zer dioten, ez dakite zer ari diren.

IV - KAPITULUA

Gutarik baxhotxak baduela Erlisionearen beharrik handiena.

Erlisionean makhur, bertzetan ere makhur.- Lur huntan bihotzmin frango.- Erlisionea egiazko gozagarria.- Gizonen aldetik laguntza guti.-Egiazko girixtinoa, egiazko dohatsua.- Nahigabetan ere bozkariatzen da.- Pariseko martir berriak.

Irakurtzaile maitea, ez derautzut hemen erran nahi Jainkoak, bertze munduan bezala bizitze huntan ere, onesten ohi dituela haren alderat bihotzdun direnak, eta asko gaitzez jazartzen ohi deraiela haren ohoreaz axolarik ez duteneri.

Berdin, ez derauzut erranen, Jainkoaren alderat makhur dabilana, askotan makhur ibiliko dela gizonen alderat ere; eta hortik asko urrats gaxtoetan sarthuko dela, eta khirestasun frango ukhanen dituela iresteko.

Ez derauzut ere erran nahi, Erlisioneak behar diren mugetan atxikiko ez duen gizonak asko behaztopa eginen dituela bere bidean. Jokoz, janez edanez, gau-atarrez, jaidura gaxtoeri bere nahikarak sobraniozki emanaz, gorphutza behar baino goizegi higatzen du, osasuna andeatzen du.

Horiek pagano frangok ere ezagutu dituzte. Hekien arteko asko zuhurrek aithortu dute, Jainkoaz eta haren legeaz ibilkatuak ez diren egunak egun hira-tu batzu direla, eta askotan ez direla heltzen bertzela iraganen zuten denboraren erdira ere.

Bainan, horien guzien gainean hemen gehiago hedatu gabe, diot bereziki bizitze huni datxeizkon gaitzetan duela gizonak Erlisionearen behar guzizko bat.

Bai eiki! holakoa da gure lastima lurraren gainean. Alde guzietarik gaitzez inguratuak gare. Izpirituko ilhuntasunak, bihotzeko khirestasunak, gorphutzeko eritasun, oinaze eta beharrak, ontasunen galtzeak, jendeen aldetikako nahigabeak, adiskideen bihotzga-betasunak, etsaien solas eta ahopaldi gaxtoak, eta ez dakit zonbat gisetako gaitz, metaka biltzen dire gizonaren histeko, ahitzeko eta lehertzeko.

Egun banaka batzu nahigaberik gabe iragaiten baditugu, ai ez dugu zeren iguriki luzaz iraunen dute-

1a. Eta goiz gehienez, atzarri garen bezain laster, erran dezakegu Jesusek Ebanjelioan aipatu zuen hitza: Gaur, egun txarra duket, ezen hedoiak gorri dire eta goibel da zerua; gogoak ilhun ditut, eri dut bihotza, nigarrak begietarat biltzen ari zaizkit oi ba! oraino ere nigar egin behar dut: *Et mané: Hodiè tempestas, rutilat enim triste coelum.* (Matth. 16, 3.)

Non dukegu bada laguntza horrenbertze gaitzeri ihardokitzeko? Non kausi dezakegu gozagarririk aski ez etsitzeke khirestasun horien artean?

Erlisionean baxharrik. Hortik kanpo gehienetan ez dukezu enganiorik baizen.

Nigarren artetik orhoit, baxharrik ez zaudela,
Bainan Jainkoa lekhuku eta lagun duzula:
Amodioz harengatik dukezuna pairatu,
Ehunka zeruan berak pagaturen baitauzu!

Sendagailu hoberenek ez gaituzte eritasun guzie-
tarik begiratuko: adiskide jarraikienek ez detzazkete
khen gure bihotzetik elhorri samin hura, hiramendu
hura, jaten ari gaituen barneko har khexu hura. Eta
beren ahal guzia eginen badute ere gure gaitzen
arhintzeko, erranen ahal diotegu, Job sainduak bere

adiskideri bezala: *Consolalores onerosi vos omnes estis*; Zuen solasak, zuen gosakariak alfer eta indargabe zaizkit. Ezen, horiek guziak hitzak dire, ene gaitzak aldiz gauzak, bihotzaren barneraino erretzen ari nauten zauriak.

Ez, ez, zuen elheketa eder guziek ez derautate bihurtzen ohore hura, ontasun hura, adiskide hura, heriotzeak ereman derautan ene burhaso, ene senar, ene emazte, ene ume maite hura. Oinazearen ezpatak bethi berdin zilhatzen deraut bihotza, eta khirestasunak zaphatzen arima: *Consolalores onerosi vos omnes estis*.

Eta holaxet, Erlisionerik ez duenak jasaiteko du nahigabe guzien uztarria, funtsezko gosorik eta arhintgarririk gabe.

Oi! ala bertzelakoa baita Erlisioea duenaren eta bere Erlisioeaz ongi baliatzen denaren bizitzea! Jainkoa baithan sinesten du eta sinesten osoki, lañoki. Eta hortakotz badaki Jainkoak artha duela mundu huntako gauza guzietz eta bereziki gizonari dagozkonez.

Badaki ez zaukula deus gerthatzen, baizik ere Jainkoaren nahitara. Orhoitzen da Jesusek erran duen hitz eder huntaz: Ene nahia gabe, ile bakhar bat ez da

zuen burutik galduko: *Et capillus de capite vestro non peribit.*

Gauza guzien Nausi on hari behatzen dio beraz Erlisionea duenak, haren zuhurtzia ikhusten du gertatzen zaizkon gaitz eta nahigabe guzietan; haren eskutik hartzen ditu, jautспен oso batekin, ez khiretasun eta gaitz bezala, baina bai on eta gozotasun batzu bezala.

Ala zorionezkoa

Jaunaren beldur dena

Eta haren manuetan

Bere gogoia duena?

Holakoak ahal duke haren baithan fidantza,

Hersturetan kontsolatuko dioela bihotza!

Badaki arima zuhur eta prestu harek, naturalezarentzat gogor eta khirets diren nahigabeak izanen direla arimako ontazunik aberatsenak, baldin Jainkoaren xedetan hartzen baditu. Badaki baliaturen zaizkola bere hutsen garbitzeko, eta zeruan sari handiagobaten izaiteko.

Eta orhoitzapen horrek oi! gozotzen eta ezitzen baitiotza lur huntako khirestasunak eta arhintzen bere gaitz guzien phizutasunak.

Erlisioe-gabeak gaitz hetaz oro iretsiak dire, barneko hiramendua kanporat goitika aurthikitzen dute erasiarik saminenez, bai-eta askotan zeruaren eta lurraren kontrako burhorik lazgarrienez.

Eta denbora berean ikhusiko duzu girixtino ona, gaitz suerte guziak, Job Sainduak bezala, Jainkoaren eskutik hartzen.

Hala-nola nahikaretan eta bere gogorako gerthakarietan, nahigabetan ere berdin Jainkoaren izena goresten du, zeren baitaki zeruko Aitak igortzen dioz-kola gaitz hek bere on handienekotz.

Horrelakoak iduri du zuhaitz loratua,
Ibaiaren bazterretan gizenki landatua:
Bere mugan sagarrak ditu ausarki ekhartzen,
Eta nihotz ere ostoa ez zaio erortzen.

Aspaldian ikhasi du, bizitze huntan beheratzen eta aphaltzen direnak, hil ondoan izanen direla altxatuak eta bethikotz goretsiak. Bere sineste ederrak irakasten dio, oraiko paraimen ttiki eta laburren orde, ukha-

nen duela bethiraunde guzian zorionezko gaindidura nasai bat gozatzeko.

Lege zaharreko Patriarkarekin errepikatzen du, bere nahigabeen artetik, hitz eder hau: Bai, hori da ene hihotzean jarria den igurikitza guziz ezti eta gozoa: *Reposita est haec spes in sinu meo.*

Horra zer ederretsi duen, lurrak bezala zeruak ere, Apostoluen baithan, Martiren baithan, Penitent jasan-korren baithan. Mundutiarrak hiraturik zerauzkaten gaitzen erdian ere, hek berdin boz eta alegera, hek gozoz gaindi atsekabe minenetan ere, hek goraki erraiten Jaundone Paulorekin: Gozoz ez nagoke, boz-karioak gaindi egiten darot herstura guzian erdian: *Repletus sum consolatione, superabundo gaudio in omni tribulatione nostrâ.* Bi gerthakari hotarik hobeki ageriko da.

1° De Sonis, aurthen hil izan dena, ez zen bakharrik gerlari bihotzdun bat, kabaleriako soldadoen aintzinean, etsaiari buruz beldurrik gabe zohana; hura zen oraino fede handiko gizon bat, othoitza eta penitentzia pratikatzen zituena.

Egun guziez, aphezek bezala, erraiten zuen ofizioa, eta barur-egunetan, kafe xorta batekin egoiten

zen arrats artio; orduan egiten zuen bere jan-aldia *mehe*. Goiz guzietz, bazohan meza sainduaren entzuz-tera; hiltzeko bezperan xoilki, ezinbertzez, huts egin izan du.

Lehenago, soldado-marexal batek erran omen zuen atheraldi hau: «Guardia hiltzen da eta ez etsaia-ri emaiten.»

De Sonis jeneralak, Patayko guduan, erran zuen: «Egun komuniatu dut, eta Jainkoa berekin duenak ez du sekulan gibelerat egiten.»

Beraz, jakin duenean bere azpiko duen Zouaben erreximenduak gorderik daukala bihotz-sakratuaren bandera, erraiten dio de Charette koronelari: «Lehen bataillan, hura aintzin-aintzinean emanen dugu.»

Eta Patayko gudu egunaren bezperan, bandera aphez bati benedikarazi zioten; de Sonis, Charette eta bertzeek komuniatu zuten.

Bizkitartean, gudu ikharagarri hartan, nonbreaz gaindi eginak, kolpaturik lorioski erori ziren.

De Sonis, belhauna xehakatua egon behar izan zen han arratsaldeko 4 orenetarik eta biharamuneko 9 orenak artean, jauts ahala ari zen elhurraren azpian.

Othoitzez zagokon Lurdeko Andredena Mariari, hel zakion:

«Ama on hau nere begiez ez nuen ikhusi, zion geroxago adiskide bati, bainan senditzen nuen han zela ene laguntzera jina; ezen, nahiz dena zaurthua nintzan, eta odol anhitz galtzen nuen, altxatu nindute-nean baxharrik oinhazea abiatu zitzautan.»

Gau lazgarri hartan zeruak igorri zion laguntza mirakuiluzkoaz eskerren bihurtzeko, jeneralak geroztik urthe-muga baxotxean gau hura othoitzean zerman Eliza batean, aldareen oinetan.

Jainkoak eman diezagula de Sonis bezalako jeneral zonbait, eta gure armadak ohoreekin atxikiko du, aspaldiko denboretan Europa guzian daukan herrunka ederra!

Ezen, gauza segura eta esperientziaz frogatua da: Jainkoa, Erlisioea, Eliza maite duten soldadoek guduan ez dutela zehe batez ere gibelerat egiten.

Jainkoa berekin duenak ez daki beldurra zer den.

2° Parisen, sei urthetako muttiko bat, philda xar batzuez doidoia beztu, hotzez zagon eta gose, ahame-nik jatekoa hogoi eta lau oren hetan. Gogorat jin zitzaion letra bat igorri behar ziola Andredena Mariari zerbaiten galdez; bainan oraino ez zakien izkiribatzen. Nola ikhustez ezagutzen baitzuen soldado zahar erre-

tretatu bat, bataren eta bertzearen letren iskiribatien artzen zena, badohako eta erraiten dio: Jainkoak dizula egun on, Jauna; nahi dautazua letra bat izkiribatu?

- Bai, bainan gostako zaik hamar sos.

- Hola denaz geroz, barkhatu! -eta abiatzen da kanporat.

- Ez duka bada hamar soseko bat?

- Ez, Jauna.

- Hire amak ere ez?

- Ama ohean gelditua dut, letra batean galdatu gogo nuen amarentzat salda bat.

- Eta nola du izena, salda galdatu nahi diokan Jaunak?

- Ez da Jauna.

- Andre bat beraz?

- Bai, Andredena Mariari letra bat igorri nahi diot.

- Nitaz trufatzera jina hiz naski! habil kanporat, eta berehala gero!

Haurrak egiten ditu bi urhats bortako alderat.

Hemen, haren begitharte maitagarriaz hunkitua, soldado zaharrak bere baitan dio: zonbat miseria hatik Parise huntan!

Gero: Haurra zer erran nahi diok Andredena Mariari?

- Erran nahi diot ama bardaz geroz lo dagola, eta atzararaz dezan.

Soldado zaharrari barniak farrasta bat egiten dio.

- Eta... lokhartu baino lehen, amak zer jan zuen?

- Bi egun hautan zion ez zela gose.

- Zer egin duk, atzararazi nahi izan dukanian?

- Bethi bezala, besarkatu dut.

- Zer erran dauk?

- Deusik ez, hormatua bezala zen; gure etxean hain hotz hari da!

- Higitu zena?

- Ez, bethi geldi geldia zagon, bi eskuak khurutze, begiak zerurat itzuliak. Hau aditzearekin, soldado zaharrak senditzen ditu bi nigar matelari behera.

Hartzen du muttikoa belhaunen gainean, eta besarkatzen duelarik, erraiten dio: «Haurra, goazen hire amaren ikhusterat; nik ere banian lehenago ama bat erran zautana: izan hadi gizon prestu eta giristino on.- Gizon prestu izan nuk, giristino on? hori ez zakeat erran; bainan hemendik harat, segur, hala izanen nuk.»

Eta, soldado zaharra kargatu zen haurraz; huntarik ohorezko gizon bat athera du, bera ere, giristino on bilhakatu, eta bere semea deitzen duena aiphatzen

diotener erraiten diote: «Ez dakit nork dabiltzan letra horiek, bainan bethi xuxen badohazi zerurat.»

Ikhuskari guziz ederresgarria gizonentzat eta aingeruentzat, ezen, dio Apostolu berak, munduari, gizoneri eta aingerueri ikhuskaritan emanak gare: *Spectaculum facti sumus mundo, angelis et hominibus*. Eta oraiko denbora auhendagarri hotan ere eginkari berdin ederrak ikhusi izan ditugu.

Azken urthe hotako nahaskerien erdian, Pariseko hiria oro deboilatua zelarik, Arxaphezpiku bat, asko Jesuista, Dominikano eta Aphez khartsu, bozkariotan hil dire, jasanik zer-nahi gabetasun, zer-nahi laido, zer-nahi hiramendu.

Hek ere beren hiltzaileri erraiten zioten irriz, atseginez, lehenago Jaundone Laurendik erraiten zuena: Borthizkeria guziak, ai ezti zaizkit, ezen sutan nago nahiz-eta bihurtu nere amodioa Jesusen amodioari, nere oinazeak Jesusen oinazeri, nere heriotzea Jesusen heriotzeari: *Ut amorem amori, dolorem dolari, mortem morti rependam Christo meo*.

Jainkoari bethiko eskerrak, zeren Erlisionea iraungia bezala zen mende deithoragarri huntan, agertu dituen bere graziaren holako eginkariak eta irakatz

Erlisionearen indar espantagarria. Elizaren etsaiek berek harritzeko zuten moldean.

V - KAPITULUA

Erlisioea hiltzeko orenean dela guziz beharra

*Sinestegabea, bizian lazo, hiltzean uzkur
eta gogor.- Gorphutza eri, eriago biho-
tza.- Orduan sinesten, bainan etsitzen.-
Eta aldiz zoin gozoa sinestedunaren
heriotzea!*

Bainan orai ikhus detzagun, alde batetik sinestegabea eta bertze aldetik sinesteduna, biak azken orenean, herioarekin borroka. Han, han ageri da Erlisio-nearen indar guzizkoa eta zoin baitezpadakoa den gizonarentzat.

Sinestegabeari bere azken hatsetan beha zakozu. Nor da hori? Berriki oraino heinbat hazkar zabilan kanpo horietan. Griña eta kalapita frango bazabiltzan bere hanpadura eta atseginen ondotik. Bainan gauza bat zagokan bazterrerat utzia: Bere Arima. Bazuen bertze egitekorik!

Gazte zelarik, zoro, arraitsu eta oro balentria, ai adin hartan ez zagokan bere burua Erlisionearen meneko. Geroxago aldiz, bere bizi beharrarekin, bere lanekin, bere irabaz bideekin, ez zuen nihon soseguririk.

Azkenekotz, deusik egin gabe lainkoarentzat, bai eta menturaz hari jazarriz eta bazterretan kalte frango eginez, zahartu da. Lehen lazo edo bihurria zen bezenbat, orai uzkur, orai nagi, orai hotz eta gogor, ezin har dezake ohidura berririk, erran nahi baita girixtinorik.

Othoi beraz beha zakozu eri den gorphutz horri, beha arphegi horren itxurari.

Begi horiek, begi nahasi, begi zorrotz horiek zeri othe daude so, horrela landaturik? Eta esku horiek, erhi mako horiek, puska biltzen hasiak, loth estalkier, loth jendeen soinekoer? Eta ezpainak ikharan, diotela asaldaturik: «Ai! ai! iduk nezazue, herioak bainera-ma!»

Zer, sinestegabea, orai zare ohartzen herioak zeramatzala? Dohakabea! ez duzu ez gorphutza gehienik eri. Bihotzeko barne hura duzu oro deboilatu, handik duzu min, handik zare khexu.

Ganbaran dabilzkon jendeen begietan, hekien ahopezko elhetan ikhusi du bere heriotzearen mezua: «Orok ezagutzen dute beraz ni banohala, neureak egin du. Eta hik, ene kontzientzia, ai zer diok? Othoi ago ixilik! Ez ni hola erre, utz nezak geldirik!»

Eta huna non betbetan eta metaka heldu zaizkon orhoitzapen lotsamendu eta griña batzu egundaino izan ez dituen bezalakoak: Orai zertan den, eta gero zer ikhusi behar duen!... Edozoin aldetarat landa detzan arimako begi zorrotz horiek, ez zaio nihondik agertzen etsigarri den gauzarik baizen.

Huna orai non agertzen zaizkon bere bizian ibili dituen ahopaldi tzarrak Jainkoaren kontra, Elizaren kontra, Aita-Sainduaren kontra, aphezen kontra.

Sinesterik beharrenak, Jesu-Kristok berak irakatsi derauzkunak, harek noiz-nahi eta nola-nahi irri farretan burlatu eta ostikatu izan ditu.

Eta eginbidetan nola jokhatu da? Bethi jazarriz eta oldartuz Jainkoari, Elizari eta hekien mandatarieri. Hainbertze lazakeria, sorhaitasun, ausartzia gaxto eta moldegaitzkeria tzar, ai hek guziak orai, hiltzeko oren lazgarri hortan, jauzi egiten diote gainera eta oro khordokaturik deraukate. Guziak han dagozko lot-huak, itho nahi balute bezala.

Denbora iraganen orhoitzapena, bat da; eta zer erran sartzerat dohan eternitateko ethorkizunaz? Zer erran, eremu arrotz, leihor gabe eta deus mugarik ez duen hartaz? Zer erran, erortzera dohan leize eta tulunbio beltz ikharagarri hartaz?

Orai ez du ez lehen bezala erraiten: «Nork zakik hango berri?»

Orai han duhan Jainkoaren jujamendua eta hari darraikon eternitatea. Ez luke ikhusi nahi, eta behar dio bortxaz behatu. Khexuz nihon ez dagoke; itzul alde batetara, itzul bertzera, ez du nihon ikhusten zorigaitzeko ethorkizunik baizen.

Bederen oraino urrikizko oihu bat egin balezo Jainkoari! Ordean ez daki nola egin!... Jakintsun izan da gaxtekeriako, bainan onerat itzultzeko biderik ez du behinere ezagutu nahi izan. Itsu errebelatu baten pare asaldaturik kalapitan ari da, ihesi egin nahi eternitateko leize hortarik eta ezin eskapa.

Erlisioeak bakharrik laguntzen ahal luke, hainan ukho egina dio, eta etsimenduak behar du Jainkoaren eskuetararat aurthiki!...

Askotan ikhusi izan dire, eta azkenik gure egunetan, Erlisioearen etsayik gogorrenak, ez gizon, hainan ifernuko hetarik batzu bezala akhabatzen beren

ondikozko egunak: *Quorum finis secundum opera ipsorum.*

Oi! ala bertzelakoa baita Erlisioea duenaren heriotzea! Egiazki hark emaiten derauku ikhusgarri bat, zeruak eta lurrak, gizonek eta aingeruek ederretsi behar dutena.

Bere sinesteaz eta haren araberako amodioaz garhaitzen ditu izialdura eta lotsamendu guziak. Bere gaitzak eztiki hartzen ditu, ezen badaki, hekien bidez zerukotzat bilduko duela sari bat hanbatenaz nasaia.

Heriotzeari ez dio beltzuri gaxtorik egiten. Bethiereko bizitze dohatzurat igaiteko urrats eta mail bati bezala behatzen dio. Jainkoa baithan eztiki phausatzen da, Aita bihotz-samur baten besoetan bezala.

Edo begiratu izan du bethi bathaioko obengabetsuna, edo bederen urrikitu da bere bekhatuez eta egin du nigar. Eta orai bakean da, orai da harentzat egiazko garhaizia, egiazko bitoria: Garhaitzen du mundua eta ihesi egiten dio, garhaitzen du ifernua eta bethikotz ostikatzen du.

Bainan haren garhaiziarik eta bitoriarik handiena izanen da zeruan. Ai hori ez du ez eternitateak izitzen, bainan bai gozokariz aintzinetik oro bethetzen. Ezen badaki zeru eder hartan, deus akhabantzarik eta

urrentzerik gabe, gaindizka eta ezin erranezko nasaitasunean gozatuko dituela zorion suerte guziak.

Orduan girixtino onak bozkariotan errepika dezake Liburu-Sainduekin eta neurthitzlariekin:

Jauna, zeureganat altxa bedi nere othoitza,
Nola hedoietan gora isentsuaren khea.

Babilonia handiko uraren bazterrean,
Unhaturik, ezin joanez, gelditu ginenean,
Begietarik zitzaikun nigarra abiatu,
Ziongo eliza ederraz ginenean orhoitu.

Bana nork ere ereinen baitu nigarrarekin.
Hark bere uzta bilduko du bozkariorekin.
Ezen ethorri zitzaikun librantzaren berria,
Betan, nola landa idorrei hegoetan uria.

Oi Jainko handi eta ene begirailea,
Zu zaitut lastiman ihes egiteko dorrea.

Horra beraz, bizian ala heriotzean Erlisioneak du baxharrik zinez eta egiazki gizona laguntzen.

Ikhus dezagun hortik, zoin gezurrez eta zuzenkontra hartzen duten sinestegabek, Erlisionearen etsaiek,

gure adiskide eta ongi egileen izena. Gizona ezin athera dezakete bizitze huni datxeizkon gaitzetarik, eta azkenean hil-beharretik. Zer diot? Idekitzen diote beren ahalaz hek arhint eta gozo diotzoten gauza bakharra, Erlisioea.

Nahi duzu jakin zer diren sinestegabe horiek? Horiek dire gizonaren izurriak eta zaharoak.

Ahal guzian beraz egin ihes, urrunt osoki Erlisioaren etsaietarik; sekulan ez beha hekien solas galgarriari.

Bainan handizki eta bihotz guziz maita gure Eliza Katolikoa, orai eta bethi, gure azken hatseraino.

- «Zaitugunaz geroz gurea,
- »Frantses Jatsuko semea,
- »Zerurat gaitezken artean,
- »Lagunt gaitzatzu lurrean!»

VI - KAPITULUA

Erlisioe katolikoa dela baxharrik egiazkoa

Jatsuko san Frantsesen beila.- Erlisioearen baitezpadako beharraz berriz-ere bi hitz.- Kanporako egintza onak osoki beharrak.- Eelisione egiazaoan baxharrik salba gaitezke.- Nola ezagut zoin den egiazko Erlisioea?- Katolikoa dela baxharrik egiazkoa.- Misterio guk ezin ongi adituak.- Eginbide guziz garaiak.- Erlisioe katolikoak zer aldamen Jainkozkoak egin dituen.- Apostolu herbail batzuek garhaitzen erregeak eta harmadak.- San Frantsesi othoitza.

Bethidanik izan dire beilak edo pelegriaiak, bainan oraiko mendean iduri dute emendatuz dohazila. Eskual-Herrian ere baditugu zonbait abiatuak, halanola Bidarteko Ama-Birjina eta guziz Garazi Jatsuko San Frantsesen bederatziurrena.

San Frantsesen Aita Garaztarra zen, Jatsu Jauregi-ko Jauna, eta Ama Baztandarra; eta hortik San Frantses gure egiazko herritarra dugu. Eskualduna da, ez xoilki odolez eta sortzez, baina oraino Jatsun iragan duelakotz bere haur denborako zathirik gehiena.

Bederatziurrun bat egiten da Jatsun urthe guzietan, martxoaren lauetik eta hamabira, Misionest predikari baten laguntzarekin.

Bederatzi egun hetan, Jatsuko jendea bezala, auzo herriak ere baliatzen dire, nondik-nahi Eskualdunak beilaz heldu dire San Frantsesen oinetara eta grazia handiak ardiesten.

Ni ere izan naiz bada berriki. Eta nola, haur denboran maiz ikhusia izanagatik, ahantzixe bainuen Jatsu, aithortzen dut beilak bezala ikhusminak ere harat eremaiten ninduela. Herri pollita da Jatsu. Mendixkaz eta aldapaz oro inguraturik, gorde-gordea dago zelhaipherde gori batean. Nihon han baino phentze gizenagorik eta mahasti hoberik. Eta urrun behatzen baduzu, ikhusiren duzu Arradoiko mendia bere kasko biribilarrekin; eta haratago, Nafarrako bortu gorak elhurrez bezi eta hedoietan gairi dohazila.

Ni bezala baziren han beilari frango, eskualde guzietarik jinak, bai eta Laphurditik eta Ziberotik.

Laphurtar hetarik bat ez zagoen atseginez ikhustearekin Eskualdun bat, San Frantses Jatsukoa, bere herritarrez hola goretsirik. Eta nola gizon eskolatua baitzen, osoki argitua eta ederki mintzo zena, solasean abiatu zen Elizako athean gizon multxo batekin, eta guziak xoraturik hari beha zauden.

Mintzo zitzaioten Erlisioenez eta San Frantsesek haren urrun hedatzeko ibili dituen lan handiez.

Gizon aditzale hekien artean bat bazen ernea eta biphila. Deus gaxtorik, bainan kitzikatzea maite. Erraiten dio beraz Laphurtar jakintsunari:

JATSUARRAK:- Erlisioea ere, bertze asko gauza bezala, maiz aiphatzen dugu, zer den jakin gabe. Orain beraz erradazut ea Erlisioea beharra den baitezpada.

LAPHURTARRAK:- Ihardesten derauzut, bertze galde bat nik ere eginez. Ez othe da egia zuk ere galdatzen duzula zure sehiek ohora, ederrets zaitzaten Etxeko-Jaun gisan?

JATSUARRAK:- Bai, Jauna, eta zinez. Bertzela ez lezakete ene etxean gau handirik egin.

LAPHURTARRAK:- Eta bada arrazoin beraz, bai eta miletan gehiagorekin Jainkoak galdatzen du, eta gure eginbide hertsia da, hari ohore bihur diozogun. Ezen Jainkoak emana dugu izatea eta bizia; beraz hertsikia-

go gare gu atxikiak hari ohore bihurtzerat, ezenez
sehiak beren lurreko nausieri. Hortik ere egundainoko
jendaia guziek, juduek ala girixtinoek, turkoek ala
paganok, ukhan dute zoinek bere gisako erlisionea;
eta jendaia guziek horrelako jaidura beraren bethi
agertzea, deus ez da bertzerik, baizik ere Erlisionea
dela baitezpadako behar bat.

JATSUARRAK:- Ordean, Jauna, gure artean ardura-
ko errana da, Jainkoa bihotzaren eske dagoela; zerta-
ko beraz kanporat ageri diren egintza horiek, hala-
nola zeinatzea, belhaunikatzea, eta bertze asko?

LAPHURTARRAK:- Kanporako egintza onek, othoi-
tzak, meza entzuteak eta bertzek, ez dute Jainkoaren
aintzinean baliorik, ez badituzte bihotzeko xedeak
laguntzen. Berriz, kanpoko egintza horiek huts egiten
badire ezinbertzez, hala-nola eritasunez, eskas horrek
ez du bidegaberik ekhartzen, baldin bihotzetik Jainkoa
adoratzen eta maitatzen bada.

Alde horietarik behatuz egia ela, Jainkoa bihotza-
ren eske dago.

Bainan osoki trebes lohake, erran hortaz adi leza-
kena kanporako egintza onez artharik ez dela behar
atxiki. Gure izate guzia, arima bezala gorputza ere

bai bere gisan, Jainkoari esker onetan bihurtu behar ditugu, ez da hor harat ez hunatik.

JATSUARRAK:- Bai, Jauna, hori ageri da. Bainan egitekoa datza ezagutzean zoin othe den egiazko Erlisione hoinbertzeren artean. Hekien artean batzuek bertzeak desegiten dituzte; guziak beraz ez daitezke egiazkoak.

LAPHURTARRAK:- Egia diozu, Jauna; eta zinez erhokeria laiteke, bai-eta Jainkotasunaren laidozko elhe bat, erraitea Jainkoak onesten dituela erlisione guziak eta orotan egin daitekela salbamendua.

Zer? Jesu-Kristok zeruan har detzala, hura kurutzefikatu duten juduak, hura zinez adoratzten duten Katolikoak bezala?

Hori ezin daiteke. Jainkoa egia bera da berenaz eta saindutasuna bera; egiaren eta saindutasunaren kontra dohazinak ez dezazke niholere onets. Horrela dio Pio bederatzigarrenak: *Tenendum quippè ex fide est, extrà Apostolicam Romanam Ecclesiam salvum fieri neminem posse, hanc esse unicam salutis arcam, hanc qui non fuerit ingressus, diluvio periturum.* (Pius IX, Alloc. *Singulari quàdam.*)

JATSUARRAK:- Ikhusia da, Jauna. Bainan nola irakas eta osoki agert dezakezu gure Erlisioea dela bakharrrik egiazkoa?

LAPHURTARRAK:- Badakizu Girixtino Erlisioea dela Jesu-Kristok berak, lurrerat jautsirik, gizoneri irakatsi zeraiena, eta Salbatzaile adoragarria zeruratigan zen ondoan Apostoluek bazter guzietarat hedatu zutena. Badakizu ere Jesu-Khristo egiazki dela Jainko, egiazki Trinitate sailduko bigarren Presuna eta Aita eternalaren Seme. Eta bada hori bakharrrik aski duzu; hortik beretik ageri da gure Erlisioe saildu hau egiazkoa dela, denaz geroz Jainkozkoa.

Huna zer dion Aita-Saildu Leone 13^{nak}: Egia hori asko eta asko argiz irakatsi eta finkatu izan dute hainitz gizon handiek; ausarki eta hazkarki ihardetsi izan diote gure Erlisioe sailduaren etsai guzieri.

Argi hetarik bat xoilki hemen aiphatuko derauzut. Baliatuko zauzu menturaz mihi gaxto zonbaiti buru egin beharko duzunean.

JATSUARRAK:- Bai, Jauna, eta bertzalde atsegindut jakitea zeren gainean dagoen gure Erlisioea bermaturik eta asentaturik.

LAPHURTARRAK:- Ikhuz zazu beraz zerik den girixtino Erlisioea.

Hanbat misterio irakasten ditu, gizonaren buruak ezin endelga, ezin zilha dezazkenak. Hala-nola Jainkoa baithan hirur Presuna, hetarik batbedera Jainko, eta hirurak Jainko bakhar bat beizik ez. Berdin oraino, hirur Presuna hetarik bat Birjina baten sabelean gizon egina, eta kurutze baten gainean hila, eta bertze hainitz misterio.

Girixtino Erlisioneak manatzen du bizitze bat hain garbia! Manatzen derauku Jainko bat bakharrik adora eta guzien gainetik maita dezagun, haren manuetarik xumeena hautsiko dugun baino lehen bizia bera emaiteranokoan.

Manatzen derauku gizon guziak maita detzagula gure buruak bezala; guzien alderat iduk dezagula, hekiek gure alderat iduk dezaten nahi dugun egiteko gisa bera; etsayik muthirieneri bereri barkha diotzetugula eginen derauzkiguten gaizki guziak, bai eta maita detzagula zinez eta bihotzetik.

Debekatzen derauzkigu bekhatu guziak, gogoeta xoilak baizen ez balire ere, bainan irakasten berthute guziak: izan gaitezela ezti, jasankor, garbi, beharreri emaile, buruzagieri erorkor eta jarrakitzaile.

Nahi du gorphutzeko gure jaidura gaxtoeri jazar gaitezen etsai batzueri bezala; lurreko ontasun, atsegin, ospe eta hanpadura guziak arbuia detzagun, eta aldiz jarraik gaitezen aphaltasunari eta beheramenduari, besarka detzagun pairamenak eta laidoak.

Eta zertako? A! gorphutzeko eta lurreko aberastasunak, distiradurak, omenak eta goratasunak, hauskor eta iragankor baitire; aphaltasunek aldiz eta pairamenek sekulako zorianaren ardiesteko biderik hobere-nak baitire.

Horra laburzki zerik eta nola den Girixtino Erlisio-nea. Zer zauztu? Uste duzu gizonak berenaz asmatu duketela holako Erlisionerik?

JATSUARRAK:- Ez du iduri, Jauna!

LAPHURTARRAK:- Ez-eta segurki ere. 1° Gizonak ezin asmatu ditu berenaz, haren endelga-ahal guziak gainditzen dituzten misterio hek; 2° gizonaren bihotz lizunetik ezin ilkhi da bizitzeko hain lege hertsirik eta garbirik.

Hori hain egia da, non paganoen arteko gizonik handienek, Erlisionearen eta bizitze prestuaren gainean erran dituzten guziak, ez baitire itzalik baizen Girixtino Erlisionearen aldean. Eta hori bera, Erlisione

saindu hau Jainkoaganik delako argi eta irakasmen bizi bat da. Bainan ez naiz hortan baratzen.

Girixtino Erlisionea munduan onetsia izan da, eta Jesu-Kristo sortu zenetik berheun urte gabe, orduan ezagutuak ziren eskualde guzietarat hedatua zen.

Girixtinotasuneko misterio gorak, endelguz ezin har ditezkenak, sinetsi zituzten, ez xoilki jende arruntek, bainan oraino gizon jakinek, izpiritu argitu eta zorrotzek. Hekienganik ditugun liburuetarik ageri da.

Bizitzeko lege garbi, gure jaidurentzat hain bort-hitz diren hek, onetsiak izan ziren, bai-eta egintzetan ezarriak. Orduan ikhusi ziren berthuterik ederrenak, eta non? tzarkeriaz bethidanik ustelduak zauden hirietan.

Ontasun gose zirenak, zituzten guziak saldurik, Jainkoarentzat erromes bizi ziren. Atseginpean ehortzirik zaudenek, Ebanjelioko garratasuna besarkatzen zuten, harritzeko den khar handiarekin. Lizunke-ria lotsagarrienerat emanak, garbitasunik hertsia eta ederrenerat biltzen eta arrimatzen ziren. Bere lagun-odola nola-nahika mendekioz ixurtzen zutenek, garhaitzen zituzten borthizkeria eta moldegaizkeria

guziak, eta nahigabe bai-eta beren bizia bertzerentzat alegeraki emaiten.

Horra zer aldamen ederresgarria egin izan duen Girixtino Erlisioeak.

Orai beraz zer zaitzu, adiskidea? Uste duzu aldamen hori gizonen lana daitekela?

Nik behintzat, horri behatu-eta, ez dezaket ikhus Jainkoaren eskua beizik. Ez nauke oihu egin gabe Profetarekin: Jainkoak, Jainkoak egin du mirakulu hori, eta guziz da ederresgarri gure begietan: *A Domino factum est istud, et est mirabile in oculis nostris.* (Psalm. 117.)

JATSUARRAK:- Egia diozu, Jauna. Ez, erregeak ere beren harmada eta ahal guziekin ez zaitezken egiteko horren bururat hel.

LAPHURTARRAK:- Ai erregeak eta harmadak urrun dabilta egiteko huntarik.

Jesu-Kristok bere Erlisioearen mundu guzirat hedatzeko hautatu zituen, eta nor? ez aberatzak, ez gerlariak, ez gizon eskolatuak, bainan hautatu zituen arrantzaile erromes batzu, beren arrantzako sareak erabiltzen beizik ez zakitenak. Hola behar zen alde guzietarik agertu Girixtino Erlisioea Jainkoaren lana dela bakharrik.

Iduriz deusetako ez ziren Apostolu hek mundua erreberitu izan dute. Hek jendaia guzieren irakatzidite, orduarte jainkotzat zerauzkatenak phorroskatzeten eta ostikatzen, eta zertako? adoratzeko baxharrik Jainko kurutzefikatu bat, Jesus!

Hek munduari utzarazi diozkote ordurainoko ohi-dura borthitzenak eta tzarrenak. Eta guzieren: beharrieri bezala aberatseri, ttipieri bezala handieri, herbaileri bezala indartsueri, jakintsuneri bezala ez-jakineri, sinetsarazi diote hekien bizi-moldea ifernurateko bidea zela, eta iganarazi dituzte lohikeriatik garbitasunerat, deboilkeria ikharagarrienetarik bizitze berri saindu batetarat.

Hitz batez, Apostoluek mundua kausitu zuten, gizonez baino abrez bethea, eta aingeruz bethe zuten.

Zer zauzu hortaz?

JATSUARRAK:- Ai Jauna, espantagarri da; eta nihon ere haino hobeki hortan da Jainkoaren eskua ageri.

LAPHURTARRAK:- Eta bizkitartean oraino ere adi zazu. Hunek indar berri bat emanen dio erran dugunari.

Girixtino Erlisionea munduan finkatu izan da gizonetako laguntzarik gabe; ez da aski; finkatu da gizonen oldartze eta jazartze guziak garhaituz.

Apostoluak Jesu-Kristoz mintzatzen hasi diren bezain sarri, juduak eta paganoak gogorki bihurtzen zaizkote. Debeku hertsia, mehatxu lazgarriak, zerrahi borthizkeria, sarraski eta hiltze frango, orotaz baliatzen dire hek ixiltarazi nahiz. Lurra eta ifernua elgarrekin bat egiten dire Jesusen izena hastapenetik ithotzeko.

Eta bizkitartean, oi ikhusgarrietako ikhusgarria, jazarkunde horiek guziek ez dute suntsitzen girixtinitasuna. Aitzitik hazkartuz doha eta emendatuz.

Martiren odolak borthizten du girixtinoen hazi dohatsua, eta lurreko hegal guzietan uztarik ederrenak altxatzen dire, halako moldez non, gutienik uste duela, mundu paganoa kolpez girixtino ihazartzen baita. Sineste berria, distirantza handi batekin hedatzen da iguzki ilkhizetik iguzki etzaterat, eguerditik ipharrerat.

Zer gauza espantagarria! Jainkoaren lana, eta lan nausia, hori da hori!

Bietarik bat: edo mirakuluak egin izan dire girixtinitasuna munduan finkatzeko, edo ez. Baldin horta-

kotz mirakuluak egin izan badire, ikhusia da Girixtino Erlisioea Jainkoarenganik ethorria dela, zeren mirakuluak ez baititezke egin Jainkoaren indarrez beizik. Eta baldin ez badire hortakotz mirakuluak egin, beha zazu huni: behinere izan den mirakulurik handiena hau da, gizon herbail arbuiagarri batzuek mundu guzia azpiz gora itzuli baitute, kontra zituztelarik lurreko errege, harmada, dirutze eta gainerateko indar guziak.

JATSUARRAK:- Jauna, irakasmen eder eta hazkar horiek ez onestea, begiak argiari nahitarat hestea laiteke. Atsegin handia dut hoin ageriki ikhustea egiasko Erlisioean bizi garela. Lehen ere ez nuen hortaz dudarik. Bainan orai asentuak ikhusiz, hobeki bermatzen naiz.

Girixtino Erlisioea da beraz Jainkozko lege bakharra. Bainan geroztik baitezpada behar dugu onetsi eta besarkatu, ezen Jainkuak ez ahal dio munduari alferretan eman. Zer diozu?

LAPHURTARRAK:- Osoki xuxen mintzo zare. Hain premia da Jainkozko Erlisioe hunen atxikitzea, non huntarik kanpoan nihor ezin salba baititeke. Hala erran zuen Jesu-Kristok: Nihor ez doha Aita-Jainkoa-

renganat, ni baithan sinestea ukhanez beizik. Bai-eta, gehiago dena, Girixtino legea onetsi eta atxiki behar da den bezala, Jesu-Kristok berak eman duen bezala. Gizonek, ez-eta Elizak berak ere, ez dezakete hartan aldamenik batere egin, zeren gizonek ez baitute eskurik, guzien gaineko Nausiak egin dituen legetan.

JATSUARRAK:- Ikhusia da, Jauna; nik ere etxean emaiten ditudan manuak, ez dezazkete gibela, ez nere sehiek, ez nere umek. Ordean, ni nere sehien eta umen baino, Jainkoa mundu guziaren nausiago da. Bizkitartean, Jauna, ez othe dugu askotan entzun aldamera frango egin dela Erlisioean, Apostoluen denboratik hurat?

LAPHURTARRAK:- Beha zaite huni. Zerorek erran duzu zure nahiak ez dezazketela gibela zure menekok; bainan bai zuk zeronek, eta hekien orde bertze manu batzu eman dezazketzu errexki. Hori bera gertatzen da hemen. Erlisioean, Jesu-Kristoganik dathorren bezenbatean, ez, Elizak ez du egin aldamenik batere, eta ez du hortako eskurik. Xoilki, berak egin zituen manuetan egin ditu Elizak aldamen batzu.

JATSUARRAK:- Duda gabe, bai Elizak alda dezazke berak egin dituen legeak.

Bainan bertze hitz bat erran duzu: Girixtino-Erlisio-netik kanpo, nihor ez daitekela salba. Jauna, niri bet-hidanik gogor iduritu zait hori. Eta beraz, zer erran girixtino ez diren hanbat jendez?

Egia da jadanik ere, solas hunen hastapenean, zerbait aipatu dugula gauza hortaz. Bainan nahi nuke zerbait xehetasun gehiago.

LAPHURTARRAK:- Ori, ene adiskidea, ez dohako gizonari Jainkoaren gogo eta eginbide guzien barne-raino sartzea. Gure eginbide baxharra da, zer ere ira-katsi baiterauku eta haren sinestea osoki eta engana-tzeko beldurrik gabe.

Bizkitartean huna zer dioten Elizako irakasle hobe-renek eta argituenek, bereziki San Thomas teologo handiak.

Baldin girixtino ez direnek arthoski begiratzen badute lege naturala, Jainkoak, edo berak barnetik argituz, edo hekieri bidaliz norbait, bai-eta behar balitz aingeru bat, argituko ditu jakin eta sinetsi behar direnez. Eta ordutik, sinestez girixtino eta arimaz Eli-zaren ume litezke. Beraz damnatzen badire, ez da zeren hortaz Jainkoaren gain egin estakuru, bainan baxharrik hekien gain. Ezen, naturalezak berak debe-

katzen deraizten gauzetan bekhatu eginez, Jainkoaren grazieri trabak pharutzen baiteraizte.

JATSUARRAK.- Bainan, Jauna, nola eta nondik izan dezakete lege naturalaren atxikitzeke indarra?

LAPHURTARRAK.- Nondik izan dezaketen? Ageri da, Jainkoaren graziak hortakotz lagundurik. Ezen Jainkoak bere grazia gizon guzietarat hedatzen du, bai eta paganoetarat.

Hortik, guziek begira dezakete lege naturala, eta non ez dioten Jainkoaren graziari traba egiten, salba daitezke.

JATSUARRAK:- Jauna, ez dut nik behinere holakorik aditu. Zer! paganoek ere badutela Jainkoaren grazia! Guk orai arte uste ginuen jende bathaiatuek bakharrik ukhan zezaketela grazia hori.

LAPHURTARRAK:- Hamasei ehun eta laueta hogoi eta hamarrean, Aita-Saindu Alexandre zortzigarrenak kondenatu izan zuen Antonio Arnaldoren erran makhur hau: Paganoek, Juduek, Heretikoek, eta bertze hekien idurikoek, ez dutela Jesu-Kristoganik deus laguntzarik izaiten; halako molde non ez baitute hek beren nahikunde herbail xoilak beizik, demendren graziarik gabe, ez-eta bihotza dengutiena hunki dezaketik.

Erran hori beraz kondenatua da eta osoki makhurrara.

Berdin oraino Aita-Saindu Klement hamekagarrenak kondenatu izan ditu bertze Jansenista baten erran hok: Deus graziarik ez duela Jainkoak emaiten Fedearen ondorioz beizik; - Fedea dela lehen-lehenbiziko grazia eta bertze guzien ithurburua; - Elizatik kanpo ez dela deus graziarik emaiten.

Erran horiek ere beraz makhurak eta kondenatuak.

Eta orai huna egia, teologoek Eliza katolikoarekin irakasten dutena: Bathaiatu-gabeek, ez izanik ere zerurat helaraz detzaketen graziarik, badituzte bizkitartean grazia sendakari batzu, laguntzen dituztenak lege naturalaren begiratzen, garhaitaraziz hortakotzat garhaitu behar diren trabak eta puxuluak. Eta baldin grazia sendakari horietaz ongi baliatzen badire, Jainkoak, bere baithako ontasun berezi batez, igorriko diote salbatzeko eta zerurat heltzeko ahala. Eta hori gerthatuko da edo misionest baten bidez, edo aingeru baten bidez, edo Jainkoak errexki asma dezaken bertze zerbait laguntzaz.

Zer diozu, adiskidea? Ez othe dut erranik aski? Orai ikhus dezakezu nola Bathaiatu-gabeek lege natu-

rala begiratzeko ahal duten, bai-eta nola hel daitezken bizitze surnaturalerat eta zerurat. Gizonak izanagatik berenaz lege horren begiratzeko ahala, bizkitartean, oro khonda eta guziz bekhatuak herbaildu duelakotz, ez dezake atxik Jainkoaren grazia gabe. Eta lege natural hori gisa hortan begiratzeko duelarik, Jainko ona zerbait bidez helduko zaio eta salbaturen da.

JATSUARRAK.- Ori, Jauna, eskerrak zuri, profeta bat bezain ongi eta ederki mintzatu zaizkigu. Eta orai, atsegina baduzu, joanen gaituzu guziak San Frantsesek aldare aintzineran, eta han galda dezakogun gure herri-tar maiteari, bethi eta gehiago Eskualdunen bihotzean hazkar eta finka dezan Erlisione katolikoa, guzien artean baxharrik egiazkoa dena.

Eta gizon hek guziak elizan sarthu ziren, San Frantsesek aintzinean belhaunikatu, eta othoitz eder hau elgarrekin erran

SAN FRANTSSES JATSUKOARI OTHOITZA

Oi Saindu guziz on eta maitagarria, ahuspez, zurekin adoratzeko dut Jainko soberanoa; eta nola, harek

zuri lur huntan egin laguntzez eta zeruan eman sari aberatsez atseginik handiena baitut nik, eskerrak bihurtzen diozkat ahalik eta khartsuki.

Eta zu, bihotz-guziz errekeritzen zaitut ardiets diezadazun othoi, zure arartekotasun botheretsuaz, dohain guzietarik beharrena, sailduki bizitzea eta hiltzea.

Bestalde, ardiets diezadazut (*hemen aipha, nahi ginuken dohaina*) eta baldin nere galdea ez balitz Jainkoaren goresteko eta arimaren salbaltzeko, ardiets diezadazut zer-ere bientzat baita hoberenik eta hura.

3 Gure Aita, 3 Agur Maria, 3 Loria.

Oi Jainko ona, San Frantses dohatsuaren predikuez eta mirakuluez nahi izan ditutzu zure Elizarat bildu Indietako jendaiak; egikuzu othoi haren berthuteri jarraik gaitezen, goresten ditugularik haren egin-kari ederresgarriak; Jesu-Kristo Gure Jaunaren bidez.

Imprimatur:

A.-FRANÇOIS,

Ev. de Bayonne

Othoitz hori erdaratik eskuararat itzuli nuen 1889n, martxoaren lauetik eta hamabira eman den bederatziurrunarentzat, eta hori, Baionako jaun Apezpiku Frantses Fleury-Hotoren baimenarekin. Hortik, elizako bilkhuretan ere erran ditek.

Eliza katolikoan
Da ene sinestea
Zeren hartarik kanpoan
Segur baita galtzea.

Eskualdun, fededun

Ebanjelioa argitzen has orduko,
Herri lehenak bathaiatu zireneko,
Girixtinotu zen Eskualdun guzia,
Bethikotz lothu zaion zeruko hazia.

Hogoi ta hemezortzi urtheren buruan
Jesus izanez geroz bitima munduan,
Pyrene hotarat jautsi zen Santiago,
San Zernin baino zonbait urthe lehenago.

Eskerrak Jainkoari zeren Eskalduna
Izan den egiari hastetik emana,
Eta bethi maita Jesu-Kristo gure Erregea,
Bai-eta Aita-Saindua, delakotz haren Ordea.

II - ZATHIA

Jesu-Kristo eta Eliza katolikoa

Eliza bakhar bat beizik
Ez da egiazkorik,
Jesusek asentatua,
Harek gobernatua.

I - KAPITULUA

**Erlisioea ezagutzekotz behar dugula
lehenik Jesu-Kristo ezagutu.-
Nola dezakegun Jesus hobekienik ezagut.**

Nolako langilea halako lana.- Beha dezogun Jesu-Kristori eta jakinen dugu zer den Eliza.- Maitatuz dugula Jesus hobekienik ezagutzen.- Maiz eta luzaz behar zaio Jesusi behatu.- Neke gaberik, ez da heltzerik.

1. Erlisioea ezagutzekotz behar dugula lehenik Jesu-Kristo ezagutu.

Jesu-Kristok ekharri du zerutik lurrerat egiazko Erlisioea, harek egin eta asentatu izan du Eliza katolikoa.

Premia da beraz ahalik eta hobekienik ezagut dezagun Jesu-Kristo, nahi badugu gure Erlisioea ezagutu. Ezen, dio erran zaharrak, nolako langilea halako lana. Zonbatenaz baita langile bat ernea, jakina eta

esku onekoa, hanbatenaz lan propiak eta ederrak atheratzen ditu.

Hola-hola doha Elizaz eta Jesu-Kristoz. Jainko balin bada Jesu-Kristo, Jainko-lana egin du Eliza asentatzearekin. Eta nola Jesu-Kristo, Jainko bezala, izaite guzietarik lehena eta handiena baita, berdin Eliza ere, Jainko baten eskuetarik atheraia delakotz, lurreko bertze eginkari guziak baino handiago da.

Berriz ere diot, Eliza ongi ezagutzekotz behar dugula lehenik Jesu-Kristo zer den ikhusi, eta zombatenaz hobeki baitiogu Jesu-Kristori behatuko, hanbatenaz dugula Erlisioea ere osoki ezaguturen.

San Thomas teologo handiak ez zuen nahi bertze libururik baizik ere Kurutzefika; eta erraiten ohi zuen, kurutzefika hari behatuz, Jesus bere Jainkoari behatuz, ikhasi zituela zazkien jakitate guziak.

Guk ere beraz lehenik beha dezakogun Jesu-Kristori, eta gero hobeki ikhusiko dugu zer den Eliza.

Goraxago erran dugu: Jakinez geroz nolakoa den langilea, errexkiago jakinen dugu nolakoa den haren lana.

Eta zer diot? Eliza ez da bakharrik Jesus-Kristoren lana; Jesu-Kristo berbera da Eliza saildu hori; ezen, dio Apostoluak, Jesus da Eliza guziaren egiazko burua,

eta Eliza haren gorputza, halako moldez non biek, Jesusek eta Elizak, gauza bat bera egiten baitute.

Eta nola gu baithan burua eta gorputza elgarrekin izaitte bakhar oso bat baitire, berdin, Jesu-Kristo buru bezala, eta Eliza gorputz bezala, elgarrekin izaitte bakhar oso bat dire: Hola dio Liburu-Sakratuen xehatzaile eta argitzaile guziz jakintsun batek, Aita Korneliok.

Urrunago doha oraino izkribatzaile hori eta erraiten du Jesu-Kristo dela, ez xoilki Elizaren burua, baina oraino Elizaren gorputza ere; zeren-eta fededunek ez baitute argirik, indarrik eta bizitzerik, baizik ere xoilki Jesu-Kristorenganik, eta haren graziaz.

Zuzenez dio beraz Aphezpiku handi batek: Oi ene Jainkoaren Eliza, bai egiazki Jesus bera zare zu lur huntan, Jesus bethi gurekin mendez-mende lanean ari dena, oinaze frango jasaiten dituen, eta emeki-emeki zerurat helarazten gaituena.

Hortik, irakurtzaile maitea, nahi baduzu Eliza, egiazko Erlisioea, ongi ezagutu, entsega zaite lehenik ongi etzagutzerat Jesu-Kristo. Jesu-Kristoren erranak eta eginkariak ikhusiz, mihatuz eta maiz hasmarruka gogoan ibiliz dugu hobekienik ezaguturen gure Erlisioe saindua: *In Christo praecipuè considerationis*

optutus fige, mores ejus observa, eloquia meditare.
(C. Laur. Instin.)

2. Nola dezakegun Jesus hobekienik ezagut.

Bainan nola dugu Jesus errexkienik eta segurkienik ezagutuko? Maitatuz!

Norbait maite dugunean, gure gogoan bethi haren ganat itzultzen da, haren baithan landaturik dago. Hola-hola datza Jesusen ezagutzeaz; zinez eta kharztzuki maite badugu, ai geroztik gure asmu guziak hari buruz alhatzen dire, hura dugu bilhatzen ala solasetan, ala irakurtzetan, ala gu baithako gogoetatze ixil eta suharretan.

Eta nola hegastin guzietarik hazkarrena, arranoa, hegalak hedaturik indarka ari baita, bethi eta barnago iguzkirat hurbildu beharrez, berdin gu ere, khartsu garen ber, lehiatzen gare Jesusen dohainak alderen alde ikhusi nahiz: *Qui vult habere notitiam Dei, amet, amet!* (St. August.)

Bainan Jesusen alderat uzkur, nagi eta lazo balin bagare, ai ez dukegu holako sukhar ederrik, bakhan gare Jesusez orhoitzen; orhoiturik ere, laster unatzen gare hari behatzeaz, begiak maiz bertze norapait baztertzen ditugu.

Jauregi batean bada sehi frango; badire zaharrak, badire gazteak; eta zaharretan gehienek lan guti, neke guti dabilate. Eta hori, adin handia dutelako estakuruan, lehenago aski behartu direlakoan; bertze-la ere soldatik ez ukhaiten eta kargutan aintzintzeko ere biderik ez!... horrelako hainitz estakuruz nagi eta alfer daude.

Bainan bada bertze sehi aralde bat, gazte eta hazkar dena. A! horiek goizean goizik lanari emanak dire, etxeko behar-ordu guzien ondotik bethi asmuka ikhusiren ditutzu, ernerik beha daude nausien gutizia eta nahikunde guzieri. Hekientzat dire Jauregiko jaun-andreen begitharte onak, emaitzak, sari eta soldat hoberenak.

Hola-hola datza Jesusen ezagutzeko gutizia dute-nez, batzu lazo, bertzeak khartsu.

Eta hori heldu da, ez gorphutzeko adinetik bainan Jesusen alderat dukegun bihotzetik. Askotan gazteenak dire gehienik uzkur eta nagi, zaharrenak aldiz gehienik suhar eta erne.

Beraz, irakurtzaile maitea, ez du deus mota izan zaiten zahar ala gazte, baldin zure bihotza Jesusen amodioan berorik badaukazu. Bihotza berorik duzun ber, egiazko gaztetasun eta primaderan zare eta zuk

duzu Jainkoa hobekienik bere dohainetan ikhusiko, hobekienik ezagutuko, hobekienik gozatuko. Bihotzak burua ernatzen du, amodioak begia zorrozten, suak argia emendatzen; eta guziz Jainkozko gauzetan, bihotza, amodioa, sua, dire urrun joaiteko eta barna sartzeko hegalik hazkarren eta zalhuenak.

Bainan bihotza nagi, uzkur eta lazo duzun ber, sehi zahar hekien heinerat eroria zare, hek bezala alfer, hek bezala phizu hek bezala herrebes, hek bezala ezindua Jainkozko gauzetan; Jesu-Kristori buruz zure bixta labur da, zure begiak lanhotsu, hedoitsu eta goibel.

So egikosu ahotzari. Burdina moldatu nahi duenean, ez du behinere osoki hozterat uzten, bainan epheltzen hasi deneko suan berriz sartzen du. Eta zertako? Amoreagatik lehen bezain bero eta zalhu jar dadien berehala.

Orobat gerthatzen zaio gizonari Jainkoaren ezagutzeko egin behar diren entseguetan: bethi ernerik eta suharrik dagoena, bere xederat errexki heltzen, bainan lazatzen eta hozten dena sekulan ezin hel.

Hortakotz dio Erran-zaharrak: Esku hazkar eta erneak emanen du aberastauna, bainan esku nagi eta alferrak erromeskeria.

Zure bihotzeko uzkurtasun lazo horrek iduri du bai deus handirik ez dela, eta menturaz espantitzen zarenik erraiteaz horrelako ondorio gaitzak dituzkela. Baina iduriagatik eskas ttikia, lazakeria horrek bethi gibelatuko zaitu Jesusen ongi ezagutzetik, ezen, dio San Augustinek, itsasoari gora dohan untzia gal deza-ke ur xorta batek hala-nola kalernarik borthitzenak.

Beha zakozu, itsasoari gora dohan untzi eder eta hazkarrari. Denbora ona denean, uhinak laño eta ordoki direnean, ur handiak miraila bezain garbi hedatzen direnean, oi nola ernerik laster egiten duen untzi horrek! Hegalak hedaturik, hegastin bat iduri, haizea bezain zalhu dabila.

Denbora gaxtoak berak ez du izitzen. Itsasoa samurtzen eta borthizten bada, haize-xirimolak tulunbioka marrumaz hasten badire, ortziaren azantza alde guzietarik zartaka karraskatzen bada; orduan ere untzi ederra bethi aintzina doha beldurrik gabe.

Bai zinez itsasoko errege da.

Bizkitartean horra non egun batez nekezago dohan; ez da lehen bezain zalhu; uzkurtua eta nagitua da. Zer gerthatu diteke? Ez gauza handirik, baina aski eta sobra untzi hazkar horren galtzeko.

Untzi handia urez ur hegaldaka zabilalarik, har
ttiki bat petik ausikika ari zitzaion. Emeki-emeki har
ttiki horrek zurari xilo bat egin dio, ura barnerat xorta-
ka sarthu da, sartzearen bortxaz emendatu da eta goi-
titu, eta azkenean untzi zalhua ez daiteke ibil nun ez
dioten ur-meta ahalik eta laster kanporat aurthikitzen.
Eta baldin sobra metatzerat uzten badiote, untzia las-
ter itsasoari behera jautsiko da eta galduko.

Hola-hola gerthatzen zaio gizon lazo uzurrari.
Gertha daiteke gizon hori dela berenaz erne, biphil eta
jakintsun. Bainan ez da hori aski Jesusen ongi ezagu-
tzeko. Bihotzak behar gaitu lan hortan, buruak bezen-
bat edo gehiago, lagundu, gutarik gorago amodioaz
altxatu. Jesusen ezagutzarat ereman behar gaituen
untzia, jakitatez baino gehiago amodioz egina da; eta
baldin lazakeriaren harrak untzi hori zilhatzen badu,
ez gare sekulan gure xederat helduko.

Eta, dio bethi San Augustinek, zer mota du lan hor-
tan gal gaitezen bekhatu handi baten itsumenduaz ala
emeki-emeki gure lazakeria txarrez?

Egin dezagun beraz, Jesu-Kristoren Imitazioneare-
kin, othoitz eder hau:

Oi Jesus, premia da bai eta premia handi, bihotze-
ko khar bizi batek desloth gaitzan gu baitharik eta ber-

tze izaite guzietarik, zuganat osoki altxa gaitezen eta goratasun hortan berma ditezen gure begiak ikhustekotzat zure dohain eta maitagune izarigabeak. Khar hori gabe, su goraitiar hori gabe, nihork ez zaitu begiestatzen eta ikhusten ahal. *Oportet omnem supertransire creaturam, et seipsum perfectè deserre, ac in excessu mentis stare, et videre te.* (Lib. 3, c. 31.)

Eta azkenik, hastean aiphatu hitzak errepikatzen ditut hemen berriz ere: Jesu-Kristok ekharri du zerutik lurrerat egiazko Erlisioea, harek egin eta asentatu izan du Eliza katolikoa. Premia da beraz ahalik eta hobekienik ezagut dezagun Jesu-Kristo, nahi badugu gure Erlisioea ezagutu, ezen, dio erran zaharrak, nolako langilea halako lana.

Egia da ez gaitezkelara hemen laburzki beizik mintza Jesu-Kristoz. Ondoko kapituluan baxharrik haren Jainkotasunaz zerbait aiphatuko dugu. Baina bat-bederak, bere Erlisioea ezagutu nahi duen ber, behar dio Jesusi maiz eta luzaz behatu, izpirituz baino ere gehiago bihotzez eta amodioz.

Diot *maiz eta luzaz* behar zaiola Jesusi behatu, ezen haren osogunea ez daiteke ikhus begi-kolpe batez. So egin behar zaio iraupenekin, arthoski, eta

aldikal buruan ibili zer den, nolakoa den, zer xedez asentatu duen Eliza, nolako agintsak egin ditzan, bere ordain eta lekhukotza eman deraukula Erromako Aita-Saindua ber-bera ere mendez mende Elizaren erdian dagoela aldareko Sakramenduarek bidez... etc...

Holaxet egiten dute arima on eta Jainkotiarrek. Guk ere egin dezagun berdin. Emeki-emeki behatuz, emeki emeki jastatuz, emeki-emeki gozatuz, bethi eta barnago sarthuren gare Jesusen baithan, bethi eta hobeki ezaguturen du gu harek asentatu duen Eliza.

Zaharrek diote: *Lan lasterra, lan alferra.*

Beraz, irakurtze hunek argituko eta hunkituko zaituenean, bara zaite, liburua hets zazu, eta zure baithan bildurik egin zaitzu zonbait gogoeta, hasmarruka bezala egon zaite. Orduan dire argiak emendatuko zure adimenduan eta su-garrak phiztuko zure bihotzean. Orduan du gizonak ezagutzen zer den Erlisio-nea, zoin handia, zoin ona, eta nola garen bethi haren baithan sortzen, bizitzen, harat-huna ibiltzen.

Gizona bere bidean
Norat-nahi dohala,
Arraina itsasopean

Urez gaindi bezala
Jaunaren Erlisionean
Igerika dabila.

Hortik, irakurtzaile maitea, gogo ona behar duzu, gogo iraunkorra eta indartsua, baldin nahi bazare Jesusen bidez Erlisionearen ezagutzera heldu. Ez da hori entsegurik gabeko lana, ustegabeen eta nolanahika egiten dena. Ez! Eta nor ere lan hortan laster unatzen, lotsatzen eta gibelerat itzultzen baita, harek ez daki erran-zahar hunen berri: *Neke gaberik ez da heltzerik.*

Bazinu ere munduko izpiriturik zorrotzena eta argituena, alferretan zinueke, ezen Jesusek asentatu Erlisioea bezain gora den helburua ez daiteke akhitz bezirik osoki ikhus eta besarka.

Aingeruak, Jakobean zurubian, ez zabilzan hegal-daka, bainan oinez, mail batetarik bertzera aldizka iganez. Berdin zu ere, Jesusen eta harek asentatu Eli-zaren ezagutzerat helduko zare, ez lehenbiziko urra-tsean, bainan emeki-emeki eta behar den denbora hartuz.

Goizean, oilaritzak edo argi-hasteak ez ditu kolpez hartzen zeruko eremu guziak, bainan aldizka, lehenik

mendi bat, gero bertze bat, hel arauka ilhunbeak bar-heiatuz. Berdin datza gure adimenduaz. Ez dezake indarka beizik ikhuz, egun zerbait, bihar bertze zerbait. Eta hemen ere aipha dezakegu erran-zaharra: *Ilhunbeak kalopan zaldiz, argiak herrestan oinez.*

Bainan zer mota du, beharrik ere aphur bat akhitsu? Erlisionearen ezagutzean aintzinateago eta hobeki da gure gogoia deskantsatuko. Ezen hala-nola hegastinek airean ibiltzeko baitituzte hegalak, berdin guk ere harenganat altxatzeko ditugu gure adimendua eta gure bihotza. Erran dezagun beraz Neurthitz-lariarekin.

Airetan ibiltzeko,
Jaunaren dohainak,
Ez preso egoteko,
Ditut nik hegalak!
Zerurat airatzeko,
Lurrean alferrak,
Zaizkit baliatuko
Agian hegalak.

Laborariak bezala eginen dugu. Asko lan eta izerdi ibili behar ditu laborariak ogiaren ereiteko. Bainan

ereitearen ondotik heldu da uztaren biltzea; eta orduan bihi bakotxarendako laborariak izanen du ogiburu nasaia, orduan erranen ahal du: Neke izerditan entsegatu nintzen, bainan azkenekotz bozkariatu naiz eta aberastu.

Hola-hola gerthatzen zaio Erlisionearen ezagutzean entsegatu nahi denari. Hastean akhitzen, nekez ikhusten; iduri kasik ezin argituzko ilhunbetan itsuturik dabilala. Bainan ez duzu zeren lotsatu; hori duzu haziaren ereiteko lan dorphea. Uztaren biltzeko aroa ethorriko da geroxago. Eta noiz othe? Eginen dituzun entseguen arauka, ezen Erlisionearen ezagutzeko bidetan iguzkiak bere argia hedatzen du gure lanaren izarira; eta non ere baitire irakurtze atzarrienak eta gogoetatze erne eta bilduenak, han du arimako iguzkiak, *Egiak*, gehienik distiratzen: *Divina inspectio eo differentior est ab aliis, quo interior: cum per ipsum dignatur invisere Deus animam quaerentem se, quae ad quaerendum toto se desiderio et amore devovit.* (S. Bernard. Serm. 28, super Cant.)

II - KAPITULUA

Jainko dela Jesu-Kristo

Xapeldun baten athermaldi ergela.- Jesu-Kristoren Jainkotasuna, ezin ukhatuzko egia.- Jesu-Kristoren Jainkotasuna harek egin mirakuluek goraki agertzen dute.- Pazkoz hilen artetik phizteak irakasten du Jesu-Kristoren Jainkotasuna.

Arthemeindan, irakurtzaile maitea, xapeldun batekin solastatzera gerthatu naiz, eta laster Erlisioenez mintzatzera heldu ginen. Elhetik elhera, geroago eta gehiago atrebitu zen nere gizona, eta horra non abiatzen zaitan, irri-musika batekin, gure sinesteaz trufatzen. Bai eta osoki fuxizten zait, eta azkenaz-goiti ausartaturik erraiten deraut Jesu-Kristo ez dela Jainko!

Nor harritzen da? A! ni naiz ni harritzen, eta nahiko nuen xanfarin ergelari biphilik ihardetzi. Bainan hura gizonki horthitz eta jauzkorra; ni aldiz aphez eta misionesta, eta nonbaitik ere nahi ardi errebelatu hura korralerat bildu, eztitasunekin jokhatu nintzen.

Eta nola eihara bezain trebeki eta ausarki mintzo baitzen, utzi nuen lehenik bere su haren deskantsuan aurthikitzerat. Bainan gero jin zen ene aldea.

Aspaldiko errana da: *Hora ez da harri-ukhaldiz ematen*. Eta zonbat ez dire bazterretan, bai eta mai-zegi Eskual-Herrian, horrelako ergel atrebitu batzuetarik, zer-nahi baiterasate Erlisioneko egiarik agerienen kontra, eta horak iduri, saingaz eta ausikika lotzen baitire eta oldartzen gauzarik sakratueneri!

Gizon horri beraz eztiki mintzatu nintzen, orhoituz erran zahar huntaz: *Mintzo eztiak bihotz gogorrena ema diro*.

Zuk ere, irakurtzaile maitea, holako ergelekin berdin egizu. Bainan izitu gabe, ezen gehienek ez dute mila balio.

Baditeke menturaz jakitate zerbait badutela mirikuntzako, edo legetako, edo bertze zerbait gauzetako.

Bainan jakin zazu holako gehienak itsu, osoxi itsu, direla Erlisioneko gauzetan. Eta nola nahi duzu bertze-la? Doidoia haur-denboran katexima poxi bat ikhasi zuten, eta hura ere hala-hula; eta geroztik liburu izurritsu frango bai, bainan liburu on bat ez dute kasik sekulan irakurtzen.

Nondik nahi duzu beraz jakin dezaten Erlisioea? Ai hoberena duzu, irakurtzaile maitea, urruntzea heketarik, Erlisioeari jasartzeko ohidura badutela ohartu zaren ber.

Bainan nola behin edo bertze gertha baititeke ezin ihes egina; nola oraino hekien solasek khordoka baitezazkete tieso ez diren buru frango, nahi dut hemen Eskualduneri eman zerbait harma onik.

Berdin ez da gaitz, ezen jakin behar duzu, Aposto-luen denboratik hunat asko eta asko gizon handi argituek irakatsi, finkatu, eta ezin hobeki argirik distirantean ezarri dutela Jesu-Kristoren Jainkotasuna. Girixtino legeko zimendu horren kontra aiphatu diren gezurkeria guziak, hanbat eta hanbat aldiz herraustu dituzte Elizako Aitek eta teologoek.

Nik hemen ez derauzkitzut eskuetarar emanen bi harma beizik, bainan hek hain borthitzak, non xapel-dun guziera eta hekien iduerieri, kaskoa phorroskatu-ko baitiote.

Jakin behar duzu lehenik mirakulua dela naturale-zaren legetarik kanpoko eta bertzelako gerthakari bat, gizonen eta aingeruen indar eta ahal guziak gaindi-tzen dituen; hala-nola, hil baten phiztea, sortzez itzu den bati bixtaren emaita, eri bat manu xoilaz eta

osoki sendotzea. Horiek eta holakoak ez dezazke egin Jainkoak beizik.

Eta zer? ez othe dugu frangotan aditu Sainduak ere holako gauzak egiten dituztela?

Bai; ordean behar da ikhusi: Sainduen othoitzera, hek errekerituz, egiten direla holako mirakuluak, baina bethi Jainkoak eta Jainkoaren bothereak egiten dituela. Gizonaren ahala, nahi bezain saindua izanen bada ere, ez daiteke hortakotzat aski.

Diot bestalde Jainkoak ez dezakela mirakulurik egin gezurraren gizoneri sinetsarazteko.

Ez balinba!

Jainkoak bere botherea gezurraren alde emaita laiteke hori, bai-eta gizonak gezurraren sinesterat borxtatzea. Eta horiek Jainkoaren zuhurtzia izarigabearen kontra laitezke.

Horiek hola, diot Jesu-Kristok mirakulurik handienak egin dituela, eta hori osteka, non-nahi eta noiz-nahi.

Eztei batean ura arnorat itzultzen du; mortuan bortz ogi hainbertzetaraino emendatzen ditu non asezten baititu bortz mila gizon; zer-nahi minetarik sendotzen ditu ezin khondatuzko eri elemeniak; bai-eta hil usteltzen hasiak hobietarik phizten ditu.

Hitz batez, Ebanjelioa irakurtu duten guziek bada-kite Jesu-Kristok osteka egin dituela mirakulurik handienak.

Eta hemen, teologo guzietarik argituenak, San Thomasek dio: Nola Jesu-Kristok egin mirakuluak, gizonaren indarretarik hainitzez goragokoak baitire; nola egin baititu Jesu-Kristok, ez bertze norbaiten laguntzarekin, bainan xoilki bere baithako ahal eta indar soberanoaz; mirakulu horiek goraki eta ausarki irakasten dute haren Jainkotasuna.

Eta orai ikhus dezagun: - Eia mirakulu horiek egiazki eginak izan diren; eta egiazkoak balin badire, eia Jesu-Kristok bere Jainkotasunaren irakasteko egin dituen.

Deus ageriagorik, Jesu-Kristok mirakulu horiek argi bethean egin ditu, batzuetan asko mila jenderen aintzinean, frango aldiz bere etsai muthiri Farizaoen eta Eskribanoen bixtan; orobat Ebanjelistek izkribatu eta errepikatu dituzte Juduen beren herrietan, eta halarik ere Juduetarik nihor ez da atrebitu mirakulu horien gezurtatzerat; aitzitik aithortu dituzte. Berdin aithortu dituzte Mahometek, bai eta paganoek berek, hala-

nola bere sehiaren sendotzea Jesu-Kristori galdatu zuen Ehunkariak (*centurio*).

Ikhusten duzu beraz erhokeria litekeela Jesu-Kristoren mirakulu horien ukhatzea, hala-nola eguerditan eguna dela ukhatzea erhokeria bailiteke.

Eta bada orobat da ageri Jesu-Kristok bere Jainkotasunaren irakasteko xedez egin izan dituela mirakuluak.

Hola zioten berak erraiten judueri: Baldin ez banauzue nere hitzean sinetsi nahi, sinets zaitzue egiten ditudan ikhusgarriak. Ezen mirakulu horiek bortxatzen zaituzte ikhusterat eta sinesterat ene Aita ni baithan dela eta ni ene Aitaren baithan, halako moldez non biak berdin Jainko baikare.

Eta bertze aldi batez huna zer gerthatu zen; Ebanjeliotik hartzen dut hitzez hitz:

Nola Joanesez, burdinetan zagoela, ikhasi baitzuten Jesu-Kristoren egintzak, igorri ziozkan bere dizipuluetarik biga,- Berari galda zezoten: Zu zare ethortzekoa dena, ala bertzerik behar dugu iguriki?

Eta Jesusek ihardetsi zioten: Zoazte eta erran Joanesez zer entzun eta ikhusi duzuen.- Itsuek ikhusten dute, mainguak badabiltza, legentsuak garbitzen dire, gorrek entzuten dute, hilak phizten dire, beharrerri

Ebanjelioa irakhasen zaiote.- Eta dohatsu nigatik gaitzbidetan lerratzen ez dena!

Hortik ikhus zazu: 1^{ik} Jesu-Kristok egin dituela egiazki mirakuluak, eta 2^{ik} mirakulu hek egin dituela, bera Jainko dela irakasteko xedetan. Beraz Jesus-Jauna zinez Jainko da. Zer zautzu orai, irakurtzaile maitea?

Goazin aintzina. Huna orai Jesus Jainko delako bertze agergailu bat, laburra bainan hazkarra.

Bere hiletarik phiztea Jesu-Kristok eman zioten judueri Jainko zelako irakasmenetarik batentzat. Hola zioten erran, bere gorphutzaz mintzo zelarik: Aurthik zazue tenplo hau, eta xutik berriz ezarriko dut hirur egunik barnean. Berdin oraino bertze egun batez: Huna non goazin Jerusalemera, eta eskarniatuko naute, azotatuko eta kurutzefikatuko; bainan hiletarik phiztuko naiz hirurgarren egunean. Bertze aldi batez ere berdin: Judu gaxto horiek ikhusgarri baten galdez dabilta; ez diotet Jonas profetarenaz bertzerik emanen: Jonas bezala, lurraren barnean egonen naiz hirur egun eta hirur gauez, bainan gero handik ilkhiko.

Hortakotz larunbat sainduz juduek erran zioten Pilatusi: Jauna, orhoitu gare enganatzaile horrek, oraino bizi zelarik, erran izan duela: Phizturen naiz hirur

egunen buruan. Mana zazu beraz, hobia hirurgarren eguneraino izan dadien zaindua, beldurrez-eta haren dizipuluak ethor ditezen eta ebats, eta gero erran: Hiletarik phiztu da!

Horra Jesu-Kristok nola aintzinetik agindu zuen bere hiletarik phiztea. Beraz, agintza hori bethetzen bada, bi frogantza suerte emanen ditu Jesu-Kristoren Jainkotasunari: lehenik agintza horrek berekin dera-man frogantza, eta bestalde hilen artetik phizteko mirakuluari eratxikia den frogantza. Eta bada, agintza hori bethe dela baino, eta Jesu-Kristo phiztu dela baino, deus ere argiagorik.

Hemen ederrets zazu nerekin Jaunaren zuhurtzia. Juduek, beldurrez-eta Jesu-Kristo phiztu zelako otsa altxa zadien, zigilatzen dute haren gorputza ehortzi-rik zeraukan hobia, eta soldadoak haren zain emaiten.

Apostoluek beraz ez zezaketen handik ereman Jesusen gorputza. Hasteko gainetik ez, zigilatua zenaz geroz hobia eta soldadoz inguratua; ez-eta lurraren petik, ezen hobi guzia harrokaren bihotzean egina zen.

Eta bizkitartean Jesusen gorputza hobitik athera-tu zen, juduek berek ikhusi zutenaz geroz hobi hori idekia eta hutsa. Nolaz ordean ilkhi ziteken Jesus?

Ageri da: Phiztu zelakotz! Ez daiteke deus bertzerik erran.

Ikhusten duzu, Jesu-Kristo phiztu zelako ospearen kontra hartu bideak, baliatu izan dire Phizte horren osoki seguratzeko.

Juduek, bertze deusik ezin asmatuz, hedatzen dute otsa, baizik eta Apostoluek Jesusen gorputza ereman dutela, soldadoak lo zaudelarik. Zer zoramen-dua! ihardesten diote hemen San Augustinek. Zer? lo zauden batzu ekhartzen ditutzue lekhuko? Ordea, lo bazauden, zer ikhusi dute? nondik dakite Apostoluek ereman dutela Jesusen gorputza? Eta ez bazauden lo, zertako ez dituzte Apostoluak debekatu?

Hola zen mintzo San Augustin.

Eta bestalde, gizontasunaren kontra joaitea laite-ke, erraitea Apostoluek ereman zutela Jesusen gorp-hutza. Ezen, Jesu-Kristo ez balitz phiztu, bereri erran zioten bezala, mundu-enganatzaile batentzat ezagutu behar zuten, eta bethikotz debalde utziko zuten. Nor-nahik hola eginen zuen: bethikotz utziko.

Bainan, hortarik urrun, goraki erran dute Jesu-Kris-to phiztu zela. Eta non? Jerusalem, Jesusen etsai errahiatu juduen aintzinean. Ez debekuek, ez lausen-guek, ez agintzek, ez dixiduek, ez sarraskiek ezin gel-

diaraz detzazkete egia horren errepikatzetik. Eta azkenean beren odolaz finkatzen dute.

Nola nahi duzu bada hola egin zezaten, ez balire osoki segur izan Jesu-Kristu phiztu zela?

Erran dezakegu bai Elizako Aita batekin, eta demendren dudamударik gabe: Gizonari dohako hiltzearen beldur izaitea, eta aldiz, hiltzea eta gero nor bere indarrez phiztea, ai hori Jainkotasunaren agergailu ezin ukhatua da.

Hurbil hadi, Eskualduna,
Hemen iragaitean,
Hau duk hire Jainko-Jauna
Josirik kurutzean.

III - KAPITULUA

Aintzineko kapituluaren osogarria

*Hazparnen Arroltze-mendiko Kalbarioa.-
Jesusen gorputza eta arima.- Gure
erospena.- Ebanjelioaren hitz ederrak.*

Hazparnen, maiatze goiz batez, Arroltze-mendiko Kalbarioari gora bazoazin Jaun Aphez gazte bat eta haren arreba. Hunek eskutik zabilan mutthiko ttiki bat bere haurra.

Haur horrek zituzken gorenaz hamar bat urthe. Jite onekoa, izan ahala ongi altxatua, egiazko aingeru baten begitarte garbi eta maitagarria zuen, eta jadanik zion nahi zela aphez egin.

Haur horren ama, Eskual-Herriko etxeko-andere hoberenatarik bat zen, osoki Jainkotiarra, bai-eta buru onekoa, zentzu oso zuzenekoa, bere harat-hunat guzietan bethi hazkar eta erne zabilana.

Harer anaia Apheza, berriki atheratua zen oraino seminariotik. Zinez eta finki ibili zituen bethi eskoleta-ko bere lanak; bainan, aphur bat akhituxea izanagatik,

laborari seme haten gorputz lerdena zuen, osagarri zail eta garbia, Eskual-Herriko arthalde hedatu eta menditarrentzat arimen artzain batek behar duen bezalakoa.

Kurutzearen bidea egin zuten hirurek elgarrekin.

Kalbario gainerat heldu eta, kurutzearen oinetan jartzen dire eta mutthiko ttipia bien artean emanik, anaia arrebak solasean abiatzen.

Solas egiteko eta deskantsu puxka baten hartze-ko, ez dut uste baditeken toki hobeagorik. Zure begien aintzinean agertzen dire Hazparneko herrialde eta eremu zabalak: Labiri, Elizaberri, Hazketa Peña; ikhus-ahala phentze, aldapa, ordoki, oihan, mahasti, bazterrik ederrenak alde orotarat hedatzen direla.

Eta non-nahi etxeak, beren hegastegi eta leiho gorriekin, paretak gisuz xuriturik, irriz daudela iguzkiari. Eta urrunago Beskoitze eta Ahurti, eta hekien gibelean Landesetako bazterrak.

Eskuinera behatzen baduzu, agertzen zaitzu Aiherre, Ixturitze eta Gerezieta, hedatzen dituztela beren etxalde eta ontasun gizenak ala zelhai eder batean ala mendiska batzueri gora. Ezkerrerat aldiz ikhusten duzu Urtsuko mendia eta haren oinetan Hazparneko eskualderik ederrena. Zelaiko herrialdea.

Bai, Arroltze mendiko bixta osoki xoragarria da, handik dire begiak ausarki gozaten eta asetzen.

Huna beraz zer solasetan abiatu ziren anaia-arrebak. Jesus Kurutzefikatuaren alde-aldean jarriak eta haren orhoitzapenez oro betheak, hartaz ziren mintzo. Elhetik elhera, huna Etxeko-Andreak zer galde egin zion bere anaia Jaun Aphezari:

Othoi, behar zaizkit Jesusez aphur bat mintzatu; bihotza oro hunkitua dut estazione hok eginik eta zerbait entzun nahia naiz Salbatzaile maite horren gainean.

Eta huna nola ihardetsi zion Aphez gazte kharatsuak:

Dakizun bezala, Jesu-Kristo Jainkoaren seme gizon-egina da; eta horrek erran nahi du, guk ditugun bezalako gorphutz bat eta arima bat hartu dituela. Halako moldez non, guganik Jesu-Kristoganat, ez baita ariman ez-eta gorphutzean desberdingoarik funtsez eta izaitez, bainan bai, eta hainitz, moldean eta gisatasunean.

Diot *moldean eta gisatasunean*, ezen gure arima bekhatuak kutsutzen eta lizuntzen du; eta aldiz Jesu-Kristo baithan ez da izan ethorkizko bekhatuak, ez-eta bere nahikorik; eta ezin zaiteken gertha ere.

Gure arimetan bada gaizkirako asko jaidura, halanola hanpadura, jauzkortasuna, atsegin-gura, eta bertze hainitz bethi borrokatzen gaituztenak; Jesu-Kristo baithan ez da izan behinere bekhaturako deus jaidurararik.

Gu jakitate-eskas oso batean sortzen gare, eta nekearen bortxaz beizik ez gaitezke zerbaiten ikhasterat hel; eta aldiz Apostoluak dio: Jesu-Kristoren baithan bilduak direla zuhurtziaren eta jakintasunaren aberastasun guziak: *In quo sunt omnes thesauri sapientiae et scientiae absconditi* (Ad colos. 2, 3.) Eta hori gerthatu zen Jesusen arima ezdeusetik atheratu bezain laster.

Orobat izan zen arima saindu hura Jaunaren graziaz eta zeruko dohain baliozenez gaindizka eta kasik neurri-gabe bethea eta aberastua.

Ikhas zazu hortik, gure arimak Jesu-Kristoren arimatik zoin urrun diren dohainetan eta osogunetan.

Alabainan, ez da miresteko Jainkoak bere osogunerik baliosenez aberastu balin bazuen gizontasun hori, zuenaz geroz beretzat hartu Presunaren batasunean.

Eta zer erran behar dugu Jesu-Kristoren gorputzaz?

Gorphutz sakratu hura ere gurea bezalako zen funtsez; gurea bezala haragiz, hezurrez eta odolez egina.

Desberdingua haren eta gurearen artean, huntan datza: Harek ez zuen jaidura gaxtorik batere, guk jasaiten ditugun bezala. Hil ondoan ere gorphutz sakratu hura ez zen usteldu, nola egiten baitire gureak.

Gainerakoan, Jesu-Kristo gu bezala bizi zen eta zabilan. Gosea eta egarria, hotza eta beroa, nekhea eta unhadura jasaiten zituen. Eta badakigu zer oina-zeak pairatu dituen azkenekotz bere heriotze ikhara-garrian!

Zuk menturaz erranen duzu: Ai handi zait eta gaitz Jainko bat horrelako apha-gunetarat jaustea.

Bai eta niri! Bainan horrek behar gaitu guziak maitagunez Jainko gizon eginarentzat sustatu. Go emazu bizkitartean: Ez duzu uste izan behar Jainkotasunak bere baithan deus holakorik jasaiten zuela. Horiek guziak Jesu-Kristoren gizontasunean, haren ariman eta haren gorphutzean, iragaiten ziren. Nolaz ordean eta zertako izan dire Jesu-Kristoren aphaltze, pairatze eta hiltze espantagarri horiek?

Eliza katolikoak ihardesten derauku bere *Credoan* edo Sinestean: Gugatik eta gu salbatzeagatik: *Propter nos homines et propter nostram salutem*. Orobat Jesu-Kristok berak Ebanjelioan ihardesten derauku: Jainkoaren semea gizon egin da eta mundurat ethorri, galdu zenaren bilhatzera eta salbatzera: *Venit quaerere et salvum facere quod perierat*. (Luc. 19, 10.)

Alabainan gure lehenbiziko Aita-Adamen bekhatuaz lizunduak ginen, Jainkoaren etsai ginen, ifernuko bidean sartuak ginen. Eta gu gerori ez ginitezken ondikozko erortze hortarik altxa. Ez da ezen gizonik, ez eta aingerurik, bekhatu mortal bakhar batentzat Jainkoari zor dagokon erospena eskeint dezakenik.

Jainko Semea beraz urrikaldu da, gizon egin, kuru-tze batean hil; eta hola gaitu bekhatutik eta ifernutik erosi. Hola dio bere Aita hasarretuari erospen bat eskeini izarigabea, haren osoguneari zor zitzaion bezalakoa.

Hori deitzen da gure Erospeneko misterioa. Eta bestalde horrela da Jesu-Kristo mundurat ethorri gure buruzagi bezala, gure nausi, gure lege emaile, gure molde eta saindutzaille.

Misterioen espantagarriak! Jainko batek horrenbertze egin eta paira dezala gizon bekhatorentzat!

Non da gure sinestea, holako ederresgarriez hain guti baikare orhoitzen?

Hortan gelditu zen anaia-arreba hekien solasa. Bainan Arroltze mendiko kurutzetik urrundu gabe, eta belhauniko emanik, ama khartsu harek bere haur maiteari erran ziozkan neurthitz eder hok:

Aingeruen Erregea
Erori duk tronutik;
Herrestan dik bizitzea
Ereman hiregatik.
Zerutik jautsi legeaz
Mundua dik argitu,
Zerua heriotzeaz
Hiretzat merezitu.
Nork du entzun egundaino
Holako pairamenik?
Burutik oinetaraino
Dena zauri eginik!

Jesus, oi zu eztimasuna bera,
Zeruko dohainen ithurburua,
Othoi gathez dezazu esteka
Zuri bethikotz ene bihotza!

Azkenik huna zer egin zuen Jaun Aphezak. Bere sakelatik hartu zuen Testament berria, eta behatuz aldizka Kalbarioko kurutzefikari eta bere liburuari, hitz hok goraki irakurtu zituen.

«Aingeruak erran zion Mariari: Amatzera zoazi eta erdiko zare seme batez, eta emanen diozu izena Jesus.- Hura izanen da handi eta deithuko da Guziz-Goraren Semea, eta Jainko-Jaunak emanen dio bere aita Dabiden alkhia, eta bethikotz erreginaturen du.»

«Jesussek erran zioten judueri: Abraham, zuen aita, lehiatu izan da, ene eguna ikhusi nahiz, eta ikhusi izan du, eta bozkariatu da.- Juduek orduan: Zer, ez ditutzu oraino berrogoi eta hamar urthe, eta zuk ikhusi duzula Abraham?- Eta Jesussek: Egiaz, egiaz diotzuet, banaiz Abraham baino lehenagodanik, bethidanik, ezen Jainko naiz ni.»

«Joanes-Batistak Jesus bathaiatzen zuelarik, zerua zabaldu zen, eta Jesusen gainera jautsi zen Izpiritu-Saindua urtzo baten itxuran; eta mintzo bat egin zen zeru gainetik: Zu zare ene Seme maitea, zu baithan gozatzen dut nik ene zoriona.»

«Jesussek berekin hartu zituen Piarres, Jakes eta Joanes, eta mendi gora batetarat ereman.- Eta hedoi

batek inguratu zituen, eta hedoi hartarik mintzo bat ilkhi zen, zioela: Hau da ene Seme maitea, hunen bait-han derauzkat ene atsegin guziak: hau entzun zazue.»

«Bai, bai, badakigu ethorri dela Jainkoaren Semea; eta harek argitu izan gaitu, ezagut dezaguntzat egiazko Jainkoa, eta bizi gaitezen haren egiazko Semearen baithan. Jesus da egiazko Jainkoa eta bethiereko gure bizitzea.»

Hire gain uzten diat ene arthaldea,
Bildotsen bai ardien xuxen alhatzea.
Hiri zagok anaien beren azkartzea.
Hik idek edo hets duk Zeruko athea,
Hik duk ene gakhoen podore bethea.

IV - KAPITULUA

Eliza katolikoa

*Jesu-Kristok berak asentatu izan du.-
Jesu-Kristok eman dio Eliza katolikoari
egiaren irakasteko indarra.- Zer den eta
nolakoa den Eliza katolikoa.- Gure sines-
tea Jainkoarengatik heldu zaukula Eliza-
ren bidez.*

Ikhusi dugun bezala, Jainko da Jesu-Kristo; ezin ukhatuzko egia da; eta geroztik erran behar dugu, harek asentatu Eliza ere Jainkozkoa dela.

Eta huna nola asentatu zuen Jesu-Kristok Eliza hori.

Lur huntan zelarik, maiz errepikatzen zioten bere Dizipuluari, bai eta Judeako jende-osteri: Ni naiz gizonek sinetsi behar duten egia eta atxiki behar duten lege edo eginbidea.

Berdin oraino: Ni, mundu huntarat ethorri argia naiz, eta niri sinestez eta egitez jarraikiren direnetarik ez da nihor sekulan aurkhituko ilhunbetan. Badire

gezurrezko ilhunbeak, badire bekhatusko ilhunbeak, badire ifernuko ilhunbeak; eta ni, Aitaren eskuinetik lur huntarat jautsi naiz amoregatik-eta ilhunbe horietan zuetarik nihor ez dadien gal.

Eta huna zer dion Jaundone Paulok, hitz horiek xehatzearekin: Noiz ere Aita Jainkoak ezdeusetarik atheratu baitzituen Zeru-lurrak, egin zuen iguzkia, eta iguzki harek haizatu zituen ilhunbe guziak, eta laster mundua burutik buru argi eder batez oro jauntzirik aurkhitu zen. Hola-hola egin du gu guzientzat. Aspal-diko mendeetan gizonak gezurrezko eta bekhatuzko ilhunbetan zauden ihortzirik. Bainan ethortzen da Inkarnazioneko oren handia; eta orduan Aita-Jainkoak gure ilhunben erdirat igortzen du egiazko iguzkia, Jesu-Kristo; eta iguzki guziz distirant horrek gizonen izpirituak eta bihotzak argitzen ditu, eta ilhunbeak oro dezeginak eta ezeztatuak dire.

Hortakotz, Eguberriko gau ederrean, Eliza sainduak bozkalentzia handitan errepikatzen du: Oi Aita-Jainkoa, eskerrak zuri, zeren-eta zure Seme gizon-eginaren bidez gutarteraino distiarazi baituzu zure argia, sinetsi eta atxiki behar dugun egia.

Eta zuri ere, oi Jesus, esker berak bihurtzen derauzkitzugu, ezen onetsi eta hartu izan duzu zure

Aitak eman derauzun lan handi hori. Hogoi eta hamahirur urthez ez da zuk egin ez duzun entsegurik egiaren irakasteko, ala zure elhez, ala zure eginkariez. Eta guziz zure biziaren azken hirur urthetan irakasmek eskubetheka hedatu izan dituzu, hala-nola ereileak bere alhorrean bihia ahurtraka hedatzen baitu.

Bainan, oi Jesus, zure lur huntako bizia laburra behar zen, gu guzien biziak laburrak diren bezala. Eta zer bilhakatuko dire zure irakasmek, baldin zuhau gizonen artetik itzaltzen bazare? Ezen irakaslea urrunduz geroz, laster ahantziak dire haren erranak. Othe daiteke bada galtzerat utziko duzun, Profetek aspaldian agindu zuten emaitza hori, eta halako oinaze handiekin zeronek gutarterat ekharri duzun egia hori? Othoi, othoi, urrikal zaite mundu deithoragarri huntaz, ilhunbek eta tzarkeriek ithotzen ari dute; eta zuk orai bere gisa uzten baduzu, akhabo da sekulakotz, harenak egin du, galduko da osoki deboilamenduzko itsasorik ikharagarrienean!

Ez gaiten lotsa, bainan bai bozkaria, ezen huna zer asmatzen duen Jesusek gizonentzat.

Egia da bai Jesus ez dela lur huntan biziko hogoi eta hamahirur urthetaraino beizik, bainan haren irakasmek azken menderaino iraunen du. Berdin egia

da Jesus ez dela agertu eta mintzatu Judeako eskualde hertsian beizik, bainan haren irakasmenak gaindituko ditu mendiak eta itsasoak, lurreko bazter eta jendaia guzietarat hedatuko da.

Ezen huna zer dion Ebanjelioak. Jesusek gau bat osorik iragan zuen othoitzean; eta goizeko argia agertzearekin deithu zituen bere dizipuluak, eta hekietarik hautatu zituen hamabi eta bere Apostolutzat hartu.

Go emazu gau oso baten othoitz luze horri. Dударik ez da, othoitz luze hortan Jainko-Semeak biltzarre egiten du bere Aita-Jainkoarekin eta bere Izpiritu-Jainkoarekin; Trinitate guziak elgar aditzen du Eliza katolikoaren asentu-gaien hautatzeko, eta bethikotz irauteko moldean arrimatzeko.

Beraz, gau oso baten othoitzetik landa, Jesusek hautatu zituen hamabi Apostoluak eta erran zioten: Ene Aitak ni lur huntarat igorri nauen bezala egiaren gizoneri irakasteko, berdin nik ere zuek igortzen zaituztet orai lurreko bazter guzietarat egia beraren irakasteko.

Ni ez nerauzuete mintzatu herri ttiki hunen eremu hertsian beizik, gordeka, ixilik, beharrira bezala; bainan zuek goraki eta argi handian errepika zazue nik eman irakasmena.

Bai, zoazte munduko eskualde guzietan gaindi eta predika zazue Ebanjelioa bizi diren guzieri.

Ai! badakit igortzen zaitudeztala bildotsak otsoen artera bezala; zer-nahi jasan beharko duzue zuen eta ene etsaien aldetik; eta bai gorphutzean, bai-eta bihotzean, oinazerik borthitzenak eta griñarik saminenak pairatu beharko ditutzue. Halarik ere, ez lotsa; traba guziak garhaituko ditutzue, eta azkenean zuek geldituko zarete nausi; ezen ni bethi zuekin izanen naiz.

Eta nola ni, ene Aitaren Seme baxharra bezala, bainaiz haren distiradura, haren argia, guziek sinetsi behar duten egia; berdin zuek ere, ene Apostolu eta ene mandatari bezala, izanen zarete, mendez mende eta lurreko bazter guzietan, Jainko beraren argiak, egia beraren distiradurak. Halako moldez non, zuek entzunen zaituztenek ni neroni entzunen baineraute; eta zuek arbuiatuko zaituztenek ni neroni arbuiaturen baineraute.

Horra nola Jesu-Kristok asentatu duen Eliza eta eman dion egiaren irakasteko ahala eta indarra. Bai, dio Aita-Saindu Leone hamahirugarrenak, Jesu-Kristok bere eskus asentatu izan du Eliza katolikoa, eta zertako? Nahiz-eta, bere Aitarenganik izan zuen eginbide premiazkoa, ezarri Eliza horren eskuetan bethi-

kotz segurtaturik: *Unigenitus Dei filius societatem in terris constituit, quae Ecclesia dicitur, cui excelsum divinumque munus in omnes saeculorum aetates continuandum transmisit quod ipse à Patre acceperat.* (Leo XIII, *Encycl. Inmortale Dei.*)

Bainan orai, irakurtzaile maitea, ordu da erran dezadan xehetasunekin zer den, nolakoa den, Jesu-Kristok asentatu duen Eliza hori.

Zer da beraz Eliza katolikoa?

Ikhusi dugun bezala, gure Eliza saildua ez da gizonen asmatu eta egin duten batzarre edo bilkhura bat. Ez. Gizonen lana balitz, aspaldian deseginik eroriko zen, aspaldian gaxtaginen jazartze borthitzek ezeztatuko zuten. Jainkoaren beraren lana da; Jainkoak du bere indar eta zuhurtzia neurri-gabearekin moldatu eta hain ederki finkatu. Eta hitzeman dioen bezala, Jainkoak du bethi zainduko, Jainkoak ditu bethi Elizaren zangopean etsayik borthitzenak ukhurtuko eta aphaiduko.

Eliza katolikoa da fededun guzien bilduma, Jesu-Kristo bere lehenbiziko burutzat ezagutzen duena; eta haren ordain edo Bikariotzat Erromako Aita-Saildua deraukana.

Zertako erran othe dut Eliza katolikoa dela *federun* guzien bilduma?

Zeren-eta girixtino ez direnak, batheatugabeak eta Jesu-Kristoren sinestea ez dutenak, ez baitire Elizaren membro edo zathi. Eliza gorphutz bat bezala da bere buruarekin eta membroekin; burutik doha gorphutzeko zathi guziera bizia eta indarra. Eta hala, Jesu-Kristoren sinestea ez duenak, harekilako batasunik ez du, ez da haren membro, ez-eta Elizarena ere. Elizak Jesu-Kristo derauka bere burutzat; eta hortik, Elizaren membro izaitekotz, Jesu-Kristo baithan behar da sinestea.

Eta zertako erran dut Elizaren burua mundu hontan dela *Erromako aphezpikua, Aita-Saindua*?

Zeren-eta Jesu-Kristok berak Jaundone Petri egin baitzuen Apostolu guzien buru, guzien Artzain-Nausi, ber-beraren ordain eta Bikario, Elizaren buruzagi oso; eta hura izan baita Erromako lehen Aphezpikua; eta hura hilez geroztik, Jaundone Petrik zuen aintzidaritasuna edo eskualdea gozatu baitute bethi, eta orai ere bai gozaten Erromako Aphezpikuek, Jaundone Petriren ondoko zuzen bezala; eta munduko Aphezpiku guziek Erromako Aphezpikuari ezagutzen baitiote behidanik deraukan eskualdea, Eliza guziaren lehenbizi-

ko nausiari bezala; - hortakotz egiatzko girixtinoen Eliza deitzen da *Katoliko Erromanoa*.

Erran dutan bezala, Eliza hori da gizonari buruz egiaren irakaslea, eta haren irakasmenetan bermatzen da gure sinestea, osoki finkatzen, osoki jartzen.

Zer da fedea? Ikhusi ez dugunaren sinestea. Eta zonbat gisetara daiteke fedea? Bietara: - bata da, gizonak erranaren sinestea, guhaurek ikhusi gabe; eta hori deitzen da fede humanoa. Gizonaren erranari dagoelakotz, hartan engana gaitezke, eta askoetan enganatzen gare. Eta ez da zeren hortaz espanti, ezen maiz erraleak berak enganaturik daude; edo uste makhurrean dire, edo gezurra diote.

Beste fedea da Jainkoaren erranari edo hitzari emaiten dioguna. Deitzen da Jainkozko fedea, eta hori da girixtinoen fedea, gu-guzien sinestea. Gure fede hortako misterioak, egiak, ikhusi gabe sinesten ditugu, zeren gure Jainkoak berak agertuak eta irakatsiak diren gure Eliza Ama Sainduari, eta Eliza horrek berak guri.

Gure sinestea ez da beraz, munduko jakinduriak bezala, gizonaren arrazoi labur eta enganagarriaren gainean jarria. Jainkoaren hitzaren gainean, Elizaren ezin-enganatuzko irakasmenaren gainean dago landa-

turik. Gauza segurragorik, gauza hazkarragorik gizonak nihon ere ezin aurkhi dezake.

Oi zer atsegina! eta zer eskerrak bihurtu behar diozkogun Eliza Saindu gure irakasleari, gure bidari ezin errebela daitekenari! Ezen horrela, harek bakharrik irakasten derauzku, bestela ezin jakin dezazkegun gauzarik handienak eta beharrenak, hala-nola zoin den gure azken fina edo helburua, zoin den gure egiazko eta bethiereko zoriona eta zer egin behar dugun haren irabazteko.

Jesusek Piarresi erran zion behin:
Elizaren zimendua hi behar haut egin;
Hartako diat nahi harriz izan hadin.
Ez zirok deus irabaz etsaiak hirekin,
Berak dik minhartuko hi jotzearekin!

V - KAPITULUA

Elizak egin dezazkela legeak.- Gizonek egin legeez zer erran?

Ebanjelioko hitzak. Elizaren manamenduak begira Jainkoarenak bezela.- Jauntto baten ergelkeria.- Lege zuzenak eta lege makhurrak.- Jainkoak zertako ezarri dituen gobernamentuak eta Lege-egi-leak.- Jainkoaren eta Elizaren kontrako legea, ez da egiazko legea.

1.- Elizak baduela legeak egiteko ahala.

Jakin behar duzu, irakurtzaile maitea, eta hau fedesko artikulu bat da, Elizak baduela zuzen eta burupe guri manuak eta debekuak egiteko, eta garen guziak atxikiak garela manu-debeku hekien begiratzerat, Jainkoak berak egin balitu bezala.

Jesu-Kristok erran zioten bere Apostolueri: Nik bidaltzen zaituztet, neroni ene Aitak bidali nauen bezala. Hortik, erran zioten berak bere Aitarenganik ukhan zuen legeen egiteko zuzena eta indarra. Buru-

pe hortaz baliatu izan dire Apostoluak, Jerusalemgo kontzilioan debekatu zutenean, Idoleri sakrifikatu gauzetarik eta odola athera gabe hiletarik jatea.

Berenaz ez ziren horiek Jainkolegeaz debekatuak, eta aspaldi du Elizan indar ukhaitetik gelditu direla; bizkitartean, Apostoluek egin zuten debeku hori, orduan salbatzeko behar zelakotz baitezpada begiratu.

Orobat garizoman barurtzeko legea Apostoluek berek egin dela deraukate. Beraz bazuten Apostoluek eta badute hekien ondore Jaun Aphezpikuek, eta guziz Aita-Sainduak, legeen egiteko zuzena eta indarra.

Aita-Sainduak, eta harek onetsi Kontzilio jeneralek, girixtino guzientzat; probintziako Kontzilio Aita-Sainduaz onetsiek, probintzia hartakotzat; eta Jaun Aphezpiku bakhotxak bere Diesesakotzat; horiek orok zuzena badute guri, nola ere ongi baitzaiote eta hala manatzeko eta debekatzeko.

Jaundone Paulok erraiten zioten bere denborako Aphezpikueri: Go emazue zuen burueri eta arthalde guziari, ezen Izpiritu-Sainduak ezarri zaituzte Aphezpiku, amoreagatik goberna eta ibilka dezazuen Jainkoaren Eliza.

Ageri da beraz zer funts egin behar den munduko ergel batzuek diotenez: Holako gradoan ez ezkontzea, denbora batzuetan ezteyik ez egitea, egun batzuez gizenik ez jatea, bertze batzuetan barurtzea, horiek eta holakoak ez dituela Jainkoak manatu, gizonen asmuak direla bakharrik!...

Errazu, Gobernamentuak zerbait manatzen duenean, zonbat nahi zuzenki manaturik ere, ez ahal du Jainkoak berak egiten manu hura. Eta bizkitartean Jaundone Paulok irakasten derauku: Oldartzen direnek galtzen dutela beren arima: *Qui resistunt, ipsi sibi damnationem acquirunt.*

Eta guk gauza bera diogu Elizaren manamenduez. Gizonak eginak dire, egia da; baina gizon hekierik Jesu-Kristok erran deraie: Zuek entzuten zaituztenak, ni neroni entzuten nau, eta zuek arbuiatzen zaituztenak, ni neroni arbuiatzen nau: *Qui vos audit, me audit; et qui vos spernit, me spernit.*

Beraz Jesu-Kristoren xedea eta nahikunde hertsia da, Elizaren manamentuak begira detzagun Jainkoarenak bezala.

Hortik ageri da zer begiz behar diotegun behatu asko elheketari atrebitueri, nola-nahika ostikatzen eta hausten baitituzte Elizaren manamentuak eta eder

baitzaiote hoin herrebeski mintzatzea eta egitea. Berak dire bakharrik irriegingarri. Eta hori bi arrazoinez, lehenik bide zuzenetik kanpo dabiltzalakoan, eta bigarrenekorik berek zer-nahi bitxikeria eta ergelkeria sinesten eta atxikitzen dutelakoan.

Huna zer irakurtu dutan berriki Eskualdun gazetan:

Ortzirale batez, ostatu batean ari nintzan afariten arroltze, ilhar eta belharrerria zerbaitekin. Ene aldean baziren jauntto batzu (*commis-voyageurs*); erraki jan, eta Bordeleko arnoa basoa bethez zeramaten. Ohartu zirenean mehe egiten nuela, dudarik gabe nitaz burultzeko, batek erran zuen: «Aratxe kostelet hau, ortzira-lea izanik ere, ona da hatik... Eta halere, zonbaitek mehe egiten, aphezek hori diotelakotz.

»- Niri ere zion bertzeak, lehenago ene amak mehe eginarazten zautan; bainan adinarekin zentzua heldu baita, haurkeria horiek aspaldian utziak ditut; eta ortzira-lea ala igande, bethi gizen egiten dut.»

Afaria finitu denean, mahain-zerbizariak bati erraiten dio:

«- Jauna, barda zinuen ganbara numero 15.a, gaurkotzat hitzemana da, bertze bat hartu beharko duzu, ez bazira phartitzen.»

«- Guelditzen naiz, ortziralea baita; egun hunekin ez naiz sekulan bidean emaiten.»

«- Eta Jauna, barkhamendurekin, zertako ez?»

«- Hori ene afera da. Beraz elhe guti, eta zoin ganbara duket?»

«- Jauna, ez da hutsik 13garrena baizik.»

«- Ez dut nahi 13garrena, lehenago kanpoan lo egin nezake.»

Huntan, bere lagunak erraiten dio:

«Zeren beldur zira 13garren ganbaran? 13 bagine mahainean goserik egon zintezkea?»

«- Ori, bakea, 13, nonbre bat da maite ez dudana; asko makhur badu ondotik, ez dut nahi, eta hortan fini.»

Ni ixil ixila nindagon mahain bazter batean.

Azkenian.- «Jauna, erraiten diot nik, ortziraletan mehe egiten dut, eta halere, ez xifra batek, ez eta ere asteko egun batek ez naute izitzen. 15garren ganbara ene kunduko da; giristino katoliko bainaiz, karitatea pratikatu nahi dut; harazu beraz ganbara hori, eta ni beldurrik gabe johanen niz 13garrenera.»

Jainkoaz eta Elizaz burlatzen zen Jauna, ortziralearen eta nonbre 13.en beldur zen.- Eta ez zakien niri zer ihardets.

Hartan urrikaldurik, eman nion 15garren ganbarako gakhoa, eta johan nintzan 13garrenera; arratseko othoitza egin eta, ohean sartu nintzan, berehala lokhartu, eta iratzartu argi-zabalean.

2.- Gobernamentuek egin legeetarik, batzudire zuzenak, bertzeak aldiz gaxtoak eta makhurak: Nola hartu behar ditugu?

Huna zer dion *Eskualdunak* gizonen eskuetarik athera daitezken legeez; garbiki eta ederki mintzo da.

Hainitzek erraiten dute: *Errespetu eta obedientzia legeari! Ala dezan mana, ala debeka, zer ere nahi baitu, hura da kontzientziaz egin behar dena.*

Nik aldiz uste dut hitz horiek ez diren iduri duten bezain klar eta ximple; eta nahi niokete hurbildik so egin, ikhusteko zer daukaten egiazki bere baithan; eian bada, edo zein legek indar baduen kontzientziaz eretzean, eian guziei zor zaioten obedientzia.

I.- Ez naiz mintzo hemen, ez *Jainkoaren*, ez *Elizaren lege*. Jainko, egia bera denarenganik, ez daiteke lege on eta zuzenik baizen. Halaber Eliza, ezin tronpa daitekenaz geroz, bethi zuzenaren alde da: ez dezake nehola ere ez gaizkia mana, ez kontzientziaz egin behar den ongia debeka. Behar da beraz Jainkoaren

eta Elizaren lege guziei obeditu, den gutieneko dudarik gabe.

Ordean gauza bera erran othe dezakegu gainerako *gizonen legez*? Ez othe dire tronpatzen ahal? Ez othe dute, edo uste gabeen, edo beharbada gaxtake-riaz, zuzen ez dena manatzen ahal, edo zuzen dena debekatzen? Eta, hola gerthatzearekin, gisa hortako legeak egiazko legeak othe dire, obedientzia zor zaiotenak? Horra kestionea, eta huna errepostua.

II.- Zertako Jainkoak ezarri ditu Gobernamentuak eta lege egileak? Ez naski nahi dutenaren egiteko, bainan bakharrik populu guziaren fagoretan, haren ongi gidatzeko, haren ona bilhatuz eta ahalaz eginez, erran nahi da, zuzenari, ongiari, erlisioneari indar emanaz, hetarik baita populuaren on egiazkoa.

Hortik ageri da legea nolakoa behar den izan: justua, zergak zuzen den gisan phartitzen dituen; errespetatzen, bai partikularren, bai familien, bai erlisionearen dretxuak eta libertatea; deusetan ez kontra egiten Jainkoaren eta Elizaren legei. Lege egiazkoa hori da, eta ez bertzerik.

Segurki deus ez daiteke gizonen obretan errespetagarriagorik, ez eta beharragorik. Lege onekin, bakea eta ordre ona; hek gabe, orotan desordre eta gerlarik

baizik ez; jendaki guzia nahasia, errebelatua eta laster galdua.

Hargatik ere lege justua, eta hura baxharrik da kontzientziaren argi garbia eta erregela zuzena. Zer nahi mana dezan edo debeka, obedientzia zor diote guziek; eta hori, Jainkoak emaiten duelakotz batzuei legen egiteko botherea, eta bertzei obligazionea legeari obeditzeko, Jainkoak erran haukien arabera: *Lege egilek ene izenean egiten dituzte lege justuak; obedi zazue zuen aintzindari.* Nork ere beraz lege justuari desobeditzen baitu, Jainkoari dio desobeditzen.

III.- Bainan huna kasu bat osoki diferenta; lege bat agertzen da populuaren, familien, erlisionearen dretxuak kolpatzen dituen. Edo du manatzen Jainkoaren eta Elizaren legek debekatzen dutena, edo hek manatzen dutena debekatzen. Zer phentsa horrelako lege batez? eta zer egin?

Lege hori egiazko legea da? Ez, zeren Jainkoak ez baitiote eman lege-egilei, baizen lege *justuen* egiteko botherea. Lege hori ez da justua: ez dute lege-egilek haren egiteko dretxorik. Legearen izena badakharke, bainan ez da legea, ez eta sekulan izanen.

Behar zaio beraz obeditu? Ez, kontzientziaren eretzeari, ez balitz bezala da. Eta baldin lege delako hori Jainko legearen edo Elizaren irakhaspenen kontra bada, krima bat laiteke hari obeditzea, Jainkozko legei ukho eginez.

Eta orai, errazu, irakurtzale maitea, Jainkoa eta erlisioneak eskolatik kanpo emaiten baitituzte, eta borrokatzen burhasoak beren haurrak eskola hetan sartzerat;- ospitaletan diren erieri khentzen baitiozte azken sakramenduen hartzeko libertatea eta erextasuna;- bere bereak dituzten etxetarik, komentuetarik, borrokatuz atherarazten baitituzte han bizi diren bakezko gizonak, gaxtagin handi batzuen pare;- Elizak Jainkoaren izenean benedikatu ezkontzak hausten baitituzte, bertze ezkontza bastart batzu legez finkatzeko;- horiek, eta gisa hortako bertze legeak, egiazko legeak, lege justuak dire? Ez, erranen duzu enekin, baina dire gaxtagin obra tzar batzu, legearen desohoragarri, eta heier obeditzetik urrun, behar zaiote bihurtu eta diraiteno bakerik ez utzi.

Ordean girixtinoak, munduan diraiteno, zentzurik aski izanen du esklabo nahi gaituztenen erhokeriei goraki ihardesteko: errespetatzen dugu Jainkoaganik duzuen autoritatea; baina jakin zazue ez duzuela

dretxorik zuzenaren kontra, eta Jainkoa zuen *Nausia* dela, gurea bezin ongi. Egitzue lege justuak obedituko ditugu; lege injustuentzat ez igurik ez obedientziarik, ez errespeturik. Eskualdun eta girixtino, ez dugu esklabo nahi, baina libro gure kontzientzian eta Jainkoaren legean.

Badire beraz lege onak eta tzarrak. Onak errespetatutzagun eta eginen ditugu; baina lege tzarrer ez dugu zor mezprezio baizik. Zonbait aldiz eta ardura pairatzen dira lege tzarrak, erresuman edo herrian nahaskeria edo erreboluzio baten ez ezartzeko; baina ez daiteke lege bat paira eta ez da zilegi pairatzea Jainkoarenganikako dretxoak edo kontzientzia kolpatzen dienian. Gizonak badu, ez xoilki dretxoak, baina obligazio hertsia holako legeari bihurtzeko, biziaren penan bada ere. Etsenplu bat: Errege paganoek eman zuten legea heien erresuman ziren girixtinoek jainko faltsiak adora zitzaten; nola legeak kontzientzia kolpatzen baitzuen, erraiten zuten: *ez dezakegu lege horri obedi*. Eta kontzientziako legeari fidel egoiteko bere odola ixurtzerat uzten zuten!

O Jainko, mundu guziak goresten zaituena,
Irakas diezadazu zeure lege zuzena.

Nik behintzat atsegin gehiago dut hartan
Ezenez mundu huntako aberastasunetan.

Piarresi ziozkan guretzat Jainkoak
Atxikitzerat eman argi fedezkoak;
Argi berak dagozka haren ondokoak
Munduko goibeletan ezin histuzkoak,
Orai, hastean bezein, garbi ta osoak.

VI - KAPITULUA

Eliza egiazkoa delako ikhusbide ageriak

*Bata da.- Saindua da.- Katoliko da.-
Apostolikoa eta Erromanoa da.- Aita
Dom Gueranger.- Haurtasun ederra du.-
Apezten da.- Meza erraiteko liburua,
zaharrago eta baliosago.- Frantzia bil-
tzen du elizako zeremonia zuzenbideko-
etarat.- Batikaneko kontzilioari laguntza
handiak emaiten ditu.*

Huna zoin diren Elizaren ikhusbideak.

1.- Batasuna.- Bat da Eliza, eta nolaz? zertako?

Lehenik Elizaren ume guziek, edozoin eskualde ala bazterretan, sineste bat bera dutelakotz, gero Sakramendu beretan parthaliere direlakotz, eta azkenik Jesu-Kristoren gorputz bat baxarra direlakotz, buruzagi ageri den baten eskupean, Aita-Sainduaren menean.

Ezin izan daiteke Eliza bat beizik, egiazkorik aditzen da. Hala erran du Jesu-Kristok berak:

Bertze ardiak ere badituz, saldo huntakoak ez direnak; eta hek ere erakharri behar dituz, eta ene mintzoa entzuten dute; eta izanen da arthalde bakhar bat eta artzain bakhar bat.

Bainan zuk menturaz, irakurtzaile maitea, erranen derautazu: Nolaz bada derrakezu Elizaren ume guziak sinestez bat garela? Aphezen artean ere bada ezbaia frango!

Ez dut erran guziek ikhuste bera dugula phondu guzietan. Badire asko Jainkoak ageriki irakatsi ez dituenak, eta zoinen ganean Eliza ez baita mintzatu. Horrelakoez baikhotxak bere idurira itzultzen du gogoa eta asentatzen bere ustea.

Bainan ez da gutiago egia, ala Aphezek ala girixtino ardurakoek, nor-nahik, katoliko den ber, sineste bera dugula bazter guzietan; eta zertako? zeren guziek onesten eta atxikitzen baititugu Jainkoak Elizari irakatsi diotzan, eta Elizak haren ordainez irakasten deraizkun guziak.

Alde hortara erran dut Elizaren ume guziek Eliza bat bakharra egiten dutela, ezen horrela sineste bat bera dute guziek.

2.- Saindutasuna.- Egun batez adixkide batek erraiten zautan:

Eliza deitzen dugu *Saindua*; eta bizkitartean gu behintzat, gu laikoak, ez gare guziak saindu, ez eta naski zuek, Jaun Aphezak ere. Zer diozu horren gainean?

- Ez eiki! zorigaxtotan guretzat, ez gare, ez zuek ez gu, guziak saindu. Nolaz bada Eliza deitzen da saindua? Zeren Jesu-Kristo, haren asentatzailea, saindutasuna bera baita; zeren haren legeak eta manamenduak oro garbiak eta sainduak baitire; zeren Elizaz kanpoan ez baititeke izan saindutasunik; eta Elizan bethi izan baitire eta bethi izanen baitire egiazko sainduak; zeren azkenik girixtino garen guziak saindutzerat deithuak baikare. Hortakotz Eliza deitzen da Izkirituran: *Jendaia saindu bat, hiri saindu bat*.

- Hanbat gaxto beraz guretzat ez bagare saindu; ez du horrek Elizaren saindutasuna galtzen.

3.- Katoliko izaitea.- Adixkide berak galdegin zautan oraino:

- Deithura bat bada Elizari emaiten ohi zaiona eta nik egundaino ongi aditu ahal ez dudana: *Katolikoa*; zer erran nahi da hori?

- Alabainan, zuk ez jakin latin hizkuntza! eta oraino hitz hori ez da ere latina, greka da, eta erran nahi du *orotarakoa*.

Eliza deitzen da beraz katolikoa, zeren eskualde eta jendaia guzietarat hedatzen baita. Hola erran zion bere Aitak Jesu-Kristori profetaren ahoz: Jendaiak oro primantzan emanen dorozkitzut, eta zure nausitasuna hedatuko dut lurraren azken bazterretaraino.

Beraz jendaia guzietarat hedatu behar da egiazko Eliza, eta orotan ukhanen ditu umeak. Ez da hargatik erran nahi izanen dela jendaia guzien erlisione nausia; aski da toki handisko guzietan ezagutua izan dadien eta orotan jarraileak izan detzan.

Horrelakoa da Erromako Eliza; jendaia guzietan umeak baditu, batzuetan gehiago, bertzetan gutiago, bainan orotan bai bethi. Angletarren, Holandan eta bertze batzuetan higanoten heresia den arren nausi, bada hetan ere asko katoliko.

Toki guzietarat bezala, denbora guzietarat hedatzen da egiazko Eliza. Hola erran zeraien Jesu-Kristok bere Apostolueri: Eta huna ni zuekin izanen naizela egun oroz, mendeen azkeneraino. Beraz, orai artean iraun duen bezala, orobat munduaren azken eguneraino iraunen du Elizak.

Bi arrazoin horiengatik Eliza deitzen dute katolikoa. Eta horrela da bethetzen Aita-Eternalak bere Semeari hitzeman zion erregetasuna:

Hi haiz ene Semea,
Egundanotik hindudan
Egin neure Kidea;
Nik emanen darozkiat heure azpiko jendeak,
Nik heure eskuko leihor zabalaren hegalak.

4.- Apostoliko eta Erromano izaitea.- Zerengatik deitzen da Eliza apostolikoa?

Apostolikoa erran nahi da Apostoluetarik dathorrena; eta hortik Eliza deitzen da Apostolikoa, Apostoluek asentatu dutelakotz eta zeren Apostoluek irakatsi egia berak sinesten eta irakasten baititu, bai-eta Apostoluen ondore zuzenbidekoek ibilkatzen edo gobernatzen dutelakoan.

Erran dut: Apostoluen ondore zuzenbidekoek dutelakotz ibilkatzen; eta hek dire Aita-Saindua eta Aphezpikuak, ezen Izpiritu-Sainduak ezarri ditu bere Elizaren ibilkatzeko: *Spiritus Sanctus posuit Episcopos regere Ecclesiam Dei.*

Elizan baitezpada izan behar dire beraz Aphezpikuak; ordea, ez da aski nola-nahizko Aphezpikuak izan ditezen; behar dire izan Apostoluen ondoreak, edo bederen Apostoluen ondoreen baithan hastapena duketenak, batzuetarik bertzetarat iraganez hekien ethorkia Apostoluetan kausi daiteken gisan.

Horren eskasez bereziki gudukatzen zituen Tertulianok bere denborako heretikoak. Eta berriz San Augustinek ere zion: Eliza katolikoan neraukaten arrazoin handietarik bat da, hartan aurkhitzen baitire Aphezpikuak batzu bertzeren ondore direnak. Jaundone Petriganik hasirik, zoina Jesu-Kristok kargatu baitzuen bere ardien bazkatzeaz.

Bada ikhusten duzu gu ere urrats berean gabela. Aita-Sainduarekin deraukagu, eta horra Jaundone Petriren ondore zuzenbidekoa. Eta gure Jaun Aphezpikuak ere Aita-Sainduarenganik derauzka bere bothere eta ahal guziak. Hortik, ageri den gauza da gure Eliza apostolikoa dela, eta beraz aurkhitzen gabela egiazko Elizan.

- Bestalde Eliza deitzen da Erromanoa, eta huna zertako. Aita-Saindua Elizaren buruzagi ageria da, eta Elizan izaitekotz, harekin atxiki behar dugu; eta nola Aita-Saindua Erromako aphezpiku baita; horrengatik

eta zeren den haren buruzagia Erroman, Eliza deitzen da Erromanoa.

Eta hemen behar gare gauza bati ongi ohartu. Aita-Sainduarekin batasunean egoiteko ez da aski nork edo nork bere baitharik hala uste izaitea. Dakizun bezala, norbaiten phartaliertasunean izaitekotz, behar zarete biak, hura eta zu, batetara ethorri, ados jarri; bertzela ez laiteke elgarrekin atxikitzerik. Hala-nola adiskidetasunik ez bailiteke zure eta nere artean, nik zurekin atxiki nahiagatik ere, baldin zuk ez bazindu enekin iduki nahi.

Hori bera zen gerthatu Jansenista heretikoeri. Aita-Sainduarekin atxiki nahi zuten, itxuraz bederen, eta estakuru hortan bazabilaten elhe, gutun eta gezurra frango. Aita-Sainduak ordean ez ditu behinere onetsi. Eta hartakotz, berek zer-nahi erranagatik, heretiko ziren eta heretiko gelditu dire.

Ai gauden bethi Aita-Sainduarekin batasunik heretsiensean. Eta hemen ez nauke aipatu gabe eta goretsi gabe Benedikano osoki argitu bat, *Dom Gueranger*, Frantziako eliza guziak Erromako batasunerat bildu eta altxatu dituen. Eskualdunek maite dute elizan aurkhitzea, elizan kantatzea, elizako zeremonieri eta aldareko aphezaren ibilkatzeri hurbildanik jarraiki-

tzea; eta bada, kantu horiek, zeremonia eta ibilkatze sailak horiek, zuzenbidekoak badire, erromanoak badire, Aita-Sainduaz onetsiak badire, diren bezala; nori esker? *Dom Gueranger* esker!

Dom Gueranger

Prosper-Luis-Pazkal Gueranger sorthu zen Sableko hirian, mila zortzi ehun eta bortzean, apirilaren lauean.

Haur horren ahideak komentu zahar batean zauden egoitzaz; komentu hortan sorthu zen. Bi urtheren buruan etxez aldaratu ziren, baina orduan ere joan ziren leheneko komentu ohi batetarat. Eta nola Solesmeko komentu ohia auzoan baitzuten, haur ttipia komentu hortara bazohan kurri egun gehienez. Ordu-tik beraz ageri zen nolakoa behar zen haur horren ethorkizuna. Jainkoak ezarri zuen haurretik komentuen erdian, nahiz-eta geroxago komentu hek altxa zetzan, eta berriz ere Frantziako lurretarat sarraraz zetzan komentuar desherrituak.

Hamahirur urthetan igorri zuten Angerreko eskolatarak. Eskola hek on baino tzarrago ziren, baina gure haurrak ez zuten deus damurik ez kalterik izan; eta hori aphez khartsu bati esker. Aphez hori zen kolegio-

ko omoniera. Lehen begi kolpean ezagutu zuen Jainkoak beretzat hautatu zuela haur gazte hori: bertzeak baino usuago kofesarazten zuen; emaiten ziozkan liburu onak; ahal guzian laguntzen zuen bere elhe onez eta artha bereziez.

Buru ona zuen *Guerangek*, aintzindu zituen laster bere lagunak eta guziez gorago altxatu zen. Nihor jarraikitzen ahal zitzaionik; nausiak berak espantiturik zauden.

Joan zen gero Manzeko seminario handirat, eta han ere *Gueranger* bethi lehenbizikoetarik, ala jakitatez ala berthutez.

Aphezguarat heldu gabe, ez zelarik oraino sudia-kre beizik, aphezpikuak bereganat hartu zuen segretario bezala.

Urrunago joan zen aphezpikua; ordu beretik kalonje izendatu zuen eta katedraleko kargudun zaharren heinerat altxatu.

Hemezortzi ehun eta hogoi eta zazpian, urriaren zazpian, Turreko arxaphezpikuak aphez ordenatu zuen.

Egun bereko arrastirian aphez gaztea joan zen Marmutiekiko komentu zaharraren ikhustera. Komentu hori aspaldian gainazpikatua zen eta oro desegina.

Nigar egin zuen aphez berriak eta belhaunikaturik erran zuen othoitz hau: Oi Jauna, igorrazu laster gizon indartsu bat, komentu eroriak altxatuko dituen!

Aphezguatik laster huna zer gerthatu zitzaion. Goiz batez mezaren erraitera zohan, bainan mezako libururik ez; sakristauak bazter guziak mihatzen ditu eta deusik ez hatzemaiten. Azkenean zer egiten du? Nola ordukotz aldarean baitzen apheza, zokho batetik atheratzen du Erromano-liburu zahar bat eta lasterka eremaiten aphezari. Meza erran-eta, hunek besazpian hartzen du liburu zaharra, bere etxerat eremaiten, burutik buru irakurtzen, eta berriz ere, ederrain ederez, xehetasunekin eta jastaka ikhertzen.

Denbora hetan oraino Diesesa bakhotxak bazuen bere ofizio eta meza berezia. Hamazazpigarren eta hemezortzigarren mendetan, Frantziako aphezpiku gehienek egin zituzten bere gisako eliza-liburuak, Aita-Sainduaren baimenik gabe. Eta hori makhur handia zen; deus moldez ez dezake nihork, ez aphez, ez aphezpiku, ez erregek, holako ausartziarik har. Elizako othoitzak, hala-nola sinhetsi behar ditugun egiak eta atxiki behar ditugun manamenduak, Erromako Aita-Sainduak bakharririk irakas eta mana dezazke,

zeren-eta harek xoilki baititu hortakotz Izpiritu-Sainduaren argiak.

Geroxago, zombait urthe bakharren buruan, gure aphez gazteak khenduko ditu Frantziatik othoitz herrebes horiek; berriz ere onetsiaraziko ditu othoitz egiasko zuzenak, othoitz erromanoak.

Ikhusi dugun bezala, jaun *Gueranger* aspaldian komenturateko gutizietan eta Benedikano egiteko ideietan zen. Bainan ez zakien nondik hel bere xedetarat. Azkenan Jainkoak berak ideki zion bidea, eta huna zer gerthakariz.

Solesmeko komentu ohia saltzera jin zen. Sosgabe izanagatik, gure aphez gazteak erosi zuen, gero pagatzekotan. Hori zen hemezortzi ehun eta hogoi eta hamabian, abendoarekin.

Handik bortz egun gabe, ilhabete bereko hemerezian, Diesesako jaun Aphezpikuak eman ziozkan bere baimen eta benedizione guziak komentu horren arrapizteko.

Gero, zazpi ilhabetez ibili zen lagunketa eta diruketa, ala Parisen, ala Nantesen, ala bertze asko hirietan. Sos guti eta lagun guti bildu zituen; bainan hargatik ez zen lotsatu.

Solesmeko komentuan alderat sarthu zen, uztailaren hamekan, mila zortzi ehun eta hogoi eta hamahiruan; eta harekin bertze hirur aphez eta bi laiko.

Egun handia izan zen egun hura. Aphezpikua bera jin nahiko zen, baina gelditu zen eritasunez eta igorri zuen bere Bikario jeneraletarik bat. Aphez andana eder bat ere bildu zen, eta hainitz jende. Ospe handitan lagundu zituzten beraz sei Benedikanoak beren komenturat; eta zuzenez, ezen egun hortan arraphiztu zen Frantziako lurrean San Benuaten Ordena saindua.

Buruilaren lehenean, mila zortzi ehun eta hogoi eta hamazazpian, Aita-Saindu Gregorio hamaseigarrenak onetsi zuen osoki Solesmeko komentua bere erregela guziekin; bai eta izendatu zuen komentu hori *Frantziako kongregazione Benedikanoaren Ama* eta buruzagi bezala. Orduarte, *Dom Gueranger* ez zen Priore beizik; baina Aita-Sainduak egin zuen Abade eta kongregazione berriaren aintzindari.

Handik laster *Dom Guerangek* argitaratu zuen liburu bat osoki baliosa, Elizako othoitzez eta zeremoniez mintzo zena. Goraxago erran dut nola Frantzian othoitz eta zeremonia horiek herrebestuak ziren.

Jansenistek eta Galikanoek nahasi eta gainazpikatu zituzten, halako moldez non, bertze erresuma girixtinoek ez bezala, Frantziak baitzituen bere gisako othoitz eta zeremonia basa batzu.

Dom Gueranger bere liburuan oldartu zen hazkarki herrebeskeria horier. Hortik arrangura frango bazterretan, baizik-eta nahasten zituela Frantziako elizak eta arima onak. Asko aphez, bai-eta zoinbait aphezpiku bihurtu zitzaizkon.

Bainan emeki-emeki egiak egin zuen bere bidea. Hainitz urthe gabe, Diesesa gehienek utzi zuten beren sail makhurra, eta berriz itzuli ziren Erromako othoitzmolde xuxenerat. Orai bakhar bat ez da Erromari jarraikitzen ez denik.

Laguntza handia egin zuen hor *Dom Guerangek* Eliza katolikoari. Pio bederatzigarrenak orduan zuen bere adixkidetzat hartu; asko eta asko fagore egin ziozkan; bai-eta haren haurretarik bat, Dom Pitra, egin zuen kardinale, hemezortzi ehun eta hiruetanhogoi eta hiruan.

Hil gabe, *Dom Guerangek* egin zion Elizari bertze laguntza handi bat. Huna zer behar-ordutan.

Hemezortzi ehun eta hiruetanhogoi eta bederatzian, Pio bederatzigarrenak bildu zuen Batikaneko

konzilioa. Konzilio hortan gerthatu ziren thirabira frango; eta guziz konziliotik kanpo, gaseta tzarrek eta jende nahasi hainitzek asko traba ekharri zituzten eta kalte handiak egin. Huna zertaz ziren gehienik arrangura. Konzilioko Aitak, Izpiritu-Sainduaz argiturik, irakastera zohazin Erromako Aita-Sainduaren ezinengana fedezko gauzetan. Hori zuten gaxtaginek beren sabeleko mina; eta sosegurik ez zuten, konzilioa poxolatu beharrez; baitezpada nahi zuten Izpiritu-Saindua ixilarazi.

Dom Gueranegek orduan argitaratu zuen liburu bat hain hazkarra egia horren gainean, non guziek ikhusi baitzuten etsai horiek gezurrez eta gaxtakeriaz zabiltzala. Ordu beretik konzilioko Aitak osoki finkatu ziren sinheste zuzenean, eta goraki irakasi zuten: Erromako Aita-Saindua ez ditekela engana fedezko gauzetan.

Jainkoak bere saria eman behar zion zerbitzari khartzu horri. Eta nola egiasko saririk ez baita zeruan beizik, hiltzeko orena ethorri zen gure Abade saindua-arentzat.

Hemezortzi ehun eta hiruetanhogoi eta hama-lauean, Eguberriz, gauerdiko mezan, *gloria in excelsis* kantatzen zuelarik, trenpexartu zen. Ez zuen onik izan

geroztik. Zonbait egunez jarraiki zen bai oraino komentuko urrats gehieneri, bainan nekez eta bere burua bortxatuz.

Azkenean arras erori zen, eta huna nola. Egun batez katexima iraskasten zion haur erromes bati; eta hori usaian bezala, ezen gustu handia zuen kateximaren eta othoitzen haur ttikieri irakasten. Beraz katexima egiten ari zelarik, sukhar borthitz batek hartu zuen Aita Abadea.

Hori zen maiatzaren hogoi eta zortzian, hemezortzi ehun eta hiruetanhogoi eta hamabortzean.

Ohean sarthu-eta berehala agonian erori zen. Nahizan zen abiaduratik kofesatu, eta bere anaieri kantarazi zioten *Te Deum* eta *Benedic anima mea Domino*.

Bi egunen buruan phausatu zen, urtharilaren hogoi eta hamarrean, lagunbatarekin, arratsaldeko hirur orenetan.

Igandez Eskual-herrian
Eder laboraria
Elizan kantaz lorian...

III - ZATHIA

Aita-Saindua

Eskualdunen arima, o Aita Saindua
Zuri bai zuri dago tinkoki lothua;
Bethi haren Fedea, zutaz argitua,
Garbirik dago eta ezin bentzutua.

I - KAPITULUA

Jesu-Kristok zer indarrak eman diozkan Aita-Sainduari

Besta handi bat Erromako eliza-nausian.- Aphezpikuak nola diren zuzenbideko.- Aita-Sainduak baduela Elizaren eta Aphezpikuen ganean, Jesu-Kristok berak duen indarra eta botherea.- Jesu-Kristok erraiten dio Piarresi: Alha zaitzu ene artaldeko bildotsak, bai-eta ardiak. Gizonek hautatzen Aita-Saindua, bainan Jainkoak berak indar eta botherez jaunzten.

Hemezortzi ehun eta lauetanhogoi eta zortzian, urtharilaren lehenean, Aita-Saindu Leone hamahirugarrenak ospatu izan du bere lehen Mezaren berrogoi eta hamargarren urtheburua.

Goizeko bederatzi orenetan, Jaundone Petriren elizako aldare nausian erran zuen Leone handiak berrogoi eta hamargarren urtheburuko Meza hori.

Eta ni ere han nintzen, eta ez dut uste lur huntan ikhus daiteken besta hura bezain eder eta xoragarri denik.

Oi Jauna, eskerrak zuri, eman derautazulakotz Erromako besta paregabe hortan aurkhitzeko zoriona!

Dabid erregea atseginez gairditurik zagon Israelgo besta-buruetan, eta kantatzen zuen: Armadetako Jauna, zein diren maitagarri zure bestak! Hekien ederraren ederrez ene arima lehiatzen eta iraungitzen da; eta nola etxexoriak eta ttorttoilak beren ohantzea gozaten baitute, berdin nik ere zure aldareak osoki gozaten ditut. Oi dohatsu beren egoitza zurekin dutenak, ezen egun bat baxharrik zure etxean, zure besta eder horien artean, miletan hobe da ezenez bertze asko egun bekhatoreen jauregietan.

Deus guti ziren bala Jerusalemeko bestak, Erromako besta horien aldean. Jerusalemen itxura batzu ziren baxharrik eta urrundarikako agintzak; Erroman aldiz agintza hekien bethedura eta osotasuna. Eta zinez Jesu-Kristo bera nuen ikhusten Aita-Saindua baithan, eta nola ikhusten? Asma daiteken osperik handiengan, bere gorthe guziaz inguraturik, hiruretanhogoi mila girixtinoen amodiozko oihuez bibaka goretsirik, begi guziak bozkariozko nigarretan zaudela eta ene

bihotza atseginezko gaindidura gozo batez oro sutan zagoela!...

Aita-Saindua horra nola ikhusi izan dutan Erromako eta mundu guziko elizarik ederrenean eta gizonak asma dezaken bestarik xoragarrienean.

Ez nintzen han bakharra Eskual-Herritik. Asko baginen, aphez ala laiko, besta eder hartan. Eta nola, zeremoniak akhabatu-eta, denbora luzea eman baitzuen jende elementia harek elizatik ezin atheratuz, eskualdun horietarik biga elgarrekin solasean jarririk gelditu ziren, oste handi hura iragan arte. Bat aphez jakintsun eta khartsu bat zen, eta bertzea gizon gazte laiko bat, girixtino ona, bainan Erlisionekeo asko gauzetan argirik ez zuena.

Hunek beraz erran zion jaun aphezari:

Jauna, aspaldian badut burujope zerbait, eta huna zeren gainean. Badakit girixtino Erlisionea Jainkozkoa dela, Jainkoaganik ethorria, Jesu-Kristok berak lurrean asentatua eta finkatua.

Bainan huna zer dutan nik guti ezagutzen. Goiz huntan berean, hemen, Jaundone Betiriren eliza miresgarri huntan, ikhusi ditugu Aphezpikuak ehunka, eta hekien erdian Aita-Saindua edergailuz oro jauntziarik, Jainko baten pare bertze guziez gorago altxaturik.

Zertako bada desberdina hoin handi hori? Funtsean ez othe dire guziak berdinak?

Hortaz othoi egidazut zerbait argi eta xehetasun.

APHEZAK.- Bai, atseginekin. Dezagun lehenik gogoan erreberri lehenago kateximan ikhasi duzuna. Huna zer dion: Eliza da Fededunen bilkhura, haren buruzagi den Aita Sainduaz eta Aphezpikuez gobernatua.

Orhoit zinen hortaz?

GIZON GAZTEAK.- Aphur bat, jauna. Baina hitza edo axala jakinagatik, non da mamia, non da jakitate? Ni bethi berdintxe itsu nago.

APHEZAK.- Dugun beraz egia hori xeha. Hasteko badakizu, Elizaz mintzo garenean ez garela mintzo harriz eta zurez eginak diren etxe hotaz, baina bai egiazko Erlisioneak deraukaten jendez, non-nahi izan ditezen, Frantzian, Angletterren, Italian ala bertzetan. Guziek, erresumaz berex eta tokiz urrun izanagatik, Eliza beraren ume dire, eta guziek Eliza bat baxarra egiten dute. Sineste bera duten ber, artzain zuzenbidezkoek gobernatuak diren ber, eta Erromako Aita-Sainduaren alderako jauspenean bizi diren ber, oro Eliza egiazkoaren haurrak dire.

Erran nahi da beraz hirur gauza horietarik zerbait, bai-eta bat baxharra eskas dutenak, Elizatik kanpo direla. Fedearen kontrako zerbait atxikitzen eta irakasten dutenak, edo artzain zuzenkontrako azpian jartzen direnak, edo Aita-Sainduaren phartaliertasunean ez direnak, nahi ala ez Elizatik kanpo dire.

GIZON GAZTEAK.- Ikusten dut. Bainan nor dire eta nolakoak izan behar dire artzain zuzenbidezko hek? Kateximan irakurtzen dugu hek direla gure jaun Aphezpikuak. Bainan aski othe da Aphezpiku izaitea?

APHEZAK.- Aphezpiku zuzenbideko izaitekotz behar dire bi gauza, Aphezpikutasuneko ordena eta buruzagitasuna (*jurisdiction*). Populu baten edo Diose-sa baten gobernantzeko ez da ordena aski; ordenaz bestalde, behar da buruzagitasuna; eta hola diote Elizako irakasle guziek.

Aphezpikutasuneko ordenaren, ez-eta apheztasunekoaren gainean deusik ez dezake Elizak. Eta hortakotz, apheza Elizatik khendua izanik ere, mezaren erraiterat atrebitzen bada, kontsekrazioea egiten du, saindu bat balitz bezala, sakrilejo ikharagarri batez obendun izanagatik. Orobat Aphezpiku batek, eskumikatua izanik ere, edo aphezik edo bertze Aphezpikurik

ordenatzen badu, hek egiazki litezke aphez eta Aphezpiku.

Bainan buruzagitasunaz ez doha berdin. Hura, Elizak nahi duenari emaiten du eta nahi duen izarian; hedatzen ahal du, hertsitzen ahal du, bai eta arras khen dezake.

GIZON GAZTEAK.- Zer diozu hor, jauna? Nik askotan aditu izan dut, gure Erretorak ere hola zion lehenago kateximan, Aphezpikuek badutela indar eta kargu mundu guzikotzat, eta huna zertako: direlaketz Apostoluen ondore.

APHEZAK.- Bai, gizon maitea, bai, holako erasia frango dabilate Aita-Sainduaren etsaiek. Hortaratuak garenaz geroztik, dugun erran zer den Erromako Aita-Saindua eta nolako indarrak dituen Eliza guziaren gainean, bai eta Aphezpikuen gainean.

Lehenbizikorik nahi dut zure galdeari ihardetsi. Egia da, Apostoluek bazuten indar eta nausitasun mundu guzikotzat, zeren ahalik eta laster Ebanjelioa behar baitzen bazter guzietarat hedatu.

Bainan Apostoluetarik hunat ez da Aphezpikurik batere izan, mundu guzikotz indar ukhan duenik.

Apostoluek berek ere Aphezpikuak ordenatu zituzten, ez mundu guzikotz, bainan xoilki baxhotxa toki

eta arthalde berezi batentzat. Jondoni Paulok hola egin zituen San Timote eta San Tito, bat Efesiako aphezpiku, bertzea Kretako aphezpiku.

Bainan orai mintza gaitezen Erromako Aita-Sainduaz.

Leone hamahirugarrenak erraiten zioten berriki Ekozeke Aphezpikueri: Erromako Aita-Sainduak dute baxharrik indarra, zerutikako ahala, Aphezpiku berriak non-nahi ezartzeko, eta baldin hekien alkhiak erortzen badire, berriz ere hek berak altxatzeko eta xutik emaiteko. Eta orduan baxhotxari emaiten eta eratxikitzen diote behar den buruzagitasuna.

Huna zer dion Teolego aipatu, oraino bizi den batek:

Aita-Sainduak badu Elizaren eta Aphezpikuen gainean, Jesu-Kristok duen indar guzia. Halako moldez non Jesu-Kristok eta Aita-Sainduak ez baitituzte bi bothere suerte, bainan bat xoilki, batean ala bertzean ber-bera dena. Eta hortik, Jesu-Kristorekin batean eta haren indar eta eskus, Aita-Sainduak ibilkatzen eta gobernatzen du Eliza.

Eta Aita-Sainduak badu goratasun handi hori, ez Aphezpikuek emanik edo onetsirik, bainan Jesu-Kristorekin bat-bera delakotz. Bai, Jesu-Kristorekin egiaren

irakasle bera, buruzagi eta manatzaile bera. Eta hortik, Aphezpikuak baino gorago ezarraria da, Eliza guziaren lehenbiziko nagusi. Edo hobeki erraiteko, Aita-Saindua da Jesu-Kristo bera gure arterat agertzen dena, mende guzietan mintzatzeko eta gizalde guzietan zerurat bidatzeko.

Trenteko kontzilioak erraiten du: Erromako Aita-Sainduak derauka baxharrik bere eskuetan Eliza guziaren gobernatzeko indarra. Eta oraino: Bere nausitasunaren ahal osoz, eta nola ere baitio bere zerutikako zuhurtziak irakasten, hala-hala eta deus trabarik gabe, Erromako Aita-Sainduak trenkatzen ditu eta finkatzen Eliza guziari probetxos diren harat-hunatak. Eta azkenik nahi du Eskualde guzietako Aphezpikuek, bai-eta Patriarka eta Elizako bertze aintzindari handienek ere, agur eta jauspen osoa ekhar dezaten bethi Erromako Aita-Sainduari:

Eta lehenago (1439) huna zer zion Florenziako kontzilioak: Irakasten dugu, bai-eta egia bezala bethikotz finkatzen, Erromako Aita-Sainduak deraukala, munduko eskualde guzietan ganean, lehenbiziko eta oroz gaineke nausitasuna. Eta bestalde: Hura da zinez Elizako burua, girixtino guzietan Aita eta irakaslea, eta

hari bakharrik Jesu-Kristok eman dio indar osoa Eliza guziaren ibilkatzeko.

Lehenago ere (1274) Lioneko kontzilioak zion: Aintzindaritasun guzietarik lehenbizikoa, norat-nahi hedatzen dena eta non-nahi gehienik indartsu dena, aurkhitzen da Erromako Aita-Sainduaren baithan; eta nausitasun hori Jesu-Kristok berak eman dio, noiz ere Jondoni Betiri bertze Apostoluen buruzagi ezarri baitzuen.

Eta sei mende lehenago (680) Konstantinopleko kontzilioak: Jainko-Salbatzaileak Jondoni Betiriri hitze-man dio ez dela sekulan enganatuko bere irakasmenetan; eta hori, ez xoilki sinestearen gainan, bainan berdin Elizaren ongi ibilkatzeko hartu behar diren urratsetan; eta baldin aphezpiku bat edo bertze heldu balitz bide onetik zehartzerat, Aita-Sainduak bilduko du eta xuxenduko.

Eta lehenagodanik (440) erraiten zuen Leone, elizako Dotorak: Gizon guzien artetik Jondoni Betiri hautatu izan du Jesu-Kristok, jendetze guzien buruzagi izaiteko; eta gehiago dena, Apostoluak berak eta hekien ondotik ethorri eta ethorriko diren aphezpi-kuak, haren eskupean eman ditu; halako moldez non, izanagatik Aphez eta Aphezpiku hainitz, bizkitartean

Erromako Aita-Saindua hek baino gorago baita eta ororen buruzagi.

Denbora bertsu hetan, Arleko Aphezpiku guziz aipatu batek erraiten zuen Jondoni Betiri baithan, Erromako Aita-Saindua baithan, aurkhitzen da Aphezpikutasunaren ithurburua.

Eta berdin aintzinago (402) Aita-Saindu Innozent lehenak: Bai, Erromako Aita-Sainduarenganik elkhitzen da eta mende guzietarat heltzen Aphezpikutasuna eta kargu horri iratxikia zaion indarra.

Gisa hortan, mendetik mendera, Jesu-Kristoraino igaiten gare, bethi adituz, ala Kontzilioen ala Dotoren ahotik, egia handi hau: Oroz gaineko buruzagitasuna Jainkoak Erromako Aita-Sainduari eman dio. Bainan hemen Jesu-Kristo bera entzun behar dugu. Nihor ez da geroztik hura bezain goraki eta garbiki mintzatu Aita-Sainduaz. Ezen harek du berak egin, asentatu eta bethikotz finkatu Aita-Sainduaren nausitasuna mundu guziaren gainean.

Huna zer zioen Pio bederatzigarrenak, Batikaneko kontzilioaren laugarren biltzarrean, uztailaren 18an, 1870an: Bai, Jesu-Kristok berak asentatu izan du Aita-Sainduaren nausitasuna. Amoreagatik aphezpikuak bethi elgarrekilako batasunean egon ditezen eta ez

ditezen behinere batzu bertzetarik behex; berdin oraino, amoreagatik aphezek ere elgarrekilako batasun hertsia batez fededun guziak atxik detzazten bildurik sineste eta jarraikitasun berean, Jesu-Kristok ezarri du Piarres bertze Apostoluak baino gorago; Aita-Saindua baithan eman du batasun horien ithurburua eta zimendua, nahiz-eta haren indar ezin hautsiaren gainean berma dadien tenplo bethierekoa, eta haren sineste ezin khordokatuaren gainean altxa dadien Elizaren goratasun zeruraino heldu behar dena.

Egun batez, hiletarik phiztu ondoan eta zeruratigan aintzintxean, Jesusek aphairu bat egin zuen bere Apostoluekin. Tiberiako itsas-hegian zen hori.

Jan-eta, xutitu zen Jesus eta erran Simon Piarresi: Simon, Joanesen Semea, maite nauzu haukiek baino gehiago?

Ihardesten du: Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. Eta Jesusek erraiten dio: Alha zaitzu ene bildotsak.

Eta berriz ere: Simon, Joanesen semea, maite nauzu beraz?- Eta harek: Oi Jauna, bai badakizu maite zaitudala!- Jesusek orduan: Alha zaitzu ene biltotsak.

Berriz ere oraino: Simon, Joanesen semea, egia da beraz, zinez maite nauzu?- A! orduan Piarres oro asaldatzen da, eta Jesusen oinetarat nigarrez eta ahuspez

erortzen delarik: Oi Jauna, zuk gauza guziak badazkitzu; badakizu beraz maite zaitudala osoki.- Eta Jesussek: Alha zaitzu ene ardiak ere.

Horra nola Jesu-Kristok Jaundone Betiriri eta haren ondoko Aita-Saindu guzieren emaiten dioten Elizako aintzindaritasuna. Ez xoilki bildotsen gainean, erran nahi baita girixtino xeheen gainean, bainan ardien gainean ere; eta hola, Aphez eta Aphezpiku guziak, Aita-Sainduaren eskupean eta menean ezartzen ditu.

Errepika dezakegu beraz goraki Teologo aipatu batekin: Jainkoaren hitzari funtsez behatzen dioenak, agerian ikhusiko du Jesu-Kristok Aita-Sainduari eman diola, ez xoilki oroz gaineko kargua eta ohorea, bainan oraino nausitasun guzietarik lehena, halako molde non Elizako bertze buruzagitasunak haren peko eta meneko baitire. Azkenekotz, Batikaneko kontzilioak fedezko artikulu bezala finkatu du egia hori.

Hortik, Elizaren ume izaiteko, Aita-Sainduaren baithan ezagutu behar da nausitasuneko lehentasun hori; haren alderako jauspenean eta eskupean egon behar da. Marra hortarik ilkhitzen dena, Elizatik kantpo daite. San Jeromek erraiten zion Aita-Saindu bati: Zurekin biltzen ez duena, barraiatzen ari da; zure

etxean Jaunaren bildotsa jaten ez duena, arrotz bat da, etsai bat da.

GIZON GAZTEAK.- Oi Jauna, milesker; zure elhek urhe-zilharrak balio dituzte; ez dut sekulan Aita-Sainduaz hoin ederki mintzaten aditu. Eta ikhusten dut, ederrak bezain egiak dire, Elizako aitek eta teologoek irakatsiak, Jesu-Kristok ere Ebanjelioan goraki eta ausarki errepikatuak. Horien ukhatzeko behar laiteke gaxto bezain itsu eta zoro izan.

Xoilki hunek nau ni espantitzen, gizonek baitute egiten Aita-Saindua eta ez Jainkoak, eta bizkitartean holako ahal eta indar handi Jainkozkoak baititu!

APHEZAK.- Ai ez duzu zeren traba ttiki hortaz khexa.

Gizonek egiten dutela Aita-Saindua, bai egia diozu, baldin erran nahi baduzu baxharrik: Gizonek *hautatzen* dutela hau edo hura Aita-Saindutzat, Jaundone Betiriren ondoretzat. Hori da gizonek egiten duten guzia, *hautatzea*.

Bainan hautatua den Aita-Sainduak ukhan dezan Eliza guziaren aintzindaritasuna, hori Jesu-Kristok berak egiten du.

Hola ziren bi Eskualdunak Erromako eliza-nausian elgarrekin mintzatu. Eta elizatik elkhi baino lehen, bel-

haunikatu ziren Jaundone Betiriren hobi-aintzinean,
othoitz egin zuten Leone hamahirurgarrenarentzat,
Jainko onak eman dezon bere laguntza eta etsai
guzien gainean garhaizia.

Eta nik diot neurthitzlariarekin:

Oi, zein handi, zein gora zaren zu!
Zuri loriaturik beha gagozkitzu.
Aita Saindu maitea, haur bihotzdun batzu,
Eskaldunak, gu ere zureak gaitutzu;
Zurerik baizen ez da Eskualduntzat haizu.

II - KAPITULUA

Aita-Saindua, irakasle ezin-enganatua

Arrazoin xoilak emaiten deraukun argi ezin ukhatua.- Ebanjelioak zer dion.- Jesu-Kristok erran hitzen xehetasunak.- Zer dioten San Hilariok eta Pio kardina-leak.- Jesu-Kristok othoitz egin du Aita-Sainduarentzat.- Batikaneko azken kontzilioaren irakasmena.

Halako jaun gazte fatxatu bat, segurki uste baitut Ebanjelioa baino hobeki bertze libururik irakurtzen duela, eta Elizako ofizioetan baino maizago eta gogotikago bertze bilkhura hitsetan aurkhitzen dela; harekin beraz gerthatu naiz toki batean.

Gurekin zen Etxeko Jaun laborari on eta gisako bat; ez izanagatik mila eskolatua, erne zuen izpiritua eta begia biphil.

Jaun fatxatu hura gure Etxeko-Jaunari hasten zaio phikoka handik eta hemendik. Zer-nahi baderasa bereziki Aita-Sainduaz eta Erromako Elizaz, baizik eta

ez dugula hekien beharrik, eta hek gabe atxik ahal dezakegula behar den sinestea. Eta bertze holako hainitz.

Bainan, jaun horrek zonbat nahi fixti-faxta erabiliagatik, ez zuen lotsarazi Etxeko-Jaun laboraria. Gozogoza eta irri eder batekin erran zion jaunxkilari:

Gure Jaun Erretor xaharrak maiz errepikatzen derauku Jaundone Pauloren hitza: Jainko bat, bathaio bat, sineste bat.

- Ongi, dio xapeldunak, nik ere frangotan entzun ditut hitz horiek; bainan zertako aiphatzen ditutzu hemen?

- Zertako aiphatzen ditudan? Ez ahal zare itsu!

Ez duzunaz geroz ikhusten, goazin baratxe, eta zarrozkit ontsa.

Elizaren umeen artean sineste bat bera izan behar da beraz. Eta bizkitartean gure Erretorak Jaundone Pauloren bertze hitz bat ere aiphatzen derauku: Eliza-ko umeen artean ere altxatuko dire irakasle gezurtiak, Kristok eman fedea khordokatuko dutenak.

Eta errazu: Holako nahasduretan zer egin behar dute girixtinoek?

- Egiatzko sinestea iduki eta gezur guziak arbuiatu.

- Ongi. Bainan nola ezagutuko dute zoin den egiazko sinestea eta zoin makhurra?

Ikhusia da girixtino gehienak ez direla behexte horren egiteko gai. Hainitzek ez dakite irakurtzen ere. Miletarik bat ez laiteke sineste zuzenaren ezagutzeko berenaz on laitekeenik.

Jainkoaren xedea eta Jesu-Kristok ezarri duen legea da, Erlisoneko gauzetan Buruzagi baten irakasmenez bida gaitzen, eta ez gure buruz.

Eta zer diot? Hola-hola erran behar dugu, ez xoilki jende xeheaz eta ezjakinaz, bainan berdin eskolarik handiena dutenez Lutherrek eta Kalbinek ez omen zuten eskola eskasik ez-eta izpiritu eskasik. Eta bizkitartean gure Jaun Erretoraren arabera. Lutherrek ez zauzkan liburu batzu Iskritura saindutzat, eta Kalbinek bai. Eta bestalde Liburu Sakratuetako hitz beretan, batek ikhusten zuen xuri eta bertzeak gorri. Hortakotz bata bertzearen etsai ziren, elgar larrutzen zuten ederki. Batari ala bertzeari ongi zohakon gure erran zaharra: *Oro, bere buruz bertzeak, derauzka gaizki erraileak.*

Badakusazu beraz, alde batetik gehien-gehienak ez direla egiazko sinestearen hautatzeko gai, eta bertze aldetik jakintsunen artean ere balaitekela buru

bezenbat eta egun bezenbat erlisione: *Lehen hala, orai hola, gero ez jakin nola*, dio erran zaharrak.

Bai, bai, ezinbertzea da, Jesu-Kristok utzi izan du bere Elizan ageri den Buruzagi bat, bera ezin engana daitekeena eta bertzeak ere ezin engana dezazkena fedeko gauzetan.

Eta hura da Erromako Aphezpikua, Aita-Saindua. Harek ditu fedearen gaineko ezbaiak trenkatzen, ala jende xehearentzat, ala jakintsunentzat, bai eta Aphezentzat eta Aphezpikuentzat.

Gure ardurako auzietan ere zer egiten dugu? Juje batengana goazi. Jujerik ez baginu auzi hekien trenkatzeko, bethi iraun lezakete, ezen auzilariak halako moldez itzulikatzen dute baxhotxak bere eskualdea, non, batak nola bertzeak, zuzenean dela iduri baitu.

Are gehiago Erlesioneko gauzetan behar da Juje ezinenganatu bat, ezbai guziak trenkatuko dituen. Eskualdunak dio: *Hobe da zuhur baten ustea, ezenez ehun espantu egilen sinestea*. Eta hemen, egiazko zuhurra, Jainkoak berak argitzen duena, Erroman dago eta zuhurtzia guziak baditu. Irakasten derauzki-gu, ez dudazko eta *ustezko* gauzak, bainan egia segurren-segurrenak. Hari jarraikiz, Jesu-Kristo berari jarraikitzen gare.

Espantu egileak aldiz, beren burutik ibilkatzen diren fedegabeak dire; eta hekien elhek deus guti dute balio.

- Hitz horietan khexatzen da xapelduna, hasten da oihuz, ahopaldi tzarra frango aurthikiz.

Laboraria ez baitzen kalapita gose, irritto batekin agur egiten dio jaunxkilari, erraiten dioelarik: Jauna ez dut holako arrabotsik nahi. Orhoit zaite erran zaharraz: *Untzia zonbatez hutsago, hanbatenaz osenago!* Ixiltzea hobe duzu.

Huna orai zer dion Ebanjelioak. Jesusek galdegin zioten bere dizipulueri: Jendeek nor dela diote gizonaren Semea?

Eta hek ihardetsi zioten: Batzuek Joanes-Baptista, bertzeek Elias, bertze batzuek aldiz Jeremias edo Profetearik norbait.

Jesusek orduan: Eta zuek nor naizela diozue?

Simon Piarresek bizi-bizia: Zu zare Kristo, Jainko biziaren Semea.- Eta Jesusek: Dohatzu zare, Simon, Joanesen semea, zeren hori ez baiterauzute haragiak eta odolak irakatsi, bainan bai ene Aita zeruetan denak. Eta nik darrotzut zuri, Piarres zarela, egiazko harria, eta harri horren gainean bermatuko eta asen-

tatuko dudala ene Eliza, eta ifernuko indar guziek ez dutela sekulan garhaituko. Eta zuri emanen dorozkitzut zeruetako zeruetako erresumaren gakhoak; eta zer ere baituzu estekatuko lurraren gainean eta hura bera estekaturik egonen da zeruan; eta zer ere deslot-huko baituzu lurraren gainean eta hura bera deslot-hurik egonen da zeruan.

Jesu-Kristoren hitz horiek goraki eta argirik handie-nean erraiten deraukute ezin-enganatuak direla beren irakasmenetan Jaundone Betiri eta haren ondoko Aita-Sainduak.

Harria zare zu, eta harri horren gainean asentatu-ko dut ene Eliza, eta ifernuko indar guziak ez zaizko sekulan nausituko.— Beha zakozu, mendiaren erraie-tan eta itsaso-hegian, harroka handiari; alde batetik bizkarrean jasaiten du mendiaren goratasun eta zabaltasun guzia; bertze aldetik buru egiten du itsaso-ko uhinen borthiztasun eta jazartze guziera; eta hura sekulan ez demendrenik higitzen! hura bethi han, toki berean, hazkar eta tieso!

Hola-hola dago Erromako Aita-Saindua, alde bate-tik sorbaldetan ekhartzen duela Eliza guzia, eta bertze

aldetik buru egiten duela etsai muthiri guzien errabiarri.

Horra laster hogoi mende Piarresek eta haren ondokoek jasaiten dutela Elizaren karga eta ifernua-ren oldarra. Eta arte hortan zonbat heretiko, zonbat xizmatiko, zonbat inpio, zonbat buru makhur, ez zaizkote jazarri? Ifernuko seme horiek guziek zonbat aldiz ez dute nahi izan gezurra nausiarazi eta egia itho?

Bainan bethi Erromako Aita-Sainduak egia ilhunbetarik behexi dute, artharekin zaindu dute, lurreko lau bazterretan errepikatu eta goretsi dute. Itsasoak bai kalapita frango ibiltzen, ur handiak noiznahi bort-hizten, munduko indardunak farfailetan jauzten eta borroka lotzen: eta guziengatik harroka hura ez higi-tzen, Aita-Saindua egiaren ozka xuxenetik behinere ez den-gutiena zeihartzen.

Nondik heldu da hori? Heldu da, ez gizonaren argi-tik edo indarretik ez, bainan Jainkoaren laguntza bere-zi batetarik, Jesu-Kristok berak Aita-Sainduari hitze-man dion laguntzatik.

Eta gero: Zuri emanen darozkitzut zeruetako erre-sumaren gakhoak; eta zer ere baituzu estekatuko lurraren gainean eta hura bera estekaturik egonen da zeruan; eta zer ere deslothuko baituzu lurraren gai-

nean, eta hura bera deslothurik egonen da zeruan.— Hitz horietan espantitzen da San Hilario: «Non asma dezakegu irakasmen hain ezin-enganaturik, nola baita zeruak berak onesten eta finkatzen duen irakasmena?» Eta berdin Poitiekoko Pio kardinaleak: «Nork mundu huntan ukha edo arbuia dezake, zeruak bere baimenaz onetsi eta finkatu duen irakasmena?» Horrelakoa da bada Aita-Sainduaren irakasmena; lurrean estekatzen dituenak, zeruan ere estekatuak dire, eta lurrean deslotzen dituenak, zeruan ere deslotuak dire. Eta horrek erran nahi du Aita-Sainduaren irakasmenak ezin-enganatuak direla.

Beste aldi batez Jesu-Kristok erran zion Jaundone Piarresi: *Simon, Simon, Satanek galdegin da zuen zethabetzea ogi bihia bezala. Bainan nik othoitz egin dut zuretzat, ez dezan behaztoparik egin zure sinesteak, eta zuk, beharko denean hekienganat itzulirik, xuxent eta hazkar zaitzu zure anaiak.*

Zethabea edo bahean ogi bihia harat-hunat ibiltzen eta hazkarki inharrosten da: Hola-hola inharrosiak eta kalapitatuak dire Elizako buruzagiak, Aita-Saindua, Aphezpikuak eta Alphezak, satanen zethabea, erran nahi baita mundu galkor eta leizetsu hun-

tan, Jesu-Kristoren kontra bethi oldarturik eta bihurrik dagoen mundu tzar huntan.

Bainan mundu horrek, satanez sustaturik, ibil detzala kalapita guziak, jazar dadiela Elizari eta haren burzuzagieri; alferretan akhituko da; ezen bertze asko behaztopaturik ere, bat bethi xuxen eta tieso egonen da; eta harek berriz xutiaraziko ditu erori daitezkenak, harek bethi erranen du non den egia eta non den gezurra, non den ongia eta non den gaizkia.

Nor othe da hori? Hori da Erromako aphezpikua, Aita-Saindua. Jesu-Kristok erran dio: Eta nik zuretzat egin dut othoitz, zure sinesteak ez dezan egin amor; eta zuk behar-orduan xutiaraziko eta hazkartuko dituzu zure anaiak. Bertzeak errebela daitezke, Aita-Saindua sekulan.

Azkenik huna zer dion Batikaneko kontzilioak:

«Irakasten dugu eta Jainkoak agertu egia bezala finkatzen dugu: Erromako Aita-Saindua, bere alkhitik mintzo denean, erran nahi baita girixtino guzien Artzain eta Irakasle bezala, bere buruzagitasun soberrano eta apostolikoaren ariaz, finkatzen badu Eliza guziak atxiki behar duela, sineste bat fedeari edo egin-moldeari dohakona, orduan baliatzen dela. Jain-

koak Piarresen baithan hitzeman dion laguntzari esker, *Ezinenganatzeaz*, Jesu-Kristok bere Elizari eman dioenez sinesteari eta egin-moldeari behatzen diren gauzetan. Hortakotz, ezin hautsiak dire Erromako Aita-Sainduak horrela ekhartzen dituen irakasmek, eta hori, ez Elizak eman baimenez, bainan beren baithako indarraz.

Beraz, edozoin denboretan, eta guziz oraiko denbora nahasietan, segurtamenekin beha dezagun Erromako Aita-Sainduari, harek eman irakasmeneri osoki jarraik gaitzen. Erromako alderat begiak landaturik, neurthitzlariarekin erran dezagun bethi:

Hara Aita-Saindua, Jesusen ordaina,
Apez soberanoa, artzainen artzaina,
Jaundone Petiriren ondoko zuzena,
Fedeaz dohanean tronpa ez daitena:
Erromatik mundua argitzen du dena.

Aita-Sainduaren othoitzza Batikaneko bere presundegian

Jainko ona, othoi zeure izen handiagatik
Athera nezazu neure etsaien eskutarik;
Ez dute batre izatu zure beldurtasunik,
Aitzitik hil nahi naute zu guziz ahantzirik.
Halaber ikhus ezazu ene bihotz garbia
Eta jasaiten dutan bidegabe handia.
Arren zuk libra nezazu neure etsaiarik,
Kalte egin nahiz hurbil darraizkidanetarik.
Hortakotz othoi zeure alkhitik jaiki zaite
Eta hasarrerik hekin bidera ilkhi zaite.

III - KAPITULUA

Aita-Sainduaren erregetasuna

*Nolako kargua duen Aita-Sainduak.-
Kargu horren bethetzeko, libro behar
da.- Aita-Saindua, gobernamendu baten
esku-pean, gathetan.- Erregetasun hori,
ez da Aita-Sainduaren probetxutan, bai-
nan bai gurean.- Hori gabe ez laiteke
nixon sosegurik.*

Eskualdun gazeta bi aldiz ederki mintzatu da Aita-Sainduaren erregetasunaz. Bi kapitulu hotan hitzez hitz emaiten ditut harek aipatu xehetasunak.

I.- Guziek badakite zer kargu duen Elizan Aita Sainduak. Aita Saindua da Eliza guziaren gidari sobe-rano eta ezin bertzezkoa: hari datza, arimen goberna-tzea, kontzientzien argitzea, indar emaita ongiari eta egiari, gezur eta gaxtakeria guzien kontra. Jesu-Kris-tok hortako du ezarri bere Bikarriotzat lurraren gai-nean; eta beraz Elizak eta Elizaren membro guziek

harenganik behar dituzte Erlijione Sainduaren argi eta irakaspen garbiak.

Bixtan da, kargu handi horren bethetzeko, Aita Sainduak behar duela osoki libro bere egon-lekhuan; nola bertzenaz adiaraz bere irakaspenak eta helaraz munduaren bazter guzietarat? Libro ez bada, nahi duenean eta nahi duen bezala mintzatzeko, alfer dire Jesu Kristorenganik dauzkan dretxo eta dohain guziak, ez dezake Eliza goberna, ez dezake bere kargua bethe.

Aita Sainduak segur balu libertate hori bere karguko egitekoetan, ez luke batere erregetasun beharrik, eta hobe baizik ez laiteke. Bainan nola izan libro, ez balin bada den tokian nausi eta errege? Orotan nausi bat bada. Aita Saindua ez bada bera nausi, bertze bat izanen da eta orduan Aita Saindua haren meneko. Ikhusten duzue, alde batetik Gobernamentua bere indar guziekin, hura nausi, harek manatzen, eta ez nahi Aita Sainduak deus ere egin edo erran dezan haren desgogora ditekenik; bertzaldetik, Aita Saindua Gobernamentu haren eskupean, eta kontzientziaz hertxatua mintzaterat, ez Gobernamentuak nahi bezala, bainan bere eginbideak manatzen dioenaren arabera? Laster erran lesoke Gobernamentuak: «Ago

ixilik; ni nauk nausi, obedi nezak,» eta Elizaren buruzagiak, edo ez luke batere libertaterik, edo bakharririk izariz eta ahal bezin guti, gobernamentuak utz lezokena. Aise lituzke hetsiak Elisari bere irakaspenen helarazteko bideak.

Arrozoin handirekin dio beraz gure oraiko Aita Sainduak, Elizaren buruzagiaren libertatea bere karguko egitekoetan segurtatua izaitzekotz, bera behar dela bere egon-tokian nausi eta errege, ez dadientzat nehor izan, ez errege, ez enperadore ez Errepublika, bortxa egin dezokenik berari, edo harekin Elizaren gobernioan phartalier direnei. Hitz batez, Aita Sainduak ez du behar, bera dagon lurretan, nehor bera baino nausiagorik; bertzela ez daiteke libro bere buruzagitasunaren karguaren bethetzeko.

II.- Ez uste izan, zonbeitek amestu duten bezala, erregetasun tenporaleko hori Aita Sainduaren abantailetan dela, eta haren gorestekoz bezala. Ez, Aita Sainduak ez du goreneste beharrik, handienak baino handiago da, eta gorenik direnak baino gorago altxatua, Elizaren buruzagi gisa daukan kargu paregabeaz.

Errege behar da, ez beretzat, bainan Elizaren eta arimen onagatik, zeren girixtino katoliko guzien onak

baitezpada nahi baitu ez dadien, bere karguko egitekoetan, nausiago batez izan tratatua.

Emagun ezen Aita Saindua gobernamentu baten meneko. Zertan gintezke, gu katolikoak gobernamentu harek tratatzen balitu haren irakaspenak? Eta ez balitu ere tratatzen, nondik ginduke segurtamena irakaspen hek ez ditezkeela, gutiago edo gehiago, gobernamentu haren gogorat arrimatuak zerbeit edo emendatuz, edo mendratuz? Bethi behar ginuke traba edo enganio zerbeiten beldur izan. Eta orduan nola fida handikako irakaspenei? Nolako dudamenak eta hersturak kontzientzietan, ez jakinez non den egia, eta non ez! Aita Sainduaren irakaspenean fidantzia osoa izaiteko, ez da aski libro izan dadien; guk behar dugu bertzalde osoki segur izan nehork ez diola ez bortxarik, ez trabarik egiten. Segurantzaz hori ez baginu, bethi beldur gintezke tronpatuak izan; eta bai aphezhiak, bai munduko katoliko gukiak, aurkhi litazke artzainik gabeko arthalde baten pare.

Hortik kontzientziak errebelatuak, nahasiak, ilhunbe belzetan; fedea bera, eta harekin Eliza, irrisku handitan. Zonbatek ez lukete nahi obeditu bertzen meneko Aita Saindu bati! Zonbat gobernamentu onhets ez lezaketenak bertze gobernamentu baten eskupean

litekenari! Hori bera aski eta frango hainitzen fedea khordokatzeko eta galtzeko.

Beraz, ez ditekenaz geroztik, ez sosegurik katolikoek kontzientziarentzat, ez segurantza osorik fedearentzat, non ez den Aita Saindua osoki libro bere karguko egitekoetan, guziek badugu dretxoa galdetzeko eta ardiesteko gure Aita Saindua libro izan dadien, eta hargatik errege, ez baigaitezke bertzela segur izan egiazki libro dela.

IV - KAPITULUA

Aita-Sainduaren erregetasuna

Aita-Sainduak hastapenean ez zuten erregetasunik; orai beraz zertako dute?- Lehenbiziko denbora hek, martir denborak.- Nola sorthu eta asentatu den Aita-Sainduen erregetasuna.- Egungo egunean ere Aita-Sainduak ez du erregetasunik; eta bizkitartean izaiten ditugu haren irakaspenak;- Ez da hori libertatearen itxura edo itzal bat beizik.- Hortakotz galdatzen du eta galdatu behar du libertate osoa.

Zer erran dugu? Erran dugu eta frogatu, alde bate-tik Aita Sainduak, Eliza guziaren buruzagi eta gidari den phondutik, behar duela libertate osoa bere irakaspen eta manuen munduko aphezpiku eta girixtino guziei helarazteko; bertze aldetik, ez dukela libertate hori segurtatua, non ez den bera nausi eta errege bere eskualdean.

Zer erran dugu oraino? Aita Sainduaren erregeta-
suna dela girixtino guzien fagoretan, zeren, balu bera
baino nausiagorik norbeit, ez baiginuke guk behar
dugun segurantzarik haren phartez emanikako
manuak egiazki harenganik litezkela. Beraz gu guzien
dretxoa da Aita Saindua errege izan dadin, ez baidite-
ke bertzela ez libertaterik gure kontzientzat, ez bake-
rik.

Biskitartean, diote zonbeitek, *Elizaren lehen men-
detan Aita Sainduak ez zuten erresumarik. Zergatik
bada ez dire, orai ere orduan bezala, gabe izaiten
ahal?*

Egia da Aita Sainduak ez zirela hastetik errege.
Enperadore paganoak ziren nausi Erromako hirian.
Bainan hala zer bizi zeramaten Aita Sainduak denbo-
ran hetan? Bethi kasik izigarriki persekutatuak; noiz
nahi biziaren irriskuan; gorderik egon bear; halere,
300 urtherik artean, gutiz gehienak *martir* hilak tor-
menten erdian. Horra zer dion ixtorioak, eta dio orai-
no, Enperadoreak girixtino eginez gerostik ere, Aita
Sainduak ez zutela bakerik hanbat; frangotan preso
hartuak, edo bere egon-tokitik urrun desterratuak,
nahi baizuten kontzientziara obeditu nausi urgulutsu
hekiei baino lehen.

Nork ez du beraz ikhusten baitezpada behar zela Aita Sainduen libertatea zerbeit gisaz segurtatu? Hortarakotz Jainkoaren Probidentziak halako moldez gauzak arrimatu zituen, non, denborarekin, ez baitzen, Erromako hirian eta haren bazterretan, bertze goberniorik aurkitu Aita Sainduen gobernioa baizen, ez zadientsat nehor izan indar zukenik hekien trabatzeko edo bortxatzeko.

Nola jarri zen eta finkatu Aita Sainduen erregetasuna? Ezin eztikiago eta zuzenkiago.

Enperadoreakjoan zirenean Erromatik urrun, bertze hiri batean egoiteko, populu erromanoa aurkhitu zen bere gisa utzia, eta abandonatua bezala ordu artino zaindu zuten. Bada denbora hek ziren ondikozko denbora batzu, zointan hainitz eskasia baitzen, eta gerla eta nahasmendu frango. Erromanoak oihuz zauden eta laguntza galdez enperadorei; bainan zonbat aldiz alferretan!

Horrelako hersturetan, zer egin? Aita Sainduiek ordukotz, bere kargua eta berthute miragarriak zirela kausa, errespetu handia zaukaten populu erromanoaren aldetik; eta hargatik hasi zen jendea hekiei laguntza galdetzen, bere behar orduetan. Aita Sainduiek aldiz egin ahalaz lagundu zuten populua. Erran ez dai-

teke zenbat zuten egin Erromako eta inguruetakoko populua, ala gosete, ala gerla, ala bertze nahigabetan, sokhorritzeko eta gaitz handienetarik begiratzeko, halako gisan non, hekien laguntza gabe, Erroma behin baino gehiagotan galdua baitzitaken, eta ezeztatua.

Hortik populua bere ongi-egile Aita Sainduentzat. Amodio eta ongi egin horiei esker, bai eta printze girixtinoen emaitzei, jarri zen eta hedatu emeki-emeki, ohartu gabe bezala, Aita Sainduaren erregetasuna. Geroztik, 1.200 urte huntan, populu girixtino guziek daukate erregetasun hori dela, ez bakharrik osoki zuzena, bainan sakratua.

Bainan, diote oraino, nola daiteke hori? Urtheak ditu Aita Saindua ez dela errege, Italiako erregea denaz geroz Erroman nausi, eta halere iduri du libro dela, ezen noiz nahi entzuten ditugu, ala haren irakaspenak, ala haren eginkunde handien famak.

Bai, egungo egunean, Aita Saindua bere erregetasunaz gabetua da. Bainan halere, oraino badu erregetasunaren itzal bat bezala. Ezen harentzat eginikako lege baten arabera, Italiako gobernioak ez du dretxorik haren gainean; baditu, erregen gisa, bere minixtroak, bai eta bertze gobernateduek, errege bati bezala, egortzen dazkoten enbaxadoreak. Eta nola errege-

tasunaren itxura baitu baxharrik, hala-hala libertatearen itxura baizen ez du, eta ez egiazko libertatea.

Ez da libro, ezen bortxatua da bere palazioan egoiterat presoner hat bezala, ez ditekela kotz handik athera lanjer handirik gabe. Ez da libro, ezen trabatua da bere egitekoetan, asko gauza Elizaren gobernio onarentzat behar lituzkenak khendu baiterazkote. Ez da libro ezen duen libertatea, Italia etsaiaren eskuan da, eta gobernamentuak egunetik biharrerat khen dezoke. Oraino uzten dio beldurrez, baitaki bertze gobernamentu gehienek ez luketela nahi Aita Saindua esklabo Italiaren aztaparretan. Bainan guziek dakitena da, Italia okasionearen beha dagola, eta indarririk aski izaitearekin, Aita Sainduari berehala khen letzokela azken dretxo dituenak. Hori da libertatea? Ez, bainan libertatearen itxura edo itzala baxharrik.

Arrozoinekin beraz erran du hanbat aldiz Aita Sainduak, eta goraki erraiten du ez dela libro; bere buruaren jabe behar, eta Italiaren eskupean dela; arrozoinekin galdetzen du bihur dezakoten hartu dioten erresuma xumea. Galdetzen du, zeren haren beharra baitu Elizaren gobernio onarentzat; galdetzen du zeren zuzen baita ohoinak itzul dezon jabeari ebatsi duena;

galdetzen du, zeren, Aita Sainduak ohi duten bezala, juramentu egin baitu, bere aintzinekoetarik dauzkan dretxu guziak ahal guziaz begiratuko dituela beretzat eta bere ondokoentzat. Galdetzen du bai eta ere galdetuko bethi, behar baitu kontzientziaz galdegin, eta, ixilik egon baladi, handizki hobendun bailiteke, obligazio sakratu bati huts eginez.

Zer zorokeria beraz uste izaitea Aita Sainduak noizbeit ukho eginen dutela bere erregetasunari, dakitelarik hari eratxikitzen zaiola duten dretxorik balioesena eta beharrena, zoina baita bere eta Eliza guziaren libertatea! Ez, ez dezakete holako lanik egin, eta ez dute eginen.

IV - ZATHIA

Erlisioneak egiten derauzkigun ongiak

Esku ezti bat hedaturik,
Eliza katolikoak
Xukhatzen ditu nigarrak,
Bai eta minak sendoturik
Bozkariatzen bihotzak.

I - KAPITULUA

Erlisioeak irakasten du:

menekoeri buruzagien alderako jauspena, eta buruzagieri menekoen alderako ontasuna

Aita-Sainduaren hitzak.- Buruzagitasun guziak Jainkoarengatik heldu dire.- Erlisioea erresumen zimendua.-Nausiek azpikoeri zor diotela amodioa.

1° Aita-Saindu Leone hamahirugarrenak erraiten zuen berriki: Jainko biziaren Eliza, egiaren habea eta asentua da, eta harek gizoneri emaiten ditu elgarrekin ongi bizitzeko behar dituzten argiak eta ibilbideak, eta aldiz errotik khentzen ditu gizonen elgertasunari galgor zaizkon gaitz guziak.

Eta gaitz horien artean, zoin da galgarriena eta egungo egunean gehienik jazartzen zeraukuna? Hura da, gizonak oro berdinak sortzen direlako estakuruan, errepikatzen duena alde guzietarik: Ez zaiola kargutan denari deus agurrik ez jauspenik ekharri behar, eta

legeeri, non ez diren hekien gogorakoak, ez dela jarraiki behar.

Diot hemen Eliza katolikoak khentzen dituela gutartetik makhurkeria eta herrebeskeria horiek; eta nola? irakatsiz buruzagitasuna Jainkoarenganik heldu dela.

Bai, Girixtino Erlisioneak finkatzen tlu gobernuetako buruzagien nausitasuna, bai-eta burasoen eta nausi-etxeko anderena, zeren irakasten baitu Jainkoarenganik heldu direla nausitasun guziak. Ezen huna zer dion Jondoni Paulok:

Nor-nahi buruzagien eskupean ethorkor egon bedi. Buruzagiak alabainan Jainkoaren ordainak dire, ez denaz geroz buruzagitasunik, harenganik baizen. Bai, Jainkoak egin ditu, Jainkoak ezarri ditu nausitasunak oro. Eta hortakotz, buruzagiari jazartzen dena, Jainkoaren arrimuari jazartzen da; eta hola bihurtzen direnak, bethiereko galtzerat dohazi. Beraz, premia den bezala, izan zaitezte ethorkor, ez ezik beldurrez, bainan eginbidez, konzientziaz.

Zer dukete gizonen legek eta manuek zimendu hoberik, ezenez horrelako hitzak? Horrengatik zion Erroma paganoko gizon handienetarik batek: Erresuma batetako jendek gogoari zinez eman behar dioten

lehenbiziko gauza da, Jainkoa dela mundu guziaren
nausia eta gobernaria, eta zorrozki daukala khontutan
nork zer egiten duen eta zer derabilan gogoan.

Eta Erroma bereko bertze izkribatzaile batek: Hiri
hortako jendeak, oraino pagano zen arren, Erlisioenez
zaukala guzien gainerik khondu, hura ezartzen zutela
bethi bere xede eta egiteko guzien aintzinean, zeren
Erlisioea baitzaukaten gobernu on guzien zimendu-
tzat.

Huna zer dion Izpiritu-Sainduak berak:

Alferrik munduan ari gare etxe egiten,
Baldin ez bagaitu Jainko zerukoak laguntzen;
Alferrik erne daduka soldadoak begia,
Baldin ez badu zaintzen Jainkoak hiria.

2° Bainan, Erlisioeak menekoeri eta azpikoeri
jauspina irakasten badiote buruzagien alderat, hala-
hala nahi du aintzindariak ere maita detzaten beren
peko guziak, hekien alderat ager ditezen bethi jasan-
kor, erne eta jeinutsu; orhoituz buruzagiak ere Jainko-
aren aintzinerat agertuko direla laster; eta baldin Jain-
koak urrikalmendu errexki emaiten badio jende

xumeari, handieri aldiz gaztigu handiak emanen dituela.

Hitz eder horiek, Aita-Saindu Leone hamahirurga-
rrenak erraiten ditu erregeri, munduko handi-mandie-
ri eta gainerateko buruzagi suerte guzieri.

Huna gerthakari bat hunkigarria eta irakatsiren
deraukuna Elizako buruzagiek nolako bihotza duten
beren meneko jende xehearentzat. Gure gazeta
Eskualdunear irakurtua dut:

Murde d'Avio aphezpikuak, zituen guziak, bere
athorarik hoberenak berak, pobrer emaiten zituen.

Athorra xahar, dena pheaxu ziren batzti zabiltzan
berak. Zerbitzaritzat zuen serora, athorra berri
batzuen egiteko diru poxi baten Jaunari galdatzera
ezin mentura baizitakeen, huna nola jokhatu zen:
Egun batez erraiten dio: «Jauna, aitoren seme bat
bada, zituen guziak xahaturik, bere herrunka atxik ez
diona; nigarringarri da haren ikhustea bere athorra
xarrarekin.»

- Bainan, aitoren seme batek athorra bederen
behar du ederra! ez dut bada sos handirik: halarik ere,
direnak oritzu: egiotzu zonbait athorra, oihal hobere-
netik. Ez hatik erran nik igortzen daizkotala.

- Jauna, zaude trankil, ez zaitut salhatuko.

Ondoko igandean, Jaun aphezpikuak idekitzen du bere athorra xaharren khutxa. Han athorra berri eder batzu!

- Zer da hau?... Deitzen du serora.

- Nundik ditut athorra hau? Nork igorri daizkit?

Serorak, irria ezin atxikiz, ihardesten dio: «Jauna, hori ez dezakezut erran, haina hark debekatu baitaut.»

Jaun Aphezpikuak konprenitu zuen bera zela aitoren seme hura eta berak bere buruari egin ziola athorra berri zonbaiten amoina.

Erran zion serorari: «Aldi huntan barkhatzen daut, bainan ez gero niri berriz holako lanik egin!»

Serorak: «Jauna, aski duzu zuk ere, ez gehiago athorrrarik emaita; bakotxak bere burua lehen du!»

II - KAPITULUA

Erlisioneak irakasten derauku elgar laguntzen eta elgar maitatzen

Bere erlisioneari jarraikitzen dena zinez, berdin zinez jarraikiko da bere eginbideari.- Erlisionerik ez duenari, ez fida!- Enperadore baten hitz ederra.- Rusiak dabiltzan itsumenduak eta tzarkeriak.- Frantzia ere leize hortarat uzkailltzen ari.- Apheza eta ostalerra.- Kaputxina, xapeldunaren trufari.

Erlisioneak irakasten derauku elgar laguntzen eta elgar maitatzen.

Bai, gizonek batzu bertzen alderat iduki behar duten egiteko moldea ere Erlisioneak ezin gehiago ederki arrimatzen du.

Erlisioea behar den bezala atxikitzen duena, izanen da: senhar amultsu eta leial, emazte ezti eta jeinutsu, buraso atzarri bere umen gainean, nausi edo etxeko andre gozo eta zuzen sehien alderat, ume

ethorkor eta bihotzdun, sehi agudo eta langile, adiskide zin eta iraunkor.

Zer ere baita, miriku, barber, notari, abokat, juje, herriko kargudun, orotan izanen da bere eginbideri jarraikia, zeren Erlisioneak hala manatzen baitio eta hortarat hertsatzen eta behartzen baitu sekulako loriaren esperantzaz eta bethiko zorigaitzaren beldurraz.

Oi! aithorrazu, guziak zinez jarraikiak bagine gure Erlisoneari, ongi gozoa laitekala lur huntako gure bizia!

Bainan Erlisioea debalde uzten bada, ez da zeren batere khondatu, ez ahidetasunaren, ez adiskidetasunaren, ez gizonak eman hitzaren gainean. Zer ere nahiko baitute gure jaidurek, gure ohidurek, gure hanpadura eta jazarkeriek, eta hura bakharrik eginen da.

Horrengatik askotan espantitu naiz, nola hanbatak hain guti diren Erlisioez griñatzen. Herrietako kargudunak hautatu behar badire, sehi bat hartu behar bada, ezkontza bat ari bada egiten, arthoski galdatuko da berri, eta sortzeaz, eta jakitateaz, eta ontasunez, eta gorphutzeko molde onez: bainan kasik sekulan ez Erlisioez! Erran nahi baita, zerk ere egin

behar baitu hobekienik bizitze huntako eta bertzeko zoriona eta hartaz nihor kasik ez dela orhoitzen!

Bertzelako gogoak zituen Konstanzio Konstantin lehenbiziko Enperadore girixtinoaren aitak. Behin batez manatu zuen soldado guziak sakrifika ziezoten haren jainko gezurrezkoeri. Girixtino batzuek egiten dute, bertzek ez.

Eta orduan zer uste duzu asmatzen duela Enperadoreak, pagano harek?

Laidotsuki kasatzen ditu sakrifikatu zutenak, erraiten diotelarik: Zer? zuen Jainkoa ukhatzen duzue! Eta beraz nik nola sinets dezaket niri jarraikiren eta leial egonen zaretela?

Bainan ohorezki bere zerbitzuan atxiki zituen, tieso egon zirenak sakrifikatu gabe, ziotzotelarik: Beldurrik gabe hautatu duzue ene mendekutan erortzea, bai-eta ditutzuen gauza guzien galtzea, ezenez ukho egitea zuen Jainkoari. Beraz, diozuenaz geroz zuen Jainko horrek nahi duela niri jarraik zaitezten zuzenezko urratz guzietan, ikhusten dut ene alderat ere leial eta hazkar egonen zaretela bethi.

Eta gaugeruz ez bedi nihor jin niri Girixtinoen kontra mintzatzera. Hekien artean khartsuenak hautatuko

ditut eta hekieri emanen, ala gortheke, ala harmada-ko kargu eta buruzagitasun gehienak.

Oxala! Konstantinok bezalako gogo zuzena balute oraiko Enperadore, Errege eta Gobernamendu guziek!

Ez du oraino hogoi egun irakurtzen nuela berri ikharagarri hau: Rusiak nahi luke jendaia girixtinoen geriza eta laguntzaile bezala agertu; eta hortakotzat espantu frango aiphatzen eta errepikatzen ditu bere meneko dituen asko Gazetetan; bainan horiek oro gezurrak dire. Huna nolakoa den zinezko egia. Orai garen urthe huntan berean, Rusiak baderauzka Ziberiako elhurren erdian desherriturik, lau Aphezpiku, lau ehun Aphez eta ehun mila Katoliko. Eta zertako uste duzu? Huna zertako: Aphezpiku, Aphez eta Katoliko horiek direlaketz osoki atxikiak Erromako Aita-Sainduari!

Eta Frantzian zer ez dugu aspaldian ikhusten? Huna zer dion *Eskualdunak*:

«Gure gobernatzailek ez dituzte oraino zerratu elizak, ez eta ere ezarri ahhezak presondegian, duela ehun urthe bezala. Ez dira oraino hartara menturatzten. Bainan ari dira, emeki emeki, jendearen preparatzen erlisionerik batere gabe phasa arazterat; hortakotzat ez dute gehiago erakusten erlisioneak eskole-

tan; hortakotzat dituzte kasatzen eskoletarik, armadetarik, ospitaletarik, orotarik Serorak, Frerak eta Aphezak. Entseatzen dira, emeki-emeki, aphezen nonbrea ttipitu nahiz; xede hortara khenduak dituzte osoki gobernamentuko buxetetik bertze orduz semenarioetako aphez-gaien laguntzeko ezartzen zituzten somak; gehiago dena lege bat plantatua dute aphezgai horien soldado igortzeko eta bokazionearen heiergal arazteko. Holaxet zombait urthe joan garenean ezagutuko ditugu obra beltz horren ondorio gaixtoak. Orduan ikhusiko ditugu jenerazione berri batzu erlisioenez kanpo altxatuak eta aphezak arras baxhanduak. Errepublikanoen xede beltza orduan izanen da bethea: orduan ikhusiko da bazter guzietan gaizkia nautsitua.

Bainan zer mota du? Gure Erlisioe sainduaren etsaiak zombait nahai borthizki jazarririk ere, ez da gutiago egia izanen Erlisioe horrek irakasten deraukula elgar laguntzen eta elgar maitatzen. Zer diot? Etsayik borthitzenak ere maitarazten derauzkigu! Gerthakari eder huntarik ageriko da:

Duela ehun urthe hurbil, Frantziak iragan zituen egun lazgarrietan, aphezak gordeka zabiltzan, etxe-

tan haurrak batheatuz, eta erier azken sakramenduak emanez, beren biziaren irriskuan.

Hetarik bat, zen M. Guyader, bethi bere fedea azkar daukan eskualde batean, Bretanian, herri bate-tako ertora.

Beraz gau batez harat heldu dira Errepublikano soldado batzu, sardiant bat buruzagi; Jaun Ertora bere etxean preso hartu behar dute gau erditan beretan.

Soldado batek zion: «Nardagarri ere bada ongirik baizen egiten ez duen Apez baten estekatzera, dotzena bat gizon hunat jinak!»

Sardiantak: «Ixilik... manua hala dugu.»

Nola ezpaitzen oraino hartua zuten tenora, bado-hazi phausatzera instant bat, ostatu batera. Ostalerak izena zuen *Brassak*.

Gau-erdik jotzen du.

Orduan sardiantak: «Grenadierrak, jarraik niri; goazen ertor-etxera, eta hutsa bada, itzuliko gira kazernarat.»

Ostalersak: «Bainan fortunaz uste duzea ertora etxean kausituko duzuela? Nik badakit nun den, irri egin behar dugu, eta hortakotz, ene senharra ohean emanen da alegia eri, eta nik hunat ekharraraziko dut, segur.»

Brassak ostalerra etzan zen, dena intzirine, gaitzaz josia balitz bezala, bainan komedia hunek etzuen anhitz iraun.

Emazte gaistagina, lanterna bat eskuan johan zen laborari-etxe batetara. Jo zuen athea.- Nor da hor erraiten diote.- «Brassaken emaztea, gizona dut eri gaizki eta galdatzen du Jaun Ertora.- Ez da hemen.»- Bainan Jaun Ertorak aditu zuen.- Arima bat salbatzeko, dio eta atheratzen da.

Oren laurden baten buruko, ostatuan dira. Jaun Ertora, han aurkhitzen da soldado errepublikanoez inguratua. Salutatzten ditu - gero dio: «Ikhus dezagun eria»- Hurbiltzen da. Gizonari foltsua miatu eta «Soldadoak, dio, belhauniko, gizon hau agonian baita.»

Grenadierrak ukhurtzen dira.

Gizon haren begian bazen nigar bat, urrikiaren nigarra, dudarik gabe Jainkoak onhartu zuena. Eriari begiak hetsi eta aphezak erran zioten soldadoer:

- «Zuen eskuko naiz.»

Sardiantak: «Jaun Ertora, libro zira, eta sekulan beharretan bazira, orhoit zaite Malher sardiantaz, bai eta ere, zioten bertzeek, 20garren brigadako grenadierrez.»

Gerthakari hunen segretua berentzat atxiki zuten.

Denboraren buruan, Malher sardiantak, ordukotz koronel pasatuak, ez zuen laudoriorik aski M. Guyader ertorarentzat.

Horra Erlisioneak nola irakasten deraukun gure etsaiak ere osoki maitatzen eta ahal guziaz laguntzen.

Hargatik ez uste izan ez Erlisionearen etsaiak sekulan baratuko direla haren kontra mintzatzetik. Ez!... Badakite bai gezurrez mintzo direla, bainan preski hortakotz dire are borthizkiago oldartzen. Erran zaharra da: *Zuzen-gabeak orro handi*.

Bainan gehienak gaxto bezain asto dire. Dezagun ikhus:

Fraide Kaputxin eskelari bat bazohan arinik, makhila eskuan, bere zakua soin-hegian.

Bide beretik heldu zen Jaun xapeldun batek erraiten dio: «Aita Kaputxina, zaude emekixago, elgarrekin johanen gira.»

- «Mila plazerrekin.» - Eta badohazi, hartaz eta huntaz solasean.

Jaunak: «Aita Kaputxina badakizua gero, alfer handi batzu zietela, bethi eske eta akhitu gabe jatekoa bil. Zuen San Frantsesek eman erregelak ez zaituzte biziki jenatzen. Zuk, segurik molde on duzu.»

- «San Frantsesen erregela, zuk diozun baino hobea da, manatzen daukunaz geroz protsimo lagunaren behar-orduan laguntzea.»

- «Ori, aita Kaputxina huna parada ona, hea zure erregelari atxikia zarerenez? ur hau iragan behar dugu, zubirik ez da, ene zapata berriak ez nituzke busti nahi; zu oinths zira, zure bizkarrera iganen naiz.»

- «Igan zaite.»

- «Badakizua zaldi on bat zarela? ez gero behaztopa!»

- «Zaude deskantsu, urhatsa segur dut; bainan, orai orhoitzen bainaiz, errazu, Jauna, baduzua dirurik zurekin?»

- «Dirurik badudanez?- segurki baitut, moltsa bat ontsa bethea oraino.»

- «Orai, orai tut lanak, ene erregelak nau jentzen?»

- «Zer diozu? ala diru pheza bat nahi zinuke?»

- Ez batere, bainan San Frantsesek debekatzen dauku urhe, zilhar, dirurik gurekin ibiltzea, eta diozunaz geroz baduzula moltsa bat bethe bethea, barkha zadazu Jauna, gure erregela hautsiz ez dauzut etsenplu gaistorik eman nahi.

Eta, soin-ukhaldi batez, urerat aurdikitzen du, erraz gora.

- «Ai, ai, hel zaizkit, aita Kaputxina?»

- «Gu, alfer handi batzu gira.»

«Adio, hor bazira, etxeratekoan hartuko zaitut.»

Istorio hunek badu bere morala edo erakaspena. Adiarazten dauku erlisionearen kritikatzaileek, aphez, fraide, serorez burlatzen direnek badakitela behar-orduan heier zerbitzu zonbaiten galdatzen.- Gure Kaputxinak bere erregela izpiritu anhitzekin aplikatu zuen; eta bertze Jauntto hark lekzione horrekin, mainhu bat urririk hartu zuen; on egin omen zion, uda baitzen.

III - KAPITULUA

Lur huntan ere Erlisioneak dohatsu egiten gaitu

Hemengo nahigabeak, gure jaidura gaxtoen ondorioak.- Erlisioneak gure gaitzak eztatzen.- Bai-eta maitarazten eta gutiziarazten!- Aita Muard pairatzearen gose.

Oraindanik ere, lur huntan berean, Girixtino legeak gizona dohatsu egiten du, hemen dohatsu izan daiteken bezenbatean.

Mundu huntako nahaskeriak, bizitze huntako nahigabe kasik guziak sortzen dire gizonaren bihotzeko jaidura gaxtoetarik. Heldu dire edo minberatasunetik, edo hanpaduratik, edo bertzeen aho-mihitan ederki ibilia eta aiphatua izaiteko gutiziatik; lurreko ontasuneri sopra estekatzetik; hekien biltzeko artha eta galtzeko beldurkunde sobraniotik; gorphutzeko atsegineri emanegia izaitetik.

Jaidura horiek eta bertzeak atxiki bitez behar diren mugetan, eta geroztik badukezu gizonen artean, oraidanik, egiazko zoriona. Eta horra zer nahi duen Girixtino legeak. Agortzen ditu eta hesten jaidura gaxto horiek gure bihotzetan, erran nahi baita agortzen eta hesten dituela zorigaitz eta nahigabe gehienen ithurhuruak.

Bere Erlisioneari behar bezala behatzen denak ezti eta arhin kausitzen ditu gerthatzen zaizkon gaitzak ere. Nolaz othe? A! zeren guziak, nondik nahi ethor dakizkon, Jainkoaren eskutik hartzen baititu. Badaki jasaiten dituen gaitzak handizki baliatzen zaizkola bere hutsen garbitzeko, bere Purgatorioa lur huntan egiteko, zerukotzat aberastasun handien biltzeko, eta guziz Jesus kurutzefikatuaren iduri egiteko. Bai-eta, aria eder hortaz, bihotzean sortzen eta erakitzen zaio pairatzeko gutizia eta kharra. Eta orduan ez dauke, ez du sosegurik, non ez dituen oinazeak, nahigabeak, kurutze suerte guziak Jesusekin jasaiteko. Hola zitzaion gerthatu Aita Muard aphez khartsuari.

Huna zer egin zuen. Ordukotz ere sakrifizio handiak bazituen eginak, eta hirur botuekin Misionest bezala bizi zen komentuan. Ez zitzaion ordean aski. Haren kharrak kurutze dorpheagorik nahi zuen.

Beraz egun batez, Aita Muard heldu zen oinez Benuzetik Pontiñirat. Bi Kilometren bidea zuen egiteko; ezti-eztia zohan, paseietan bezala, bere othoitz ardurako zombait eginez. Eta horra non kolpez zerutikako argi batek izpiritu guzia hartzen dion! Ikhusten du, han berean izan balitz bezala, komentu bat, eta komentu hartan Ordena bat berria eta hainitz khar-tsua. Iduri zaio Jainkoak manatzen dioela molda dezan berak Ordena hori: San Benuaten erregelari jarraiki behar dire fraideak: atxikiren dituzte hertsiki pobrezia, ixiltazuna, barura: ibiliko dire predikatzen eta misione emaiten, eta hargatik eskulanetan ariko dire eta bethi mehe janen dute eta ez dute arnorik edanen.

Zerutikako ageraldi hortarik sorthu da Benedikano-predikarien Ordena.

Hantik laster Aita Muardek egin zuen hamabortz egunetako erretreta bat. Erretreta hortan hartu zituen azken xedeak Ordena berriari buruz. Eta are ausarkia-go eman zen ordutik penitentziari eta garratzasun borthitzeneri. Bere gauak iragaiten zituen beztiturik eta taula idorraren gainean etzanik; goizetan hirur orenetako jeikia zen eta othoitzari lothua; egun guziez egiten zuen barur eta mehe: surik ez zuen sekulan beretzat phizten; astean hirur aldiz, astelehenetan,

astezkenetan eta ortziraletan, lizifrinaz joiten eta xehatzen zuen bere gorputza; penitentziako zazpi psalmoak erraiten zituen arrats guziez, belhauniko eta besoak hedaturik.

Bainan gaxtoena egiteko zuen. Nola athera Pontifiko bere misionest lagunentz artetik? Berak bildu eta moldatu zituen; hekien buruzagia eta Aita zen; eta iduriz, etxe guzia erori behar zen, hura galduz geroz. Eta bestalde, arxaphezpikuak ez zezaken utz Diosesatik urrunterat premia hortako aphez bat.

Jainkoak ordean beso hazkarra du, baztertzen ditu errexi trabarik gaitzenak, eta sekulan ez du obra onik uzten biderditan.

Jainkoa ongi othoitzturik, Aita Muard badoha Arxaphezpikuarengana. Bainan ez dio bere xedea garbiki aithortzen. Bertze norbaitez mintzo balitz bezala, erraiten dio badela Diosesan aphez bat, obra berri bat egin nahi duena; obra horrek probetxu handiak eman lezazkela Diosesari eta Eliza guziari.

Arxaphezpikuak ihardesten dio ez duela ongia beizik nahi eta lagunduko duela gogo onez aphez khartsu hura. Orduan Aita Muardek: Oi Jauna, aphez hura ni naiz!

Jainkoaren nahia egin dadiela, dio Arxaphezpi-kuak; zoazi eta jarraik zaite Izpiritu-Sainduari.

Hitz hortan, Aita Muard itzultzen da Pontiñiko bere lagunengana, adioak egiten diozkote eta abiatzen da erresumaz kanpo, Italiako aldetarat.

Hori zen hemezortzi ehun eta berrogoi eta zortzian, buruilaren hogoi eta bian.

Aita Muard ez zabilan bakharrik, bazituen bi lagun, bat apheza, aita Benuat, eta bertzea orgile bat, anaia Frantxex.

Arzeko herri ttipira joan ziren lehenik eta huna zertako: bazelakotz han erretor khartsu bat eta nahiz haren argiak galdatu.

Morde Vianney Arzeko erretor hori egiazko saindu bat zen, zer nahi mirakulu egiten zituena. Frantziako eta Europako bazter guzietarik heldu zitzaizkon jendeak; eta hasirik goizeko bi orenetan, egun guzia berant arte ari zen bethi kufesatzen, predikatzen, eri sendotzen.

Bana bertze, egunean hemezortzi oren iragaiten zituen kofesionalean.

Ez zuen sekulan jaten esne izpi bat beizik, eta bakharraldi batzuez lursagar egosi zonbait.

Aita Muard heltzen da beraz erretor saindu horren-
gana. Aiphatzen diozka bere xedeak eta errekeritzen
du othoi erran dezakon hea bide onean ala gaxtoan
sartzerat abiatu den.

«Ez lotsa, ihardesten dio Sainduak; obra hobere-
netarik bat egitera zoazi; Jainko onak lagunduko
zaitu.»

Arzetik jo zuten Lyonera, gero Marseillera, eta han
itsasoa hartu zuten. Erromara heldu ziren urriaren
hirurean. Nahi zuketen bai Errroman gelditu, baina
bizia khario da hiri handietan, eta sos guti zuten gure
pegrinek. Athera ziren beraz Erromatik eta joan ain-
tzina, Tibolin gaindi, Zubiako mendirat.

Zubiakon ikhusi zuten San Benuaten Komentuko
Abadea. Erran zioten zer xedez heldu ziren Frantziatik
eta nola atherbe zerbait nahi zuketen, entsegatzeko
elgarrekin beren bizimolde berriari.

Abadeak ongi-ethorri eder bat egin zioten, bere
haurrak bezala hartu zituen, bidatu zituen berak San
Laurenzen komenturat eta erran zioten: Hau izanen
da zuen bizitegia; bakharrik aurkhituren zarete
hemen, ez zaituzte nihork nahasiko ez asaldatuko;
egon beraz deskantsuan, nahi duzuen denbora guzia,

eta orhoit ez zaretela arrotzak Zubiakon, bainan bai San Benuaten haurrak eta gu guzien anaiak.

Horra beraz Aita Muard bere bi lagunekin, Zubiakon, San Benuatek altxatu komentu batean. Mendi-gain batean dire; alde orotarik ez dute harrokarik eta oihanik baizen. Egun guziez barur egiten dute; eguerditan zerbait belharkeria, deus onkhailurik gabe egoziak; sekulan oliorik ez burrarik, are gutiago urinik; arratsetan eguerdiko ondarrak, eta maiz ogi hutsa beizik ez.

Denbora hetan gaxtaginek khasatu zuten Erromatik Pio bederatzigarrena. Napleseko erregeak ohere guziekin bere lurretarat hartu zuen Aita-Saindu desherritua, eta Gaeteko bere jauregia eman zion egontokitzat.

Horiek hola, Aita Muard jeutsi zen bere mendi kas-kotik eta joan Aita-Sainduaren ikhustera Gaeteko bere desherrian. Bere obra berriaz mintzatu zitzaion. Pio bederatzigarrenak onetsi zuen osoki obra hori, eta huna zer erran zion: Bai onesten dut zure obra, ezen oraiko mende galduari eman behar zaizko sendagailu hazkarrak; egizue beraz penitentzia zuk eta zure lagun-ek, eta irakas munduari ez duela salbatzeko bertze biderik.

Zubiakorat itzuli-eta, Aita Muard are hazkarkiago eman zen othoitzari eta penitentziari; Aita-Sainduaren hitz onek sustatu zuten.

Bainan ethorria zen Frantziarat itzultzeko tenorea. San Benuaten Komentuko Abade onari eskerrak bihurturik, abiatu ziren otsailaren bederatzian, hemezortzi egun eta berrogoi eta bederatzian; eta Marzeillerat helduak ziren zortzi egunen buruko.

Marzeilletik joan ziren Aigebeleko Komenturat eta han berriz hasi penitentziako bizirik borthitzena. Ez zaioten aski Zubiakon halako bizitze gaitza eremanik, nahi zuten oraino nobizia egin Trapisten eskupean. Orduan ethorri zitzaieten bertze lagun bat, Aita Bernat, geroztik Abade izan dena.

Arte hortan Aita Muardek erosi zuen larre puska bat, oihan basa baten zolan; bere komentu berria ezarri nahi zuen mundutik ahal bezain urrun. Larre hori zen *Pierre-qui-vire*. Nobiziako denbora akhabatu-eta, toki basa hortarat jin ziren gure lau penitentak. Eta nola ez baitzuten oraino komentu baten egiteko ahalik, etxola txar bat arrimatu zuten haritz-adarrez eta lur-buztinez. Hirur metre largo, bederatzia metre luze; buru batean kapera, bertzean sukhaldea, erdian lane-ko eta lo egiteko tokia; horra zer jauregia zuten. Ustai-

laren bian, hemezortzi ehun eta berrogoi eta hamarreran, joan ziren etxola hortarat.

Geroztik, emeki-emeki, komentu eder bat altxatu dute toki hortan berean. Bainan aita Muardek ez du ikhusi komentu berria, hil izan zen lau urtheren buruko.

IV - KAPITULUA

Erlisoneari huts egiten diogu ez ongi ezagutuz

Zonbat gisetara huts egiten ahal diogun gure Erlisoneari.- Nula Jainkoak mantzen deraukun gure Erlisonearen ungi ezagutzea.- Hainitzak direla ezagutza hori ez dutenak.- Erlisonearen ongi ezagutzeko, Jainkoaren argiak galdatu behar ditugula.

Hirur gisetara nabaritzen dut bereziki, asko girixtinoek huts egiten dutela Erlisonearen alderat.

Batzuek, eta hainitzak dire, doidoia dakite girixtino direla; baina ez dakite, ez zertako diren girixtino, ez zer den girixtino legea, ez zoin premia den haren galtzarrean bizitzea. Girixtino badire, kasik ustegabeari esker, buraso girixtinoetarik sorthu direlakotz eta hok ukhan dutelakotz hekien girixtinotasunean altxatzeko artha.

Berriz bertze askok ez-axola lastimagarri batekin behatzen diote Erlisioneari. Asko ahopaldi tzar aditzen dute etsaien ahotik, ikhusten dute gisa guzietara jazartzen diotela egiazko sinesteari, samintasun guziarekin laidostatzen dituztela haren aphez eta kargudunak; derauzkan gauzarik Jainkozkoenak, halanola Sakramenduak, atrebentzia zoro batez irri eta farretarat itzultzen dituztela. Eta hek ez dire kanti-tzen, ez da solas bat hekien ahotik atherako, ez dute deusik eginen Jainkoaren alde eta Erlisionearen alde.

Hori da auhendagarri: Sinestegabeak ausart eta kopetadun, sinestedunak aldiz beldur eta lotsa.

Azkenik, girixtino gehienek Erlisioea ahalgearaz-ten dute beren bizimoldeaz. Sinestez deraukatena, ukhatzen dute egitez. Gogoan eta bihotzean nahikara onak dituzte, bainan eginbidetan sobra maiz makhur dohazi.

Hortik, 1° Artha handi bat atxiki behar dugu Erlisio-
sionearen ikhasteko; 2° bihotzekin eta hazkarki buru egin behar diotegu haren etsaiari; 3° ernerik eta art-
hoski behar gare bizi eta ibilkatu haren irakasmene-
n arabera.

Diot bereziki: Artha haindi bat atxiki behar dugula Erlisonearen ongi ikhasteko.

Adi zazu, Israel, eta gogoari emozu zinki nik erraiten dautzudana, oihu egin zioen Moisek Jainkoaren populuari: *Audi, Israel, et observa*. Zure Jainkoak, asko bertze ongiren artean, egin derauzu lege berezi baten emaitza, eta lege horren bidez irakatsi derauzu nola zaiteken, denboran ala hil-ondoan, dohatsu: *Haec sunt praecepta quae mandavit Dominus Deus vester, ut faciatis ea*.

Eman zaite beraz arthoski zure Jainkoak igorri legearen ikhasten. Hortan berma zaite, ala zure etxean zaudelarik, ala bidean zabiltzalarik, ala gauaz iratzar-artetan, ala goizean jeiki zareneko; ekhar zazu eskuetan eta begien aintzinean, geroago eta hobeki adi dezazun, geroago eta barnago sar dadien zure bihotzean.

Eta nola lege horren begiratzea baita zure eginbiderik premiatsuena, hala-hala ongiaren eta zorionaren ithurririk nasaiena izanen da zuretzat. Hortakotz zion Dabidek: Zure legea enetzat hobe da ezenez urhe eta zilhar metak. Nola eta zer hitzez Izpiritu-Sainduak hobeki gogorat sarraraz zezakegun zer premia den gure Erlisonearen ongi ezagutzea? Eta hortik, asko

kristauen lazakeria nolakoa ez da eta zoin izigarri? Haur denboran guti bat ikhasi-eta, ez baitire handik harat batere eginbidetan jartzen Erlisionearen hobeki ikhasteko. Sekulan kasik liburu on bat eskuetan, ez Jainko-legearen gaineko solasik; askotan elizan egiten diren irakasmenetarik ere ihesi.

Oi beraz zoin guti aditzen ahal dituzten Jainko-legeak iraskasten derauzkigun misterio handiak eta manatzen derauzkigun eginbide premiatsuak.

Erranen dute bai Jainkoa dela izaite bat neurrigabekoa; baina zer aditzen dute bothere, gauza guziak hitz batez egin dituen hartan? zer aditzen dute, Jaunaren zuhurtzia, diren guziak hain arrimu ederrean ezarri eta bethi atxikitzen dituen hartan? eta berdin, izaitte guzien gaineko haren bertze osogune goihesgarrietan? Zer ezagutza dute horietaz kristau gehienek?

Erranen dute Jainko-Semea guretzat gizon eginik, kurutze baten gainean hil zela, bekhatutik eta ifernutik gu erosteko. Ordean zer aditzen dute misterio goresgarri hortan? Jainkoak hor irakatsi duen bekhatuaren higuintz ikharagarritik, gure alderat agertu duen onesgune eta urrikalmendu ederresgarritik, eta berak ardietsi derauzkun erran-ahal goragoko probe-txuetatik, zer aditzen dute?

Aiphatzen dituzte jujamenduaren, ifernuaren, parabizuaren izenak. Non da ordean horietarik elkhi behar laiteken ondorioa, gaizkitik urruntzea eta gure eginbideri hobeki jarraitkitzea? Ezen egia horiek hortakotzat indar guzizko bat badute.

Badazkite Jainkoaren manamenduak, Elizakoak ere. Non da ordean horien hedaduraren ezagutza, zer nahi duketen gureganik gertha gaitezken asko urra-tsetan, noiz den horien kontrako hutsa arhina edo bet-hikotz galtzeko askia?

Erraiten dute zer den Eliza, eta Elizatik kanpoan ez dela salbamendurik. Ordean deus ere ez dute aditzen egiazko Eliza bertzetarik behexten duten seinaletan. Ez lakikete arrazoin den xumeena ere ematen, zertako diren Eliza Erromanokoak eta ez bertze batetako-ak.

Horrelakoek beraz axaletik deraukate eta hitz hutsetan beren Erlisioea.

Oi zer lazakeria den hori! Jaundone Lukek dio, Jesu-Kristok zonbat ere artha baitzuen zeruetako gauza gordeak Apostolueri xehatzeko, halarik ere ez zutela hetan deus ere aditzen, Izpiritu-Saindua hekien gainerat jautsi arte: *Et ipsi nihil horum intellexerunt.*

Den gutienetik, gauza bera erran daiteke gure egunetako asko girixtinoez. Ez dire batere sartzen Erlisionearen muinetan, hark bere barnean dakharzen egietan. Hekientzat ere, Apostoluentzat bezala, Jainkoaren irakasmenak gauza gorde eta ilhun batzude: *Verbum istud erat absconditum ab eis.*

Bederen Apostoluek bazuten ikhasteko gutizia. Jesus errekeritu zuten, othoi ageriki xexa ziozoten hekieri, bertzeri hitz estaliz erraiten zeraiena: *Edisere nobis parabolam.*

Bainan kristau asko ez dire holako eginbidetan ere jartzen, ez dire batere entsegatzen Erlisionearen hobeki ezagutzerat.

Ofiziorik ez ahal da gizonen artean, balitz ere guzietarik ahalena, ahalik eta hobekiena ikhasten ez denik, baldin bizipidetzat nahi badugu hartu. Zure biziaren irabazteko nahi zare izan ahotz, zurgin, ehaille, ikhazkin; ofizio horietarik bat edo bertzearen ongi ikhasterat zinez jokhatuko zare.

Eta zer premia dute bada horiek guziek Erlisionearen aldean?

Jakitate guzietarik beharren-beharrena Erlisionearen ongi ezagutzea da, hartan ikhasten ditugunaz geroz bertze guzien gaintetik bethe behar ditugun

eginbideak; Erlisioneak irakasten deraukunaz geroz zer dagoen guretzat bizitze huntarik lekhora.

Kristau hekien lazakeria nola deithuko dugu, baik ere Erlisionearen egiazko arbuiamendu bat? Jaundone Petrik nahi zuen girixtino guziak gai izan zitezen beren sinesteaz eta igurikimenaz argi emaiteko. Eta zer argi, zer arrazoin, zer kontu eman dezakete, beren Erlisionetik hitz huts batzu bezik ez dazkitenek? Argiak emaitetik urrun, beren sinesteari ere arhinki atxikiren zaizko, hekien gogoa eta bihotza aldatzeko errex izanen dire. Haizeak alde guzietara derabilan seska iduri, beren zinestetik laster higi eta uzkail dai-tezke.

Holakoentzat da errana:

Zeinuteiko oilarra
Haizeak du ibiltzen,
Harat-hunat ardura
Nola-nahi itzultzen.
Holaxet asko jendek,
Buru guti dutenek,
Nahi dute frangotan
Egin beren kaltetan.

Nurk burua bi bonetetan
Eman othe dezake betan?
Eskuin edo ezker behar du
Jende batek bidea hartu.
Ez beraz haizea bezala,
Gaizki itzul nork daki nola!

Eman gaiten beraz ahalik eta hobekiena gure Erlisionearen ikhasten, haren irakasmenak barnadanik eta beren hedaduran aditzen.

Orduan da guziz ederregarri kausitzen kristausinestea, haren zuzentasuna, goratasuna, Jainkoaganik delako argi distiranta. Orduan da ongi gozatzen eta maitatzen Jainkoak egin emaitza guziz balios hori. Orduan bakhotxa entsegatzen da horrelako Erlisione goresgarriari dagokon bezala bizitzerat.

Bai, Erlisioea ez ongi ezagutzetik asko eta asko gaitz sortzen dire, eta aldiz Erlisionearen ongi ezagutzea eta aditzea probetxurik handienen ithurburua izanen da.

Bizkitartean begira gaitezen Erlisioea gure bait-hako argi xoilez sobra ibilkatzetik. Egia da bai, gure adimendua zeruak gizonari egin dioen emaitza eder

bat dela; eta hartaz ongi baliatu behar gare premia zaizkun gauzen ikhasteko. Bainan ezagutu behar dugu Erlisioneko egiak gure baithako adimenduaz goragokoak direla, endelguz osoki ezin har daitezkeela.

Eta hemen ikhus zazu zoin herrebeski jokatzen diren mende huntako jakintsun borthitz eta handi direlako hek. Beren arrazoina, beren izpiritua dute bethi ahoan. Ezin gehiago gora altxatzen dituzte arrazoinaren zuzenak eta argiak. Eta zer gehiago? Egundaino holakorik izan ez den bezalako zoramendu batez, Eliza eta Jainkoa bera khendu nahi izan dituzte. Eta zertako? Beren argiak, beren irakasmenak emaitakotan hekien orde. Bainan alferretan dire entsegatzen.

Ez ahal da nihor egundaino hain izigarriki joan gu baithako arrazoin zuzen aren kontra, nola joan baitire arraizoinaren goihesle hek!

Diote ezen ez dutela deus sinetsi nahi, beren baithako izpirituz ezagut eta adi dezaketena beizik. Zer erhokeria! Eta ez othe da hori bera arrazoinaren arnegatzea?

Baldin gizona beretzat ezin osoki ezagutua bada, baldin gorputza eta arima endelguz ezin har daitez-

ken gauza batzu badire, baldin begien aintzinean agertzen zaizkigun izaite xumeenak ere traba eta ilhunbe badire guretzat; nor izanen da, adimenduari batere behatu nahi bazaio, aithortuko ez duenik badi-rela Jainkoa baithan, badirela izaite guzien gaineko mugarik-gabe hartan, badirela asko gauza, asko egia gaituztenak gure adimendu aphurraren ahalak oro?

Eta baldin Jainkoak irakasten baderauku egia hetarik zonbait, atrebentziarik itsuena laiteke ez onestea, ez sinestea, estakurutzat ekharriz ez ditugula osoki endelgatzen ahal.

Kristau egiazkorik ez daiteke beraz horrelako kopetarekin ausart eta atrebi. Jainkoa mintzatuz geroz Jesu-Kristoren eta Elizaren ahoz, ez du galdatzen: Zertako hori hola? nola daiteke holakorik?

Bainan argirik ageriencez badaki Elizak irakatsi guziak Jainkoarengatik heldu direla, eta geroztik oro zinez sinesten ditu. Eta entsegatzen da geroago eta hobeki ezagutzerat Jainkoarengatik ethorri zeraukun Erlisione hori, eta bethi Elizaren irakasmeneri xuxen ohartua dagoelarik.

Eta horrela egunetik egunerat hobeki ezagutzen du, bai-eta edozoin etsaieri ararrazoinik eta argirik hoberenak ager dezazke.

V - KAPITULUA

**Erlisionearen etsaieri
buru egin behar diotegu,
eta guhaur bizi behar gare
haren irakasmenean arabera**

*Denbora hok, denbora hitsak.- Erlisio-
nearen zuzenak hazkarki atxiki behar
ditugu.- Asko badire, hortan ukho egiten
dutenak.- Aitzakia edo estakuru funtsa-
beak.- Elhez baino ere hobeki, obraz
behar dugu gure Erlisioea gorets.*

Bai eiki, Eskualdun maiteak, denbora auhendaga-
rrietan bizi gare; gaxtakeria, eta gaxtakeria guziak,
burua gorarik dabilta bazter guzietan. Makhur lotsa-
garrienek berek galdu dute gizonen begietan datxiko-
ten ahalgea. Eta makhur hetarat largatzen direnak,
atrebitzen dire hetaz berez espantu egiterat: irri-farre-
tan ohapaldika eta ostikoka dabilzate Jainkoa, Eliza,
Aita-Saindua, Aphezak, Sakramenduak.

Hori da gure ondikozko denbora haukien desarri-
mu izigarria, eta ezin erran bezalako gaitz-uhaldez lei-
zeari behera osoki galtzerat laster eremanen gaitue-
na, baldin Jainko ona ez bada gutaz urrikaltzen.

Zer egin behar du holako orduetan girixtino leial,
bere Erlisioea behar bezala maite duen batek? Khar
saindu batekin altxatu behar da Jainkoaren zuzenen
alde. Ez, orduan ez da ixilik egoiterik, ez-eta nihoren-
dako ikhustatez ukho egiterik Erlisioearen bidegabe-
tan.

Jainkoak ez du xoilki galdatzen bihotzez eta barne-
ko estekamenduz harenak izan gaitzen. Gehiagorik
nahi du. Nahi du kanporat ere holakoak ager gaitzen.
Gizonen aintzinean hartaz ahalge izaitea bera askiko
da bethiereko zorigaitzerat erortzeko.

Hortik, Jesu-Kristori lekhukotasun emaiteko eta
haren alde mintzatzeko eginbide hertsia, norbait kau-
sitzen denean gaizki hertsatua bere sinestearen gai-
nean. Zer-nahi gerthatuko balitz ere, zorigaitz eta
ondiko guziak ekharri behar balitu ere, gaizki handi
bat laiteke ordu hetan, ez bakharrik Jesu-Kristoren eta
Erlisioearen kontra mintzatzea, bainan oraino ez alde
mintzatzea, ixilik egoitea.

Ez, hori gabe, alferretan diozu, zure buruari ere alferretan sinetsarazi nahi zinioke, Jesu-Kristorena zarela. Oi ez, nausi goresgarri harek ez du nahi hola-ko zerbitzari lazo, ezaxolatu, hari darontzon gauzetan batere sartzen ez denik. Berak erraiten derauku, behar-orduetan haren alde agertzen ez dena, haren kontra dela; eta ukhazaile bati bezala behatzen dioela: *Qui non est mecum, contra me est.*

Nolakoa da beraz eta zoin izigarria hanbat eta hanbat kristauen ezaxolakeria Jainkoaren alderat eta Erlisionearen alderat!

Plaza hetan, merkhatu hetan, ostatu hetan, bertze bilkhura hetan, hain ardura aditzen dire hizkuntzarik gaxtoenak, burla saminenak Elizako gauzen eta egingtzen kontra. Bai, zonbat, bathaiatuak izan ondoan eta girixtino legean altxatuak, zonbat ez dire atrebitzen horrelako asko erasia sordies batzuen nola-nahika aiphatzerat?

Eta askotan nihor ez da izanen elheketari ergel txar hekien ixilarazteko! Hortarik urrun, aditzale guziak, itxuraz bederen, erasle izurritsu hekien alde agertuko dire! Ai girixtino bihotzgabeak direla hek! Eta nola nahi dute Jainkoak begi onez beha diozoten? Nola nahi dute bere haur leialtzat iduk detzan? Berek

hain indar guti, hain kopeta guti, hain axola guti dute-
naz geroz haren ohorearentzat!

Ordean, amarru handirekin asmatzen dituzte askok aitzakiak beren buruaren garbitzeko: Erasiak ibiliko dire, Erlisionearen alde agertzen banaiz: gaizki derasan harekin hautsi beharko dut; gaitzituko zaio nik kontrarik egiten badiot. Eta holako bertze hainitz estakuru.

Oi Eskualdun maiteak, zertan izanen ginen gu orai, eta zertan izanen zen mundu guzia ere, Aposto-
luek holako aitzakiak aditu balituzte, beldurrez bata-
rekin eta bertzearekin hauts? Eta zer diot? Jesu-Kristoz
eta Ebanjelioaz deusik aiphatzea debekatu zioten, edo
bertzela hilen zituztela guziak; eta hek are hazkarkia-
go errepikatzen zituzten Jesu-Kristo eta haren Ebanje-
lio.

Berdin egin dezagun guk ere.

Behintzat nihor ez da handi egiazki,
Ez badu sinestea beiratsen arthoski.
Herritako jendetan prezagarriena
Izaten ohi bethi Jainkotiarrena.

Guti laiteke Erlisionearen gure elhez laguntzea eta atxikitzea, ez baginu goersten eta ohoratzen gure bizitze garbiaz.

Orduan bai, geronek artha balin badugu gure eginmolde guziak Erlisioneko egiekin adosteko eta berdintzeko, etsaiak berak bortxatuko ditugu gure sinestearen ederresterat. Horrek, emeki eta denborarekin bederen, suntsi dezake hekien bihurridura. Ekhar detzazke Jainko-legearen onesterat, haren maitatzerat, haren besarkatzerat eta haren arabera berak ere bizitzerat.

Hain handia da ikhusbide edo etsenplu onaren indarra! Hortakotz erraiten zioten Jesu-Kristok bere Apostolueri: Zuek zarete munduko argia; eta beraz argi zazue gizonen ainzinean, ikhus detzazten zuen eginkari onak, eta eginkari horiek ederretsirik, ospe diozoten bihur zuen Aita zeruetan denari: *Ut videant opera vestra bona et glorificent Patrem vestrum qui in coelis est.*

Hitz horri jarraiki dire Apostoluak, eta ondoko mendeetan Ebanjelioko argia toki arrotzetarat ereman dutenak. Mintzo ziren, bai eta Jainkoaren berri ona goraki aiphatzen eta errepikatzen; bainan urrunago ere bazoazin, beren elheak eginkari sainduz finka-

tzen zituzten; eta predikuek baino ere, eginkari hek indar gehiago bazuten arimen hunkitzeko eta onerat aldarazteko.

Bertzela egiten badugu, gisa batera badugu sinesten eta bertze gisara bizi bagare, zer bidegabe ez diogu eginen gure Erlisoneari? Nola behatuko diote legez kanpokoek? Behatuko diote gizonen asmakailu bati bezala, amets bati bezala. Ezen usteko dute gero- nek ere ez ditugula zinez Ebanjelioko egiak sinesten. Gure sinestea hartuko dute erasia funtsgabe baten- tzat, eta guhau hartuko gaituzte mundu enganatzaile batzuentzat.

Badakit legez kanpokoek gaizki eginen dutela gisa hortan asmatzea. Ezen, ororen buru, gure Erlisoneak duen Jainkozko ethorkia eta izaitea dena-den geldit- zen da, gizonak nola-nahi bizirik ere. Bainan, ongi edo gaizki, hola erranen dute gure etsaiek, bai-eta Erlisone guti beizik ez dutenek.

Fededunak ikhustea fedegabeak bezain minbera, jauzkor, samin, aspertzaile, munduari eta lurrari ber- din josiak, ai! neke da erraitea horrek zer kalte handia egiten dioten legez kanpokoek.

Eta horra zerengatik Apostolu handiak nahi zuen Elizako kargutarat altxatuko zirenak hain ongi hauta-

tuak izan zitezten, non legez kanpokoek ere ez baitzuket deus hekien kontra erraitekoriak: Beldurrez-eta bertzelakoak balin baziren, makhur zitezten berak, eta bertze askoentzat ere izan zitezten behaztopagarri eta galgarri.

Ikhusia da, eta aithortzen dut, eliza-gizonen hutsak kaltekorrago direla ezenez bertzerenak. Bainan ez da gutiago egia, ardurako giristinoek ere asko laidoetarat eta burletarat pharatzen dutela beren Erlisionea, noiz ere beren bizitzea ez baitute harek nahi bezala moldatzen.

Errekeritzen zaitut beraz, irakurtzaile maitea, ongi ikhus dezazun Jainkoak zer emaitza guziz handia egin derauzun bere Erlisione sailduaz argitu zaituenean. Bainan hortik iduk zazu zure bizia izan behar dela alde guziz saildua.

Jesu-Kristok mende galdutik athera zaitu, eta bere jarrailetzat, bere zeruko primu-kidetzat hautatu. Ez beraz gaur-gero munduari beha zure solasetan, jaunzturetan, libertimenduetan, bizi-molde guzian. Beha zakiosko bakharririk Jesu-Kristori, zure buruzagi on eta guziz goresgarriari.

Harenganik ikhas zazu lurreko goratasunak eta gizonen aiphamenak arbuiatzen eta ordainez aphas

eta ezti izaiten: *cum omni humilitate et mansuetudine*.

Harenganik ikhas zazu mundu huntako nahigabeak, biziko gaitzak, lagunek egin nahigabeak amultsuki eta asaldatu gabe jasaiten: *cum patientiâ supportate invicem*.

Harenganik ikhas zazu jende bihurri gaitzenekin ere bakean bizitzen, amor egiten diozutelarik, eta hola guziekin izpiritu bat eta bihotz bat izaiten: *Solliciti servare unitatem spiritus in vinculo pacis*.

Hitz batez, alde guziz molda zaite Jesu-Kristoren gainean, eta hartaz jauntz eta bezi zaite, hura bera bazine bezala biziz: *Induite novum hominem, in sanctitate veritatis*.

Hori da Jesu-Kristok gureganik igurikitzen duen lekhukotasuna eta hola dugu gure Erlisioneaz zinez goretsiko.

VI - KAPITULUA

Aita Garat, Hazparneko misionesten asentatzailea

*Garat Pikasarri, Erlisio-
nearen goratzalle eta
hazkartzaile.- Aita Garaten
arbasoak.- Maiz goguetan
dago.- Erreboluzio handia.-
Pikasarri soldadu Harizpe
Jeneralarekin.- Erlisio-
nearen heresturek Garati
emaiten dioten bihotzmina.-
Aphetzen da.- Garat predikari.-
Hazparneko erre-
torak hainitz maite du.-
Erretor hori nor zen.-
Garatek zer ongiak egin
dituen Hazparnen.- Nola
misionestak biltzen eta
asentatzen dituen.- Harei
kharra eta larderia.-
Eritzen da.- Herlotze
saindu bat egiten du.*

Azken kapituluan erran dut: «Apostoluak Erlisio-
neaz ausarki mintzo ziren, Jainkoaren berri ona goraki
aiphatzen eta errepikatzen zuten; baina urrunago
ere bazoazin, beren erranak finkatzen zituzten eginka-

ri sainduetz; eta predikuek baino ere eginkari hek indar gehiago bazuten arimen hunkitzeko eta onerat aldara-razteko»

Eskual-Herrian ere horrelako gizon bat izan dugu. Gizon horrek Erlisioea bere hitzez ala bere eginkariez hainitz goratu eta hazkartu izan du gure eskualde hotan; eta noiz? denborarik gaxtoenetan, Erreboluzio-
ne handitik lekhora, gure Eliza katoliko maitea frango etsai eta traba gaxtoez gudukatua zelarik.

Gizon hori zen Garat Pikasarri. Eskualdun egiazko guziek ikhusbidetzat hartu behar lukete, amoreagatik hura bezala Erlisioearen alde ager ditezen bethi beren elheetan eta beren eginkarietan. Hortakotz nahi diotet erran nor eta nolakoa zen Garat Pikasarri.

Jan-Batista Garat Hazparnen sorthu zen, uztaila-
ren zazpian, hamazazpi ehun eta hiruretanhogoi eta hamahirurean (1773).

Etxalde aiphatua zen Garaten sor-etxea, *Pikasarria*, eta jendeen aho-mihitan *Pikasarri* zen bethi haren ardurako izena. Egungo egunean ere *Pikasarria* da etxalderik ederrena Minotzeko eskualdean, bai eta kasik Hazparne guzian.

Goragodanik eman nahi ditut hemen xehetasun zonbait etxalde hortaz.

Hamasei ehun eta hogoi eta hamarrean (1630), etxe hortako Jaunek beren deithura zuten etxearen izena bera: *Pikasarri*. Handik hogoi eta bi urtheren buruan, hamasei ehun eta berrogoi eta hamabian (1652), aldatu zuten beren deithura zaharra. Ezen orduan Pikasarriko anderegaia, *Garaxane Pikasarri*, ezkondu zen *Piarres Harizpe* Harizpeko etxe-ko- seme batekin.

Hekien semea, *Piarres Harizpe*, ezkondu zen *Dominika de Lambert* deitzen zen etxe-ko- alaba batekin, zoinaren anaia, *Piarres de Lambert*, izatu baitzen Garaziko Bikario-Jenerala.

Dominika Harizpe Pikasarriko anderegaia ezkondu zen, hamasei ehun eta lauetanhogoi eta hemezortzian. (1698) *Joanes Elhuyar*, Elhiarreko seme batekin. Ezkontza hortarik izatu ziren hameka haur. Haur heketarik bat, *Maria Elhuyar*, sorthua hamazazpi ehun eta zazpian, ezkondu zen *Migel Etxebertz* Sohanoko Etxeberriko primuarekin; eta haren anaia, *Joanes Elhuyar*, hamazazpi ehun eta hamazazpian sorthua (1717), Apez egin zen; Akizen ordenatua izan zen, hamazazpi ehun eta berrogoi eta lauean (1744).

Hekien anaia, Pikasarriko primua, *Piarres Elhuyar*, ezkondu zen *Juana Fagalde* Barrandegiko etxe-ko

alaba batekin, hamazazpi ehun eta hogoi eta hamabian (1732). Bainan ez zuten haurrik izan eta egin zuten Pikasarriko anderegai *Etieneta Etxebertz* beren iloba, Sohano Etxeberriko anderegaia. Halako moldez non *Etieneta Etxebertz* gerthatu baitzen denbora berean Etxeberriko eta Pikasarriko anderegai.

Hamazazpi ehun eta hiruretanhogoi eta bederatzian, (1769), *Etieneta Etxebertz* hori ezkontarazi zuten *Marti Garat* Pitresteiko etxeko-semblearekin.

Ezkontra hortarik atheratu dire zortzi haur, eta hetarik bat izan da *Jan-Batista Garat*, Hazparneko misionesten lehenbiziko buruzagia.

Jaundone Batista handiaz bezala, gure Jan-Batista huntaz ere erran ziteken: Eta zu, haurra, deithua izanen zare Jaungoikoaren profeta, ezen Jaunaren begit-hartearen aitzinean joanen zare haren bideen aphaintzeko; emanen diozu salbamenduaren ezagutza haren populuari, bere hobenen barkhamendutan; argitzeagatik ilhunbetan eta heriotzearen itzalean jarriak daudezenak, bakerako bidean bidatzeko gure urhasak.

Horiek hola, nolakoa atheratu othe zen gure Jan-Batista Garat?

Laneko ez zen berua eta munduko barheiamendu-
duetarat ekharria zen; bainan hargatik tiesoa eta maiz
goguetan, hainbertzetaraino non bere arrebek gaizki-
ka noiz-nahi erraiten baitzioten: Utz zaitzik goguetak
eta eman lanari!

Emeki-emeki gogueta horiek osoki aldatu zioten
bihotza. Sukhar batek, ezin-egon batek, barne guzia
itzulikatu zion. Gauaz ez zuen lorik, jatea ere askotan
ahantzten zuen.

Eta azkenean higuindu zuen mundua eta aphez
egiteko gogoaz hazkarki lothu zitzaion; eta geroztik are
gehiago eman zen bildutasunari eta ixiltasunari.

Ez zen hortan baratu.

Baizik eta behar zuela bere baithan borhatu gizon
lurtiar barheatua, eta aldiz, aphezguarat hobeki hel-
tzeko, arraphiztu bathaioko graziaren hazi ona, zinez
lothu zen penitentziari.

Uda oso batez, kanpo lanetan ari zelarik aintzina,
barur hertsu bat egin zuen. Bere ama gaixoa urrikal-
tzen zitzaion, eta maiz oihuka bertzeak baino lehen
bazkariterat ekharrarazten zuen.

Jainkoak ordean ez zion Jan-Batista gazteari den-
bora luzez utzi bere Ama maitearen onduan egoiteko
atseginik.

Denbora hetan Frantziako erresuma ederra azpizgora itzulikatua zen eta osoki nahasia. Errege guzietarik eztieta eta amultsuena, - sobra ezti eta amultsua, ezen borthitzago izan balitz, bere eginbideak hobeki betheko zituen eta bere erresuma gaxtaginen errabiatik zainduko zuen; beraz errege hori, Luis hamaseigarrena, lehenik preso atxiki zuten eta gero hil. Berdin hil zituzten Maria-Antoaneta Frantziako erregina, eta printzesa Elizabeth, errege Luisen arreba; eta hek bezala hainitz eta hainitz artxaphezpiku, aphezpiku, aphez, fraide, serora, aitoronseme, andre handi, gizon eta emazte Jainkotiar. Parisen berean hogoi eta sei miletaraino holaxet hil zituzten. Zer erran bada Frantzia guzian hil zuten jende elementiaz?

Desmasia ikharagarri horiek ikhustearekin, auzoko erresumak izitu eta asaldatu ziren. Ikhusi zuten hetaz ere akhabo zaitekeela laster, baldin ez bazuten, elgar adituz, Frantzian berean kalitzen Erreboluzioneko suge borthitz ifernutiar hori. Hortik jazarri zitzaizkon Frantziari asko harmada: Angletarreko, Holandeko, Autrixiako eta Espianako harmadek bethan sethiatu zuten alde guzietarik.

Eta nola herria bethi herria baita eta etsaiak aldiz bethi etsaiak, Eskualdunek buru egin zioten Españolari.

Bazen orduan Garaztar gazte bat, Baigorriko semea, Joanes-Isidro Harizpe. Ez zituen oraino hogoi eta bortz urthe beizik, hainan buru onekoa zen, ernea, suharra, hazkarra, ausarta, bihotzduna, deusen beldurrik ez zuena.

Zer egiten du? Entzun duea bai Españolak jazarri zaizkola Frantziari, bere herritarrak biltzen ditu; eta nola Gobernamentuak ekharri baitzuen soldado behar zirela hemezortzi urthetarik eta berrogoitarainoko gizon guziak, Eskualdun hainitz jarri ziren Harizpe gaztearen menean.

Hazparne Pikasarriko semeak ez zituen hemezortzi urthe beizik. Ama gaixoak ez zuen aise utzi ez Baigorriko eskualde hetarat, ezen haurra zen oraino eta osagarri ttipikoa. Bainan, dio erran zaharrak, *nigarrik gabe ez da bizitzerik*. Ai hori egia dela ama gaixoenzat! Pikasarriko etxeako-andreak ere utzi behar izan zuen bere seme maitea joaiterat soldado.

Jan-Batista Garatek gerla denboran egin zuen beraz bere soldadogua.

Ez dakigu ikhusgarri handirik agertu zuenez; berak ere ez omen du behinere balentria handirik aipatu bere orduko eginkariez. Zer-nahi izanik, haren arimak ez zuen gerla hartan deusik irabazi. Barheiatu zen haren gogo guzia eta munduko asmukerietarat osoki haizatu.

Etixerat itzuli-eta, jarri zen Hazparneko gazteriaren buruzagi. Besta, dantza, pilota-partida, orotarot hotsemaile zuten guziek Pikasarriko semea.

Halarik ere ez du sekulan agertu deus tzarkeriarik, ez bere eginkarietan ez-eta bere elheetan. Jarraikia zen bethi othoitzari, etxekeok ere larderiitzen zuten, eta bestalde bazuen murga puska bat, eta deusetan truk ez zuen nahiko bere burua aphaltu eta gutietsi jendearen begietan, largatuz bere bihotza lizunkeriarri. Ez, sekulan!

Denbora hetan gidamendu baten hartzeko gogoan izan zuen, bainan nola Jainkoak bere aldaretako hautatua baitzuen bethidanik, alferretan izan ziren ezkortzeko haren asmu eta entseguak.

Eta azkenean ethorri zen Jainkoaren aldia.

Erran dut goraxago nola Jan-Batista gazterik ere maiz oro gogotatua zagon. Bere baithan hola usu sartzen dena, Jainkoak goiz edo berant segur bilduko du.

Gure arbasoek ez daukute ustegabeen utzi elhe eder hau: *Ago Jainkoarekin, Jainkoa dukek hirekin*. Hala gerthatu zitzaion Pikasarriko etxeko-semeari. Bere jitez, bere bihotzeko behar batez, oren osoak iragaiten zituen bakharrik, othoitzean edo gogoeta onetan, eta handik landa bertze gizon bat zen. Egia da bai laster lerratuko zela berriz ere, galbide zerbait jitearekin, baina Jainkoa nausitzen ari zitzaion geroago eta gehiago. Eta azkenean esteka gaxto guziak trenkatu zituen.

Huna zertako zagoen Pikasarri maiz hola gogotaturik: bihotzmin handia zuen ikhustiaz Eliza katolikoa ezin altxatuz Erreboluzioeak egin kalte eta desmasien petik, eta hori aphez eskasean, seminarioak luzaz hetsiak egon zirelaketz.

Goiz batez badoa kofesatzera eta ikhara batekin erraiten dio aphezari: Ene aita, aphez egin nahi nuke. Baina kofesorak ez adituarena egiten du, deusik ihar-detsi gabe uzten du gure etxeko-seme handia.

Ez bide zen hau alegerarik gelditu! Eta bizkitartean on egin zion ahalge ttiki horrek; behinere baino hobeki bere baithan sarthu zen eta nigarra frango egin Jainkoaren aintzinean. Ai! geroztik utzi zituen bai bestak eta balentriak. Eman zen osoki othoitzari,

barurari, bere buruaren kontrako bertze hainitz jazar-
tze borthitzeri.

Denbora puska baten buruan badoa berriz ere
kofesatzera, eta lehen aldian bezala aphezari erraiten
dio: Ene aita, aphez egin nahi nuke. Eta harek larde-
riarekin: Aphez! aphez! errex da erraitea, bainan izan
behar da aphez ona, osoki ona!

Irakurtzaile maitea, ikhusi dukezu behin edo ber-
tze zaldi gazte hazkar bat hezten ari. Bizkarrean due-
neko heztzailea, kalapita gorrian hasten da, jauzi hara
eta jauzi huna, bazter guzietarat zalapartaka, izerdi
uretan, begiak harmaturik, hagona ahoan, sudurretik
hixtuz. Bainan heztzaileak bere belhaunen artean haz-
karki tinkatzen du, zafratzen du azote kolpeka, eta
azkenean zaldi borthitz hori gelditzen da oro akhiturik
eta harriturik, dardar ikharan dagoela. Eta geroztik bil-
dotsa bezain maltso eta ezti duzu.

Hola-hola gerthatu zitzaion Pikasarriko gure etxe-
ko-sume handiari. Borthitza zen jitez, bazuen ere bere
murga suertea, herriko gazteriaren errege zen, besta
guzietan hartaz beizik ez zen aiphurrik. Ai! ez bide
zitzaion eder ez bere kofesorrak hoin idorki larderiatze
hori! Bainan larderia horrek berak zuen hezi eta gar-
haitu gure gizona. Eta gehiagoko dudamударik gabe,

athera zen etxetik eta Hazparnetik, joan Ahetzeko jaun Erretorarengana eta han liburuetan hasi haurttiki bat izan balitz bezala.

Hori zen mila zortzi ehun eta bian, (1802). Garatek ordukotz bazituen hogoi eta bederatzi urthe. Eta denbora hartan Ahetzeko jaun Erretora zen Duhalde, geroztik Baionarat erretor jin behar zena, eta eskualdun liburu ederrenetarik bat, *Meditazione handiak*, egin duena.

Horra beraz hogoi eta bederatzi urthetako etxekosome hori eskolan, abiaduratik eta aphalenetik hasten ditu aphezteko ikhasi behar diren jakitateak eta eginbideak. Ez ahal zen lotsarik gabe lothu holako lanari, ezen burua gogortzen da denborarekin eta nihork ez du hartze bera adin batetik harat. Eskoletako lanez asmatu zuten gure arbasoek erran zahar hau: *Gaztek nahi bezala, zaharrek ahal bezala*.

Bainan nahikunde hazkarreko gizona zen Garat Pikasarri. Hasian-hasi, hazkarki borrokatu zen bere liburuekin eta iraun zuen azken urratseraino, aphezguaraino.

Ahheztu zen mila zortzi ehun eta zazpian eta igorri zuten Uztaritzerat bikari (1807).

Uztariztarrak laster ohartu ziren Garat Pikasarri ez zela ardurako gizonetarik, baina bai baliosenetarik. Eta guziz ezagutu zioten alkhi saindutik mintzatzeko dohain berezi bat, eta denbora laburrez haren predikari fama urrun hedatu zen.

Aphez batentzat arimen salbatzeko hamarrik hazkarrena da ederki eta suharki predikatzea. Egia da Jainkoaren graziak behar dituela bekhatoreak hunkitu eta onerat aldatu, baina hortakotzat graziak nahi du maiz elhe sainduaren laguntza. Erran zaharra da: *Berazianagatik langile ona, Jainkoak nahi du laguntzailea*. Eta Jainkoaren laguntzaile hazkarrenetarik bat, zer dela uste duzu? Hura da predikari ona.

Urthe batez Hazparneko jaun Erretorak bere Eliza-Bestako predikaritzat galdatu zuen, eta sekulan menturaz ez dute Hazpandarrek halako prediku sarkhorrik entzun. Ez zituen hitz bakhar batzu beizik erran herriko Patroinaz, Jaundone Joani-Batistaz; mintzatu zen bere buruaz, bere gazte denborako zorokeriez, bere espantuez, bere barheiamenduez. Eta nola urrikiaren kharrak emendarazten baitziozkan bere hutsak, erran ahala baino gehiago ari zen bere buruaren aphaltzen, osoki belzten, bulharrak joiten zituela eta begietarik nigarra zariola.

Eta elizako jende guzia nigar hipetan, halako moldez non azkenean ez baitzen gehiago predikaria entzuten ahal. Oi zer kofesioa! aithorlearentzat baino ere gehiago populu handi batentzat osoki baliatu zena!

Predika alkhitik jeustearekin erran zioten: Ene herritar maiteak, aithortu darozkitzuet ene bekhatuak diren bezala; hemendik goiti zuenak aiphatuko ditut, hekien gudukatzeko eta zuen salbatzeko.

Geroztik ere Hazparneko jaun Erretorak maiz bere herrian predikatzerat jinarazten zuen Uztaritzetik, bai eta bere Bikaritzat galdegin zuen Baionako Aphezpikuari.

Pikasarriko apheza hoin maite zuen jaun Erretor hori Garaztarra zen sortzez, Zaro lthurbideko semea. Hamazazpi ehun eta hogoi eta zortzian (1738), maiatzaren hogoi eta hirurean sorthua apheztu zen hamazazpi ehun eta hiruretanhogoi eta hirurean (1763), maiatzaren hogoi eta zortzian. Lehenik izan zen Baionako Aphezpikuteian Segretario, handik landa Urruñako erretor, gero denbora berean Hazparneko erretor eta Baionako jaun Aphezpikuaren Bikario-Jeneral.

Baionako Bikario-Jeneral bezala Nafarroko biltzarretan agertu eta jarri zen bertze Garaztar aphez bate-

kin; eta hau zen jaun Eyharabide, Azkaraten sorthua eta orduan Donaistiko erretor eta Akizeko Bikario-Jeneral zena.

Zaro Ithurbideko seme eta Hazparneko jaun Erretor horrek izena zuen, *Martin Etxeberri*. Frantziako erreboluzione edo nahasmendu handiaren denboran ez zen Espainiarat agertu beizik; bere sor-herrian, Zaron, iragan zituen egun lotsagarri hek. Handik noiz-nahi Hazparnerat heldu zen, eta gordeka egiten zituen bathaioak, ezkontzak, erien ikhustek, bere arthaldearen onetan Erretor batek orduan egiten ahal zituen urrats guziak. Eta gero, gaxtaginak sobra ohar-tzen zirenean haren ibiltze saindu horiez, berriz ere Zaro Ithurbiderat itzuliko zen eta han gorderik egonen.

Jaun hori ez zen aphez bakharra Zaro Ithurbidean. Harekin baziren berze hirur, guziak etxe bereko semeak, Ithurbideko haurrak. Hek ere sor-tokirat biltzen ziren, bakhotxak erretor bezala bere arthaldeaz ahal ziren artha guziak hartu ondoan.

Ez daiteke erran lau aphez khartsu horiek zer ongia egin zuten Zaroko herri ttikiari. Gau guziez meza erraiten zuten Ithurbideko ezkaratzaren gaineko sala handi batean; eta jiten ahal ziren jende guziak

han ziren bethi, eta gehienek zortzitik bederen egiten zuten komunione saindua.

Erraiten ahal dut herri ttiki hori orduan oro sutan zagoela Jainkoarentzat. Huntarik ageriko da. Igande guzietz, nihor aphezik gabe, ezen aphezak ez ziren agertzen ahal; deus egitekotz, gauaz eta gordeka egin behar zuten; - beraz Igandetan jende on hek elizako izkila joiten zuten meza nausiko eta bezperetako. Goizean elizarat oro bildurik kantatzen zuten meza burutik buru, bai-eta *Prefazioa* eta *Paterra*; kontsekrazio-neko denboran apheza han izan balitz bezala, sagara joiten zuten eta guziek othoitz berezi bat erraiten ukhurturik eta ahopetik. Eta berdin arratsaldean izkila joiten zuten, elizarat oro biltzen, eta bezperak burutik buru elgarrekin kantatzen.

Aphez *juramentatu* bat igorri zioten, bainan agertu zeneko joan behar izan zen ihesi. Gizonek bezain ongi emaztekiek ere harrikatu zuten eta herritik feratu. Eta Jainkoak ere gaztigatu zuen aphez gaxto hori, ezen handik laster, haritz handi batzuen kaskoan uso-ihizlari baten etxolara igaitearekin hil zen kolpez. Hori gerthartu zen *Poxinbordako* oihanean, Donianeko hiritik hurbil.

Xehetasun horiek frangotan khondatzen aditu izan ditut ene oseba baten ahotik. Oseba hura zen *Jan-Batista Arbelbide*, Baionan kalonje hil izan dena, *Etxeberri* Hasparneko jaun Erretoraren iloba propia. Hunenganik entzunak zituen berri horietarik asko, eta berze hainitz berak ikhusiak.

Garat Pikasarri Uztaritzetik Hazparnerat bikari bezala jin zen mila zortzi ehun eta hamalauetan.

Ethorri orduko, hazkarki jazarri zen bere herritarren makhurkeria guziera, eta zortzi urthez ez zen baratu oihu egitetik, bethi sutan eta khaldan, arimen salbatzeko lehiaz oro hartua. Hazparne azpizgora gaizkitik onerat itzuli zuen. Erran dut *gaizkitik*, eta bizkitartean ez dugu uste izan behar Hazparne orduan ere herri galdu bat zela, ez. Bainan zonbat lazakeria eta barheiamendu! Peñan, Zelhain, Elizaberrin eta Xolahotxen, dantza bazen igande guziez. Hortarik beretik ageri da zer kaltea ahal zaiteken arimetan.

Pikasarriko aphezak gerla finki egin zioten gaitz horieri. Emeki-emeki dantza guziak erori ziren, jendea sakramenduetarat hobeki lehiatu zen, Jesusen Bihotz-Sakratuaren deboziona handizki hedatu zen. Ikhusi ziren asko muthil gazte eta neskatxa gazte, orduarte munduari emanak, itzultzen osoki Jainkoarengat,

kofesetzen zortitik, sekulan ez gehiago agertzen plazetara, bizitzen komentuarrak bezala bethi etxean edo elizan.

Jakiteko da aphez khartsu horrek ez zituela holako ongiak egin nahigaberik eta trabarik gabe. Erran dut berze liburu batean: Handik edo hemendik debruak bere ostikoa eman behar du Jainkoaren lanari. Eta bethi badire jende khexu, jende bekhaizti, jende atrebitu asko, ez baitute bertzerik nahi baizik ere bazterrak nahastea eta makhurtzea. Jende mota horiek debruaren egiazko langileak dire. Gaxtakeriako bethi suhar eta kopetadun, ez dute Jainkoaren ez ifernuaren beldurrik. Ongi egile guzien puxulu eta traba dire.

Pikasarriko aphezak ere izan zuen beraz nahigabe frango, bainan ez zioten kasurik egiten, aintzina zohan bethi Jainkoaren lanetan, hazkarrik eta alegarrik.

Hazparnen zortzi urthe iragan zituen bikari bezala. Eta gero, mila zortzi ehun eta hogoi eta bian (1822) Misionest etxe baten altxatzeko gogoa hartu zuen.

Goraki erran dezaket hemen Aita Garatek ez zezakela deus hoberik asma Eskualdunen probetxuarentzat. Ezen, egia balin bada misioneak edozoin denboretan ere ongirik baliosenak direla arimentzat, are

hobeak, bai eta osoki beharrak ziren orduan, Erreboluzione handitik landako egun hetan. Asko urtez elizak hetsirik egon ziren, aphezak khendu eta desherritu zituzten; nihon mezarik, predikurik, sakramendurik; izaitekotz ere, han hemenka, bakhar zonbait gordeka eta ilhunbetan, bainan deus funtsezkorik ez. Arimak beraz behartuak ziren osoki.

Bai, diot berriz ere, Aita Garatek ongirik handiena egin zioten Eskualduneri, misionest etxe bat altxatzearekin.

Haren lehenbiziko Misionest lagunak izan ziren: Aita Intxauzpe eta bi diakre, Girez eta Gimón. Azken bi jaun gazte haukieri, ez izanagatik oraino aphez, Baionako Aphezpikuak eman zioten misionetan predikatze baimena, hain baitziren ordukotz argituak eta khartsuak.

Geroxago jin ziren Aita Zarrote, Aita Pergilhem eta Aita Haranburu.

Hastapenean Baionako seminario handitik hurbil hartu zuten beren egoitza, bainan utzi zuten laster eta joan ziren Larresororat. Han erosi zuten seminariotik gorago den etxe bat, *Ithurriinea*.

Larresoron ere ez ziren osoki kokatu. Aita Garatek bazuen bethi bere sor-herrian jartzeko gogoia, eta ber-

tzela ere ageri zen misionest etxe batentzat hobe zela Hazparne bezalako toki jendetsua, ezenez edozoin herri ttiki. Eta nola Eskualdunentzat asentatu nahi baitzuen misionest etxe hori, ez zezaken nihon ere hain ongi ezar nola Hazparnen, Laphurdiko eta Nafarre-Behereko hegian, eskualde guzietara berdin errexki heltzeko pharadan.

Jainko maitearen nahia! Gure misionest berriak Larresoroko beren etxearen antolatzen eta gurbiltzen ari zirelarik, Hazparnen saltzeko gerthatu zen hek behar bezalako etxe bat. Etxe hura zen *Landaburua*.

Aita Garatek bederatzi mila liberetan erosi zuen *Landaburua*, aldeko bere baratzearekin eta phentzearekin eta Arroltze-mendiko bere larrearekin.

Jaurretxe apheza, geroztik Larresoroko seminarioan omonier hil izan dena, bikari zen orduan Hazparnen. Jaun horrek eman ziozkoten misionesteri kapera baten egiteko planak edo moldeak, hamabortz metre luzetasunekin eta sei metre largotasunekin.

Hori zen hemezortzi ehun eta hogoi eta seian (1826).

Arte hortan ere lana frango ibili zituen bere lagunekin, herriz herri, bazterrak oro inharrotsiz, hunkituz, onerat aldaratuz; bainan ez nahi bezenbat eta bere

gogora, zeren-eta griña frango baitzabilan nihon ere ezin kokatuz bere misionesteia. Eta aldiz, Hazparneko etxea erosi eta antolatuz geroz, bertze lanik ez zuen predikatzea eta kofesatzea beizik. Ai orduan, zer lan baliosak, zer neke eta akhitze gozoak! Lehertuago eta hazkarrago, sosegurik ez zuen Aita Garatek; nahi zituzken bazter guziak kolpez eta berehala konbertitu, onerat itzuli.

Nihork sekulan izan badu Erlisionearen hedatzeko, altxatzeko, mendekatzeko, hazkartzeko eta goresteko khar bizia, Garat Pikasarrrik izan du. Lehenago Mathatiaz aphez handiak erraiten zuen bezala: Zertako sortu naiz, Erlisione saindua bere etsaietarik ez zaintzekotz?– berdin Aita Garatek ere, ikhustearekin Erreboluzioneak arimetan egin zituen kalte ikharagarriak, erraiten zuen: Zer, gure Eliza katolikoa, gure saindutegia, gure edergarria, gure berregingarria, gure Erlisione guziz maitea, etsaiek jo dute; sinestegabek gezurrez eta tzarkeriez Eskual-Herrian ere goibeldu eta khordokatu izan dute; eta ni alferrik eta axolagabe egonen naizela? Ez! nik eta ene lagunek gure arbasoen sinestea altxatuko dugu, bihotz guzietan nausi eta errege ezarriren dugu.

Eta holaxet Aita Garat bere lagunekin herriz herri zabilan, arimak elemeniaka argituz eta zerukotzat irabaziz.

Bainan noiz egin da ongirik, etsai gaxtoak trebeskatu gabe? Hemezortzi ehun eta hogoi eta hamarrean gerthatu zen bigarren erreboluzione xirtxil bat; barheiatu zituen Frantziako misionestak, bai eta Hazparnekoak.

Aita Garat baxharrik egon zen beraz misionesteian; haren lagun guziak barheiatu zituzten. Aita Gimon joan zen Betarramerat, eta han gelditu zen Aita Garikoitzekin. Aita Pergilhem igorri zuten Bastida-Klerantzerat erretor; aita Zarrote gisa berean Lekhoine-rat. Aita Intxauspe joan zen Nayko Dominikanesetarat omonier, eta hala-hala Pabeko Ursulinetarat aita Haranburu.

Erreboluzioneko kalerna gaxto hori iragan zenean, aita Zarrote itzuli zen baxharrik Hazparnerat. Bainan lagun berri zonbait jin zitzaizkon aita Garati:- Aita Deiheralde, hemezortzi ehun eta hogoi eta hamahiru-rean (1833),- Aita Etxeberri, hemezortzi ehun eta hogoi eta hamazazpian, (1837);- Aita Hiriart Eihalarre-koa, aita Hirigoien eta aita Kurutxet, hemezortzi ehun eta hogoi eta hemeretzian, (1839);- aita Kotiart,

hemezortzi ehun eta berrogoi eta hirurean, (1843);- Aita Berho makaiarra, hemezortzi ehun eta berrogoi eta seian, (1846).

Aita horiek guziek Erlisioe sainduko hirur botuak egiten zituzten, eta bizi ziren elgarrekin Pobreziaren, Garbitasunaren eta Obedientziaren gerizan eta menean.

Larderia eta ernetasun handia zuen aita Garatek etxeko erregelari xuxen jarraikarazteko bere jende guziak. Sehieri ere debekatzen zioten deus elherik aiphatzea arratseko othoitza erranez geroz. Eta behin baino gehiagotan ikhusi izan da hazkarki mintzatzan eta garrazki pharatzan, ohartuz geroz bat edo bertze erregelatik zehartzan, izan zadien hura aphez ala sehi. Erraiten ohi zuen: *Ogi gogorrari hagina zorrotz*, adiarazteko, baldin jendea ez baditeke onez onean bide xuxenerat bil, bortxatu behar dela indarrez eta larderiaz.

Beretzat are gogorrago zen. Garizuma guzian, abendo guzian, astezken eta ortziraile guzietan, barur egiten zuen eta bere gorphutza lizifrinatzen. Azken urthetara ezindua zen, sehiak behar zuen beztitu ala buluzi; eta hargatik orduan ere hartuko zuen egun hetan bere lizifrina.

Gutun edo letra huntarik ageriko da aita Garatek bere burua zer garrastasunarekin zabilan. Hemezortzi ehun eta berrogoi eta batean, maiatzaren hamahiru-rean izkiribatu zion aita Gimoni:

«Ene adiskide maitea,

»Akhabo da nitaz. Leheneko eritasunetik borthitzago batek hartu nau, zangoa gaizkiago dut. Ai banu Pauloko Bixintxoren bihotzetik poxi bat, banuke zerukotzat uzta eder baten biltzeko bide! Bainan ondikotz! ez naiz baliatzen, ez dut ihardesten graziari, zoroturik nago *sicut equus et mulus quibus non est intellectus*, adimendurik ez duen zaldi edo mando bat iduri.

»Jainkoarentzat idorturik, agorturik, eta ezindurik nago, bethi nere gorphutz ustel huntaz gogotatua. Ai urrikaltzeko garela, ez bagare zerukotzat gure adin lerdenez baliatu!

»Nahi nuke jakin zer zautzun ene bihotzeko griña batez. Garizumatik hunat gaizkiago dut ene zangoa, eta nik uste baruretik eta mehetik heldu zaitan hori. Ene zorigaitzetan, itsumendu berezi batek, -ez baliatzen ni baithan lehena!- ekharri nau ene kofesorrari galdatzerat, duela hi urthe, astean bi barur egiteko esteka edo obligazionea.

»Eta geroztik emendatuz dohazi ene herremeske-riak. Nahi nuke bada jakin zer heinetan esteka horrek barurtzerat hertsatzen nauen. Iduri zait ene gogoazela ez barurtzea osagarriak jasanen ahal zueno beizik. Bainan ez dezaket nihonek har ene gain gehiago ez barurtze hori.

»Egia da, ikhusiak ikhusi, banakikela bertzerentzat trenkatzen, bainan nihoni ixilik zuri nago. Ene baitharik gaitz laiket barur horien uztea, non ez nauen oheak arras beretzen.

»Igorrazut othoi zer derrautzun zure zuhurtziak, aita Garikoitzekin elgar aditu-eta.

»Zurea osoki Jesusen eta Mariaren Bihotz sakratuetan.»

Garat.

Emeki-emeki zangoetarik ezindu zen, eta geroztik utzi behar izan zituen kanpo herrietako misionoak. Bainan ordainez Hazparnen berean noiz-nahi mintzo zen behereko elizan ala gaineko kaperan. Herriko elizan behar zenean mintzatu, bere kaderan eremaiten zuten etxeko bi muthilek. Eta jakiten zutena bai harek behar zuela predikatu, zokho guzietarik elemeniaka heldu zen jendea, erranez Pikasarri da egun elizan

predikari! Eta Eliza kokaala bethetzen zuten Hazparneko hegal guzietarik bildu jende horiek.

Hemezortzi ehunetaberrogoi eta seian, primadera gaxto bat ari zen, arthoak ezin erein, eta ereinak ezin sor. Bihia arras khariotu zen. Eta bestalde zapataintza ere erori zen osoki. Ai laster bazterrak histu ziren, etxe gehienetan bazen eskasia eta herstura frango. Eta guziak baino ere beltzago zena, etxeko-jaun hazkarrenek elgar aditu zuten ogiaren eta arthoaren prezioa goratzeko izariz goiti.

Jaun Lizardi zen orduan erretor Hazparnen, oraino berriki ethorria; eta ospe handitan egiten zuen Jesusen Bihotz-Sakratuko kongregazionearen edo elgarta-sunaren besta, ortzegunarekin, Besta-berri xaharrez.

Egun hartan berean, goizarekin, aita Garatek entzuten du nola Hazparneko etxeko-jaunek elgar aditu duten bihiaren prezioa goratzeko. Ez dauke. Bezperak hasi direneko erraiten diote sehieri: Har ene kadera, elizarat ereman behar nauzue.

Eremaiten dute beraz bi muthilek. Ordukotz eliza jendez bethea zen, eta guziak boztu ziren, Pikasarri behar zutela entzun.

Predikuko tenora jin denean, mahin Saindutik itzultzen da aita Garat eta erraiten du: Ez naiz predi-

katzerat ethorria, jaun Erretorak predikatuko derauzue nik baino hobeki, galdatu diot bakharrik zombait hitzen erraiteko baimena. Ikhusten duzue jende erro-mesa zer hersturetan den. Ofizialek ez dute lanik, arthua egunetik egunera goratuz doha, bazterretan hainitz labe ja ez dire gorritzen. Ai! zuek, aberatsak, go emazue Jainkoak ez zaitzazten fundi, jende gaixoaz ez bazarete urrikaltzen horrelako hersturan. Ez da zueri behatzen den lana, erraitea zer heinetan saldu behar duzuen ogia ala arthua, Auzo-aphezak bakharrik egin dezake hori...

Harriturik bezala, bihiak beheratu ziren eta jendeak deskantsu poxi bat izan zuen.

Hori izan zen aita Garaten azken atheraldia; handik zazpi ilhabeteren buruan joan behar zen Jainkoarenenganat. Eta nola Jainko guziz on horrek nahi baitzizkan sariak zerukotzat emendatu, oinaze handiak igorri zizkan.

Bi zanguetara ekhartze handi bat jin zitzaion, halako moldez non bethi mainhuan bezala baitzituen oinekoen barnean. Azkenean zapata zolak oro zilho eginarazi zituen, ez zuen urratsik egiten hatzatzuz edo markatuz beizik.

Aleza saildua ezin gehiago kapera erranez, ardietsi zuen jaun Aphezpikuarengatik etxeko kolidor baten buruan emaitako baimena. Bainan hortako ere ez zuen luzaz ahalik atxiki. Bere ganbarara eremaiten zioten goiz guzietz komunione saildua; eta azkenean, goizeraino barurik ezin egonez, gauerditik berehala komuniatzen zuen.

Oinaze handi horien artetik, zerurat landaturik zerauzkan gogoa eta bihotz guzia. Erraiten zioten bere arthazaileri: Arimak badire galtzen direnak zerua gutiziatu gabez. Oi nik gutiziatzen dut ene Jainkoaren laster ikhustea eta osoki maitatzea!

Hemezortzi ehun eta berrogoi eta zazpian, urtharilaren lauean (1847), arratseko hameka orenetan ez tul bat egin zuen; hurbildu ziren beilariak, ohartu ziren lo zagoela eta kopetatik hasirik bisaian beheiti itxurak arras joaiten ari zaizkola; oihu egiten diote aita Deiharalderi, heldu da berehala eta azken absoluzio-nea emaiten dio. Hortan pausatzen da aita Garat, iratzartu gabe, zituelarik hirurhogoi eta hamahirur urthe, bortz ilhabete, eta hogoi eta zazpi egun.

V - ZATHIA

Gure sinestean gauden hazkar

I - KAPITULUA

Fedeaz bi hitz

Federik gabe ez dela salbatzerik.- Zer da Fedea?- Bi egia suerte.- Goraxago erranak berriz errepikatuak.- Zertan den gure sinestea bermatzen eta finkatzen.- Erlisioneko goitibehera guziak, agindu bezala gerthatu direla.- Jainkoaren lanak.

Sekulako zorigaitzari ihes egitekotz eta zerurat heltzekotz, behar gare Jainkoaren gogorako izan eta haren nahiaren arabera bizi. Bada, dio Jaundone Paulok, ez gaitezke Jainkoaren gogorako izan, ez gaitezke haren nahiaren arabera bizi, ez badugu egiazko sinestea; beraz sineste hori gabe ez gaitezke salba. Hortik Jesu-Kristok berak erraiten zioten bere Apostolueri: Zoazte, ene Ebanjelioa irakas zazue jendetze guzieri; sinesten duena salbatuko da, eta sinesten ez duena izanen da damnatua: *Qui crediderit salvus erit, qui vero non crediderit condemmabitur.* (Marc. 16, 16.)

Horra beraz non aditzen dugun, ez xoilki apostolu baten ahotik, bainan Jainko egia bera denaren ahotik, ez badugu fedea, galduren garela bethikotz. Egiatzko sinestea hoin baitezpadazkoa denaz geroz, zuhurtziak nahi du ezagut dezagun ongi zer den, jakin dezagun hea badugun ala ez, eta ez baginu, egin detzagun laster haren biltzeko egin behar diren urratsak.

Ikhus dezagun beraz zer den fedea eta zer bidez guganat heltzen diren fedesko gauzak.

1° Zer da fedea?- Kateximak dion bezala, fedea da berthute bat zoinaz sinesten baititugu Eliza katolikoak irakasten derauzkigun egiak, zeren Jainkoak berak irakhatsi izan dituen Eliza gure ama saindu horri.

Beraz norbaitek ez balitu sinetsi nahi Elizak irakasten derauzkigun egiak, harek ez luke federik. Ezik Jesu-Kristok erraiten derauku: Eliza sinetsi nahi ez duen bati beha zakozue pagano bati bezala.

Bainan zoin dire Jainkoak Elizari irakatsi egiak? Badire bi suerte, batzu sinetsi behar direnak xoilki, bertzeak sinetsi eta obretan atxiki behar direnak.

Lehenik beraz sinesteko direnak xoilki, eta hek dire Erlisionekeo mixterioak eta Apostoluen *sinestendutanean aipatuak* diren guziak. Hala nola Jainko

bakhar bat hirur presunetan; Jainko-semearen gizon egitea, heriotzea, hiletarik phiztea; jujamendua, zeru eternala eta ifernu eternala. Egia eta mixterio horiek ez dire mintzo eginbidez edo obrez; behar dire bakharrik sinetsi. Hori da Erlisioneko zathi bat, teologoek *dogma* deitzen dutena, eta biltzen dituen sinetsi behar ditugun guziak.

Badu Erlisioneak bertze zathi bat, *moral*a deitzen dena; eta hunek irakasten ditu salbatzeko bethe behar ditugun egin bideak, erran nahi baita zer ongi egin behar dugun eta zer gaizkitarik begiratu behar garen. Eta horiek dire gauza batzu, sinetsi bezala, oraino eginkarietan eman behar direnak. Aurkhitzen dire bereziki Jainkoaren manamenduetan, hala nola Jainkoa behar dela adoratu eta maitatu, Jaunaren izen sandua ohoratu, juramentu debekaturik ez egin, igande egunak atxiki, burasoeri ongi heldu, bertzeri ez egin, hek guri egitea nahi ez dugunik, sekulan ez atxiki lohikeriazko gogoetarik edo gutiziarik, are gutiago erran elherik edo egin egitate tzarririk. Gure eginbidea oraino Elizari jarraitzea Jesu-Kristo berari bezain ongi, bai eta gure bekhatuez penitentzia egitea.

Gure sinesteak ez luke deusik balio, ez baginitu bigarren saileko gauza horiek, lehenbizikoak bezala

sinesten; berdin oraino ez baginu sinesten Eliza sainduak manatu eginbideak, Jainhoaren manu batzu direla, eta debekatzen derauzkigun gaizkiak, Jainkoaz beraz debekatuak zaizkigula.

Horra bi hitzez zer diren gure fedea sinetsarazi behar derauzkigun egiak eta manuak.

3° Orai galdeginen derautazu zer bidez eta nola guganat heldu izan diren Jainkoak eman egia eta manu horiek. Heldu izan zauzkigu zaharren erranez eta izkribuez. Hola dio Batikaneko azken Kontzilioak.

Bertzela ere, nola dakigu gizonen munduan zer zabilaten duela anhitz mende?

Berdin-berdina, zaharren izkribuez eta erranez.

Mende baxhotxeko gizon jakintsunek izkribatu dituzte hekien denboran gerthatu ziren, edo lehenago gerthatu zirela zazkiten harat-hunat premiatsuenak. Izkribuz bezala, elhez eta omenez, berze hainitz gertakari jakin dire eta bethikotz gelditu gizonen orhoitzapenean. Ala izkribuak ala erranak mende batetik berzera iragan dire eta guganat heldu, eta orobat joanen dire gure ondokoetarar, eta hek ere aintzina aiphatuko dituzte eta azken denboretarat helaraziko.

Bide hortaz ezagutzen ditugu JESU-KRISTO eta haren aintzineko mendetan iragan diren hainbertze

gauza. Esipton, Grezian, Erroman eta berze hainitz tokietan ziren hiri famatuak, erregeak eta gudulari handiak, hek egin dituzten gerlak, hek irabazi edo galdu bitoriak, badazkigu hain ongi nola gure denboretako gerthakari agerienak. Orobat ezagutzen ditugu, JESU-KRISTO agertuz geroztik izan diren goiti-beherak gizonen artean. Eta bethi bide beraz.

Nola altxatu eta asentatu den Frantziako erresuma ederra, duela hamalau ehun bat urthe; geroztik zonbat errege izan dituen, zer ziren hekien izenak, zer ongiak eta gauza handiak egin dituzten, oro badazkigu, gure egunetan egin direnak bezain ontsa. Hemen-dik mila urtheren buruan guk bezain ongi jakinen dituzte gure ondokoek.

Berdin oraino jakinen dute zer nahasmenduak jasan ditugun azken urthe hotan: Enperadore bat bere armadarekin desterrurat preso eremana, Parise etsaiez sethiatua eta hartua, gaxtaginak Frantzian nausitzen eta zer nahi desmasia ibiltzen.

Horiek guziak mendetik menderat ibiliko dire, eta sekulan horietaz nihor ez da dudatuko, berek ikhusirik bezala sinetsiko dituzte.

Bada guk bide beraz eta ageriagoaz badakigu Erlisionea nola ibili den mundu huntan, gizonez usu gaitzetsia, bainan Jainkoaz bethi lagundua.

Lege zaharrear, urrunagodanik ez hasteko, Jainkoak ikhusiz jendetzeak idoleri eta tzarkeria guzieren emanak zirela, hautatu zuen eta bertzetarik berezi Israeleko populua, Moisez buruzagitzat emanik. Populu horri erreberritu ziozkan, gure lehen borrasoeri irakatsi zituen Erlisoneko eginbideak, agintzak eta mehatxuak.

Moisez mendi baten gainerat igana zelarik, eta jendetze guzia mendi-beherean zagoela, ortzien eta ximixten erdian Jainkoak profeta handi horri eman ziozkan bere manuak, bai eta bertze asko lege.

Eta badakigu Judeako populuak Moisen lege eta liburu horiek begiratzen zituela oraino JESU-KRISTO mundurat jin zenean.

Moisen liburua, eta haren ondotik Judeako populuak izan diren profeten liburuak, eta populu horren beraren ixtorioa, horra Testament zaharra zer den.

Testament zahar hortan ikhusten dugu nola Salbataile bat hitzemana zen munduari; ikhusten dugu nola bethidanik Patriarkak eta Profetak hartaz mintzatu diren mendez mende. Patriarka eta Profeta hekien

izenak ezagutzen ditugu, badakigu nor ziren eta nola bizi ziren. Izpiritu Sainduaz argiturik, agindu dute eta aitzinetik erran nola ethorriko zen Mesiaz, zoina baita JESU-KRISTO; zer moldez agertuko zen mundurat, zer lanak ibiliko zituen, zonbat beharko zuen pairatu, nola azkenean hil behar zen zernahi jasanik; eta hekien agintzak ez dire hortan baratu: oraino, ordutik erran dute nola mundu guzia Apostoluek konbertituko zuten, nola Eliza katolikoa lurreko lau bazterretarat hedatuko zen, nola Jainko egiazkoa jendetze guziek ezagutuko zuten.

Bada horiek guziak gerthatu dire agindu denbora eta molde beretan. Testament zaharrean aintzinetik emanak diren xehetasunak, aurkhitzen dire osoki obraturik Ebanjelioan eta Elizaren bizian. Jainko Semea mundurat ethorri zen duela abantzu bi mila urthe; eta haren agertzea ez da izan xoilki ardurako gauza bat bezain segurra, bainan izan da hain ageria, hain espantagarria, non geroztik bazter guzietan urt-heak eta mendeak haren sortzetik khondatzen baitire. Orai baikare hemezortzi ehun eta lauetanhogoi eta hamarrean, horrek erran nahi du baduela xuxen hoinbertze urthe mundurat jin zela Jesu-Kristo.

Jesu-Kristok hogoi eta hamahirur urthe iragan ditu gutartean eta azken hirur urtheak Ebanjelioaren predikatzen. Jendeak osteka heldu zitzaizkon entzutera, mendietan gaindi, desertuetan gaindi, itsasoan gaindi, hitz batez norat-nahi. Erraiten zuen goraki Jainkoaren semea zela, zerutik jausia munduaren argitzeko eta salbatzeko. Eta nola ez baitzituzten haren erranak berzela sinetsiko, egiten zituen Jainko batek beizik egin ez zezazken obrak, hala-nola eriak kolpez sendotzen, itsuak argitzen, legentsuak garbitzen, etsaiaz hartuak libratzen, itsaso bethean kalernak hitz batez baketzen, bai eta hilak phizten.

Azkenean juduen lege-gizonek, bekhaizkeria eta hisia tzar batez, zeren jende guziak hari behatzen ziren eta ez hekieri, zeren hekien gaxtakeriak goraki agertzen eta larderiitzen zituen, kurutzefikatu zuten, edo hobeki erraiteko bere burua kurutzefikatzerat utzi zuen gure salbatzeko.

Hiltzean berean, oro lehertua eta xehakaturia zela-rik, irakatsi zuen oraino bere Jainkotasuna, ezik iguzkia arras ilhundu zen eugerdia bethean; eta gero, eman zueneko azken hatsa, lurra ikharatu zen, harrokk arraildu ziren, hilak phiztu eta hobietarik atheratu ziren; haren hilzaileak berak harritu ziren eta bere

baithan sarthu; gehienak Jerusalemerrat urrikitan itzuli ziren joz beren bulharrak, erraiten zutelarik: Ai hori Jainkoaren semea zen egiazki; *verè Filius Dei erat hic!*

Bainan bertze mirakuluez baino ere gehiago Jesu-Kristok bere Jainkotasuna agertu zuen bere phizte loriosaz. Ezik hil baino lehen erran zuen goraki phiztuko zela hobitik hirugarren egunean. Eta hortakotz juduek ezarri zuten soldado andana bat haren hobia-
ren inguruan, beldurrez haren gorphutza ixilik ereman zezaten handik eta gero phiztu zela erran zezaten. Bainan hori bera aski izan zen hekien ahalkatzeko eta galtzeko. Ezen, soldadoak bere harmekin han zaude-
larik Jesu-Kristo hobitik athera zen, lurra ikharatu zen, zaintzaleak harriturik erori ziren eta gero hirirat itzuli, zer gerthatu zen erraiterat.

Berrogoi egunez egon zen Jesu-Kristo lurraren gainean; agertu zen asko jenderi eta guziz bere dizipulueri. Hok behinere baino hobeki argitu zituen eta fedean hazkartu. Eta azkenik altxatu zen zerurat.

Bai hil aintzinean, bai hobitik phiztu ondoan, manatu zioten bere Apostolueri mundu guzirat heda zitzaten harek irakatsi egiak eta harek egin mirakuluak, eta jendetze guziak haren Ebanjeliorat konberti. Erran zioten: Ni zuekin izanen naiz egun oroz, mende-

tarik azkeneraino; nik argituren zaituztet bethi ene Izpirituaz eta sekulan ez zarete enganatuko zuen irakaspenetan; ez duzue zeren lotsa, ezen nik bentzutu dut mundua eta bethi lagunduko zaituztet. Erran zioten oraino: Nihaurek ditudan bothereak oro zueri emaiten derauzkizuet; eta ene izenean, ene orde, mintzaturen zarete gizoneri; zueri behatuz niri behatuko dire, eta zuek arbuiatuz nihoni neraute arbuiatuko. Nori ere bere bekhatuak barkhatuko baitituzue, hekieri bereri nik ere barkhatuko diotet, baina barkhatu gabe utziko dituzuenak, nik ere barkhatu gabe utziko ditut.

Zerurat altxatu aintzinean manatu zioten egon zitezela Jerusalem elgarrekin zombait egunez eta igorriko ziotela bere Izpiritua. Izpiritu saindu hori Mendekoste egunean jautsi zen hekien gainerat, eta ordu beretik osoki aldaratu ziren Apostoluak, berze gizon batzu egin ziren.

Ez zutelarik behinere deus ikhasi, horra non egundaino izan diren argituenak baino jakinsunago diren; lehenago gerthatu gauzak, eta gero gerthatu behar direnak, oro badazkite; Liburu Sainduak xehatzen eta zabaltzen dituzte, aingeru batek egin lezazken bezain ongi eta errexki; mintzaia guziak trebeki mintzatzen

dituzte, edozoin bazterretako jendek osoki entzuten eta hartzen dituzte hekien elheak.

Orduarte, eta guziz Jesus kurutzefikatua izanez geroz, beldurrez ikharan zauden, agertzerat ere ez zaitezken mentura. Bainan izan dutea bai Izpiritu saindua, hekien beldur guziak ezeztatzen dire; jakitatez bezala, indarrez ere betheak dire; ez dire deusen lotsa, ez etsaien ez-eta heriotzearen, eta berehala agertzen dire Jerusalemeko karriketetan, predikatzen dituzte goraki Jesu-Kristoren heriotzea eta hiletarik phiztea, Judueri bekhoz bekho erraiten diote beren Jainkoa kurutzefikatu dutela, bainan hek hilarazi zuten hura bera phiztu dela eta zerurat altxatu. Konbertitzerat eta penitentzia egiterat hersatzen dituzte.

Jendeak harritzen dire hekien elhez eta hekien mintzatzeko moldeaz. Jaundone Petriren lehenbiziko predikuak hirur mila arima konbertitzen ditu; bigarrenak bortz mila.

Apostoluak ordutik alde guzietarat hedatu ziren, Jesu-Kristoren ebanjelioa orotan ezagutaraziz. Hamabi gizonek behar zuten mundua gainazpikatu eta osoki erreberritu. Eta hori deus bothererik gabe, deus urhe zilharrik gabe, deus lurreko atseginik ez handitasunik hitzeman gabe.

Huna zertsu zen mundua denbora hetan.

Bazter guzietan ukhatua zen Jainko egiazkoa; ez zen gehiago jainko faltsurik baizen. Batbederak, nahi zuen gauza edo jendea, hautatzen zuen jainkotzat. Batzuek adoratzeko zuten iguzkia, berzek ilhargia eta izarrak; zonbaitek gizon edo emazte famatuak; hainitzek abere, ihizi eta zernahi gauza bitxi eta zoro. Hitz batez, oro jainko ziren Jainko egiazkoa salbu.

Jainkoa galduz geroztik zer bilhaka diteke gizona? Hortik leize guzietarat eroriak ziren paganoak, tzarkeriarik ikharagarrienetan osoki pulunpaturik zauden. Ez diteke erran zer itzuskeriak, zer moldegaizkeria hasialak, zer egitate lohi beltzak zabiltzaten; eta hori agerian, ausarki, deus ahalgerik gabe. Zertako zuketan ahalgea, guziak zoin-gehiago emanak zirenez geroztik zikhinkeria eta usteldura horieri? Hainbertzetaraino hondatuak ziren ungarrian eta likhiskerian, non beren tzarkeriak jainkotzat baizerauzkaten. Ai egiazki abereak baino ere abretuak ziren, eta zinez, Eliza saildua ez balitz agertu, lurreko gizaldi guzia lohikerian ithorik galduko zen arras.

Nork sinetsi, nork asmatu zuen hamabi gizon herbailek lothuko zirela horrelako munduari? eta borroka gaitz hortan, hek zirela nausituko? Bai jainko faltsu

hek aurthikiko dituzte, bekhatuzko leize ilhun hortarik atherako dute mundua. Herri ttipiak, hiri handiak, erresuma osoak, azpikoaz gainera itzulikatzen dituzte.

Orduarteko sineste guzien eta gezurkeria guzien kontra mintzo dire; behar dituzte erotik khendu aspaldiko ohidura tzarrak, ohidura sobra maitatu hek; eta zertako maitatuak? ai-eta asetzen baitituzte gizonaren jaidura borthitzenak, lohikeria eta urgulua, atsegin suerte guzien gosea. Ez dire lotsatzen, jazar-tzen dire ala sineste gezurtieri ala ohidura gaxtoeri; eta azkenean sineste egiazkoa sartzen da arimetan, bihotzak deslotzen dire lohikeriatik; bizitze berri bat hartzen dute jende gehienek, eta emeki-emeki Jesu-Kristoren Eliza da nausi gelditzen.

Bainan nola heldu ahal othe ziren apostoluak lan handi horren egiterat? Ez beren indarrez, ezik goraxago ikhusi dugu zoin erromesak, zoin jakingabeak, zoin lotsakorrak ziren; arrantzaile gaizo batzu eta deus berzerik ez.

Lan handi hori Jainkoak egin du berak. Izpiritu Sainduak emaiten zuen apostoluen hitzari bihotzen argitzeko, hunkitzeko eta aldaratzeko indarra; berdin Izpiritu harek berak idekitzen eta berotzen zituen arimak hek mintzo ziren denboran.

Bestalde, ala apostoluek ala hekien lagunek, mirakulurik handienez hazkartzen zituzten beren irakaspenak. Jesu-Kristok erran zioten: Nik bezain mirakulu handiak edo handiagoak eginen dituzue.

Eta egiaz hek ere sendotzen zituzten eriak; itsuak argitzen, hilak phizten, zernahi gauza miresgarri egiten.

Hortik ageri zen ez zirela bere baitharik mintzo. Jesusek bezala erraiten ahal zuten jenderi: ez baduzue gure elhea sinesten, sinets zaitzue bederen gure egintzak, ezen egintza horietarik ageri da gu baithan Jainkoa bera lanean ari dela.

Handik hunat ere, mendez mende, Apostoluen ondoko Aita-Saindu, Aphezpiku eta Aphez Eliza-Buru-zagiek, Jesu-Kristoren irakasmek eta sakramenduak berdin errepikatu, hedatu eta lurreko hegal guzietarat helarazi dituzte.

Honek oro eta bertze hainitz gauza badazkigu zaharren erranez eta izkriboez, *Tradizioneaz* eta *Eskritura Sainduaz*.

Eta hor dagotza, *Tradizionean* eta *Eskritura-Sainduan*, guk sinetsi behar ditugun guziak, Jainkoak berak zerutik lurrerat ekharri dituen bezala. Eta ez derauku Eliza katolikoak deusik irakasten baizik ere

Tradizionean eta *Eskritura-Sainduan* aurkhitzen diren egia Jainkozkoak. Halako moldez non Eliza katolikoak zerbait irakasten deraukun ber, osoki segur baikare egia hura Jainkoak berak irakatsia dela.

Eta azkenik erran behar dut, ala *Tradizioneak* ala *Eskritura-Sainduak*, berekin dakharzketela gure Erlisionearen agergailuak eta ikhusbideak, hala-nola hainitz *Mirakulu* eta *Profezia*. Bainan horiek jadanik aip-hatuak ditut.

II - KAPITULUA

Arimako itsumendua, Erlisionearen etsaieri Jainkoak igortzen dioten gaztigu berezia

*Arimako itsumendua, gaztigu guzietarikh
han diena dela.- Askotan lazakeriatik
heldu da.- Deskantsu nigaregingarria!*

Gu baithan badugu argi bat, gure urratsak bidatu behar dituena; hura da gure adimendua, gure izpiritua, Jainko onak eman deraukuna egiaren ezagutzeko. Bainan gure adimendu horrek ez du berenaz indarrik aski gure bidatzeko egitekorik handiengan, salbamenduko egitekoan. Hortarakotz behar dugu goragodanik berze argi bat, eta hura da fedearen argia.

Salbamenduari darraizkon eginbidetan ez dezakegu deusik egin argi surnatural hori gabe, bainan argi horrekin bethi zerurat heltzeko bidea har dezakegu. Ezen fedeaz argituak bagare eta gure eginbideak ongi ezagutzen baditugu, Jainkoaren bidetan edo xuxen edo makhur ibiliko gare: xuxen bagabiltza, ez daiteke

deus hoberik; makhur bagabiltza ere, badakigu bederen errebelatuak garela, badakigu ez gaitezkelat salba bide onerat itzuliz beizik.

Bainan gure izpiritua ez bada fedeaz argitua, itsumenduan eta ilhunbetan aurkhitzen bada, ai orduan ez gaitu zerurat bidatzen ahal; gaizki gabiltzanean, ez dugu ezagutzen ahal gure burua, eta beraz ez gaitezke bide onerat itzul.

Hortik, izpirituko itsumendua, erran nahi baita fedeaz ez ongi argituak izaita, ez ongi ezagutzea zer den kaltekor edo zer den probetxos gure arimentzat, hori da diteken traba handienetarik bat salbamenduari buruz, hori da izan dezakegun zorigaitz handienetarik bat.

Hortakotz erraiten derauku Jesu-Kristok: Goemazue zuen baithako argia ez dadien izan ilhunbe, zuen izpirituak ez ditezen itsuturik egon: *Vide ergo ne lumen quod in te est tenebrae sint.* (Luc. 11, 35.)

Zorigaitz hori, itsumendu hori, Erlisionearen etsaiek maizenik jasaiteko duten gaztigua da.

Itsumenduan aurkhi daiteke, Erlisioneako eginbide hainitz ezaguturik ere. Aski da eginbide hetarik zombaiten, edo bat bakharraren gainean gure faltaz engatzea; aski da, gaizki bat egiten duguna, ez gaizki-

tzat atxikitzea, edo eginbide bat bethe beharra, ez uste izaitea bethe behar dugula. Itsumendu galkor hortan izaiten ahal gare, edo gure lazakeriaz, edo gure gaxtakeriaz, edo Jainkoaren gaztigu ikharagarri batez.

Gure lazakeriaz.

Itsumenduan izan gaitezke gure lazakeriaz, Erlisionearen ongi ezagutzerat ez entsegatuz, eta hortik ez jakinez zer egin behar dugun edo zertarik urrundu behar garen salbatzeko.

Girixtino batek gehienetan haurdanik, eta bederen lehen komunionearen egiteko, ikhasten ditu Erlisione-ko eginbiderik premiatsuenak. Orduan ikhasten ez balitu, buruzagien obena liteke, eta buruzagi sordies hek haren arimaz ihardetsi behar lukete Jainkoaren aintzinean.

Bainan haurtasunetik atheratzearekin, adinean aintzinatzearekin, girixtino batek behar du oraino hobeki argitu; eta egin daiteke errexki, baldin nahi bada baliatu hortarakotz dituen bide onez. Bide hek dire, herrietan emaiten diren predikuak eta kateximak, eta oraino liburu onen irakurtzea edo irakurtzen

aditzea, sakramenduetarat hurbiltzea, salbamendua eta azken finak gogoan maiz erabiltzea.

Entsegu horiek egiten ez dituen girixtinoak, haurtasunean ikhasiak ere net ahantziko ditu; ez ahantzirik ere, utziko ditu bazterrerat ez balazki bezala; ez da badirenez ere orhoituko; eta holaxet bekhatu frango eginen ditu, kasik ohartu gabe; ifernuaren hegi-hegian biziko da, ezagutu gabe.

Zonbat girixtino egiten dutenak urrats oroz bekhatua, ala gogoetetz, ala gutiziez, ala elhez, ala obrez; eta erraiten bazaiote behar direla konbertitu, behar dutela kofesio on bat egin, ihardetsiko baitute: nik ez dut gaizkirik egiten! Ez dut deus ebatsi, ez dut nihor hil, ez-eta nihori bidegaberik egin. Nik beraz zer bekhatu duket? Guti edo batere ez; deskantsuan nago.

Nor dire holakoak? Sekulan kasik, ez meza nausietan, ez bezperetan aurkhitzen ez direnak, eta hortakotz behinere predikurik ez kateximarik entzuten ez dutenak; igande bestetan meza bat entzuten badute, ahal bezain laburra hatzemanik, egun guzia kanpo horietan barreiatu dabilzanak; erlisionekeo gauzez behinere, edo gaizki beizik, mintzatzen ez direnak; liburu on bat, irakurtzen jakinik ere, sekulan ikhusi nahi ez dutenak; salbatzerik edo damnatzerik bade-

nez ere orhoitzen ez direnak; noizetik noizera, edo menturaz behinere, kofesor baten elhe onen aditzera ez dohazinak.

Jan eta edan, lo egin, lanarekin ar borrokan, atsegin tzarretan, zer-nahi barheiamenduetan zoraturik ibil; hitz batez, lurrekotzat beizik ez bizi aberen pare, horra hekien zuhurtzia.

Prediku eta kateximetarat jarraikitzen balire, salbamenduko egitekoaz eta azken finez orhoitzen balire, balakikete Jainkoak eman dituela hamar manamendu, eta ez xoilki biga, bosgarrena eta zazpigarrena. Ez dutela hiltzen ez ebasten, balentria zaiote. Eta nik hortan ere ez nuke juramentu egin nahi, hek uste bezain garbi direla. Ezen lagunari hitzez edo egitatez asko zimiko egin ditezke, ez osoki larruturik ere, eta badakigu ebasgua guziak ez direla bide bazterretan egiten.

Zer-nahi izanik, lege guzia ez dago bi manamendu horietan. Bekhatu da othoitzik ez egitea, edo eginik ere, eskarnio bat bezala marruskatzea. Bekhatu dire hainbertze arnegu, hainbertze hasarre eta borthizkeria, hainbertze mihi-kolpe eta elhe gaxto, hainbertze ausartzia eta oldartze burasoen edo aintzindarien kontra, hainbertze lazakeria eta ez-axolakeria haurren

eta sehien gainean, hainbertze arinkeria, elhe lizun, athermaldi zikhin eta moldegaitzkeria tzar.

Horietarik guzietarik egiten dute orga-traka, eta gero diote: Nik ez dut bekhatu!

Zertako bada itsumendu hori? Beren lazakeria dela kausa. Izpiritua eta konzientzia herdoilduak dituzte, ilhunbean daude.

Bainan bederen ez-jakin hori baliatuko othe zaiote Jainkoaren aintzinean? Ez-eta demendrenik. Hori bera bekhatu da, ezen behar ziren argitu, eta argi zitezken; ez badire egin, beren lazakeriatik izan da. Hortakotz borthizkiago beizik ez dire kondenatuak izanen.

III - KAPITULUA

2°. Arimako itsumenduan gertha gaitezke gure gaxtakeriaz

*Gaxtakeriatik ere sortzen da maiz.-
Berak direla bere jainko.- Ez dutela ber-
tze Erlisionerik beren nahia eta fantesia
beizik.*

Itsumenduan izan gaitezke guharen hauren gaxtakeriaz. Ezen badire bere nahiz itsumenduan daudenak, asko gauza jakin baino nahiago baitute ez jakin.

Deskantsuago izaiteko ilhunpeak bilhatzen dituzte, erraiten balute bezala: Ez dakit ongi bizi naizenez, ez dakit ene eginbideak ongi bethetzen ditudanez, ez dakit ene izaitean badenez zerbait aldaratu beharrik, baina ez dut ere jakin nahi; sobra jakiteak nahas lezake ene deskantsua, eta orai ez dut bada nik ene ohidura zaharren uzteko gogorik; hobe zait ene ezjakinean egoitea, eta orai arte bezala gero ere sail berari jarraikiko naiz.

Horrelakoek Jainko handiari oihu egiten diote: Urrunt hadi guganik, ez diagu hire ganean jakitaterik nahi, ez ditiagu hire manamenduak eta bideak ikhasi nahi: *Dixerunt Deo, recede à nobis scientiam viarum tuarum nolumus.* (Job, 21, 14.)

Ustez Jainko legearen ez jakite horrek Jujamendutik begiratuko dituen, iduri zaiote kasik hobe dela begiak hetsirik ibiltzea, iduri zaiote aski dela ifernuaz ez orhoitzea, leize ikharagarri hartarat ez erortzeko.

Nolaz bada gizonaren-izpiritua hortaraino itsu dai-teke? Eta zinean ba othe dire gizonak beren buruaren hola etsai direnak?

Bai badire holako zoramenduan bizi direnak; eta hekieri ez erran zoroak direla, ezen horrelakoek dute beren burua gorenik altxatzen.

Nor dire hek? Hek dire Erlisionerik gabe bizi diren batzu; beren gutizia eta pendura guzieren ausarki jarraitzen direnak; eta ez baitute nahi argitu, ihes egiten baitute elizatik, ez baitezakete jasan Jainkoaz eta eternitateaz deusik aipha dezaten hekien bixtan; zerbait aditzen dutenean ere, irri bortxatu bat egin, trufa eta blasfemio zonbait ahal duten bezala bota, eta buruak itzultzen baititutze ezeztatzeko izpiritutik egia-
ren orhoitzapena bera.

Horiek dire gaxtakeriazitsuturik daudenak.

Lau murrueen artean bezala ithorik daude, ilhunberik handienetan, utzi gabe zeruko argiari demendren arterik hekienganat heltzeko. Liburu sainduek dioten bezala, ez baitute nahi zuzenki gobernatu, ez dute nahi ere jakin zer den ongia eta zer den gaizkia: *Noluit intelligere, ut benè ageret.* (Psal. 35, 4.)

Bainan amarru eta antsia horiek oro alfer izanen dire; Jainkoaren manamenduak ez dire ezeztatzen ahal ahantziz eta burutik khenduz; manamenduetarik ihesi dohana, ifernurat eroriko da.

Badire bertze asko ez bailukete Erlisionerik gabe bizi nahi, zerurat joan nahi baitire. Bainan nahi lukete Erlisione bat beren gogorakoa, zerurat heldu nahi litezke berek hautatu bide batetarik. Sobra zaiote ukho egitea ohidura batzueri; estekamendu eta jarraitutasun gaxto batzuen uztea; sobra zaiote beren buruari deusetan bihurtzea eta jazartzea, iduri zaiote salba ditezkeela Jesu-Kristoren kurutzetik deus jastatu gabe.

Hortik zer gerthatzen da? Nihork ez baiteie bere nahien araberako Erlisione hura irakasten, berak bere buruen jainko emaiten dire. Jainko balire bezala, berek

moldatzen dute Erlisioea beren gostura. Hekientzat on dena har, on ez dena utz. Eta bortxa poxi bat galdatzen duten eginbide guziak ez dire on. Hek bazterrerat eman behar dire.

Eta hola, berek moldatu Erlisioe ezti errex hari jarraikitzen dire; eta hari jarraikiz saindu handi dire beren begietan; eta hek bezala egiten ez dutenak buru galdu zoro batzu zaizkote.

Barur egitea, mehe egitea laket ez zaioten batzuek hitz handi hau erranen dute: Ahotik sartzen denak, ez du arima likisten. Oi zer atheraldi ederra! Nork buru egin dezake holako arrazoin baliosari?... Hitz hortan Eliza ama sainduaren legeak ostikatzen dituzte. Bizkitartean Jesu-Kristok erran du bai: Elizari jarraikitzen ez dena pagano bat dela; bainan hekientzat ez da bekhatu; eta zertako? zeren hek hola nahi baitute egin!

Igandetan mezarat jitea gehienek onesten dute, ezen bide beraz asko jende eta adiskide ikhusten eta elhestatzen dituzte, eta funtsean goxo zaiote etxetik zortzian behin atheratzea eta paseun baten egitea.

Bainan kofesatzeaz, ai ez da berdin! Horrek bortxa poxi bat galdegiten du. Diote ez direla kofesatzerat atxikiak; eta zertako? ez baitute nahi!

Asko badire bekhatutik nihola-ere urrut ez dai-
tezkeenak, sakramenduetarat usu jarraikiz beizik. Bai-
nan gehienek beren burua itsuturik ezarriko dute, eta
azkenean sinetsiko dute aski dela noiztenka hurbil-
tzea. Behin edo bertze bekhatuak kofesor bati erran,
eta gero bizitze berari aintzina jarraik, ase bethi guti-
zia eta pendura tzar guziak; hola zaiote eder. Hitze-
man dukete bai kofesorari utziko dituztela holako eta
halako bide galgarriak; bainan ezin utz bortxamen
aphur bat gabe! Beraz ez dute bortxamenik eginen
beren buruari, eta hori da hekientzat egiazko Erlisio-
nea; zertako? zeren hola nahi baitute!

Orobat elhe lohi erraile hek, asko jestu eta ausar-
tzia lizun dabilzaten hek, beren barheiamenduaz
hainbertze bekhatu egiten eta eginarazten dituzten
hek, uste dute guziek girixtinoki bizi direla. Nolaz
bada? Libertitu behar delako estakuruan. Jainkoaren
debekuak eta garbitasunaren zedarri hertsia behar
litezke lehenik eta oroz gainetik atxiki. Bainan deus
holakorik ez da hekientzat, eta zertako? ez baitute
nahi!

Holaxet, Jainkoaz trufatuz eta beren jaidura tza-
rrak asez, nahi lukete batzuek eta bertzek zerurat
heldu.

Ez zuen bertzerik egiten Luther heretiko fama-
tuak. Gure egiazko Erlisioea oro aldaratzen eta
nahasten ari zuen; bere gisako erlisioe berri bat egi-
ten ari zuen; eta norbaitek galdegiten bazion: Zerta-
ko, zer botherez eta zer arrazoinez irakasten dituzu
gauza berri horiek? Ihardesten zuen: Ez dut bertze
bothererik eta bertze arrazoinik, ene nahia beizik, eta
hori aski da.

Orobat holako girixtinoeri galdegiten bazaie zer
botherez eta zer arrazoinez dioten ongi eta zilegi dire-
la Erlisioeak debekatu gauza batzu, Eliza katolikoak
debekatu eginbide batzu, Jainkoaren ministroek debe-
katu sineste batzu; ihardetsiko dute: Gure bothere eta
arrazoin guzia hau da: guk hola nahi dugu, beraz hola
behar da; guri hola ontsa zauku, beraz ez da gaizki!

Oi itsumendu zoroa, uste ukhaitea gure nahirat
bihur dezazkegula Jainkoaren nahi soberanoak. Enga-
niorik ergelena da hori.

Jesu-Kristok ez gaitu ez jujatuko gure jaiduren ara-
bera, gure uste gezurtien arabera; jujatuko gaitu Jain-
koaren eta Elizaren manamenduen arabera. Eta han-
bat gaxto guretzat baldin haren Erlisioeaz bertzerik
hartu izan badugu. Erlisioea egina da guzientzat, eta
guzientzat ber-bera da. Eliza sailduari bakharririk

eman dio Jesu-Kristok haren irakasteko botherea, eta erran izan du Elizari behatzen ez dena, pagano da eta ez girixtino. Munduak eta mundutarrek zer-nahi erranen dute, zer-nahi egingen dute; bainan Jaunaren erranak bethi egiak izanen dire. Berak hola dio: Iraganen dire zeru-lurrak, bainan ene hitzak ez dire iraganen: *Coelum et terra transibunt, verba autem mea non transibunt.* (Matth. 24. 35.)

IV - KAPITULUA

3°. Arimako itsumenduan gertha daiteke Jainkoaren gaztigu ikharagarri batez

Itsumendu hori daitekela Jainkoak berak eman gaztigua.- Urguluak jautsarazten duela gaztigu hori.- Berdin Jainkoaren grazien arbuiatzeak jautsarazten duela.

Azkenik itsumenduan eror gaitezke Jainkoaren gaztiguz. Liburu sainduak eta Eliza sainduak irakasten deraukute Jainkoak zombait aldiz bekhatoreak gaztigatzen dituela mundu huntan berean, hekien izpiritua enganioan, itsumenduan erortzerat utziz, eta hori dela guretzat gaitz handienetarik bat.

Gaztigu hori egiten du bereziki urgulutsueri eta haren graziak sobra arbuiatzen dituzteneri.

Urgulutsueri.- Urgulua, hanpadura, Jainkoak oroz-gainetik hastio du. Hortakotz ikhusten ditugu aingeru gaixtoak, beren urguluagatik, ifernuko zolarat aurthikiak; ikhusten ditugu gure lehen burasoak, urguluz

bekhatu egin dutelakotz, lurreko parabizutik kanpo igorriak.

Urgulua da Jainkoaren kontrako jazartze guzietarik gaxtoena. Huntarik ageriko da errexki. Gu baithan ez da deus dohainik Jainkoak ezarririk baizen, ezen duela oraino zonbait urthe ez ginen, eta ez ditugu gure buruak guhaurek egin. Ala gure izaitea, ala gure izaitearen dohain guziak norbaitenganik heldu zaizkigu. Eta nor daiteke gure buruaren eta gure dohainen egile hura, baizik ere Jainkoa? *Ipse fecit nos et non ipsi nos.* (Psal. 99. 3.)

Balin bada beraz balio duenik gure gorphutzean edo gure izpirituan, guziak Jainkoari zor ditugu. Eta balitz norbait bertzek baino jakitate gehiago duenik, bertzetarik ikhasiak ditu, eta ororen buruan Jainkoa da bethi jakitate guzien ithurburua eta iguzkia. Eta bestalde nork eman derauzkigu ikhasteko indarrak eta ahalak? Jainkoak eman derauzkigu eta hura gabe ez ginuen sekulan demendren gauzarik ezagutuko.

Eta ez xoilki Jainkoak egin gaitu, bainan oraino iraunarazten gaitu, gorphutzean ala izpirituan; eta den gutienik uzten baginitu, berehala ezeztatuak ginitetzeke.

Beraz alde orotarik gure izaite guzia Jainkoarena da. Hortik, gure izaiteaz edo gure dohainez urgulutan sartzen garenean, berdin bertzeak arbuiatzen ditugunean, Jainkoari baxharrik zor den ohorea guretzat hartu nahi dugu eta ebasten bezala diogu, haren heinera eta gorago altxatzera ausartatzen gare.

Hola egin zuen Luziferrek bertze aingeru gaxtoekin, eta hortakotz jo ditu berehala Jainkoak ifernuko gaztigu eternalaz. Bai, urgulua da Jainkoari egiten ahal zaion jazartzerik borthitzena.

Eta horra zertako itsutzen dituen urgulutsuak. Itsutzen ditu gauzarik haudienean eta beharrean, Erlisioe sainduaren gainean.

Urgulutsuen aphaltzeko ez dezake Jainkoak igor gaztigu zuzenagorik. Ezen itsutuz geroztik Erlisioearen gainean, zer balio du gizonak? Iduri kanpo zerbait badela eta funtsean deusik ez. Jainkoaz eta Jainkoaren legeaz gabetua dena, balitu ere gainerako guziak, deusik ez da. Ba, nahi duzun bezenbat ontasun, kargu eta ohore, bainan horiek oro denbora labur batentzat beizik ez, eta laster guzietarik buluzia egonen. Jainkoaren ezagutzea, haren beldurtasuna eta haren manamenduen arabera bizitzea, hori da egiazko handitasu-

na, bizitze eternalerat deramana, eta hori ez duenak deusik ez du.

Jainkoak itsumenduan erortzerat uzten duen gizon edo emazte urgulutsua, hainbertzetaraino bere buruaz hartua da, non ez baitu nahi izan argitua ez bidatua bere salbamenduko urratsetan.

Ez Liburu sainduak, ez Elizako irakaspenak, ez hainbertze Dotor jakintsun mundua argitu dutenak, ez dire harentzat aski. Hekien aldean urgulutsu horrek ez dazki oraino *beabak*, eta bizkitartean aski derauka bere burua hekien guzien arbuiaitzeko, debalde uzteko, eta bere erlisionea berak egiteko. Ahanzten du, Elizaz kanpo jartzeaz geroz, ez dela salbamendurik.

Hain da urgulutsua non ez baitu bere burua aphaltu nahi zeru-lurren nausi soberanoaren aintzinean, ez da jarraiki nahi Jainkoak bere Elizaren medioz irakasten dituen sinesteri eta eginbideri. Eta maiz zertako? Edo diru poxi bat duelakotz, edo mintzaia zerbait badakielakotz, edo gehienetan gaizki bizi delakotz.

Horrelako jende batzu dire Jainkoaren kontra jauzten eta oldartzen. Eman dezagun, diren baino ere miletan gehiago direla sortzez, ontasunez, karguez, edozoin bertze dohainez. Zer erran nahi du horrek? Ez dakite bada Jainkoaren begietan handiak eta ttipiak

oro berdin direla, harek guziak ezdeusetarik egin dituela, guziak lur berean ustelarazten dituela; erregerik borthitzenak ifernurat berdin aurthikitzen dituela, hola badute merezi, eta eskale xumeenak zerurat altxatzen dituela, sainduki bizi izan badire?

Holako urgulutsua Jainkoak uzten du bere zoroke-riari, uzten du itsumenduan erortzera, halako moldez non bere sineste eta bere eginbidetan osoki makhurtzen baita, eta ez baita ohartzen, ez baitu ikhusten nola bethikotz galtzera dohan. Asko gauzetan menturaz jakintsun izanen da, bainan gauzarik beharrenan, Erlisionean eta salbamenduko eginbidetan, ez dakike hamar urthetako haur batek bezenbat, ez dute harek bezenbat ezagutzen zer diren ongiaren eta gaizkiaren ondorioak.

Jainkoak gaztigu hori egiten du oraino haren graziak sobra arbuiatzen dituzteneri.

Bekhaturat erori denean eta bekhatuan bizi denean, Jainkoak zonbait denboraz bai-eta frangotan denbora luzez, emaiten diozka graziak asko gisetara. Predikuez, barneko arranguez eta ausikiez, bertzeren eginkari onez eta irakasbidez, heriotzearen eta eternitatearen orhoitzapenez, konbertitzerat gomitatzen du.

Bainan bekhatorea guzieri jazartzen bazaiote, guziak arbuiatzen eta ostikatzen baditu, huts beretan aintzinago eta osokiago thematzen eta borthizten bada, ai azkenean bethetzen du neurria, eta geroztik Jainkoa eneatzen bezala da haren ondotik ibiltzeaz, khentzen diozka haren arima argitzen eta hunkitzen zituzten grazia bereziak.

Orduarte grazia berezi hek erraiten zioten ardura: Zer probetxu duk gorphutza hazkar izaitea, arima hila baduk? Zer probetxu huke mundu guziaz ere jabe-tzea, arima bethikotz galtzen baduk? Arima gal, oro gal!...

Eta bertze hainitz holako arrangura eta argi emaiten ziozkan Jainkoak, bainan azkenekotz urrundu eta ixildu da, bere gain utzi du bekhatore sordiesa.

Eta geroztik bekhatore hori aurkhitzen da ilhunben erdian. Ez du kasik urrats bat egiten ifernurat ez dohanik. Eta bizkitartean hura ez ohartzen! Hura bethi des-kantsuan egoki biderik hoberenean balitz bezala!

San Augustin harriturik zagon Erlisionearen etsai itsutu horiez. Bere izialduran oihu egiten zion Jainkoari: Oi Jauna, zoin gordea eta ezin ikhusia zaren! Goratasunik ixil eta lotsagarrienean bizi zare; eta guziz

nork erran dezake nolakoak diren gizon bihurri horien gainerat hedatzen ditutzun itsumendu-ilhupeak?

Ai! ilhunpe horiek hain dire beltzak non, horrela itsutuz geroztik, Erlisionearen etsaiek uzten baitituzte bide zuzenak eta sartzen baitire biderik galduenetan; eta balentria zaiote gaizkiaren egitea, eta gauzarik tzarrenetan bozkarioz jauzten dire. Eta nola egarri den jendeak ur hotza irets-ahal edaten baitu, berdin Erlisionearen etsai itsutuek ere bekhatuak nola-nahika iresten dituzte.

Ai hobe laiteke miletan Jainkoak bertze zer-nahi zigorradaz gaztigitzen balitu. Hobe laitezke hekientzat laidoak, diru galtzeak, eritasunak, bai-eta heriotzerik borthitzena; ezen orduan errextasun gehiago beizik ez lukete arimaren salbatzeko. Bainan itsumendu sordies hortan eroriz geroztik, non da salbatzeko bidea?

V - KAPITULUA

Irakurtzaileari zonbait elhe on

Erlisonearon kontra mintzo direnek ez dutela mila balio.- Gezurra bethi gezur.- Zer zoriona egiari jarralkitzea!- Sinestea- rekin obrak ere behar direla.- Girixtino egiazko guti!- Bainan, ooren buruan, onak izanen dire bakharrik dohatsu.

Liburu hunen laugarren zathian erran dut nola asko sinestegabek zer-nahi derasaten Erlisonearen kontra, eta gehienik merkhatuetan eta ostatuetan.

Nor dire bada eta zer dire hola mintzo direnak? Othe dire jende argitu jakintsun handi batzu? Othe dire jende prestu eta zuhur saindu batzu? Ai ez, ez. Kontralat, hek dire Erlisonea batere ezagutzen ez dutenak, edo bihotz galdu eta errebelatua dutenak; eta bethi kasik bi eskas horiez betan joak direnak. Askotan othoitzak berak ez dazkite, eskolako haur ttiki batek hobeki ezagutzen du bere katexima ezenez gizon espantu egile harek. Bainan ttiki baditu bere

jakitateak, handi eta borthitz ditu bere pasioneak. Eta nola Erlisione sailduak kondentzen baititu haren barneko edo kanpoko desordre hek, ai ez dezake jasan Erlisionea, nahi luke ezeztatu. Hortik hainbertze elhe gaxto, hainbertze gezur eta moldegaizkeria Ez du sosegurik, alhan du bethi bere mihi gaxtoa, galdu beharrez Erlisioneko irakaspenak, Erlisioneko jendeak, Erlisioneko gauza eta egitate guziak.

Zer zalapartak abere gazte bat uztarrian usatu behar denean, edo zaldi hezgaiz bat hezi nahi denean! Orobat ikhusten da pasione tzarrez hartua den jende haren baithan. Erlisione saildua uztarri bat bezala da, Jainkoak berak emaiten deraukuna gu xuxen joanarazteko; da oraino brida bat bentzutzen dituen gure pendura mutiriak. Eta nola abere harek, zaldi harek, nahi baititu xehatu uztarri hura, brida hura; orobat jende harek Jainkoaren manu-debekuak ezeztatu nahi ditu. Erlisione sailduak hertsatzen du; sobera zaizko esteka horiek; nahi da trabarik gabe ibili bere bide galduetan; eta hortakotz, ero hautsi eta trenkatu beharrez, ez dauke gaizki mintzatu gabe.

Ai urrikari izan behar dire eta hainitz urrikari hola mintzo eta hola bizi direnak.

Zer pentsa beraz hekien erranez? Gezurra diotela eta gezur gurietarik handiena. Ezen gezurra da egia-
ren kontra mintzatzea, eta zer da Erlisioa saindua
egia bera beizik? Erlisioa da Jainkoa bera guri min-
tzo zeraukana; eta Jainkoari berari kontrestatzen zaio-
nak, ageri da, gezurra dio.

Gezurtia ez dugu sinesten; bada Erlisioeko ira-
kaspeneren kontra mintzo dena gezurtaririk sordiesena
da; ez zazula beraz behinere sinets.

Egia orok maite dugu; orok estimatzen dugu bethi
egiaz mintzo dena; emaiten diogu gogotik gure fidan-
tzia osoa. Ai bada guziek ezagutzen dugu norbait oro-
ren gainetik bethi egia erraiten duena, eta hura da
Jesu-Kristo. Harek ez du irakasten, eta ez dezake ira-
kats egirik baizen. Hots beraz besarka detzagun
osoki gure Jainkoak irakatsi egia guziak. Ez dadiela
sekulan Eskualdun bakhar bat izan, sineste katolikoar-
i deusetan ukho egingen dionik.

Nor-nahik zer nahi erranik ere, Jesu-Kristoren
manu debekuak izanen dire bethi egiak. Zerua eta
lurra iraganen dire, bainan Jaunaren hitzak ez dire
sekulan iraganen. Jarraik beraz gure Jainkoaren ira-
kasmen eternal horieri; ez batzueri xoilki, bainan
guzieri, ezen guziak berdin eternalak dire; eta guziak

eternalak direlaketz, guziek elgarrekin behar gaituzte eternitate dohatsurat helarazi; halako moldez non, bat baxharrik ukhatzen baginu, haren eskasean bethikotz gal baiginitezke.

Bertzela ere zer zoriona guretzat, egia eta sineste eternalen gainean bermaturik eta osoki jarririk bakean egoitea! Han bethi izpirituko eta bihotzeko segurtamena; han zerurateko bide xuxena eta zelaia: han egiazko deskantsu gosoak orai beretik. Ai ez baita ez berdin gizonen erranez eta irakazmenez! Gizon hoberenak harat-hunat frango badabila bere elhetan urthe batetik bertzera. Zer daiteke bada gizon sineste-gabeaz? Huni jarraikitzen dena, itsu bati jarraikitzen da. Eta nola itsuak eskuin eta ezker norat-nahi joiten baitu, berdin harek ere badabiltza behaztopa frango. Sekulan harentzat bide segurrik. Egun beltz eta bihar xuri, haizearen pare bethi itzulika dabila. Horrelako gizon fedegabe batek erraiten zuen bere azken egunetan: Opinione bezenbat hoitxineko izan banitu ene bizian, etxea urhez bethea nuke.

Oi dohatsu miletan gu guziak, Eliza katolikoaren besoetan sortu garenak. Gure Erlisioe saindu horrek bethi egia berez argitzen eta hazten gaitu. Ordainez

guk ere bethi haren irakasmen guziak osoki besarka eta maita detzagun.

Aski othe da sinestea?- Ez, sinestea ez da aski. Alferretan erranen duzu egia guziak sinesten dituzula, ez badituzu egiten sineste horrek manatu urratsak: *Quid proderit, si fidem quis dicat se habere, opera autem non habeat?* (Zac. 2.) Zer da gorphutza, arima gabe? Gorphutz hila. Orobat fedea obrarik gabe, fede hila: *Fides sine operibus mortua est.* (Zac. 20.)

Baduzu sehi bat; erraiten derakozu: holako eta holako lanak egin zaitzu egun. Sehiak ihardesten derauzu: Ezagutzen zaitut bai ene nausitzat, eta ikhusten dut zuhurki mintzo zarela, baina ez dut nik egun hunkituko lanik. Zer erran zinezake holako sehiak? Ez duzula haren beharrik! Eta kanporat eman zinezake. Deus onik egitekotz, sehi batek behar ditu, ez xoilki gogoz sinetsi bere nausiaren erranak, baina oraino eskuz obratu. Berdin gutaz. Salbatzekotz ezinbertzea dugu, lehenik osoki sinestea Jainkoaren irakaspén guziak, eta gero obratzea eta egitea.

Bestalde ez da aski batzu egitea eta bertzeak bazterrerat uztea. Oraxteko sehi horrek berak erraiten balu nausiarri: Lan horiek ez dire guziak ene gustuko; hau egingen dut, baina hura ez; horrat joanen naiz,

bainan harat ez... uste duzu nausiak onets lezaken? Nik ez dut uste. Holako elhe guti behar luke kanporat joateko eta sekulan gehiago etxe hartan ez sartzeko.

Bada gu zer gira? Jainko handiaren egiazko sehiak; eta atxikiak gare Nausi soberano horren manu guzien bethetzerat. Ez da beraz guri manamendu baten onesta eta begiratzea, eta bertze baten uztea eta haustea. Guziak behar ditugu onetsi eta guziak begiratu.

Fedeak ez du gu baithan izan behar gauza alfer bat, gauza hilik dagoen bat. Egia da sinetsi gabe deus ez dela egiten salbatzeko, bainan berdin egia da sineste hori bera deusik ez dela non ez den obretan emaiten. Konparantza bat egin dezagun. Herri urrun batetara abiatua zare, eta nola ez baituzu ezagutzen bidea, lagun bat, gidazaile bat hartu duzu zurekin. Biderditan lagun hori eritzen zaizu eta hiltzen. Hila izanagatik, aldean duzu oraino zure gidazailearen gorphutza. Eta bizkitartean ez othe da egia galdu duzula zure laguna eta ez duzula gehiago gidazailerik? Nolaz bada? Ai gorphutz hori bera ez baita deusik, ez baita zure bidatzeko gai.

Berdin dago Fedeaz. Jainkoak eman derauku Fedeaz gure bidatzeko lurretik zerurat, helarazteko

denboratik eternitate dohatsurat. Bainan ohart huni; apostoluak dio obretarik heldu dela Fedearen bizia, eta nola gorputz bat hila baita arima galduz geroztik, berdin hiltzen dela Fedea obretarik gabetua den ber: *Sicut corpus sine spiritu mortuum est, ita et fides sine operibus mortua est.* (Jac. 2, 26.) Zure sineste hil horrek ez zaitu gehiago zerurat bidatzen ahal, ez zaitu sekulan eternitate dohatsurat helaraziko. Hala-nola bidelant itsua ez baititeke joan aintzina bere gidaria galduz geroztik, zuk ere ez duzu demendren urratsik egiten ahal obragabezko sineste hilarekin. Debruak ifernuan badu bai sinestea, bainan deiagoraz eta marrumaz dago, zeren-eta sineste alfer hura ez baitzaio baliatzen ahal: *Et daemones credunt, et contremiseunt.* (Ibid.)

Hainitz galtzen direia, sinestea izanagatik, obren eskasean?– Ondikotz bai asko eta asko holaxet galtzen dire, ez federik ez izanez, bainan fede biziaren orde, fede hil eta alfer batean egonez. Aski duzu zure ingurunean behatzea; oxala zeronek ez bazinu holako zorigaitzik! Ikhus beraz zer kalte handiak egiten dituen fede hil horrek zure baithan edo bertzen baithan.

Non dute egiazko fedea hainbertze girixtinoek: jakin edo behar jakin salbamendua dela hekien egiteko baitezpadakoa, hekien entsegu guziak nahi dituen, eta hartaz, gauzarik ezdeusenaz bezenbat ere, ez baitute artha egiten; oro su eta lama lurreko ontasunentzat, munduko jostetentzat, gorphutzeko atseginentzat, bainan lazo eta ez-axola Jainkoarentzat, arimarentzat eta eternitatearentzat. Bertze lan presarik bada, othoitz baten egiteko astirik ez; egiten direnak ere, molderik gabe. Sakramenduentzat eta bertze ditugun salbatzeko laguntza sailduentzat, deus lehiazarik. Hitz batez, erraiten fededun garela eta bizkitartean deus guti egiten salbatzeko, zer da hori baizik ere sineste hila eta alferra? *Quid proderit*, zer baliatuko zauku?

Fedeak erraiten du: Jainkoa oroz gainetik behar dugula maitatu, eta hori dela manamendu guzietarik handiena. Sinesten duteia hori, hainbertze mundutiarrek, zoinentzat ez baita iganderik ez bestarik? Elizan sar-jalgi zerbait eginik ere, Jainkoaz baino miletan gehiago orhoituak eta hartuak baitire beren libertimenduez eta barreiamenduez? Ez baitute ametsik eta surik beren gogorako bilkhurentzat eta bekhatuzko

bidentzat beizik? Horiek menturatzan ahal othe dire erraiterat egiazko fedea badutela? Obrak lekhuko!

Bertze hainitzek miletan entzun dute urgulua bekhatu guzien ithurburua dela, Jainkoak ez duela deusik hala arbuiatzen, hortik heldu dela gure salbamendua-
rentzat trabarik gaxtoena. Eta bizkitartean ez dezake-
te aski pentsa beren buruaren goratzeko eta hanpa-
tzeko. Hortara dohazi hekien elhe, beztitze eta higitze
guziak. Beha dezazun hekien etxeari, hekien familiari,
hekien soineko aphaundurari, ez duzu bertzerik ikhusi-
ko agertu beharra beizik, bertzez gorago altxatu nahia
beizik. Beren burua dute aldare gainean ezarri, eta
goiz-arrats isentsu kolpeka eta agurka ari zaizko. Non
dute fedea?

Jondoni Paulok erraiten derauku ez dela girixtino-
en artean aiphatu behar ere lohikeriaren izena. Egia
hori sinesten othe dute hainbertze gizon ez-axolek;
hekien mihiak ez baitu botatzen elhetzarrik baizen; ez
baitire bilkhura batean agertzen ahal, non ez dituzten
guziak izurrizatzen? Hortan baratzen balire! Bainan
ez; elhetan bezala, obretan ere tzarkeria eta eskanda-
la dariote; hek dituzte herrietan ibiltzen asko dantza
lizun eta josteta ahalgegarri; hek dituzte arima ino-

zentak gaizkirat elemeniaka aurthikitzen. Ageri da horiek ez dutela egiazko federik.

Hitz batez non dute sinestea girixtino hek guziek, zoinek jakin bekhatu mortal bat aski dela ifernurat erortzeko, eta bizkitartean bekhatusa ura bezala iresten baitute? Badakite noiz-nahi hiltzen ahal direla, ez dutela oren bat segurrik, eternitatearen hegi-hegian direla gau eta egun; eta hargatik deskantsu daude ilhabeteak eta urtheak bekhatu mortalean! Herioak, ohoin baten pare, gutienik ustean harrapaturen ditu; eta hori berek ikhusten dute; baina ez dire onerat itzultzen, zoramendu ikharagarri batekin irriskatzen dute beren sekulako eternitatea. Egiazko fedea othe dute horrelakoek?

Ai! ez da kasik gehiago federik lurraren gainean. Ttipiak eta handiak, oro beren zeiharretan dabilta. Gut, arras guti, egiazko sinestearen bide xuxenari jarraitzen denik. Hortakotz, obrarik gabeko fede hila beizik ez dutelakotz, erran diteke asko arima galtzen direla.

Obragabeko girixtino horiek, sineste gabeak bezenbat mintzo dire maiz Erlisionearen kontra. Batzueri eta bertzeri erran behar diotegu Liburu Sainduekin: Ixil beitez zuen solas hanpurutsuak; zuen aho-

tik gibela beitez elhe zoro eta gezurti horiek, ezen itsu batzu zarete eta deusik ez dakizue. Jainkoa da bakharrik jakitate guzien nausi eta jabe, eta harek ez dakien ezagutzarik ez da.

Egia bera den Jainko handi horrek bidatuko ditu fededunen urratsak; sineste zuzenetan zainduko ditu, eta egun batez altxaturen desterruko herrautsetik zeruko ospe eta distirantza ederretarat. Bainan zuek, sinestegabe sordiesak, ai galduko zarete, ezen Jaunak jujatuko ditu lurreko lau izkinak, eta bere etsai guziak ihurtzuri kolpeka xahutuko ditu.

Eta azkenean entzun zazu zer dion neurthizlariak:

Saindu edo bekhatore
Gizonaren bizia
Amets arhin baten pare
Suntsitzen duk guzia;
Justua duk hegaldatzen
Bozki zeruetara,
Gaxtoa zuzenki jausten.
Ifernuko leizera.

VI - ZATHIA

**Aita-Saindu Leone hamahirugarrenak
oraiko behar orduentzat
eskeintzen deraukun sendagailua**

I - KAPITULUA

Aita Sainduaren hitzak

Jainkoak zer asmatu duen gizon bekhatoreak bereganat biltzeko.- Hortarakotz emaiten derauzkigun laguntzak.- San Frantses Asisakoa.- Heren-Ordrea.- Zer indarrak eta probetxuak!- Leone hamahirugarrenaren gomitu hunkigarriak.

Jainkoak zertako athera gaitu ezdeustasunetik? Zertako egin gaitu? Zertako eman derauku gure izaitea?

Huna zertako.

Jainkoa bethidanik dohatsu zen bere baithan, eta haren dohatsutasuna izarigabea zen eta nasaia. Bainan haren bihotzari ez zitzaion aski bera baxharrik dohatsu izaita; nahi zuen bertzeri ere dohatsutasun hori gozarazi. Eta hortakotz egin zituen gizonak.

Hori da beraz gizonen helburua eta azken xedea: lur huntako bizi laburraren ondotik igaitea Jainkoarenganat, Jainko haren dohatsutasunaz beraz gozatzeko.

Bainan zer gerthatu zen? Gizonak egin zuen bekhatu. Eta bekhatu horrek hautsi eta trenkatu zuen Jainkoaren nahikundea, bethiereko zorionerat helarazi nahi ginituen nahikunde hura. Gizona baztertu eta zehartu zen bere bidetik, Jainkoaganako bidetik. Eta Jainkoaren dohatsutasunerat lehiatu behar orde, harenganik urrun zabilan. Ez urrun xoilki, bainan oro bihurrik eta gaizkirat itzulirik, bazohan leizetan behera, bekhatuz bekhatu, bethiereko zorigaitzerat.

Halarik ere Jainkoak ez du etsitzen eta huna zer asmatu duen gizonak berriz ere bereganat biltzeko.

Bera gizon egiten da, gure izaite xume eta eroria hartzen du, beretzen du, Jainkoa bezain gora altxatzen du; eta kurutze baten gainean, bere odolaz eta heriotzeaz, zerua berriz ere idekitzen derauku.

Ba bainan zero eder hartarat heltzeko behar ditugu laguntzak, indar bereziak. Jesu-Kristok berak eman derauzkigu laguntza eta indar horiek, ezen irakatsi derauku sinetsi behar dugun egia, eman derauku atxiki behar dugun legea, establitu izan ditu grazian ezarri behar gaituzten eta aberastu behar gaituzten

sakramenduak; eta, dohain horien guzian gutartean bethi iraunarazteko eta emendatzeko, asentatu izan du gure Erlisioe saildua, Eliza katolikoa.

Eta orai, ohar huni: Jesu-Kristok berak eman laguntza eta indar horietaz bestalde, bertze laguntza eta indar batzu badire Izipiritu-Sailduak asmatzen eta agertzen dituenak Elizaren bidez, mende baxhotxaren beharordu berezien arabera. Eta han-hemenka agertzen diren laguntza berezi horien artean, handienetarik bat izan da bethi Saildu batek edo bertzeak emaiten duena.

Nor orthe dugu Elizak oraiko denbora hits hotan irakasten deraukun Saildu laguntzailea? Hura da San Frantses bere Heren-Ordreko grazia bereziakin.

Hamabigarren mendean sorthu zen San Frantses Asisakoa. Mende hori behinere izan den tzarrenetarik bat zen. Bainan Jainkoak ez du sekulan ahanzten bere Eliza saildua, eta holako denbora gaxto etsituetan igortzen du bethi norbait langile indartsu, eta langile hori aski da leizetik atheratzeko mende tzarrenak eta jendaki galduenak.

Hola zen gerthatu hamabigarren mendean.

Egun batez, gure Saildua othoitzean dagoelarik, Jesu-Kristok berak erraiten dio: Zoaz eta altxa zazu

ene etxea, ene Eliza maitea, ezen ikhusten duzu nola erortzera dohan.

San Frantses berehala lotzen da lanari. Biltzen ditu lagunak eta erraiten diote: Jainkoak ez gaitu xoilki gure arimen salbatzeko deithu, baina oraino bertze hainitz arimen salbatzeko.

Goazin beraz herriz herri, eskale batzu bezala, oinekorik gabe eta piltzarrez beztiturik. Eta nola Jesu-Kristok mundua salbatu izan baitu kurutzeko bere oinazez, berdin guk ere arimak salbatuko ditugu gure bizitze ahal eta garratzaz.

Ai beha zazue zer desmasiak dabilzaten bazter guzietan urguluak eta lohikeriak. Ala erregek, ala aitoronsemek, ala jende arruntek ez dute bertze ametsik, baizik ere urgulua eta lohikeria.

Hitz batez, oro galtzen ari dire eta Elizak uzkaitez rat dohala iduri du.

Guri da guri, gaitz horien sendotzea eta Elizaren laguntzea; eta hortarakotz jarraik gaitezen Jesu-Kristoren erranari: Ez dezazula izan ez urherik, ez zilharrik, ez dirurik. Bidean zabiltzalarik ere, ez dezazula izan, ez soinekorik, ez oinetakorik, ez-eta makhilarik.

Xede handi eta eder horren ariaz, san Frantsesek egin zituen lehenik bi Ordena, bat gizonentzat eta ber-

tzea amazteki entzat; eta hekien bidez komenturat bildu zituen hainitz arima eder eta garbi.

Ba bainan munduko jende guziak ez zitezken sar komentuan!

Munduko jende gaixo horien probetxutan huna zer asmatu zuen san Frantsesek: munduaren erdirat hedatu zuen komentuko bizi-moldea. Eta nola? Heren-Ordrea asentatuz eta munduko beharren arabera moldatuz.

Hamabi ehun eta hogoi eta batean (1221) Tozkaneko herrialdetan ari zen san Frantses misione emaiten. Eta han aurkitzen du gazte denborako adiskide min bat, Lukesio. Adiskide hori Frantsesen predikuek hunkitzen dute. Ez zen orduarte hoberenatarik eta guziz sobra estekatua zen lurreko ontasuneri. Bainan Sainduaren elhe sarkhorrek halako azote zartaz joiten dute non bere bekhatuen lotik ihazartzen baita. Diruaren esteka guziak trenkatzen ditu, badoha san Frantsesengana eta erraiten dio: Oi ene Aita, niri eta nere amazteari emaguzu bizimolde berri bat, nahi ginuke Jesu-Kristori hurbilagodanik jarraiki.

Gogo onez emanen derautzuet, ihardesten diote Sainduak, ezen aspaldian hirugarren Ordena baten asmua buruan derabilat. Ezkondueri eta munduko

jende suerte guziera irakatsiko diotet Perfetasunean ausarki aintzintzeko bidea.

Lukezio eta haren emaztea Bona-Dona, jarri ziren lehenik Heren-Ordre hortan.

Laster Italian, Frantzian, Alemanian, Espanian, Europako eskualde guzietan, zer nahi jende, aberatsak nola erromesak, elemeniaka Ordre berrian sarthu ziren. Hainbestetaraino non Elizaren etsai batek, Piarra de Biñek, Elizaren bertze etsai bati, Frederik Alemaniako enperadoreari igortzen baitzion: Ez da nihor Ordena hortako ez denik. Armada handienak baino kalte gehiago egiten derauku, Heren-Ordreak ezen bihotzak oro guganik urruntzen ditu eta osoki emaiten Elizari eta Erromako Aita-Sainduari.

Huna zonbait xehetasun. Irakatsiko deraukute Heren-Ordreak ez duela sekulan bere heinekorik izan.

Heren-Ordreak Elizari eman ditu lauethanogoi eta hameka Saindu; eta bertze hainitz, aldaretarat igaiteko bidean eta heinean direnak.

Bestalde, berrogoi eta bortz Martir baditu Heren-Ordreak.

Ez daiteke erran zonbat eta zonbat jende handi Heren-Ordreak mendez mende bere galtzarre saindurat bildu dituen. Behinik-bat haren haurretarik izan

dire berrogoi eta lau Aita-Saindu, ehun eta hogoi eta hamar errege eta erregina, sei ehun printze baino gehiago.

Erromako Aita-Sainduak bi mila gutun edo manamendu Eliza guziari igorri dituzte Heren-Ordrearen hobeki ezagutarazteko eta maitarazteko.

Bi kontzilio handiek, Vienekoak (1309) eta Latranekoak (1512), onetsi dute; hitz eder eta nasaienez aipatu eta goretsi dute.

Aita-Saindu Gregorio bederatzigarrenak laidostazten eta kondenatzen ditu Heren-Ordreari jazartzen diren buru makhur eta gaxtoak. Eta bestalde gorakid dio bekhatu mortal bat egiten duela nork ere Heren-Ordrean sartzetik nor edo nor gibelatzen baitu.

Xehetasun horietarik ageri da san Frantsesek ez dituela alferretan asentatu bere hirur Ordenak, bat komentuetan gizonentzat, bertzea ere komentuetan emaztekientzat, eta azkena munduaren erdian girixtino guzientzat.

Ezin sinetsia da kasik zer arima andanak sarthu diren hirur Ordena horietan. Hamasei ehun eta lauetanhogoiean san Frantsesen komentuek bazerauzka-

ten bildurik: ehun mila gizon eta berrogoi mila emazteki.

Eta zer erran Heren-Ordreko haurren elementiaz? Heren-Ordreak berak bazituen, doblezka eta doblezka, bertze bi Ordena handiek baino gehiago.

Ez da beraz espantitzeko baldin Elizaren etsai harek erraiten bazuen Alemaniako enperadoreari: Nihor ez da Heren-Ordrean sartzen ez denik; harmada handienak baino kalte gehiago egiten derauku Ordena horrek, ezen guganik urruntzen ditu bihotz guziak eta Erromako Aita-Sainduarengat itzultzen.

Egungo egunean ere Eliza katolikoa, sekulan ez bezalako hersturetan aurkhitzen da; Heren-Ordreak behar gaitu errekatik altxatu.

Girixtinoek berek ez dute gehiago deus sinesterik, edo bederen ez balute bezala bizi dire. Hainitzek ukho egina diote Jesu-Kristori eta zeruari. Oro pulunpatuak gorphutzeko atseginetan, lurreko ontasunetan, urguluzko hanpaduretan; ez Jainkoa, ez ifernua, ez eternitatea, deusik ez zaizkote. Bizi labur huntan derauzkate bihotzak aserik, ez dire orhoitzen ere hil ondoko ethorkizunaz: *Oculos suos statuerunt declinare in terram* (Psalm., 16, 11).

Heren-Ordreak behar gaitu hobi horren barnetik xutiarazi, gure begiak zeruko alderat altxatu, gure gogoak eta bihotzak garbitu, goratu, Jainkoaren bait-han finkatu. Eta hortarakotz gutarik bakhotxak ikhas dezala bere buruari jazartzen, ezen pairatu gabe, bortxamenik jasan gabe, Jesu-Kristoren kurutzea kharreiatu gabe, ez da sekulan gure mendea leizetik atherako. Hortakotz, Penitentziaren ordena erraiten diote Heren-Ordreari.

Oraiko Aita-Saindu guziz argituak, Leone hamahirugarrenak, erregela berri bat eman dio Heren-Ordreari. Eta zertako? Nahi baitu gehiago eta gehiago emenda dadien; nahi baitu guziek, gizonkiek ala emaztekiek, Ordena balios hori besarka dezaten, maita dezaten, harek irakatsi bidetan sailduki ibil ditezen.

Duela hiruretan hogoi eta hirur urthe, bertze Aita-Saindu batek, Leon Hamabigarrenak, Elizarentzat asko entsegu eta lan handi ibili ondoan, erraiten zuen:

«Osoki bethe ditugu gure eginbideak. Zerutik emana zeraukun botherearen indarrez ideki diotzategu guzieren Jaunaren ontasunak. Jendaia girixtinoak othoiztu eta errekeritu izan ditugu ethor ditezela Salbatzailearen ithurburuetarat, eta lehia ditezela bethie-

reko bizia dakharketen ur aberatsetan edatera, nazai-ki asezera. Bizkitartean zer balio lukete gure egin ahal guziek, batbederak ez balu gure gomituari ihardesten? ez balu bere arimaren salbatzeko nahikunde hazkar bat agertzen?»

Aita-Saindu horrek bezain ongi edo hobeki, Oraiko gure Aita-Sainduak ere erraiten ahal derauku: Bethe ditugu osoki gure eginbideak: irakatsi dantzuetegu zer bidez athera zaitezketen errekatik. Hanbat gaxto ez bazarete baliatu nahi!

Ezen, gainerateko hainitz lan handi eta ospagarriez bestalde, Leone hamahirurgarrenak gure mendeko jendaia guziera eskeini diote san Frantsesen Heren-Ordrea, hala-nola itsasoan ithotzerat dohanari laguntza eskeintzen baitiote leizetik kanporatzeko.

Orhoit gaitezen Izpiritu-Saindua bera, egiazko Zuhurtzia, Trinitateko hirugarren Presuna, mintzo zeraukula Aita-Sainduaren ahoz eta harek gaituela Heren-Ordrean sartzerat gomitatzen.

Bai, dio Salomonek bere Erran-Zaharretan, kanpoan, goraki, guziek entzuteko moldean Zuhurtziak adiarazten derauku bere hitza: Jende osteen aintzinean dago oihuz, ez da gordetzen, hiri handienetan ere ozenka altxatzen ditu bere solasak, diolarik:

Noiz artean jarraikiren zarete haurkeriari? noiz artean, arhin eta zoro, bilhatuko ditutzue urrats eta gauza kaltekorrak? noiz artean itsuek arbuiatuko dute egiazko argia, Jainkoaren irakasmena?

Entzun beraz guziek ene gomitua eta niganat itzul! Horra non duzuen leizetik eta osinetik atheratze-ko bidea, san Frantses ene adiskide minak asentatu duen Heren-Ordrea.

II - KAPITULUA

Heren-Ordreko erregelaren gainean xehetasunak

Ordre hortan sartzeaz.- Abituaz.- Profesionez.- Othoitzez.- Barurez eta penitentziez.- Amoinaz.- Jarraikitasunaz.- Karguez, bisitaz eta erregelaz.- Porzionkulako barkhamen handiaz.

I.- ARTIKULUA.

San Frantsesen hirugarren ordenako erregela: Haurride berrien hartzeaz eta moldatzeaz. Aita-Sainduaren hitzak

1. Ez diteke nihor sar Hirugarren Ordenan hamalau urtheak betheak izan gabe; ez eta bizitxe eta aztura onak ez dituen bat; unionearen adixkide, fede katolikoaren atxikitzaile leial, Eliza Erromanoari eta Sainduari osoki sumetitua dela ezagutua ez den bat.

2. Emazte ezkonduak ez ditezke errezebi senarraren ixilik eta harren baimenarekin beizik: non kofesorak ez duen, kasa batzuetan, bertzela jujatzen.

3. Hirurgarren Ordenako menbroek, garraiatuko dule usaiako eskapulario edo abitu ttikia eta korda; ez lukete berzela zuzenik Ordena hortako ontasunetan.

4. Hirurgarren edo Terzieren Ordenan sarthuko direnek eginen dute urthe baten nobiziata, hori da frogantza; gero deitzen dituztenean, ohi den bezala, profesionerat, hitz emanen dute Jainkoaren manamenduak begiratuko dituztela, Elizari obedituko diotela, eta beren profesionearen, erran nahi Erregelaren kontra zerbeit hutsetan erortzen badire, errana izanen zaioten satisfazionea eginen dutela.

Xehatasunak:

1.- Heren-Ordrean sartzeaz.

- Heren-Ordrea guzientzat denaz geroztik, nor-nahi hartan sar othe daiteke?

Bai, nor-nahi sar daiteke Heren-Ordrean, baldin erregelak galdatu dohainak biltzen baditu.

Dohain hek dire: 1° *Bizimolde ona*, fama gaxtorik gabekoa eta ohidura tzarrik ez duena.- 2°, *Jite ona*,

eta ez gaitzikorra, borthitza, nahasia.- 3° *Jarraikitasuna*, Erlisioneak nahi dituen urrats premienetan bederen,- 4° *Jauspena* edo *obedientzia* Erromako Eliza eta alkhi sainduaren alderat.

Elizaren eta Aita-Sainduaren alderako jauspen oso hori Heren-Ordreko seinale eta agergailu berezia da.

-Heren-Ordrean sarthu nahi denak zer egin behar du?

1° Herrakunderik balin badu, baketu behar da; eta balin badu zorrik, hek behar ditu pagatu, edo pagatu-ren dituelako segurtamenak eman.- 2° Heren-Ordreko buruzagi bati mintzatu Ordena hortan sartzeko duen xedeaz.

- Zer egin behar da gero?

Nola Heren-Ordrea egiazko Ordena bat baita, ez da hain errex hartan sartzea nola gainerateko bertze elgartasun edo konfraria ardurako batzuetan. Hala-nola komentu hertsientzat, hemen ere baxhotxak denbora poxi batez irakatsi behar du gai den ala ez Ordena hortan irauteko. Eta hori da Nobizioa.

Nobizioaren egiteko baliatzen da Abituaren harztetik eta Profesionearen arteko denboraz. Urthe bat osorik iraun behar du. Eta arte hortan, batbederak

Erregela ikhasten du eta ibilkatzen artharik handienarekin.

Nobiziako denboran, Ordenako probetxu, grazia eta barkhamen guziez baliatzen ahal da.

II.- Heren-Ordreko abituaz.

- Zer da abitu hori?

Heren-Odreko abituak nahi ditu, 1° ilezko eskapulario bat, hauts kolore edo gaztena kolore; 2° ilezko edo kalamuzko khorda bat, skapularioa gerrian inguratzen eta biltzen duena.

-Abitu hori ekharri behar othe da bethi?

Baitezpada ekharri behar da, ez galtzekotz Ordenako probetxuak. Beraz soinean atxiki behar dugu gau eta egun. Bizkitartean, ezinbertzez edo eritasunez, utz daiteke arte labur batentzat.

-Zer izariko, zer heineko behar du izan abitu horrek?

Khorda gainetik ingura daiteken luzetasuna behar du. Eta baldin ttipiago baten ekhartzeko baimena balitz, behar luke zehe eskas baten luzetasuna eta zabaltasuna.

- *Hein bereko soinekoa ekharri othe dute bethi Heren-Ordreko haurridek?*

Ez; hastapenean oinetaraino jausten zen, josturarik gabe gerrian eta khorda batez inguratua erraintan.

-*Egungo egunean ere haizu othe laiteke soineko oso horren ekhartzea?*

Bai, lau gerthakari hotan ekhar daiteke: - 1° Haurridegoako biltzarretan;- 2° profesionetan, hilehorstetan, hitz batez Haurrideak elgarrekin dabilzan Elizako zeremonietan;- 3° buruzagien baimen berezi batekin;- 4° hil ondoan, ehortziak izaiteko.

III.- Profesioneaz.

- *Zer da Profesionea?*

Profesionea da Erlisioezko berthutearen eginkari bat; eta eginkari horren bidez fededuna Jainkoari emaiten da bere hautuz Heren-Ordrean, hitzemaiten duelarik Jainkoaren eta Elizaren manamendueri jarraikiko dela.

Barkhamen osoa irabazten da Profesioneko egunean; bai-eta asko izkribatzailek erraiten dute eginka-

ri horrek ezartzen gaituela Bathaioak bezala osoki garbiturik.

- Profesione hori botu bat othe da?

Ez da botua. Da xoilki hitzemaite berezi bat; eta hortakotz ez gaitu bekhatuaren penan hertsatzen. Halarik ere, saindutzeko bide hoberenatarik da, Elizaren begietan ondorio egiazkoak baditu, eginbide bereziak manatzen derauzkigu eta emaiten probetxu frango.

-Zoin dire Profesioneak emaiten derauzkigun probetxuak?

Profesionearen bidez, Heren-Ordreko haurrideak San Frantsesen ume egiten dire, hala-nola bi lehen Ordena handietako anaiak eta arrebak, Frantsiskanoak eta Klarizak.- 2° San Frantsesen Ordena guziko merezimenduetan phartedun jartzen dire;- 3° Erregelak manatu othoitzak erraitearekin, Eliza guziaren mandatari bezala dire.

- Gaztigurik ba othe da Profesioneari hutsik egiten dutenentzat?

Bai. Nork ere Jainkoaren eta Elizaren manamenduak eskandalarekin kolpa bailezazke; eta berdin Bisitorak eman penitentzia niholere egin nahi ez lukeena;

horrelakoak khen daitezke haurridetasunetik, bai eta Ordenatik.

II.- ARTIKULUA

Heren-Ordreko othoitzak.-

Barurak, bertze penitentztak.-

Amoinak.-

Erregelaren ongi atxikitzeko bideak.

Bizitzeko maneraz.

1. Terzierek beren beztitzeko maneran bazterrerat utziko dituzte urguluzko xedez mundutarrek egiten dituztenak, eta begiratuko bakotxak bere kondizio-
nean, modestia sailduaren erregelak.

2. Atzartasun handienarekin urrundu beharko dire bala edo dantzetarik, komedia lanjerosetarik eta bil-
kura libertinetarik.

3. Jan-edanetan maithatuko dute arruntasuna eta geldituko dire izarian: debotki eta esker onezko senti-
menduekin Jainkoa othoiztuko dute apairuen aintzi-
nean eta ondoan.

4. Barur eginen dute Mariaren bekhatirik gabe Konzebizioeko besta bezperan, eta San Frantses Patriarkaren besta bezperan. Terzieren leheneko Erregela zaharrak ematen duena segituz, nahi badute, ortziralez barur eta asteazkenez mehe egin, hainitz dituzte laudagarri.

5. Hilabete bakoitzean luzenaz beren bekhatuak kofesatuko dituzte; hilabete guzietz bederen mahain saindurat hurbilduko dire.

6. Terzier, Ordena sakratuetako ofizioa egun guzietz erraten dutenek, ez dute pondu hunen gainean bertze egitekorik; bainan edo Elizako ofizioa edo Ama Birjinaren ofizio ttikia erraten ez duten guziek erran beharko dituzte egun guzietz hamabi *Pater, Ave, Gloria*, ez badire ezin erranezko gisan eri.

7. Testameta eta ordeinua egin dezaketan guziek egia behar dute denbora deno, luzatu gabe.

8. Etsenplu ona eman dezotela Terzieren beren familian, debozinezko praktikak eta obra onak besarkatuz. Ez dute beren etxetan sartzerat utziko berthutea kolpa dezaken liburu eta gauzetarik, eta beren menekoak gibelatuko dituzte horrelako irakurtzetarik.

9. Artharekin atxikiko dute elkharren arteko eta guziekilako unionea, karitatea, batasuna. Egin ahalaz baketuko dituzte aharra eta hasarregoa guziak.

10. Zinik ez dezatela sekula egin, beharrez beizik. Ez dute elhe desonestik erranen, ez eta trufa konbeni ez direnik. Arratsean, kontzientzia etsaminatuko dute hea holako hutsetan erori othe diren, eta hobendun kausitzen badire urrikitan sarturik egin dezatela hobe-ki.

11. Errexki ahal badute, entzunen dute egun guziez Meza saindua. Aitzindariak markatu hilabeteko biltzarretan aurkituko dire.

12. Bakotxak bere ahalaren arabera eman ez zerbait diru, eginen da moltsa bat, Haurride errumesenen laguntzeko guziz eritasunetan, edo Elizako ohore eta beharrentzat.

13. Minixtroak joanen dire Haurride erien bisita-tzerat edo norbeit egorriko dute karitatezko obra hori betheko duena. Eria lanjerian denean emanen diozka-te behar diren abertimendu eta kontseilluak, denbora deno har detzan azken sakramenduak.

14. Herriko eta han gertatuko diren Terzier guziak kausituko dire Haurride hilaren ehorzteko ofizioan; hilaren arimaren sokorritzeko erranen dute Patriarka

San Domingok irakutsi Arrosarioaren herena, bortz hamarreko. Apezek Mezan, eta bertze Terzierek ahalaz Komunione sainduan, othoitz eginen dute joan Haurridea sar dadin bake Eternalean.

Xehetasunak:

- Erregela hori ez othe da kargatuxkoa?

Ene arabera ez! Eta hori baxhotxak errexki ikhus dezake. Ezen, urtheko bi barur eta egun guzietako othoitz bakhar batzuez kanpo, Erregela horrek ez du deus manatzen, baizik ere xoilki bizitze girixtino arruntenak orori manatzen duena. Eta oraino, barur eta othoitz horiek ere bertze zerbaitetarar alda daitezke, baldin osagarriak edo bertze arrazoin egiazkoek hala nahi badute.

Amoreagatik eta guziek agerian ikhus eta har dezaten Erregela hori, hirur zathietan emanen ditut xehetasunak: 1° Othoitzaren gainean; 2° Baruraren gainean; 3° Amoinaren gainean.

Othoitzaz.

- Zer erran nagi du hemen hitz horrek?

Lau gauza erran nahi ditu: 1° Ofizio saindua; 2° Meza egun guzietan, ahal delarik, entzutea; 3° Aphairu aintzin eta ondoan othoitz egitea; 4° Ilhabetean behin kofesatzea eta komuniatzea.

- *Erregelak zer ofizio manatzen du?*

Aphezentzat aski da beren Brebiarioa, deus gaine-rakorik gabe. Bertzek erran behar dute Ama-Birjinaren ofizioa, edo egunean hamabi *Gure Aita, Agur Maria, Gloria Patri*, non ez dioten eritasunak debekatzen.

-*Hamabi Gure Aita, Agur Maria eta Gloria Patri horien orde, bertze zerbait othoitz baliaraz ahal othe daiteke, ez denean ofiziorik erraiten?*

Azkenean bai; eta bizkitartean ez da hortaratu behar, non ez den egiazko ezinbertzea, zeren-eta bertzeinez ez bailezake *othoitz publiko* bat egin.

- *Zer da beraz Elizaren othoitz publiko hori?*

Hori da othoitz berezi bat Elizak berak manatzen duena bere ume bakhar batzueri, Jainkoaren hobeki goresteko eta arimak ere hobeki laguntzeko.

Bakhotxak berexki egiten duen othoitz bano hainitzez baliosago da.

Ez du deus erran nahi, *Othoitz publiko* hori batberderak erranik ere bakharririk, ezen Elizak horrela manatua den ber, badu bethi bere indar berezia.

- *Erdaraz eta eskuaraz erraiten ahal othe da Ofizio publiko hori?*

Ez, eta huna zertako: Latina delakotz Elizaren mintzaia.

- *Kolpe batez erraiten ahal othe da ofizioa?*

Bai, ez badateke berzela egin. Bainan, Aita-Sainduaren arabera, hobe laiteke hamabi *Gure Aita, Agur Maria, Gloria Patriak* erraitea, ez aldi bakhar batez, bainan han-hemenka, egun guziko zathi berexak Jainkostatzeke moldean.

Erraiten ahal dire laneko denboran, ibiltzean, Meza sailduan, eta belhauniko eman gabe.

- *Baitezpadako eginbidea othe da Mezaren egun guziez entzutea?*

Gure estatuko eginbideri hutsik ekharri gabe egiten ahal bada, bai; bertzela ez. Dohatsu egun orotako meza horri jarraitzen direnak! Ez dezakete deus baliosagorik egin Jainkoarentzat eta beren arimarentzat.

- *Aita-Sainduak zertako ez ditu galdatzen Kofesio eta Komunione bat beizik ilhabete baxhotxean?*

Amoreagatik-eta nor-nahik izan dezan Heren-Ordrean sartzeko eta ongi irauteko errextasuna. Bai-

nan eder laiteke Ordena hortako haurride guziak zortitik jarraik ditezen bethi.

- Zer othoitz egin behar da orthuruntzaren aintzinean eta ondoan?

Leone hamahirugarrenak ez du deus othoitz berezirik aiphatzen. Bestordus erraiten zuten *Gure Aita* bat aintzinean ala ondoan. Oraino ere berdin egin daiteke.

II.- Baruraz eta gainerateko penitentziaz.

- Nolakoak dire Heren-Ordreak nahi dituen penitentziak?

Ez dire gaitzak: Urthean bi barur, bat Notagabeko Konzepzionearen bezperan, eta bertzea san Frantsesen bestako bezperan. Bertzerik ez da.

Egia da Heren-Ordreko anaia-arrebek arras ongi eginen dutela baldin, lehengo Erregelaren arabera, barurtzen badire ortzirailetan eta mehea jaten badute astezkenetan; bainan ez zaiote hori manatua.

San Frantsesek nahi izan du Heren-Ordena deitua izan dadien Penitentziaren Ordena, eta Erregelak egiten deraizkigun manuek goraki erakusten derauku-

te Heren-Ordenako haurridek izen hori artha handirekin behar dutela gogoan hartu eta begiratu.

Penitentzia guti ezagutua da munduan, beren buruak girixtino darozkatenen beren artean ere. Errexki, ondikoz! ahanzten ohi da, penitentziaren legea munduaren hastapenetik emana izan zaiola gizon bekhatoreari; ez ditakela zerurat hel penitentziaren bidez baizen; hainitz oinazetan gaindi ibiliz behar garela sarthu Jaunaren erresuman. San Frantzesen egiazko haurrak lehiatu izan dire irakaspén salbagarri horien onesterat, eta gogotik jarraiki izan dire Jesus kurutzefikatuari, zoinaren bizi guzia izan baita martirio edo gelditzerik gabeko oinaze bat.

- Ez othe da beraz bertze deus penitentziarik?

Manaturik ez, bai ordean gisa diren zonbait. Ezen erregelak gomitatzen gaitu:

1° Gure soineko jaunztoretan bethi modest agertzerat.

2° Jan-edanetan izari girixtino batetik sekulan ez elkhitzerat.

3° Libertimendu kaltekor batzuetarik osoki urruntzerat, hala-nola dantzatik, teatre eta komedietarik, bilkhuralizun guzietarik.

Dantza: San Frantsesen Heren-Ordenako errege-
lan bigarren kapituluko bigarren phonduan, irakurtzen
dugu: Heren-Ordreko haurridek atzartasunik handiena
ekharriko dute urrun egoiteko dantza, komedia, othu-
runtza eta libertimendu hirriskutsu eta arimentzat kal-
tekor direnetarik.- Higuintza egiazko bat erakutsi
behar dute munduarentzat eta munduko irakaspen
izurritsuentzat, orhoituz bertze orduz Jesu-Kristo gure
Jaunak bere jarraile edo dizipulueri erraiten ziozkaten
hitz hautaz: zorigaitz munduari munduko eskandala
edo gal-bidengatik... Erraiten zioten oraino: Mundua
bozkariatuko da, eta zuek ilhun eta goibel izanen zare-
te, baina zuen ilhuntasuna kharbiaturen da nehork
khenduko ez dautzuen bozkario batetarat.

Elizako Aiten arabera, deusera ez da hirriskutsua-
gorik dantza baino. Guziek, boz batez, arbuiatzen eta
debekatzen dute libertimendu arimen galgarri hori.

San Ambrosio, Elizako doktor eta argi handiak dio,
dantza eta lohikeria elgarrekin dabilzala. San Efre-
mek aldiz dio, dantza jende gazten garbitasunaren
hobia dela, zeruaren dolua, ifernuaren bozkarioa,
debruaren balentria.

San Ambrosiok dio oraino, ez dela dantzarat hurbiltzen jende ohorezkorik ez eta kontzientzia minbera duenik.

Eta huna san Agustin handiaren hitzak: Hobe litake besta-igandetan lur-iraultzen aritzea ezenez eta dantzan:

Gizon girixtino onek eta egungo eguneko dantza itsusien berri ongi dakitenek goraki diote, begi garbiz ezin ikhusiak direla. Ekharri ditudan san Agustinen hitz horiek girixtino guziera behatzen zaizkotenak badire, zer khar berezia ez zuen erakutsiko saildu handi harek gogoan izan balitu xoiki san Frantsesen Heren-Ordenako haurrideak!!! Bertzalde, aski dugu Ebanjelio sailduaren zabaltzea, eta han ikhusiko dugu eta mende guziek ikhusiko dute Jaundone Joan-Batistaren burua dantza baten eta dantzari lohi baten saria izan dela. Beraz, san Frantsesen Heren-Ordenako haurrideak, urrun, urrun egon zaitezte libertimendu edo josteta galkhor hortarik bai-eta hori maite duteneta-rik.

Irakurtzeak: Aita Sailduak eman eta finkatu duen erregelaren arabera, san Frantsesen Heren-Ordenako anaia arrebek ez dute beren etxetan sartzerat utzi behar berthutea kolpa dezaketen liburu eta

gazetetarik, eta beren menekoak gibelatu behar dituzte horrelako irakurtze kaltekorretarik.

Gure arimen etsai gaixtoak, bertze edozoin denboretan egin duen baino nazaikiago, bekhatuaren phozoina hedatzen du gure egunetan Jesus Jaunak bere odolaz erosi arimatarat, eta hori liburu eta gazeta tzarren bidez. Satan beltzak baditu osteka mandatariak errexki eta gogotik haren nahien bethetzerat ekharriak direnak. Eta ifernuko beren nausiaren izpiritu gaixtoaz sustatuak diren mandatari dohakabe hek badabiltza, gau-egun, hiriz hiri, herriz herri, etxez etxe, zokhoz zokho; eta orotan, Sataneke berak egin lezaken baino hobeki, gutienaz sos baten phozoina saltzen dute, eta askotan dohainik edo urririk emaiten, eta nigar egingarri dena! hainitz aldiz girixtinoen edo beren buruak giristino dauzkatenen etxetan ere sartzen dire, hango jenden izpiratuak eta bihotzak phozointzeko gutizia debuzkoarekin.

Zorigaitz, buruzagi eta aita-ama liburu edo gazeta tzar irakurleri! Zorigaitz, bere arimaren galtzea ez aski iduritzuz, lagunen arimak phozoindatzen dituenari liburu edo bertze zernahi izkiribu bekhatuaren izurriaz betheak direnen bidez!

Batzu eta bertzeak orhoit ditezela, zonbat ere jende zeihar-arazten baitute Jainkoaren legearen bide-tik eta bekhaturat erakhartzen, orhoit ditezela ongi hainbertze arimen khondu eman beharko dutela jau-naren jujamenduan; eta hekien faltaz ifernurat erori diren arima dohakabek, beren nigarrez eta heiagorez eternitate guzian mendeku galdeginen dutela Jainkoari hek galdu dituztenen kontra.

Zuek bederen, san Frantsesen Heren-Ordenako haurrideak, begira zaitezte artha berezi batekin liburu edo gazeta tzarren irakurtzetik; behautzue holako bekhatuzko tresnarik atxik zuen egoitzetan! bertzenaz, goiz edo berant, Jainkoaren gaztiguak eror laitez-ke zuen gainerat.

Zenbatak heriotzeko orenetan harritu direnak, orhoituz, ez xoilki egin dituzten bekhatuez, bainan bertzeri eginarazi dituztenez! Zenbatak dolamenekin erran dutenak: menturaz ene faltaz, nik gaizkirako bidea irakatsirik, galdu dire!

III.- Amoinaz.

- Zer nahi du amoinari dohakon erregelak?

Bi gisetara har daiteke hitz hori; erran nahi du, edo lagunari zor diogun estekamendua, edo hari berari egin dezakegun emaitza.

Estekamenduaz den bezenbatean, Heren-Ordreko anaia-arrebek elgarren alderat atxiki behar dute bethi Jainkozko amodio berezi bat. Eta baldin bataren edo bertzearen artean zerbait makhur, gerthatzen balitz, guzien xuxentzerat eta eztizterat entsegatuko dire. Herri batean bakezko ikhusgarri batzu bezala agertu behar dire. Lehenbiziko girixtinoez bezala, hetaz ere jendek erran dezaten amoreagatik: Oi beha zazue nola elgar maite duten!

Bainan bada bertze amoina bat, eta hura da lagunari egin dezakegun laguntza.

Heren-Ordreko anaia edo arreba zaren ber, gogotan ongi har zazu zuzen dela obra eta eginkari onetan ager zaitezten goraki, ausarki, khar berezi batekin. Zure ontasunetik ahal duzuna gogo onez emazu erro-meseri, herriko elizari, eskola girixtinoeri, Aita-Sainduari.

Aria eta xede beraz, egizu tenorez zure ordaina edo testamenta, beldurrez-eta, urrats horren eska-sean, zure ondokoek asko auzi eta makhur ibil dezaten. Holakorik gerthatzen balitz zure lazakeriaz,

bakearen orde phitzarazi zinueke gudua, eta laguntza egin behar orde zernahi xahutarazi.

- *Bainan Heren-Ordreko anaia-arrebek ez othe dute elgarri buruz karitate berezi eta handiago bat ibilkatu behar?*

Bai. Eta elgarren arteko karitate min hori agertu behar da:- 1° bizian,- 2° eritasunean,- 3° hil ondoan.

1° *Bizian*; eta hortakotz eske bat egiten da ilhabeteko bilkhuretan. Bakhotxak ahal duena emaiten du, amoreagatik-eta elgartasuneko anaia-arreba erromesak lagunduak izan ditezen, eta bestalde, elizako beren bilkhurentzat jasan behar dituzten gastueri buru egin dezaten.

2° *Eritasunean*; elgartasuneko buruzagiak joan behar dire haurride erien ikhustera; eta baldin ez badaitezke berak erietan ibil, bertze norbait igorriko dute. Eritasunak alde gaxtorat emaiten badu, are hobeki jarraikiren zaizko eriarri eta lagunduko dute heriotze on baten egiten.

3° *Hil ondoan*; haurride guziak aurkhituko dire galdu duten anaia edo arrebaren ehorztean, eta haren arimarentzat erranen dituzte Arrosarioaren bortz hamarreko eta komunione bat eginen.

Laburzki erraiteko, Erregela guzia bi hitzetan bil daiteke:- 1° Bizitze girixtino bat ereman; ekhar jaunztura garbia, bainan ez harro eta arhina; jan-edanetan atxik behar den izaria.- 2° Abitua soinean ekhar bethi bere khordarekin; 3° *egun guziez*: erran Ofizioa edo hamabi *Gure Aita, Agur Maria* eta *Gloriak*;- 4° *ilhabeteguziez*: behin bederen kofesa eta komunია;- 5° *Urthe guziez*: bi barur egin, bat urriaren hirurean, bertzea Abendoaren zazpian.

IV.- Erregelaren hazkarki zaintzeko bideak.

- Bide horiek zoin dire eta zonbat?

Hirur dire:- 1° Egun guziez egin behar den konzientziako mihatze edo etsamina;- 2° Ilhabete bakhotxeko bilkhura;- 3° Urthean behin Aintzindari batek egiten duen bisita edo ikhusaldea.

- Atxikiak othe gare ilhabeteko bilkuretan aurkhitzera?

Bai, atxikiak gare, eta hori lau probetxu haukien ariaz:- 1° Entzuteko bilkhura hetan emaiten diren predikuak eta irakasmek;- 2° Berotzeko eta hazkartzeko san Frantsesen hurrek bethi eta gehiago emendatu behar duten perfetasunezko beren lehia;- 3° Ira-

bazteko bilkhura hekieri iratxikiak diren indulientzia edo barkhamenak;- 4º Erreberritzeko eta sustatzeko san Frantsesen haurrek elgarren artean atxiki behar duten Jainkozko haurridetasuna.

- Zer daiteke Aintzindari batek urthean behin egiten duen bisita edo ikhusaldea?

Gure Ordenak, irautekotz eta ongi handi baten egitekotz, osorik eta hazkarrik egon behar du. Eta arren, nahi badugu osorik eta hazkarrik egon dadien, ezin bertzea da norbaitek ikhus dezan, denboratik denborara, eian ongi ala gaizki dohazin Haurridetasun baxhotxeko harat-hunatak. Eta hori, Aintzindari batek egiten du urthe guzietz. Erregela ez bada ongi atxikia eta makhur zerbait nausitu bada, oro xuxentzen ditu eta berriz ere osoki asentatzen.

III.- ARTIKULUA

**Karguez, bisitaz eta erregelaz.-
Porzionkulako barkhamen handiaz.**

Karguez, Bisitaz eta Erregelaz.

1. Kargudunak hautatuko dire Terzieren bilkhuran; kargua atxikiko dute hirur urthez. Nihork ez du arrazoin funtsezkorik gabe errefusatu behar, ez eta bethe bere kargua nagiki.

2. Erregela ongi begiratu othe den, errenkurarekin jakin behar du *Bisitatzaileak*, hortakotz Haurridegoak bisita detzala urthean behin ahalaz, eta behar bada maizago; bilkhura jeneral baterat deituko ditu Minixtroak eta Haurrideak, eta hauk aurkitu beharko dire bilkhura hartan. Bisitatzaileak ematen badio Terzier bati abertimendu edo manu edo punimendu salbagarri bat, hobenduna humilki sumetituko da, eta onhartuko du penitentzia.

3. Bisitatzaileak hautatuko dire Franziskanoen Lehen-Ordenan edo Fraiden Hirurgarren Ordenan, Guardianoeri galdeginez nor izendatu behar den. Fraide ez denik ez diteke izan Bisitatzaile.

4. Obeditu nahi ez duen eta etsenplu gaxtoa ematen duen Terziera abertitua izanen da hirur aldiz; ez bada sumetitzen, Ordenatik ezarriko dute kanpo.

5. Jakin behar da Erregela hunen kontrako hutsak ez direla bekhatu, non ez doazin Jainkoaren edo Elizaren manamenduen kontra.

6. Arrazoin handi eta egiazko batez gibelatua balin bada Terzier bat Erregela huntako zerbeit pondutarik, dispentsatua izanen da pondu hetarik, eta, zuhurtziarekin bertze zerbeitetarat ganbiatuko diote. Franziskanoen Lehen eta Hirurgarren Ordenako aintzindari ordinarioek, bai eta aiphatu ditugun Bisitatzailerik badi-tuzte dispentsa horien emateko behar diren podore guziak.

Porzionkulako barkhamen handiaren irabazteko bethe behar dire sei kondizione:

1° *Kofesioa*. Zortzitik, bai eta hamabortzetik Kofesatzeko ohidura dutenentzat, arte hartako kofesioa aski da.

2° *Komunioa*. Edozoin eliza edo kaperetan egin daiteke, barkhameneko egunean berean edo berdin bezperatik.

3° *Bisita*. Baitezpada, barkhamen handia eratxikia zaion eliza behar da bisitatu. Bisita labur bat aski da;- bisita hortan othoitz egin behar da Aita-Sainduaren xedetara;- ez da hortako othoitz berezirik, baxhotxak nahi duena erran dezake, hala-nola bortz *Gure Aita* eta bortz *Agur Maria*;- Bisita bezenbat barkhamen oso irabazten ahal dire;- bat guhaurentzat irabaz eta, ber-

tze guziak eman behar ditugu Purgatorieko arimeri;-
bisita horiek nonbrean eta laburzki egiteko, elizatik
zonbait urratsez elkhi-eta, sartzen da berriz eta othoi-
tzak erraiten.

4° *Eliza*. Frantzizkanoen eliza da bisitatu behar
dena.

Pio zazpigarrenak ekharri du irabaziko ahal dela
barkhamen handi hori, 1793reko nahasmendutik lehe-
nago Frantzizkanoek zituzten Frantziako elizetan. Eta
hori, hirur Ordretarik batena ala bertzearena izan
zadien eliza. Bestalde, ez daiteke fagore hortaz balia
Porzionkulako egunetik ondoko igandean beizik, besta
hori ez denean igandearekin erortzen.

Ez balitz Frantzizkanoen elizarik ez-eta hekiena
izan denik, Heren-Ordreko haurridek berdin edozoin
elizetan irabaziko ahal dute barkhamen handia, Ago-
rrilaren bian.

5° *Egun eta denbora berezia*. Porzionkulako bark-
hamena irabazten da agorrilaren bian, bezperatik bi
orenetan has-eta, besta eguneko iguzki-sartzearen
tenora arte, Frantzizkanoak diren herrietan, bai-eta
Terzierak diren tokietako elizetan; irabazten da oraino
agorrilaren lehenetik ondoko igandean, non ere aurk-

hitzien baita Frantzizkanoek lehen berea zuten eliza bat.

6° *Nork irabaz dezaken.*- Nornahik irabaz dezake, bai-eta Terzier ez denak, Frantzizkanoak diren tokian, eta oraino hekien lehenagoko eliza bat denean. Eta aldiz, bi gauza horietarik bat ala bertzea eskas den ber, Terzierrek xoilki edozoin elizetan irabaz dezakete.

III - KAPITULUA

**Heren-Ordreko bestarik handienak,
meditazione labur batekin, urthe guzikotzat**

Urtharrilean

Urtheberri.- 1° Sortzetik zortzigarren egunean Jesusek bere odola guretzat ixurtzen du. Zer bihotzeko lehia! Ahalik eta laster bere izaite guzia guretzat Aita-Jainkoari eskeintzen dio.- 2° Eta gu bethi uzkur Jesusen amodioan! Dezakogun erran San Agustinekin: Oi Jesus, berant abiatu naiz zure maitatzen, bainan gaurgero bethikotz zuri dago ene bihotz guzia.

Trufania.- 1° Zer sineste hazkarra duten iguzkialdeko hirur Errege dohatsuek! Ezen, ernerik jarraikitzen dire izarraren irakasmenari, haur xume eta errores batean beren Jainkoa ezagutzen dute, eta egiten diozkote Jainkoari beizik egiten ohi ez diren emaitzak, urhea, mirra eta isentsua.- 2° Jesus haurrari galda dezakogun hek zuten bezalako sinestea edo fedea. Sineste oso eta hazkar hori da gizonaren eginbiderik

beharrena zerurat heltzeko. Onets, maita eta atxik bethi Jesu-Kristok eta Elizak irakatsi egia eta urrats guziak

Jesusen izen saindua.- 1° Munduaren hastape-nean, gudu handi bat egin zuten zeruko Aingeruek, onak Jesu-Kristoren alde, gaxtoak aldiz Jesu-Kristori bihurtuz eta oldartuz. Jesusek, Mikael arkanjeluarekin, garhaitu zituen Luzifer eta haren lagunak, eta bethi-kotz ifernurat aurthiki.- 2° Etsai gaxtoa oldartzen zeraukun aldi guzietz, buru egin dezakogun aiphatuz eta errepikatuz Jesusen izen saindua! Izen botheretsu horrek harrituko du etsai gaxtoa eta guk haren tentazione guziak garhaituko ditugu.

Otsailean

Ganderailu.- 1° Andredena-Mariak edertasun eta goratasun guziak bazituen Birjina bezala, Jainkoaren ama bezala eta zerulurren Erregina bezala. Halarik ere aphaltzen da; ardurako bertze emaztekiak iduri, Jeru-salemgo aphez-naisiari garbi dezan galdatzen dio.- 2° Oxala guk bagindu aphaltasun bera gure bihotzetan!

Ez ginuke lagunaren alderat, dugun bezalako bihurritasunik, ez-eta Jainkoaren eta Elizaren manuak hausteko ausartziarik.

Japoneko martirak.- 1° Hamabortz ehun eta lauetanhogoi eta hamazazpian, lehen Ordreko sei Aitek eta Heren-Ordreko hamazazpi haurridek beren odola Jainkoarentzat eman zuten. Hekien artean baziren hirur haur, hamabi eta hameka urthetakoak. Eta nola, gaztegi zirelakoan, ez baitzituzten paganoek girixtino bezala hil nahi, nigarrez abiatu ziren, hek ere othoi bertzeekin Jainkoarentzat hil zitzaten! Ardietsi zuten azkenean, eta halako bozkarioa agertu zuten non ikhusle guziak nigarrez baitzauden hekien atseginari.- 2° Oi! balute Eskual-Herriko aita-amek horrelako haur khartsuen moldatzeko lehia! Heren-Ordrean zareten aita eta amak, nola altxatzen ditutzue zuen haurrak? laxoki ala hazkarki? Emožete halako sineste indartsua eta halako kharra Jesusentzat, non gogo onez ekharriak izanen baitire zer-nahi jasaitera ezenez-eta Jainkoari demendren damurik egitera.

Kortoneko Sta Margarita.- 1° Bederatzi urthez ereman zuen bizitzerik tzarrena. Bainan gero nola aldatu

zen! Handik goiti hain borthizki jazarri zen bere gorp-hutzari, non egun batez agertu baitzitzaien Jesus ona eta erran baitzion: Zure urrikiak eta zure nigarrek hunkiturik daukate ene Bihotza; eta hortakotz ordainez hitzemaiten dauzut, nork ere nahiko baitu zure arartekotasunaz baliatu eta harek ardietsiko duela bere hutsen barkhamendua eta zeruko zoriona.- 2° Garenaz geroz bekhatoreak Sainda hori izan zen bezala, bere urrikiari ere jarraiki behar gaizko. Egin dezagun gure bekhatuez penitentzia, ez gaiten bara barkhamendu galdetzetik, eta azken orena ethorriko zaukuan gure bizia ere Jainkoari eskeint dezakogun gure hutsen erospenetan.

Martxoan

San Josepe.- 1° Gizonen artean dohatsuena izan da San Josepe, ala bere bizian ala bere heriotzean. Lehenik bere bizian, bizitze hori Jesusen eta Mariaren batasunik hertsienean iragan duelakotz osoki. Eta gero bere heriotzean, hekien besoetan eta bihotzaren gainean hil delakotz.- 2° Nahi bagare egun batez hil Jesusen eta Mariaren eskuetan, gaiten lehenik bizi

hekien amodioan. Dezagun maiz erran othoitz eder
hau:

Ikhusgarri dohatsua,
Josep azken hatsetan!
Jesus besarka lothua,
Maria nigarretan. ..
Hiltze hori, zer Zerua,
Hekien besoetan!...
Hel zakizkit, o Saindua,
Hiltzeko orenetan.

Ortziraile Saindu.- 1° Jesusek egun hunekin jasan dituen oinazek eta heriotzeak behar gaituzte espantitu eta harritu. Horra beraz nola aita-Jainkoa garratzasunekin jazartzen zaion bere Seme-Jainkoari. Hunek errekeritzen du othoi herstura horietarik khen dezan; eta Hura ez zaio borthizkiago beizik jazartzen, halako moldez non Juduen eskuz azotatzen baitu, elhorriz khorroatzen, laidoz asetzen, zauriz oro sarraskitzen, eta azkenean kurutzeari itzaturik hiltzen. Bai osoki espantituko da Aita-Jainkoak horrela egitea bere Seme-Jainkoari.- 2° Bainan huna misterio horren argia edo ikhushidea: Gure bekhatuak zituen Jainko hasa-

rretuak Jesus baithan borratzen. Bekhatua, horra Jainkoaren etsai baxarra. Eta guk hainbertze bekhatu egin! Jazar gaitezen beraz gu ere guhauren buruari, alde batetik leheneko bekhatuez penitentzia egiteko, eta bertze aldetik gaurgero ez egiteko bekhatu berri-rik.

Anonziationea edo Berriematea.- 1° Jainkoak igorri-rik, Gabriel aingeruak erraiten dio Birjina dohatsua-ri: Agur, graziaz bethea, Jauna da zurekin. Eta ordu berean Trinitateko bigarren Presuna, Jainko-Semea, jausten da zerutik, gureak bezalako gorphutz bat eta arima bat hartzen ditu, Ama-Birjinaren sabel sakra-tuan Izpiritu-Sainduaren obraz eta indarrez, eta gizon egiten da. Hola zen gerthatu Inkarnazioneko misterio handia; eta gure Erospeneko lana hortik hasi zen, bet-hetzekotan gero kurutze baten gainean.- 2° Jesus zer-tako jautsi da zeruko bere goratasunetik lur huntako aphaltasunerat? Jautsi da nahiz-eta gu guziak bekha-tuaren leizetik zerurat altxatu: aphaldu da gu nahiz goratu; kreaturen heinerat erori da gu nahiz Jainkoa-ren handitasunerat helarazi.

Aphirilean

Jakobe dohatsua.- 1° San Frantsesen lehen Ordeko anaietarik zen, eta bizi guzia kozinako lanetan iragan du. Bihotza bethi erdiraturik zaukan bere bekhatuen urrikiaz eta hekien borratzeko lehia khartsu hatez. Eta nola bere kozinako sua ikhustearekin, ifernuko sua bethi gogorat heldu baitzitzaion, are garrarkiako egunetik egunera jazartzen zitzaion bere buruari.- 2° Oi dohatsu direla beren hutsez holako urrikian bizi direnak! Hek dire zerurateko biderik segurrenean. Guk ere beraz dezagun maiz aithor Jesu-Kristoren Imitazioniarekin: Ez dut ene bizian kausitzen deus onik, ez dut deus ikhusten ene baithan baizik ere jite gaxtoa eta hartarik sorthu bekhatua. Aithortzen dut zinzinez, ene Jainkoa, ifernua hanbat aldiz merezitu izan dut. Othoi beraz urrikal nakizu eta barkha diezadazu!

San Joseperen Patroingua.- 1° Nola Nazareteko etxean Eliza guzia, erran nahi baita Jesus eta Maria, San Joseperen gerizan eta eskuetan baitzen, hala-hala mendez mende Eliza hori bera San Joseperen gerizan dago bethi. Ezen, zer ela Eliza katolikoa baizik ere Jesus eta Maria bazter guzietan eta gizalde guzietan

hedatuak?– 2° San Joseperi galda dezogun, bertzorduz Jesus eta Maria Herodesen haztaparretarik gerizatu eta zaindu zituen bezala, orai ere Eliza saildua begira dezan bere etsaietarik. Noiz ere baitu arima on batek Eliza katolikoa gehienik maite, orduan du zinez erakustea funtsezkoa dela haren girixtinotasuna. Bainan emadazut othoitz egilerik handiena, eta baldin harek ez badu Eliza katolikoa bihotz guziz maite, nik goraki erraiten derautzut horrelako girixtinotasuna ifernuko baliaturen zaiola, bainan ez zeruko.

Lukeziuz dohatsua.– 1° Dohatsu hori izan da Heren-Ordreko anaia guzietarik lehena. Horrek galdegin zion San Frantsesi erregela berezi bat munduan berean sailduki bizitzeko; eta orduan hasi zen Hirugarren Ordena. Bizi-molde berri hortan jarri arte, Lukeziok lurreko onthasunak sobraniozki maite zituen; bainan gero bere bihotza osoki deslothu zuen aberastan guzietarik eta beharrerri ahalak oro emaiten ziozkoten.– 2° Gure Ordenako lehen anaia horri behar ginuke, hurbildanik jarraiki. Eta guziz harek bezala onthasunak arbuia detzagun eta behar den heinean eginkari onetarat eman. Orhoit onthasunek beretzen dutela bihotza, ezartzen gaituztela lurrari estekaturik

eta horopilaturik; hekien ariaz hainitzek Jainkoa eta eternitatea ahanzten dituztela, eta holaxet dituela debruak enganatzen eta galtzen. Eta aldiz huna zer dion Jesusek: Dohatsu, amodioz eta bihotzez direnak erromes; eta zertako? hekiena delakotz zeruko erre-suma.

Maiatzean

Salbatore edo Jesuseu Zeruratzea.- 1° Pazkotik berrogoi egunen buruan Jesus altxatzen da bere Aitareren eskuinerat, erraiten deraukularik: Ez lotsa, ezen Zerurat noha, zueri bethiereko egoitza dohatsu baten aphaizteko. Zer agintza ederra! eta zer itsumendua laiteken sobra estekatzea lur huntako gauza iragankorreri! Ezen ez dugu hemen, behere huntan, egoitza iraupenezkorik, Zeruko Jerusalem da gure egiazko herri eta egontokia.- 2° Dezagun maiz Dabid erregearekin khanta:

Orein herstuak egarriaz,

Ur bururat

Kurritzen ohi du lehiaz;

Ni zerurat
Lehia handiagoak
Bethi narama,
Han baitu gozoz Jainkoak
Gaindizkatzen arima.

Sion, zutaz erran zaizkidan
On guziak,
Finki dagozkat nik gogoan
Ezarriak.
Nik zu ahantz Jerusalem,
Hiri maitea?
Lehenago dut onetsiren
Biziaz gabetzea!

Argitu deneko, dagozkat
Bi begiak
Mendi sailduaren gainerat
Itzuliak,
Nahiz urrundik bederen
Sion ikhusi,
Bai eta zu, Jerusalem,
Bethi bixtan iduki.

Errozue othoi Jaunari,
Berehala
Idek dezon biderantari.,
Hemen dela,
Hartaz baizen mundu huntan
Ez dakutzana,
Haren minez desterruan
Hiratzen ari dena.

Paskal Bailon.- 1° Bere komentuko anaietarik azkena zen eta osoki emana esku-lanari. Komenturat ethorri aintzinean ere, artzaingoan bizi izan zen hogoi eta lau urthetaraino. Bertze jakitaterik ez zuen, baizik ere amodio handi bat aldareko Sakramendu adoragarriarentzat; eta Jesusek berak argitzen zuen Ostia sailduaren barnetik. Irakatsi zion bereziki nola hehar zen esku-lanaren bidez perfetasunik handienerat altxatu.- 2° Eskualdun gehienak esku-lanetik bizi dire; hori da gure herri maitearen probetxu hoberenetarik bat, handizki baliatzen zaiotena gorphutzari ala arimari. Gorphutzeko ala arimako osagarria esku-lanetako neke eta izerdietarik heldu da maiz. Eta ez aiphatzeko arima beizik, hainitz eta hainitz irabaz dezakegu zeru-

kotzat gure esku-lanen bidez, baldin egiten baditugu Jesusekin batasunean.

San Bernardino.– 1° Saindu horrek gehienik agertu duen berthutea izan da Garbitasun saindua. Haren ikhustek berak ahalkarazten eta izitzen zituen jende lizunak; eta, hurbiltzen zena bai hekiengana, nihor ez zaiteken atrebi elhe arhin baten ere aiphatzera haren aintzinean.– 2° Oi miletan dohatsu arima garbiak! Garbitasun ederra da dohain guzietarik baliosena. Hortakotz zion Jaundone Paulok: Oi dohatsu zuek, arima garbiak, ezen bizi zarete, ez haragiaren arabera, bainan izpirituaren arabera; orai beretik deramazue zeruko bizitze miresgarria; aingeruak bezala zabiltzate distirant eta nota-gabe. Bai eta aingeruez gorago altxatzen gaitu garbitasun sainduak, zeren-eta aingeruak errexki baitaude garbi, beren jitez, beren izaitetz, deus gudurik gabe; gu aldiz entsegatuz eta jaidura tzarrak bentzutuz. Eta non ere baitire gudu eta neke gehienak, han behar dire irabazi sari handiagok.

Ekeinian edo Errearoan

San Antonio Padukoa.– 1° Bere denboran, Saindu horrek lanik eta nekerik handienak ibili izan ditu Eliza katolikoarentzat. Bere predikuetan guziz khar eta bihotzik beroenak agertu izan ditu.

Eta jendeak hainbertzetaraino hartuak eta xoratuak ziren haren predikuez, non elizak ez aski handi izanez aditzaile elementia hekien kokatzeko, bortxatua baitzen kanpoetan mintzatzera.

Ez daiteke erran zonbat eta zonbat arima bere predikuez salbatu dituen, eta zer laguntzak eman dituen Eliza sailduari. Hainbertzetaraino non deithu baitzuten: *Heretikoen mailua*.

2° Bainan, lan handi horietan abiatu baino lehen, egon zen luzaz bere komentuan gorderik. Noiz ere othoitzean, ixiltasunean eta garraztasunetan hazkartu eta aberastu baitzuen bere bihotza, orduan hasi zen bere gaididuratik bertzeri ongi egiten.

Hortik ikhas dezagun, baldin eder bada bertzeen arimez orhoitzea, ez ditugula gureak ahantzi behar; eta bertzeri hanbatenaz ongi gehiago eginen dugula, zonbatenaz baikare guhau khartsu izanen.

Mixelina dohatsua.– 1° Aitoronseme aberats batekin ezkontarazi zuten bere ahidek. Bainan alhargunduzen hogoi urthetan, eta geroztik osoki eman zen Jesu-Kristoren amodioari. Hortarakotz sarthu zen San Frantsesen Heren-Ordrean. Bere ahidek asmaala traba eta nahigabe egin zioten, bainan ixilik jasan zituen oro; ez zen gehiago beizik aintzinatu berthutean eta bere obra onetan.

2° Oxala ikhasten baginu Jainkoari eta gure arime-ri bakharrik behatzen, munduko erranez eta jazarkeria tzarrez gure bihotzak izitzerat eta gibelatzerat utzi gabe! Zonbatenaz baikare hobeki gudukatuko Jesus maitatu beharrez eta ongi hainitz egiteko lehiaz, hanbatenaz emendatuko ditugu zeruko gure sariak eta zorionak.

Jaundone Petri eta Jaundone Paulo.– 1° San Frantsesek debozione handia zuen bi Apostolu horientzat. Ordainez apostolu horiek ere amodio berezi bat agertu zioten san Frantsesi. Ezen huna zer gerthatu zitzaion egun batez Erromako eliza nausian.

Eliza hortara joan zen san Frantses grazia berezi baten ardiesteko ariaz; nahi zuken Pobreziatzko bert-hutea bere edertasun guzian ezagutu. Eman zen

beraz othoitzean eta nigarretan. Eta horra non agertzen zaizkon Jaundone Petri eta Jaundone Paulo, eta gutiziatu argi guziak emaiten diozkote. Erraiten diote: Besarka zazu bihotz guziz Pobrezia saildua, ezen Jesusek, Mariak, guk eta bertze Apostolu guziek hautatu eta bethi atxiki izan dugu.

2° Apostolu horiek agian guri ere emanen deraukute lur huntako onthasunen gutiesteko eta arbuia-tzeko behar dugun argia eta berthutea. Hek dire egiazko zuhur argituak, herioak bortxaz buluzi baino lehen, beren nahitara aintzinetik buluzten direnak. Hek dire neurthitz edo phertsu eder hotaz orhoitzen:

Lurreko ontasunak ez dire bethikotzat,
Hobeagorik bada zeruetan guretzat.

Uztailean

Ama-Birjinaren Bisitazionea.- 1° Lehenik mirets dezagun Ama-Birjinaren aphaltuna, beheramen guziz hunkigarria. Badaki Jainkoaren Ama dela, bada-ki ez dela aingerurik ere hura bezain gora denik; eta

halarik ere badoha, akhituz eta handizki behartuz, Elizabeth bere kusiari laguntza emaitera.

Oi dohatsu, ala Jainkoaren ala gizonen aintzinean aphaltzen direnak, Ama-Birjina bezala, bihotzez, amodioz, gogo onez.

2° Egia da, Ama-Birjina hemen osoki aphaltzen da. Eta bizkitartean berekin dabila Jainko gizon egina, bere sabel sakratuan du Jesu-Kristo!

Hola-hola zaio gerthatzen girixtino umilari. Errana da urruntzen dela Jainkoa jende borthitz hanpatueta-rik, bainan dagoela bethi bat eginik arima umilekin. Hortakotz, obrarik handienak Eliza katolikoan egiten dituzte, ez jende hanpurutsu beren buruaz hartuak direnek, bainan gogoz eta bihotzez aphalt eta ttiki direnek. Nahi ditutzu lan baliosak egin Jainkoarentzat, arimentzat eta zuhaurentzat: egon zaite zure begietan aphalt eta ezdeus.

Santa Elizabeth Portugaleko erregina. - 1° Erregina miresgarri hunek karitaterik handiena agertu izan du, lehenik erromesak eta eriak lagunduz, bigarrenekorik herrak eta auziak bakesunerat ekharriz. Egun batez, oinak garbitzen ziozkotelarik erromes multzo bati, emazte batek zauri ikharagarri bat bere zangoan irak-

hutsi zion. Demendrenik izitu gabe, zauri okhastagarria bere eskues garbitu eta pherekatu zion eta gero musu eman bezarkatu. Eta zer gerthatu zen? Erreginak bere ahoa zauriaren gainean zeraukalarik, zauria osoki sendotu zen eta eskale gaixoaren zangoa demendren minik gabe gelditu.

2° Oi erregina dohatsua, emaguzu guri ere karitate handi bat, gure bihotzak eta gure onthasunak zabal eta heda zaitzu erromeseri buruz. Eta baldin herrak edo auziak gutarterat igortzen balitu ifernuko etsai suphizleak, emaguzu hetan ez erortzeko zuhurtzia, bai-eta hekien baketzeko lehia ta ahala.

San Bonabentura.— San Frantsesen ordenako zortzigarren buruzagi jenerala, Elizako dotor eta irakasle guziz argitua, Aita-Sainduaren biltzarreko aphezpiku eta kardinala, san Bonabentura izan da behinere agertu den gizon eta saindu handienetarik bat. Baina, zonbatenaz Jainkoak bere dohainez gora altxatu baitzuen, hanbatenaz saindu hunek bere burua ezeztatu nahi zuen.

Aita-Sainduaren Enbaxadorek kardinalleguako agergailu eta aphaindura ederrak ekharri ziozkote-

nean, sukhaldeko baxera zikhinen garbitzen ari zela khausitu zuten.

2° Lurreko kargu eta ohoreak galgarri dire, non ez diren aphaltasunekin garraiatzen. Nor ere baita gizonen begietan gorago altxatua, eta harek Jainkoaren aintzinean ahalago atxik dezala bere burua. Orduan, galtzetik urrun, are hobeki beizik ez da baliatuko bere handitasunaz Jainkoarentzat eta arimentzat.

Agorrilean

Andredena Maria Porzionkulakoa.- 1° Balia gaitzen besta huntaz ahalik eta Indulientzia hainitzen irabazteko. Huna zer dion liburu on ttiki batek:

Orhoit gaiten bekhatu mortalaz merezitzen direla ifernuko pena bethierekoak, bekhatu benialaz aldiz purgatorioetako pena denbora batekoak. Bekhatu mortala barkhatzen du penitenziazko sakramenduak, erran nahi da ongi kofesaturik eta behar den urrikiarekin absoluzionearen errezebitzeak. Bainan sakramendu horrek bekhatorea ifernuko bidetik atheratzen duelarik arren, ez du hargatik Jainkoaren justiziarekin arras kito egiten, arduran segurik; bainan bekhatore

hari gelditzen zaio satisfazione bat egiteko, zor bat pagatzeko Jaunaren justiziari. Zor hura azken kornadoraino pagatu behar du, edo bizi huntan penitentziazko obrak eginez edo purgatorioetako suan erretzen egonez.

Orobatsu erran ditake bekhatu benialaz. Egia da horren barkhamendua ardiets ditakela kofesatu gabe; nahi bada hura den biderik segurena, erran nahi dut kofesatzea. Badira gauza saindu batzu deitzen direnak Sakramentalak, zoinek bekhatu benialetik gure arima garbitzen baitute. Hala nola *Gure Aita* erratea, ur benedikatuarekin zeinhatzea, *Kofesatzen natzaio* erratea, amoina edo limosna egitea, Aphezpikuaren benedikzionearen errezebitzea.

Bainan bekhatu beniala barkhatu denean, harentzat ere baratzen ohi da satisfazione bat egiteko, edo hemen penitentziazko obrez eta Indulientziaz, edo Purgatorioan minki pairatuz.- 2º Zonbat giristino lazo bere biziko urthe gehienak bekhatutan pulunpatuak egon ondoan, Jainkoaganik miseriakordia ardietsi balin badute ere, penitentzia funtsik egin gabe hiltzen direnak! Orhoit gaiten hekien bekhatu mortal baxhotxak sekulako ifernua merezi zuela aipatu gabe utziz egun guziaz egiten zituzten bekhatu benialak. Nork erran,

nork phentsa zonbat pairatu beharko duten purgatorioetan!

Beraz, ahalik eta lehiarekin balia gaitzen Porzionkulako besta huntaz, ditezken barkhamenik aberatsenak eskeintzen baiterauzkigu!

Ama-Birjinaren zerurat igatea.- 1° Huna gure besta ederrenetarik bat. Gure Aita san Frantsesek garizuma berezi bat barurtzen zuen besta hortara preparamatzeko.

Hara beraz non dagon, Jainkoaren eta gure Ama, arima eta gorputz, Zerafinez gorago altxaturik eta kreatura guzien Erregina khoroaturik. Haur on batzuzerk hala bozkaria dezazke nola beren Ama maitea zeru-gorenetan lorifikaturik ikhustek? Bozkaria gaiten beraz egun eder huntan; diozogun erran Jesus-Jainkoari: Eskerrak bihurtzen derauzkitzugu hoin osoki eta ederki goretsi duzulakotz zure eta gure Ama.- 2° Maiz eta maiz orhoit gaiten zeruan badugula Ama guziz on bat. Deusek ez gaitu hobeki gure nahigabetan hazkartuko nola orhoitzapen ezti horrek. Hortakotz noiz-nahi, bainan guziz etsaiaz tentatuak garenan, Mariaren izena aurkhi dadiela gure bihotz eta espainetan.

Kausitu dut izen bat hain ezti,
Bozkarioz nauena bethetzen.
Zoin ezti den erraitea: Maria!
Amodioz horrek nau sustatzen.
Zu, o Maria, aiphatzean,
Bihotz guzia dut zorionean.

San Luis Frantziako errege

Luis bederatzigarrena, Frantziako errege handia eta saildua sorthu zen hamahirugarren mendean. Haurra zelarik hil zitzaion aita Luis zortzigarrena. Haren ama erregina Blanka edo Xuria behar izan zen errege haurraren eta erresuma guziaren gobernari. Erregina hori gerthatu zen anhitz jainkotiarra eta ez gutiago buru onekoa. Seme horri harrarazi ziozkan horren erregetasunari zohazkon eskolak; eta artha handirekin berak moldatu zuen giristino-legearen araberako bizitzean. Maiz erraten ziozkan hitz seinhalagarri hauk: *Ene semea, Jainkoak badaki zein zaitudan maite; bizkitartean nahiago zinduzket hilik ikhusi, eze-nez bekhatu mortalean eroririk.*

Erregina handi horrek lur onean erein zuen hazi ona.

Errege horrek erlisionea bethi errespetarazten zuen bere etsenpluaz eta nausitasunaz. Errege saindu eta botheretsu bat izan zen. Haren zuhurtzia, zuzentasuna hain ziren ezagutuak non bertze erresumetako errege eta printzek elgarrekilako makhur eta hauzietan, hura bethi juje hartzen baitzuten.

Asko lege on eta zuhur eman zituen, guziak girstino legearen arabekoak. Uste dut erran ditaken behinere Frantzia ezteela haren denboran bezen bakean eta gustu onean bizi izan.

Izurritik hil zen Tuniseko hiriaren ondoan. Mahometaner gerla egiterat zualarik bere ustez, girstinoen heietarik libratzeko.

Tierz-ordrean sarthua zen gaztedanik, eta hautatua izan da ordena hortako patroin, bereziki gizonentzat.

Buruilean

Sta Arrosa Viterbekoa, terziera

Birjina saindu horren bizia osoki miragarria, erran ditake, mirakulu bat izan da, hastetik akhabantzaraino; Jainkoak nahi dituenak egiten ditu. Arrosak mihia

erabili ahal izan zueneko aipatu zituen Jesusen eta Mariaren izenak. Bi urthe bethe zitueneko, jende gehien baten adimenduari eta atenezarekin, aditzen zituen bere burhazok emaiten ziozkaten irakasten eta abisu zuhurrak eta sainduak. Ordukotz othoitz luziak eta khartsuak, bai eta penitentziak ere egiten zituen, eta artharekin begiratzen zen bekhatu xumetarik. Hirur urthetan bere ahaide hurbil bat, zombait oren hartan hila zena, bere othoitzez phistu zuen.

Menturaz hamar urtheren ingurua zuelarik, saindu askok bezalako penitentsia garratzak egiten zituen; nahi bada berak etzuen bekhatuak, bertzentzat ari zen, beretzat merezimenduak bethi eta gehiago irabaziz. Asko bekhatore konbertitu zituen, asko heretiko katoliko bilhakarazi zituen. Hortakotz heretikoek heretik khasarazi ere zuten; bai eta haren familia guzia.

Ahantzi zaut errateko hamar urtheak bethe gabe Tierz ordrean sarthu zela.

Ama-Birjinaren sortzea.— 1° Badire arima Jainkotiar asko debozione berezi bat badutena Ama-Birjinaren haurtasunarentzat. Eta zinez zer aurkhi daiteke

hain maitagarri eta goresgarri denik nola baita Aingeruen erregina dohatsu horren haurtasun guziz garbia?

Baratzeko lili sorthu berria
Goiz aldetik nola den zabaltzen,
Hala ere guziz maitagarria
Maria da haurretik agertzen.

Dezagun guk ere ohora eta bereziki othoitz Ama-Birjina bere haurtasunean.- 2º Galda dezazkogun bi grazia: Lehenik garbitasun sailduaren bethi osorik eta notagabe begiratzeko zoriona; eta gero, baldin zorigaitzez demendrenik kolpatu baginu, nigarretan berregintzeko lehia:

Bekhatuan hondaturik,
Izan naiz dohakabe;
Ez dut aurkhitzen bakerik,
Ene Ama, zu gabe.
Bainan orai dut higuintzen,
Bekhatuzko mundua
Eta nigarrez eskatzen,
Othoi, barkhamendua.

Santa Klara birjina.

Sorthu zen, san Frantses bezala, Asiseko hirian; haren burhasoak nobleak eta aberatsak ziren. Gaztedanik, san Frantsesen etsenplu miragarriak ikhusiz, nahi izan zuen hark bezala mundu galdua eta galgarrria beralde utzirik, penitenziazko eta saindutasun gorako bideari lothu, hortako saindu handi horri konseilu eta gida galdegin zion. Lagun adiskide batekin juan zen Porzionkulako elizara; Fraidek errezebitu zuten xirio argiak eskuetan.

Han bere ilea motzarazirik hartu zuen penitenziazko jauntzia, franzizkanoenaren iduriko bat, emazter dohakon bezala egina.

San Frantsesek ondo hartan erakutsi zion komentu xahar xume bat. Han egon zen zonbait denbora. Haren burhasoek eta familiak egin ahalak egin zituzten Klara bere etxerat itzularazi nahiz, bainan ezin kordokarazi zuten, fermu egon zen bere xedetan. Gehiago dena, haren etsenpluak hunkitu zuen Añes haren ahizparen bihotza, eta hura ere familiatik espaturik ethorri zen harenganat. Nola baitzen komentuhuts bat San Damianoren elizari hurbil, bi ahizpa saindu horiek komentu hortan pharatu ziren.

Laster alde guzietarik emakumeak heenganat ethorri ziren, heien bizi moldea segitzeko. Holaxet altxatu zen franziskanosen ordena, erraten diote, bigarren ordena; bainan serora horiek deithu dire bet-hidanik Klarisak, santa Klara horien lehen amaren ize-netik.

Nola serora horiek bethi emendatuz juan baitziren, denbora aski gutirik barnean altxatu ziren han eta hemen Klarisen komentu berriak, nork erran zenbat?

Santa Klara berrogoi urtheren ingurua izan zen serora horien buruzagi; sainda handia zen, bere etsenplu ederraz eta irakaspenez berthute perfetaren nahiaz eta amodiaz sustatzen zituen guzien bihotzak. Egiten zituen mirakulu handiak. Behin Mahometano barbaroek setiatu zuten Asiseko hiria; Klarak othoitz egin zuen; Izpiritu Sainduak argiturik, eria zelarik, Sakramendu Saindua eskuan agertu zen etsai kruel heien aitzinera, eta guziak lotsatu eta harriturik, lehiaz ihes juan ziren.

Bere azken urthetan bethi eria zagon, aingeru pazienza batekin sofritzen zuen eta hala saindutasu-nean bethi eta gorago zohan. Hil aintzinean izan zuen Aita Sainduaren bisita eta benediziona. Gero Jainko-

ak altxatu zuen lurreko pairamen, sofrikarien erditik zeruko loria eta zorion bethikorat.

Urrian

San Frantses gure Aita.– Gure Ordenako ilhabete berezia da ilhabete hau, dakharkelakotz San Frantses gure Aita eta Patriarkaren besta. Hortakotz beraz ilhabete huntako hirur meditazioneak eginen ditugu gure Aita Frantsesek agertu zunbait berthuteen gainean.

1° San Frantsesek bere buruaz erraiten zuen maiz Jaundone Paulok erran hitza: *Christo confixus sum cruci*, Kristorekin josirik nago kurutzeari.

Gazte denboran kurutzeak eta mortifikazioneak izitzen zuten.

Bainan azkenekotz Jainkoak argitu zuen; irakatsion ez zaitekela hola bizi; mundua harrentzat desherri zela; bertzelako bizitze batean behar zela sarthu.

Gau batez lotarik amets egin zuen. Ikhusi zuen jauregi bat, eta jauregi hartan asko harma eta gerlako tresna. Harma bakhotxak bazuen kurutze distirant

eder bat. Iduri zitzaion gure Sainduari, kurutze bezenbat iguzki bazirela jauregian. Eta oihu egin zuen:

Oi Jauna, norentzat othe dire harma kurustatu eder horiek?

Hiretzat dituk eta hirekin bilduko diren gudularientzat.

Zer nahi duzu bada nik egin dezadan, Jauna? Norat joanen naiz gudukatzerara?

Huna zer dutan nahi: utz desakan mundua, egin hirur botuak, eta hekien bidez ibil debruaren kontra gudu hazkarrak, eta enian hire burua holaxet itzaturik eta sakrifikaturik ene kurutzearen gainean. Ikhusten dukan jauregi hori duk komentua, ene arima hautatuen egoitza dohatsua; harma horiek dituk komentuko hirur botuak, Pobrezia, Garbitasuna eta Obedientzia; eta kurutze distirant horiek dituk komentuan egiten diren mortifikazione eta bortxamen khartsuak.

Eta handik harat San Frantses osoki eman zen bere buruaren kontrako jazartze eta mortifikazione guziri. Oi gure Aita, egizu othoi guk ere gure buruak borha detzagun, bederen bekhatutik urruntzeko eta arimen salbatzeko behar den heinean!

2° San Frantses Asisekoak irakatsi du Pobreziarentzat amodiorik handiena. Berak erran du hitz eder hau: Ene esposa da Pobrezia, eta xoratuki maite dut.

Erran du oraino: Ene Ordenaren asentuak eta indarrak ez dire ez urhezko edo zilharezko; baina dire Jesu-Kristoren hitz hok:

Ez dezazuela izan moltsarik ez dirurik; ez-eta bi soineko bidean; ibil zaitezte oinetakorik eta makhilarik gabe.

Hortik, Frantsiskanoak eske dabilta, janaren eta beztitzekoaren biltzeko.

Daudetzen komentuak ere, ez dituzte bereak: toki arrotzean bizi dire bethi, erromesek ohi duten bezala.

San Frantses johan zen Erroinarat, Aita-Sainduaren baimena ardietsi nahiz, Pobreziaziko erregela heretsi horrentzat.

Orduko Aita-Saindua, Innozent hirugarrena, Latraneko jauregian zagon.

Jauregi hortara doha beraz san Frantses. Leheneko bere adiskide xahar bat aurkhitzen du athean, eta galdegiten dio othoi helaraz dezan Aita-Sainduarengana; eta badohatzi biak; jauregiaren barne ederretan sartzen dire.

Aita-Saindua ikhusi dueneko, San Frantses belhau-
nikatzen da eta ahuspez emaiten; eta ukhurtua dago-
larik, bere Ordenaren erregela aiphatzen du xeheki;
Aita-Sainduaren baimena galdegiten du.

Bainan ez du onesten Aita-Sainduak. Garratzegi
eta borthitzegi zaio Pobrezia hoin hertsia. Gure saindu
gaixoa gibelerat igortzen du.

Ixil-ixila, demendren arrangurarik egin gabe,
badoha kanporat San Frantses.

Jauregitik atheratzearekin aurkhitzen du erromes
itsu bat; benedikatzen du eta sendotzen. Eta oro boz-
kariotan, itsu-argituak ihardesten dio:

Oi jauna, ez lotsa ez, Jainkoak lagunduren zaitu,
zure xede guzietarat helduko zare.

Ondoko gauean, Aita-Sainduak amets bat egiten
du. Ikhusten du zuhaitz ttipi bat lurretik sortzen, gero
laster handitzen, eta azkenean oihanez gaindi gora-
tzen.

Atzarri denean, arranguratzen da, zer erran nahi
othe duen amets horrek. Jainkoak argitzen du; biho-
tzean mintzatzen zaio: Zuhaitz hori dela San Frantse-
sen ordena, egun lurretik sortzen ari, bainan laster
oihan guziak gaituko dituena. Aita-Sainduak,
amets horren ondotik, San Frantsesen bilha igortzen

du. Aurkhitzen dute ospitale batean, erien arhatzen ari dela.- Latraneko jauregira heldu denean, erraiten dio Aita-Sainduak bilduko duela Kardinalen biltzarrea, eta elgarrekin ikhusiko dutela eian behar den haren Ordena onetsi ala ez.- Biltzen dire beraz Kardinaleak. Aita-Sainduak aiphatzen eta xehatzen diote nola Frantsesek ordena berri baten abiadurak hartu dituen, eta nola ordena hori Pobreziarik hertsienean jarria den.- Kardinaleak ordena berriaren kontra bihurtzen dire. Bat baxharrik jartzen da haren alde, diolarik bilkhura guziari: Zerk zabiltzate holako elhetan? Ez duzue bada ikhusten, Jesu-Kristo bera ukhatzen duzuela eta Ebanjelioa ostikatzen? Ezen eskale horrek zer galdegiten du, baizik ere xoilki Kristoren kontseiluak atxikitzea? Eta nork sekulan besarkaturen ahal du Pobrezia hain hertsirik nola Jesusek besarkatu izan baitu? Ordena berri hori urrunduz, Jesu bera eta harren Ebanjelioa arbuiatzen duzue.

Hitz horietan desegiten da Kardinalen biltzarrea. Aita-Sainduak erraiten dio Frantsesi: ikhusten duzu ez dugula elgar aditzen ahal; egizu othoitz, Jainkoak argi nezan.

Ondoko gauean ere Aita-Sainduak badu bigarren amets bat.

Latraneko Eliza erortzera dohala ikhusten du.

Oro uzkailia, Eliza eder hori funditzera dohalarik, heltzen da gizon erromes bat eta bere sorbaldez xutik atxikitzen du.

Nor othe da gizon erromes hori?

Behatzen dio Aita-Sainduak eta Frantses eskalea ezagutzen du.

Atzarri-eta biltzen ditu berriz Kardinaleak. Frantses ere jin-arazten du. Eta huna zer erraiten dioten:

Erromes saindu hunek hazkarturen du Eliza katolikoa. Jainkoaren ageraldi bat izan dut ametsetarik, eta ikhusi dut Pobreziak behar gaituela phiztu eta alxatu. Bai, onesten dut Frantsesen Ordena; Jainkoak lagunt dezala orai eta bethi.

3° Pobreziarekin batean Garbitasun saindua zuen gehienik maite.

Uztailaren erditsutan, hamabi ehun eta hogoietan hiruan, negu bihotzean eta gau batez, San Frantses Asiesekoa othoitzean zagon.

Othoitzari oro emana dagolarik, agertzen zaio ifernuko etsai gaxtoa. Etsai gezurti hori gizon-gazte baten itxura ederrarekin heldu zaio. Lausenguz, aire ezti batekin erraiten dio:

Zertako bada holako othoitz luzetan akhitzenezare? Osagarri ttipia duzu, ez bortxa zure burua. Berzela erituren zare eta denbora gabe hilen. Ez othe dakizu gaua lo egiteko emana zeraukula? Ba, sinets nezazu, ez duzu gorphutza higatu behar, indar gehiago izanen duzu arimen konbertitzeko eta salbatzeko.

San Frantsesek berehala ezagutu zuen etsai lohiaren maltzurkeria; eta deusik ihardetsi gabe harren elhe xurieri, athera zen kuxian ganbaratik, joan zen ointhuts elhorri sasi baten ondora, eta han buluzirik jauzi egin zuen sasiaren barnera. Gorphutz guzia odolatan sarraskiturik ezarri zuen.

Hola garhaitu zuen San Frantsesek etsai lohiaren guritasunezko tentazionea. Eta ordu berean sasi guzia bethe zen arrosa ederrez. Elhorri ondo bakhotxa lorez aphaindurik ageri zen elhurraren artetik.

Ikhas dezagun hortik tentazione lohien hazkarki garhaitzen. Hola garhaitzen delarik, tentazioneak ez du edertzen beizik eta aberasten gure Garbitasuna.

Hazilean

Omiasaindu.– Ez dezakegu hemen deus hoberik medita ezenez besta eder hortako Ebanjelioa, Jesu-Kristoren bertze zonbait hitzekin. Huna beraz Ebanjelio hori:

Halako osteak ikhustearekin, Jesus mendirat igan zen, eta jarri zenean hurbildu zitzaizkon dizipuluak.– Eta idekirik ahoa irakatsi zituen erranez:– Dohatsu gogoan erromes direnak, zeren-eta hekiena baita zeruetako erresuma.– Dohatsu eztiak, lurraz baitire gozatuko.– Dohatsu nigarrez daudenak, direlaketz izanzen gozakariz betheak.– Dohatsu zuzenbidearen gose eta egarri direnak, aseak izanzen baitire.– Dohatsu urrikitsuak, ezen urrikalmendua ardietsiren dute.– Dohatsu bihotzez direnak garbi, zeren hek Jainkoa baitute ikhusiko.– Dohatsu baketiarrak, Jainkoaren ume deituak izanzen direlaketz.– Dohatsu zuzenarengatik nahigabetan direnak, hekiena baita zeruetako erresuma.– Dohatsu zarete, noiz ere ahopaldika ibiliko baitzaituzte, eta gaizki jazarriko baitzaizkitzue eta enegatik gezurrez zer-nahi erranen baitute zuen kontra.

Bozkarioz jauz zaitezte, zeren nasaia baitago zuen saria zeruetan.

Egiazki, egiazki diotzuet: Auhena eta nigar eginen duzuela zuek, mundua aldiz boztuko dela; baina

zuek atsekabeturik ere, zuen atsekabea bozkariotarat itzuliko da.

Emazte batek erditzean atsekabe du, ethorri baitzaio bere ordua; baina seme bat sorthuz geroz, ez da gehiago bere minaz orhoitzen, bozkariotan delakotz gizon bat mundurat emanik.

Eta orai zuek ere atsekabetan zarete; baina ikhusiko zaituztet berriz, eta boztuko da zuen bihotza, eta bozkario hori ez derautzute nihork khenduko.

Santa Añes Asisekoa

Sainda hori santa Klararen ahizpa zen, ja erran dugun bezala; ezagutarazi dugu nola burhasoek eta familiak egin ahal guzia egin zuten Klara ez nahiz utzi seroraterat, baina alferretan.

Bada hauxet gerthatu zen: azken entsegu bat bezala, familiak igorri zuen Añes bere ahizpa lausenguz eta balakuz bil zezan etxerat itzulzerat.

Baina osoki bertzela jua zen gauza: Klarak bere solas zuhurrez eta Jainkozkoez beretu zuen Añes hola-ko molde non hura ere seroratu baitzen ahizpa bezala.

Orduan familiaren hasarrea, kolera nolakoa izan zen, nork erran? Baina Jainkoaren laguntzarekin bere

xedean gogortu zen, deusek ezin kordokatu zuen. Bere ahizpa sainduaren etsenpluak ahalaz imitazen zituen.

Gau batez, othoitz khartsuan zagolarik. bere ahizpa Klarak ikhusi zuen lurretik altxatua eta hirur khoro ederrez khoroatua; ikhusten zuen ere Jesus-haurra agertzen zitzaiola eta eztitasun handi batekin besarkatzen zuela.

Bi ahizpak, Añes eta Klara urthe berean hil izan ziren; kasik elgarrekin hegaldatu ziren zerurat, elgarrekin hain khartsuki bizi izan ondoan, bethi eta bethi elgarrekin gozatzeko Jesus heren esposaren loria eta edertasun izarigabeaz.

Santa Elizabet Hongriakoa.

Elizabet Hongriako erregeren alaba zen. Haur haurretik ezagun zen saindutasun handirat helduko zela. Errege alaba, errege gortean Andre handi, nahi zituen atsegin eta plazerak bazituzken; nahi zuen bezen ederki, distianki bezti zitaken. Hein hortako Andre gazte bat ez guti baliatzen ohi da halako paradez. Bada Elizabet printzesa handia etzuten liluratzen ez handitasunak, ez munduko atseginek, ez banitatek. Dosteta eta libertimendu xoragarriak utzirik, bazohan

elizan othoitz egiterat, bazohan pobrer laguntza egiterat, erien ikhusterat. Karitatezko obra horietan zuen bere bihotzeko atsegina.

Turingeko printzearekin ezkonarazi zuten. Senhar noble hori ja giristino on bat zen; bainan printzesaren etsenpluek berthutean gorago altxarazi zuten. Etzuen den gutiena trabatzen bere debozioanean; nahi zuen libertatea uzten zion obra on eta amoina egiteko. Elizabet ongi baliatzen zen libertate hortaz, debozionez, karitatezko obrez bere bihotzaren gozotzeko. Eliza batean sartzen bazen, bere khorona burutik khendurik lurrean phausatzen zuen. Galdegiten bazaioten zertako egiten zuen hola, ihardesten ztlen: «Jesus, arrantzez khoronatuia izan da, eta ni agertuko naiz haren aitzienan urhezko eta zilharrezko khorona buruan? Jainkoak begira!»

Saindutasun handi baterat helzeko, behar dira jasan eta pairatu khurutze handiak, nahigabe minak; Jainkoaren probidenziak hola moldatu du sainduen bidea, Jesu-Kristo bera etsenplu. Elizabeti etzitzaizkon arren khurutzeak eskastu; haren senharra, printze ona, gerla batean hil zen, bihotzmin handia printzesarentzat. Alhargundu zeneko, bere koinatak eta haren emazteak gogorki persegitu zuten.

Azkenean Jainkoak altxatu zuen lurreko griña eta penitenzien artetik zeruko loria handirat, 1231, hazilaren 19an.

Abendoan

Ama-Birjinaren kontzebitze notagabekoa.- 1° Jainko-gizonari, Jesu-Kristori zor zitzaion haren Ama garbi izan zadien osoki bekhatu guzietarik, bai eta bekhatu orisinaletik. Beraz, Jainkozko bere amatasunaren ariaz, notagabe kontzebitua izan zen Andredena-Maria. Aita-Jainkoak egin zion dohain aberats hori, amoreagatik eta haren Jainko Seme bakharrak izan zezan Ama guziz garbi bat, iguzkia baino ere ederrago bat.- 2° Eta guk ere ez othe dugu Jesu-Kristo gu baithan Komunioneaz hartzen eta garreiatzen, Ama-Birjinak egin zuen bezala? Ai eta non da gure bihotzetako garbitasuna? Nola gare mahain sainduetara hurbiltzen?

Eguberriko besta.- 1° Huna zer dion *Kredoak*: Sinesten dut Jainko Aita bothere guzia duena baithan, zeruaren eta lurraren Kreatzailean; eta Jesu-Kristo

haren Seme bakhar gure Jauna baithan; zoina kontze-bitu baitzen Izpiritu-Sainduaren berthutez eta sorthu baitzen Maria-Birjinarenganik.- 2° Hau zen beraz gertatu. Jainkoak Maria-Sainduari bidali zion Gabriel aingerua, erraiteko nola behar zen izan Jainko-Semearen ama, mirakuluz eta gelditzen zelarik Birjina. Bere baimena eman zuen Maria-Sainduak: *Huna Jainkoaren neskatoa, egin bekit zure hitzaren arabera.* Orduan, Maria-Sainduaren odol garbiarekin Jainkoak formatu zuen gorphutz bat eta ezdeusetarik egin arima bat; gorphutz eta arima horiek elgarrekin bat eginik, bertu zituen Trinitateko bigarren Presunak, Semea deitzen denak; eta hola gelditu zen Jainko-gizon egina Ama-Birjinaren sabel sakratuan.

Gero, bederatzi ilhabeteren buruan, sorthu zen Jesus, mirakuluzki, utziz bere Ama osoki Birjina, lehena go zen bezain eder eta garbi.

Ama-Birjinarekin eta San Joseperekkin adora dezagun Jesus haurra, gure Jainko eta Salbatzailea.

Besta handi beraren gainean bigarren meditazioa.- Bigarren meditazione hau egin dezagun iguzkialdeko errege khartsuekin batasunean. Eta hortarakotz irakur dezagun Ebanjelio Saindua

Nola Jesus sorthu baitzen Judeako Betheleemen, Herodes erregearen egunetan, Magoak iguzkialdetik ethorri ziren Jerusalemerat, ziotelarik: Non da, sorthu den Juduen erregea? Ikhusi dugu ezen haren izarra iguzkialdean eta haren adoratzera gathortzi.- Hori aditzearekin asaldatu zen Herodes erregea, bai-eta Jerusaleme guzia harekin batean.- Eta bilarazirik apheznausi guziak eta populuaren Izkribauak, galdez zagokieten non sortzekoa othe zen Kristo.- Eta hek ihardetsi zioten: Judeako Betheleemen. Ezen hunela du Profetak izkribatu:- Eta hi, Betheleem, Judeako lurra, ez haiz segur xumeena Judeako handiennen artean, ezen higanik duk ilkhiren Israelgo ene populuari hotsemanen dioena.- Orduan Herodesek, Magoak ixilik deithu-eta, artha handirekin jakin zuen hekienganik zer mugaz agertu zitzaieten izarra.- Eta Betheleemerat igortzen zituelarik, erran zioten: Zoazte, haur hartaz arthoski argi zaitezte, eta aurkhitu dukezuenean, adiaraz dizadazue, nathorren ni ere haren adoratzera.- Errege entzun-eta, lothu ziren bideari: eta iguzkialdean ikhusi zuten izarra, hara non den berriz ageri, aintzinean zihoakiotela, baratu arte haurra zagoen tokiaren gainean. Izarra ikhustearekin, bozkario handiz boztu ziren.- Eta etxerat sarthu zire-

nean, aurkhitu zuten haurra bere ama Mariarekin, eta ahuspez emanik adoratu zuten; eta idekirik beren kutxak, eskaini ziozkaten urhea, isentsua eta mirra.- Eta lotan izanik Herodesganat ez bihurtzeko mezua, beren herrirat bertze bide batez itzuli ziren.

IV - KAPITULUA

Indulientzien eta pribileioen aurkitegia

LEHEN ARTIKULUA

Indulientzia osoak

Hirurgarren Ordenako guziek, kofesaturik eta komuniaturik, irabazten ahalko dute indulientzia edo barkamen osoa erraterat goazin egun eta kondiziotan.

I. Sartzeko egunean.

II. Ordena hortan Profesioea eginen duten egunean.

III. Hilabetekeo bilkura edo konfarantzan kausituko diren egunean: Eliza edo kapera publiko bat bisitatu eta han zerbeit othoitz eginez Elizako beharrentzat.

IV. Urriaren 4an, San Frantses beren Aitaren besta egunean; agorrilaren 12an, Santa Klara, Bigarren Ordenako amaren besta egunean; agorrilaren 2an, Andredena-Maria-Aingeruetakoaren besta; berzalde

Terziergoa altxatua den Elizari bere izena ematen dion Sainduaren bestan, eliza hura bisitatzuz eta han othoitz zerbeit eginez Eliza Ama Sainduaren beharrentzat.

V. Hilabetean behin, bakotxak hautatu egunean, debotki bisitatzuz delarik Eliza edo kapera publiko bat eta hartan othoitz egiten apurtto bat Aita-Sainduaren xedetaratzat.

VI. Perfekzioran aintzinatzeagatik zortzi egunez segidan erretreta bat egiten duten aldi guzietan.

VII. Hiltzeko orenean, Jesusen Izen saindua deituz, ezpainez ez baditeke, bederen bihotzez. Fagore bera ardietsiko dute, kofesioa eta komunioa ezin egitean, beren bekhatuez balin badute egiazko urriak.

VIII. Urthean bi aldiz irabaz dezakete barkamen edo indulgentzia osoa, Aita Sainduaren Benedizioa errezebituz eta othoitz eginez, Aita Sainduaren xedetaratzat. Kondizione beretan errezebituko dute oraino indulgentzia osoa. Absoluzioa, erran nahi da Benedizioa, emanen zaioten egunetan, huna noiz: 1. Eguberriz; 2. Bazkoz; 3. Mendekostez; 4. Jesusen Bihotz Sakratuaren bestan; 5. Mariaren bekhatu gabe Konzezioa bestan; 6. martxoaren 19an, San Josefe

Mariaren esposaren bestan; 7. buruilaren 17an, Aita San Frantses dohatsuaren Zauri Mirakuiluzkoen bestan; 8. agorrilaren 25an, San Luis, Frantsiako errege, hirugarren Ordenako Haurriden patroinaren bestan; 9. hazilaren 19an, Santa Elisabeth Hongriakoaren bestan.

IX. Hilabetean behin, erraten badituzte bortz *Pater, Ave, eta Gloria Patri* Elizako beharrentzat, eta seigarren *Pater, eta Gloria* Aita Sainduaren xedetarat, irabaziko dituzte Erromako Estazioeak eginez, eta debotki Porziunkula bisitatuz, Jerusalemeko Leku Sainduak, eta Jondoni Jakobe apostoluaren Eliza Konpostellen bisitatuz, irabazten diren indulientzia guziak.

X. Terzierak Mezako liburu Erromanoan Estazioeak markatuak diren egunetan, bisitatuz Haurridegoa ezarria den Eliza edo kapera bat, eta, han ohi bezala, othoitz eginez Eliza sainduaren beharrentzat, aberastuko dire egun hetan, eta tenplo edo kapera hetan, Erromarrek eta arrotzek Erroman dituzten pribilegio, ontasun hedatu guziez.

II - ARTIKULUA

Barkamen edo indulientzia ez-oseoz

Zazpi urtheren eta zazpi garisumaren barkamena izanen dute:

I. Hirurgarren Ordenan diren, edo, gizonki edo emazteki guziak, bisitatzuz Terziergoa altxatua den Eliza edo kapera bat, eta han othoitz eginez Elizaren beharrentzat, erraterat goazin egunetan: Buruilaren 17an; San Frantses patriarkaren Zauri Mirakuiluzkoen bestan; agorrilaren 25an, San Luis, Frantziako erregearen; uztailaren 8an, santa Elisabeth, Portugaleko erreginaren; hazilaren 19n, santa Elisabeth hongriakoaren; eta otsailaren 22an, santa Margarita Kortonakoaren bestan. Bertzalde Ordenako Aitzindariaren baimenarekin berek hautatuko dituzten bertze hamabi egunez.

II. Hirur ehun egunen barkamena aldi bakotxean irabaz dezakete, Meza sainduan, Elizako bertze ofizioetan, eta Ordenako bilkura publiko edo partikularretan kausituko direnean, eskale bati atherbea emanen diotenean, hasarregoen baketzen hariko direnean, prozesione batean aurkituko direnean, sakramendu saindua segituko dutenean, edo segi ez badezakete, ezki-la aditzearekin erranez behin *Pater* eta *Ave Maria*; orobat bortz *Pater*, *Ave* erranen dituztenean Elizako

beharrentzat, edo Ordenako Haurride hilentzat; ehorzte baterat joanen direnean, bere eginbidetik urrundua dena hartarat erakarriko dutenean; norbeiti Jainkoaren manamenduak eta bertze Salbatzekotz jakin beharrak irakatsiko dituztenean; edo bertze karitatezko obra holako zerbeit eginen dutenean.

Indulientzia horiek guziak, izan ditezen osoak edo ez, Terzierek eratziki detzazkete, hala nahi batute, Purgatorioko arimeri.

Hilabethian behin errateko sei *Pater, Ave, Gloria*, horieri badire eratzikiak asko indulientzia oso. Hala nola: Jerusalemeko lekhu sailduak bisitaturik; Erromako estazionetan ibilirik, Jondenaikin izanik, Porziunkula bisitaturik, irabazten diren guziak. Aski da intenzionea hartzea ahal diren guzien irabazteko. Orobat da habitu urdinarentzat sei *Pater, Ave, Gloria* erraten diren aldi guziez.

V - KAPITULUA

Zeremoniala Erroman Onhetsia

I.- Kongregazioneko biltzarreak

Hastean:

Veni, Sancte Spiritus, reple tuorum corda fidelium, et tui amoris in eis ignem accende.

Sub tuum praesidium confugimus, Sancta Dei Genitrix: nostras deprecationes ne despicias in necessitatibus nostris; sed a periculis cunctis libera nos semper, Virgo gloriosa et benedicta.

Respice, beate Pater Francisce, de excelso coelorum habitaculo, et deprecare pro populo tuo, populo quem elegisti, ut serviat coram te omni tempore in ministerio Domini.

Kyrie eleison.

Christe eleison. Kyrie eleison.

Pater noster, *secreto*.

V. Et ne nos inducas in tentationem.
R. Sed libera nos a malo.
V. Memor esto Congregationis tuae.
R. Quam possedisti ab initio.
V. Domine exaudi orationem meam.
R. Et clamor meus ad te veniat.
V. Dominus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.

Oremus

Mentes nostras quaesumus, Domine, lumine tuae claritatis illustra, ut videre possimus quae agenda sunt, et quae recta sunt agere valeamus. Per Christum Dominum nostrum.

R. Amen.

Bilzarre solanelean:

Veni, Creator Spiritus,
Mentes tuorum visita:
Imple superna gratia
Quae tu creasti pectora.

Qui diceris Paraclitus,
Altissimi donum Dei:
Fons vivus, ignis, caritas,
Et spiritalis unctio.

Tu septiformis munere,
Digitus paternae dexteræ,
Tu rite promissum Patris,
Sermone ditans guttura.

Accende lumen sensibus,
Infunde amorem cordibus
Infirma nostri corporis
Virtute firmans perpeti.

Hostem repellas longius;
Pacemque dones protinus:
Ductore sic te praevio,
Vitemus omne noxium.

Per te sciamus da Patrem,
Noscamus atque Filium:
Teque utriusque Spiritum:
Credamus omni tempore.

Deo Patri sit gloria,
Ejusque soli Filio,
Cum Spiritu Paraclito,
Nunc et per omne saeculum.

Amen.

Bazko denboran:

Deo Patri sit gloria,
Et Filio quia mortuis
Surrexit, ac Paraclito,
In saeculorum saecula. Amen.

V. Emitte Spiritum tuum, et creabuntur.

R. Et renovabis faciem terrae.

Oremus.

